

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**

**BALENTIN BERRIO-OTXOA**

**I BIZITZA  
II ESKUTITZAK  
III GORESPENAK**

**EGILEA: AUGUSTIN ZUBIKARAI**

**AZALA: FELIX BERISTAIN**

**ARGAZKIAK: ALBERTO RUIZ eta  
BERRIO OTXOA'REN IDAZKARITZA**

**LEGERAKO GORDETZA: BI-287-88**

**IRARKOLA: FLASH COMPOSITION - BILBAO**

## AURKEZPENA

*Aspaldion, bizkaiera argi eta errezez idatzitako Berrio-Otxoatar Balentineri buruzko liburuaren beharra dogu.*

*Eta aldiune honetan, behar hori, inoiz baino haundiagoa da, laster gure martiria deuntzat aitortuko dabe eta.*

*Baina horra hor, euskal-kulturearen alde jo-ta-ke dabilen Zubikarai-tar Augustin ondarrutarrak, dogun hutsune horretaz jabetuz, guztion gogoko izango dan eta bere idazkien zenbatekoa gehituko dauan liburu hau idatzi dau.*

*Hori holan dala, eta datorren udan Bizkaiak bertoko Deuna izango dauala kontuan izanik, bidezkotzat jo dot ni neu bertoko Nagusi naizeneko Foru-Aldundi honek bere biografia hau argitaratzearen alde egin daiala.*

*Eta liburu hau irakurriko dozun horri, Deun barriaren eta gure Bizkaiko Patri Zaharreraren arteko gauza bitxia adiarazi gura dautsut.*

*Loiolako Inazio gipuzkoarra zala eta bere ama bizkaitarra, eta Berrio-Otxoatar Balentin bizkaitarra eta bere ama gipuzkoarra.*


*Ez ete dago hor XXI mendeko euskaldunok kontuan izan behar dogun zerbait? Argiago esateko, ez ete da danok batzen gaituen nortasuna, hau da **euskalduntasuna**, banantzen gaituen edo banandu gaikeezan beste gora-behera guztiak baino garrantzitsuagoa? Izan daigun hori gogoan.*

*Aurkezpen hau amaitzeko, eskerrak emon gura dautsada Zubikarai-tar Augustineri, neure, Bizkaia eta bizkaitar guztion izenean liburu hau idatzi dauskulako.*

Jose Alberto Pradera Jauregui  
Bizkaiko Ahdun Nagusia



# I BIZITZA



*Elorrio'ko parroki Biak.*

# ELORRIO

Ezin ukatu leikio Elorriori fededunen erri nortasunik.

Or bere eliza eta baselizak lekuko: Augustin deunarena XI garren mendetik datorrena.

Dakigunez, emengo Memaia izeneko mendian Templarios-en elizatxo bat egon zan. Orixe zan eliza zaarra. Geroago, 1.053 garrenean asi ziran jasoten eliza barria, (quod dicitur barria) eta ortik Etxebarriako San Agustin elizea eta Elizatea. Elizea Tabirako kondeen lur ondasunen bidez egiña.

Or baita Andra Mari Sortzez Garbiarena, ospakizun orretazko leena Bizkaian, XV garren mendekoa.

Or, kate bat lez ingurua lotzen, bertako ernita zaarrak:

Gazetako andra Mariarena

Eta santuen bitartekotasuneko erreskada uze bat:

Argiñetako San Adrian, Zenitan.

San Anton, abata, Urkizuaranen,

San Bartolome, Miotan,

San Fausto, izen bereko kalean,

San Jorge, (Sangurri) Aldapen,

San Jose, Urkizuaranen,

San Juan Bateatzailea, Aldapen,

San Lorentzo, Leanizen,

Tours-eko san Martin gotzaina, Gasteetan, (1957.urtean jausi zan),

San Roke, Urkizuaranen, naiz eta gaur ormak soilik,

Santiago deuna, Aldapen,

Tomas deuna, Mendrakan,

San Esteban, Berrion,

San Urbano, Berrion,

Santa Eufemi, Araunetan,

Santa Katalin, Berriozabaletan

Santa Luzia, Igurian,

Santa Eugeni, Arabion,

Santa Katalin, Igurian,

Eta naiz eta gaur galduta, ezagutu ziran len Bitori, Elena eta Marina deunenak be.

Danak Euskalerrian, leengo gizaldietan, fedez eta maitasunez eta erromesez betetzen ziranak.

Or baita, ia irureun urtetan, (1.700.etik) dominikar monjen Ana deunarena.

Ori bakarrik ez.

Tarterik tarte, ikuspegiaren edergarri eta bide-kurutzetako oroigarri, or euskaldun zarren artean arri andietan landu eta iruditutako zoragarritzko kuru-tzeak:

Igurria bidekoa,

Elgetarako bidekoa.

Gurutzebarrikoa.

Ganondokoa.

San Juan Bateatzaile kalekoa.

Santa Anakoa.

Santa Elenakoa.

Gurutzondokoa.

Or gizonaren azken bakeari eskeinitako Argiñetako illobiak, gure aintzi-ñakoak euren deduei opalduten eutsezan betiko atsedeen-leku zoragarriak.

Eta or, giza-bidea erakutsi eta nortasuna emoten daben mendiak: Erdeilla, Amintar, Intxorta, Memaia, Mendisolo, Santa Eufemi eta santa Mañatzar, Udalaiz-Betsaide... Elorrioren inguru zabala berdetzen eta bertako arnasea garbitzen.

Bizkaiko Tello Jaunak Elorrio uri lez irasi ondoren (1.356. urtean), laster ormaz inguratuta ezagutu eben gure asabak. Eta sei ate, sartu-urtenerako, ormen bitartean.

Baina Elorrio ez zan gizon ertsi eta lotuen lo-leku izateko sortu. Or egozan bere auzoak inguruetan: Aldape, Arabio, Arauneta, Askarreta, Berrio, Berriozabaleta, Etxebarriako San Agustin, Gazeta, Gasteeta, Iguria, Leaniz, Lekerieta, Mendraka, Miota, Lirkizuaran, Zenita...

Eta auzokide lez Abadiño eta Atxondo, Berriz eta Zaldibartarrak, ate zabalagoak eskatzen, eta Arrasate (Mondragoe) Bergara eta Elgetarrak, gipuzkoarrekaz alkartzea eskatzen, euskaldunen jatorrizko bakardadea nasaitzen.

Ortxe jaio zan 1.827.eko Otsaillaren 14an, bere erria goratuko eban ume txiki bat.

## GURASOAK

Baserrietako birtute eta buruausteak bizi zituen Balendinen gurasoak.

Aita, Juan Isidro, baserrian oitu zan arotz lanetan, etxeari lagundu eta kalerako lanetan bizimodu errezago bat irabazteko asmotan. Oitura eta premiña.

Ama, Maria Monika, Anzuolan jaio zan, Galartza bailarako Urrutia baserrian.

Gaur etxe aretako orman, arri zapal baten, arro gogoratzen da an jaio zala Balendinen ama.

Onen gurasoak ugariak izan ziran. Seigarrena zan bera, baiña beste bi be ekarriko zituen geroago. Alaz eta ez luze bizi. Maria Monika, bederatzi urte eukazala, umezurtz egoan.

Eta baserrietan oi dana, eskola ikastearen truke, edo ta josten ikasteko, neska, oraindik neskato guri-guri, norok artu edo nora joan geratu zan. Ain zuzen, Elorrioko abade batek artu eban bere etxean.

Juan Isidro eta Mari Monika antxe ezagutu ziran, bata abade zerbitzuan egoala eta bestea etxe-konponketa eta eleiz lanetan erabilten ebelako.

Eta maitasunaren indarrez, Bizkaia eta Gipuzkoako odolak alkartu zituen.

Maitasunak ez daki urteei begiratzen. Oraingotan mutila gazteago, neska baiño, edo ta neska zarrago, ala nai bada, gertatzen ziran. Zeatz esanda, lau urte eta amaika egunen aldia euren artean.

Ezkondu eta bide latza artu eben.

Baserria aukeratu eben aterpetzat. Bearbada naitaezak ara eroan. Baiña





*Balentin'en gurasoak.*

batetik lengoak bertan, eta bestetik egunero lanera kaleratzeak, kezka barriak sortu eutsezan.

Elorriotik Gaztañetara kilometro bi egozan. Iñoiz labur, baiña eguneroko joan etorrietarako luze, kontuan eukita orduan ez egoala gaurko ibilgaillurik.

Ala, zor eta lor, kalean osotu nai izan eben euren kabia. Ain zuzen ezkondu ziran urtean erretako etxe bat, obeto esanda, lau ormetan geratutako leku bat egoan kale zarretako baten: Goienkalean. Batari kendu ta besteak lagundu, erostea lortu eben.

Ez eben etxea barrizatzerik amaitu, etorrenari jaiotz-aterpea emoteko. Auzo baten munduratu zan Balendin, euskaldunak jaiio barriei eskeintzen dakien borondatezko ondo etorri eta etxe-eskeintza ziurtatuaz.

## JAIOTZA

Oraindik Parrokietan egiten ziran bakarrik jaiotzen ziurtapenak.

Elorrioko Andra Mari parrokiaren bateatutakoen bostgarren liburuko bostean eta berrogei eta amairu garren orrialdearen atze aldekoan, (Lib. V. 553 orr.) onelako agiri au agertzen da:

Oiturazko zan gaztelaniaz ziurtapenak emotea. Guk alik zeatzen euskertuko dogu.

"Nik, Elorrio uriko eleiz parroki alkartuetako Arduradun eta Ogibidezko lez, milla zortzireun eta ogeita zazpiko Otsaillaren amabostean, umetxo bat bateatu neban, eta Valentin Faustino izentzat ipini. Esan eustenez, bezpera arratsaldeko lauretan jaiio zan. Juan Isidro Berrio-Otxoa bertan jaiioaren eta Maria Monika Aristi Antzuolan jaiio eta biak bertako bizilagun diranen legezko semea da.

Aitaren aldeko aitita-amamak, Jose Berrio-Otxoa eta Juana Garteiz, bertan jaiio eta bizi diranak. Amaren aldekoak, Jose Aristi, Antzuolan eta Ana Mari Belar, Elosuan jaiioak dira, biak Antzuolan bizi diranak.

Aita besoetako, Eusebio Uribesalazar eta bere arreba Amalia, emen jaiio eta bizi diranak, eta euri jakin eraso neutsezan artzen zituen gogozko senidetasun eta beste lotuerak.

Dana ziurtatzeko, izenpetzen dot.—" Jose Maria Eleizalde."

Geroago bateoko agiri onek beste askorenak bear izaten ez dituan egiaztapenak lortu bearko zituan.

Orrela, erabili bear zanetako baten au geitzen da:

"Agiri au, esandako liburu eta orrialdean datorren jatorragaz ados dator, eta berari buruz aitaturakoa Elorrioren izenpetzen dot, milla zortzireun eta irurogeita bigarren urteko uztaillaren lauan.- Pedro Guillermo Gangutia."

Zillu bat dago: "Elorrioko Sortzez Garbiaren Parrokia."

Gernikako Batzar Nagusietako Liburuan berridatzi zan agiri au, legeko aginduen arabera.

Onela diño:

"Legeztatzea.— Izenpetzen dogun Errege-eskribaduak, zilluzko paperik erabilten ez dan Elorrio eta Durango eta Bizkai Jaurerriko bere Merindadeko

kopuruko eskribaduak, Ziurtatu eta Egiaztatzen dogu: Egiaztapen ori egin dauan Pedro Guillermo Ganguria, berak deitzen dauan lez, urte onetan Elorrio uriko Sortzez Garbi parroko parroko ordezkoa dala, eta bere eskuz eta idazkerakoak dirala baimentzeko izenpe eta zirriborroa, antzeko agirietan erabiltzen oitua dan bardintsu.

Eta adierazpen orretarako, gure bakoitzaren bulegoetan izenpetzen dogu, milla zortzireun eta irurogeita bigarren urteko Uztaillaren bostean.

Saturnino Etxagibel -Tomas Areitio- Fernando Barturen.

Euskaldun zarren oitura igartzen dogu Balendinen bateoan: Eleizari edo eleiz gizonei itxi izena aukeratzea. Nundik, bestela, izen bi orreek ipiñi, senide urretan orrelakorik agertu ez-eta? Santuen epakta, egutegia garbi dago: Balentin, jaiotze egunean Eleizak ospatzen eban santuarena; Faustino, bateatu eben egunekoarena.

Gaur izen polit, jator, esaera errazeko eta abar billatu eta aukeratzen dira orretarako. Lengoak, guzti ori, Eleiz-menpetasun ordezkotzat erabiltzen eben, fedeari jarraitu eta parrokoari atsegin emonaz.

## AKOLITU ETA ESKOLA MUTIL

Euskal famili askok pozik ikusten eben euren semeak abaderen batek akolitotzat aukeratzea.

Naiz eta orretarako mutilla bera, lengo oituretan, goiztar izatera beartu eta gurasoak eurak, kanpaiak kanpai, larri ibili umea gertu ezinda.

Ni neu bere akolitu izan nintzan, lenengo mezak seiretan esaten ziran garaian, eta badakit askotan zelako aitzaki eta inkesak erabiltzen nituan ezin esnatuta, oetik urteteko nagikeriz, goizaldeko bost eta erdietan albako kanpaia jo eta ama deika sentitzen nebanean.

Gaurkoak ia galdu dabe akolituak aldaretan ikusteko oitura. Gaur erriak berak erantzun edo laguntzen dau meza erantzunetan. Leen naitaeko zan akolitu laguntzailea.

Eta emakumerik ez zan aldarara urreratzen. Orregaitik monjak bere, koroan egon arren, mutilla bear izaten eben aldaran abadeari laguntzeko.

Ez da arrigarria Balentin umeari be besteei gertatu jakena jazotea. Bera, bederatzi-amar urte ordurako akolitu sartu zan.

Ziurretik Balentinen akolitutza au amaren gogoko izango zan, edo bera-gandik sortua, gogoratu ezker bera ere umetatik abade zerbitzu eta giroan asi eta ezi zala eta gero be, bai abade-etxean eta bai monjetan, etxeko zala.

Dakigunez Balentinen denporetan Elorrioko dominikar monjak, Santa Ana eleizan, goizeko bostetan eukiten eben lenengo meza eta ara joan bear izaten zan.

Ezpai barik, akolitutza abadetzarako eskola izaten zan.

Balentin bide orretan ezagutzen da.

Asierako ikasketak erriko maisu zan Jose J. Etxebarriagaz egin zituan. Baina Monjen kapellaua zan Aita Mendoza-k zer ikusirik eukiko eban bere eziketean. Bearbada, geroago euki eban edo agertu eban dominiku izatea bere umetako zeregin orretan amestuko eban.



*Bateko Urbedeinkatu Ontzia.*

Latiña ikasten beragaz asi zan.

Balentin bizen badago akolitutzan oiturazko ez dan agerpide bat:  
Amabost urtedun zala, ordurarteko bere irabazien edo alogeren txartel bat ezagutzen da.

Txartelak au diño:

"Autortzen dot Santa Anako Monjetatik eun eta irurogeita amasei errial artu ditudala amasei ilabeteren buruan sakristian betetako zeregiñakaitik, eta ordain txartel au emoten dot komeni danetarako, eta bere, ziurtapentzat Elorrioren izenpetzen dot, 1.842.eko Uztaillaren 31 an."

Berio Otxoa tar Balentin  
(zirri-marratua)

Orrek esan gura dau, edo erakusten dau, Balentin, 14 urte betetzean, akolitutzan jarraituarren, sakristau zeregiñetan asi zala.

Monjak ez eutsela ezer ordaindu ia urte eta erdian.

Balentin gurasoak luzaro estu ibili zirala jakinda, lotsak kendu eta eskatzera ausartu ete zan gurasoei zerbait eroatearren? Edota berak bere amesetan erabilzan abadetzako ikasketak egiten asteko ardura eta premiñaz?

Edozetara be or dago txartela. Amasei illabetetako egunen alogera dala kontuan eukita, eguneko bederatzi zentimu ta piku pixkat. Txakur andi edo txori andirik bere ez.

Bitarte onetan Balentin akolitu eta eskola-mutil ezagutzen da, sakristau eta aitaren aroztegiko lagun, musika eta pelota zale. Batzuentzat dantza zale be bai, aurrekulari izatera bere eldu zala esanez.

Guk euskal mutil ezagutu daigun, erri jator bateko seme eta gazte, bertako jolas, joko eta oiturei lotua, bai eta iru anai arrebetatik zarrena zanez, anaia il arte besteen laguntzaille edo arduradun, amaren esanen menpean.

Orrelaxe amabost urte arte.

Eta gero... aitaren esanei makur aroztegian, naiz eta barruan ar bizi bat igarri, zirikalari, beste ardura guztien gain.

Amabost urtedun zanerako agertu eta erakutsi eutsan aitari abade izateko bere guraria.

Aita, ordurarte erositako etxea be ordaindu eziñez, zorrei erantzun eziñez ebillan, kezkatu. Ama ere ez ebillen osasunez gogor. Zer egingo eban berak bakarrik?

Ukatu bear semeari bere naia.

Balentin makurtzen da. Etsipena. Alaz eta aitaren esanetan zintzo eta apal jarraitu. Nik esango neuke erdi-arotz, erdi-fraile bizi, aukerako egokitasun bat agertu artean.

Orrela ikusi bear da bere Elorrioko gazte denpora.

## ABADEKI

Kalagorriko Obispadutzan sartzen zan Bizkaia aldi aretan. Ez egoan abadegaien ikastetxerik gure uri buruetan.

Logroño-n egiten zan urrena.

Arako eskabidea egin eban Balentiñek.

Aroztegiko langille zala, aitaren laguntzaille zala, Aita Mendoza, Santa Anako kapillauagaz latin ikasteari ez eutsan itxi.

Latiñagaz batera bestelako gaiak be ikasiko zituan.

Ikasteko oitura eta ardura igarten da beregan.

Antonio Konbeniosegaz egin zituan lenengo ikasketak, erriko eskoletxean. Bide batez, musika bere ikasi eban. Musikalari onak ezagutu izan dira Elorrión. Balentiñek flauta ondo jotzen ebala esaten da, eta Justo Bengoa musikalaria izan ebala erakusle.

Edozetara be gertaera ona eroan eban Logroñora, etxean konpondu eta joatera ausartu zanean.

Asieratik lenengo ikasketa orokorrak, klasikoak, ontzat emon eutsezan, etxean ikasita eroan eban latiñagaz baliatuta, eta Filosofiko urtetan sartu eben.

Orrek alegin geiago eskatzen eutsan, ezaupide zabal bat eukiarren, gai batzutan arintsu joan eikealako.

Jakiña da 1.845.eko Urriaren 27an eldu zala Logroñora.

Ango bizikera bere kartetan ikusten da.

Urteko oporretan etxera biurtu eta aitari laguntzen alegintzen zan, bere ikastarorik baztertu barik.

Abadeki zintzo, alai, makur, apal eta argia zala esaten dabe, bai bere lagunak, bai oporretan ezagutzen eben elorriotarrak.

Balentiñek bere bizitzan zotin eragingo eutsan akats bat eukan: langille baten semea zala, ondasunik bagako famili bateko semea. 1.165 errial kostaten zan urtean Seminarioa. Etxean ezin batu diru ori. Ain zuzen be, bere arreba Felipa Elbira, josten ondo egiten ebana ere, gaisotu egin zan.

Eldu zan Seminarioa joateko garaia. Inguruko lagunak agurtu eta bera etxean geratu bear, eziñez.

Negarrez, diñoie lagunak.

Urte bat, bi... etxean.

Bateri idatzi ta besteari dei. Bateri arren eta besteari oles.

Bere gotzaiñari be idatzi eutsan, besterik ezean laguntza erdika bat, beka txiki bat eskatzen, baiña erantzunik ez.

Orduko abadeak billatzen zituen meza aurretik parroketan euren lagun-garrizakoak, aldarán zerbitzuko onurak, benefiziadutzak. Bizitzako lagun-garri izaten ziran.

Ortik bere jokatu eban, inguruan utsik egon eikezan orrelako aukeretatik. Ala Elosuan egoan utsunea betetzeko leiaketan sartu zan. Azterketa onak baiña onurarik ez, an egoanak bertan jarraitu ebalako.

Alaz eta bere garrak, irakiten erabillan, abadetzari zelan edo alan jarraitze-kotan.


Tartetan Logroñora joaten da, ikastaro osoa egin eziñarren, aste batzuta-ko ikasgaiak artzera. Baikorra da orretan eta bereari eusten gotorra.

Ez dau ezetara lagunekin artu-emonik galdu nai. Begi onez ikusten dabe danak. Ez bakarrik ikasleak, bai eta zaindari eta arduradunak bere.

Alako baten Kalagorriko Abadegaien Seminarioa zabaltzen da.

An badago zuzendari baten premiña.

Adiskideak, besterik ezean, arako tokia eskatzen dautse beretzat gotzaiñari.



*Arotz ikasten jardutako maia.*

Azken baten Logroñon bertan eskeintzen dautse Zuzendari-Maisu ardurako zeregiña. Zuzendari baiño zaindari edo begirale izateko arduraduna.

Garai aretan Logroñoko Seminarioak eukazan Arauetan, ardura orren eginbearra au zan: lkasle gazteei kristau ikasbidea erakutsi eta azaldu; konzientzia aztertu eta pekatuak autortzen erakutsi; guztien arteko ekintzetara garaiz alkartzen alegindu; ikasketa eta jokabidea zaindu; atsedean orduetan mutillekin ibili; oneraspeneko ekintzak alik egoki, sutsu eta egitsu eragiten lagundu; gramatika ikasleei ikasketak artu; itzulpen eta ariketetan aolkuak emon eta alkar-arteo artu-emon eta gizabide-erabideko akatsak biguntzen alegindu.

Illean 100 errialeko irabazia emoten eutsen orregaitik.

Balentiñentzat zeruko atea zabaltzea zan ori.

Lotuera asko emongo eutsan zeregin orrek, Seminarioko txikien arduretana. Baiña berak baeukan ango bere gastua ordaintzeko aiñako aukera.

Zeregin orreri esker, 1.851. urteko Urtebarritik barrero Logroñoko atea zabalik eukazan eta abade ikastaroak jarraitzeko aukera, eta abadetza urte berean lortzeko era.

Alaxe, bere alegiñaren ondorenez, urte bereko Bagillaren (Ekainaren) 14an, Kalagorriko katedralean abadegintzako ordena artu eban.

24 urte beteta eukazan.

## ABADE

Euskalerrian, lenengo mezak, abade barrien mezak, ospe eta andikeriz ospatu izan dira beti.

Iñoiz larregikeri edo nabarmenkeriz bebai meza ostekoa.

Egon ziran meza barrietako gastu andiei buruz gotzaiñak egindako karta zitalak, neurriak artzen, edota agintzen. Azken baten alperrik izaten ziran, abadetza, euskaldunentzat, zeregiñjk altsu eta gorenena zalako, eta etxeko, senide, adiskide eta auzo eta erritarrak, danak alkartzen ziralako lenengo meza aalik eta poz eta ugaritasun eta aintzarik andiengan ospatzera.

Ia oiturazko zan bakoitzak bere errian lenengo meza eskeini eta abestutea.

Onetan, gurasoen etsipena igarrita be, Balentinek ez eutsen zorrik leporatu nai, eurak eta senide guztiak minduko zirala igarriarren.

Beretzat osperik onena, meza barri egun berbertan be, bere eskeintza ixilla egitea zan, apaltasunez beteta, bear zan lez. Eta alaxe, senideen naia igarri eta jakiñarren, Logroñon ospatu eban ango augustindar monjetan.

Oargarria da ortaz, eta egun orreri buruz, bere amari egin eutsan karta samur eta zentzuduna.

Bere idazkien artean XV garren agertzen da karta ori.

Eta esan lez egin be.

Oraindik urteak bear zituan ikastaroak amaitzeko. Teologia ikasten asteko egoan, abadetzako ordena artu eta meza eskeintzeko baimenak artzean. Orregaitik seminarioan bertan ikasten jarraitzeko aukera eta izentapenak lortu zituan.



Meza emoten asi ondoren, baeukan Elorriora ostera bat egiteko gogoia, etxeoak besarkatu, euren maitasuna sendotu, eta bera sakristau izan zan konbentuko monjei atsegin emoteko guraria.

Eta diñoenez, Uztaillarren azkenetan izan zan. Bera eta bere adiskide bat etxerantz etozala Elgetara eldu ziranean, alkarri agur egin baiño len, ango ostatu batera sartu ziran. Ogi arteko zerbait janaz, abarketa zuriak jantzi zituen. Zertarako? Pozaren pozez aurreku bat dantzatzeko. Ainbestekoa zan euren errietarako ekarren atsegiña.

Esan daikegu Balentinek bere euskal omenaldia egin gura izan eutsala abadetzara eldu zan berberari.

Atsedean aldia, Elorrion, ez zan luzea izan. Goizeko lauretan emoten ei eban bere meza Santa Anako konbentuan. Eta egunik geiena ikasketak aurreratzen.

Baekian, Seminarioan, bere Zuzendari izateak, zelako loturak emon eutsazan eta bere ikasketarako bere orduak lotn bear zituan.

Iru urte egingo zituan Zuzendari eta Teologi ikasle batera. Eta gero eta ardura, kezka, apaltasun eta maitasun geiago ipinten ebala diño, bere zeregiña ondo, zeatz eta iñor mindu barik betetzen.

Meza eskeintzen ipinten eban barruko-ontasun eta zintzotasuna arrigarri zirala esaten da, bai autortzak arretaz, sinismen biziz eta egiz egiten lagundu eta zuzenketak arduraz entzuten be.

Abade egin ondoren parrokirik ez eban artu, baiña Logroñon bertan, ango ikasleen zaintza eta ikasketen ardurekin batean, kaletar askoren gogo gidarritza eta ardura bere artu eban.

## FRAILE

Ez dira asko izaten, baiña egoten dira tartetan, abadetza artu eta parrokietak ardura eta apostoladutza orde, konbentuetako ixiltasun eta bakea billatzera aldatzen diranak.

Naiz eta abadetza bardin zaindu, -betirako da-ta,- konbentuen apaltasun eta eratasunean euren nortasuna galdu nai izaten dabenak.

Geienetan, orrelako aldakuntzak, barruko bizitza ixil eta gogorra daroen anaidi edo ordenetarako izaten dira. Bakardadetakarako.

Baiña aztu ete zan Balentin sekula umetatik bizi eban Ordena bateko eredu eta bertako kapillauaren aolkutza, eta monjen ontasun eta bizibideko zintzotasunagaz?

Zergaitik ez zan lenengotatik fraile sartu?

Ziurretik Balentinen buruausterik kezkatiena etxean egoan.

Gurasoak, ezkondu ondoren, zorpean bizi ziran, baserritik kaleratu eta euren egoitza gertuten.

Ez zan famili ugariko gertatu.

Iru anai arreba danetara. Bera, nagusiena; gero Juan Mari, bost urtedun zala potzu baten itoko zana, eta Felipa Elbira, neskatoa.

Arreba au elorriotar bategaz ezkondu zan, Jose Agustin Isasigaz, 20 urte eukazala. Etxera ezkondu zan, gurasoei laguntzeko, eta ezin ukatu laguntza egokia emongo eutsenik, jostun ona zalako.

Bein etxeko bizimodua erdi nasaituta ikusi ebanean, asi ete zan Balentin bere bizitzan geroago egingo eban aldaketan pentsaten?

Iru urte abade eginda gero, Balentin, bat batean, Loiolan agertzen da gogo jardunak egiten.

Aita Morey jesulagun jakintsua zuzendari.

Balentinek, lendik bere gerorako jokabideko irizpidea erdi artuta eukiko ebanarren, erabagi sendo bat artzeko gogoia agertzen dautso. Jesulagun?

Badirudi zuzendari a etxera tengadaka asi balitz, Balentin artara makurtuko zala. Baiña Aita Morey-k ez eban zalantzarik euki: bere txikitako ametsak betetera aolkatu eban. Domingo deunaren ordenara zuzendu.

Loiolatik Elorrioratzen da. Egun batzutarako. Igarri ete eutsen an ze burubide ete erabillan?

Eta etxean?

Zelan urratu gurasoen poz eta bakea?

Konturatzeko da, edozeiñegaz be bere urduritasun, kezka eta barruko asmoen burruka.

Andik Logroñora biurtzean, igarri ete eutsen betiko agurtzeko "iges" egiten ebanik?

Logroño-ra elduagaz batera asten da Dominikoetan sartzeko eskabide-tan.

Ez eban oztopo andirik bitartean euki.

1.853.eko Urriaren 9an Balentiñek agur egiten dautsa Logroñori, Ocañara joateko.

Ez an ezer esan barik, bestela oiñez asi bearko zan ibillaldian-eta, ez eukalako ortarako dirurik. Baiña etxekotzat artzen eban Soret familiak, 210 errial emoten dautsaz bidaia ordaindu al izateko. (Dámaso Amigo-ri kartan, 12-X-53).

Eta Logroño-tik zuzen doa Ocaña-ra.

Zelan jakin eraso ete eutsen gurasoei bere erabagia?

Ba dirudi ezer esan barik joan zala.

Bere kartetan ez da ezer billatzen, baiña bai 1.853. urtearen azken aldian Ocaña-tik egindako karta baten igarten da, ama zerbait minduta egoala, etxekoei agurrik egin barik joan zalako. Arinkeriz jokatu ebala Logroño-tik era aretan urteteen...

Alaz eta ezin ukatu bere poza. Eta alperrik egingo zituala, diñotso amari, alegin guztiak, atzera eragiterik lortuko ez ebalako. Ocaña-ra joanarren, profesia egin arte ezin ziurtatu eikiala lekaide izango zanik. Amarentzako aitzaki txikia zan ori.


Edozetara bere Balentin Ocaña-n dago.

Erraztu egin ete eutsen berari frailetzako bizitza?

Badirudi an sartu eta gero, nobizioei eskatu eta eragiten eutsezan gauza asko, batez bere zerbitzu, garbiketa eta beste zeregin asko, berari kendu egiten eutsezala. Orregaitik minduta lez agertzen da baten esanaz: Uste dot ez nazala frailetzan asi, egin bear neban bidetik.

Ocaña-ko Ikastetxeko agirietan irakurtzen dan lez, 1.853.eko Urriaren 27an amabost gaztek egin eben dominikotarren jantzi artzea eta beste bik donaduena.

Zarrenetik gaztenerako zerrenda agertzen da eta ain zuzen be lenen



*Dominikotarren Ocaña'ko etxea.*

(beraz zarren) Balentin agertzen da, Elorrioko seme eta Kalagorri-ko Obis-  
paduko dala esanez.

Urrengo urteko agirian ikusten danez, amabostetik amaikak egin zituen  
euren botoak, Azillaren 12an.

Eta agiri onen alboan, Fr. Cayetano García Cienfuegos-ek izenpetuta, gei-  
garri au ipiñita dago:

"Fr. Balentin Berrio Otxoa.-Fraile zeatz eta edozetan bere akats bakoa,  
deuntasun eredu, gizon zuzena. Gotzain sagaratu zan eta Tung-kin'nen  
1.861. urtean martiri illa, Hermosilla jauna eta Aita Almato-gaz batean, orrela  
bere sinismenaren testigantza argia emonaz.

Ikastetxe onetan bere nobiziokide izan nintzan eta bere deuntasunaren  
testigu."

Oiturazko zan lez, besteekin batean, eskeintzak egitean, Balentinek  
misiolari joateko eskeintza be tartean egin eban, Ordenako Nagusiak ala  
eritxanean, bai eta berak euki leikezan ondasun edo artzekoen ukapena be.

## INDIETARA

Euskal kantu zarra da:

Joan bear dogu urrutira,  
bai Indietara...

Indiak zituen elburu emengo aginpidea zabaltzeko garrez, lur barri billa  
ebiltzan erregeak.

Indiak, aberastu nairik ezagutzen ziran merkatari ameslariak.

Indiak, bardin, eleiz-gizonak, sinismen eta errege zerbitzuak erdizka ia  
batera erabillezanak.

Eta Indiak, baiña besteak, latzagoak, ezezagunagoak, Ocaña-ko fraileak  
lez, Asia aldeko leku zabaletan, Filipinas eta inguruko ugartetako arimen  
egarri, kristiñau amets eta garrez joaten ziranenak.

1.856. urtearen azkenetan zan.

Balentiñen profesako eskeintza ez eukan aaztuta bere Nagusiak.

Asia-rako aukeratzen ziran misiolariak borondate andi eta biotz oneko  
misiolariak izaten ziran.


Joan bai, etorri ez, zan misiolari areik euren aurretiko geienetatik ekiena.  
Tonkin-etik zein biurtzen zan? Eta berak, naiz eta Nagusiak zer agindu a  
bete, berak Tonkin eukan bere ametsetan.

"Ez noa ez urre, ez zidar billa, idatziko eutsen gurasoei, niretzako eta bes-  
teentzako zeru billa noa".

Alaxe, 1.856. eko Abenduaren 28an, sei dominikotar fraile agurtu zituen  
otoi eta errege artean, Ocaña-n.

Cadiz-era joiazan, an "Hispano Filipina" ontzia artzera. Ez ziran bakarrik  
joango. Cadiz-eko uretan, ontzi berbertan, beste fraile augustindar batzuk  
bere bide bardintsua artuko eben. Baita 30 frantziskotarrek bere.

Itxasontziak ez eban eukiten osterarako egun zeatz eta jakiñik, aizeak,  
ekaitzak, sargoreak, korronteak eta abar, gizonen indarra gainduaz batera,  
beren euspina be kontuan euki eragitera makurtzen eben.



Dirudienez, Balentinek, Cadiz-era eldu eta itxasontziaren urteera arte ez dautse negarrik eragingo gurasoei, bere ibillaldia jakin erazo eta agurtuagaz.

Dirudienez, Cadiz-eko Baian uste baino egun geiago egin zituen, danak batu arte edota itxasontziko goraberak atondu arte, urtarrilaren 29an asi ziralako itxas zabalera sartzen.

Naiko zoritxar eta naigabe euki eban onek, alaba bakarraren eriotzagaz, eta andik egunetara, berak sortu barri eban neskatxoaren aingerutzeagaz.

Orain baekian euren bakardadea geiago itzalduko eutsela, baiña itxaso zabalak eragingo eutsan berari bere urrungaizaren zotiña. Eta ziurretik, itxas ibillerako gau ixil eta luzeetako oroipenetan, Elorrion aiña malko ixuriko zituan berak ere. Naiz eta berak amari urrengo baten idatzi, itxas erdian lo nasai egiten igaro zituela gau asko.

Urrungaizak ba dakiz etxekotasunak geiago gogoratzen ere, eta Balentin bere, Manila-tik amari egindako lenengo kartan, bere deitura eta goitzenagaz gogoratzen dautsa bere erri-izena: Mari Elizalderen semea.

Itxas ibillera luzeak eten egiten zituan gizonak. Eta euretan batzen ziran sukarrak be jota laga ibiltariak.

Balentiñek be igaro zituan bereak "tertzianen" aizeak jo ebenean.

Alaz eta fraile ugari batera joiazalako, alkar zaindu eta adoretzen, parroki andi baten lez eleizkizunak egin eta jaiak ospatzen, Aste Santua gogoratu, Andra Mariaren illa itxastarrekin batean ospatu eta abar, bost illa bete ondoren eldu ziran Manila-ra.

Manila-ko sarrera, gogoangarria izan zan.

Angoak kanpai eta kantuz, txalo eta Te-Deumka artu zituen, misiolariak ango lurrei musu emon eta euren eldueraren poza agertzen eben artean.

Baiña Manila, geienentzat, ez zan azken portu izaten, geroagoko bide kurutze eta ontzi aldatze baiño.

Orrela, Balentin be Manila-n bost illabetetan geratu zan, eta an egoala Tonkin Erdialdeko Bikaritzarako misiolari aukeratua izan zan. Berak diño, aurrez berak eskatu ebala toki ori. (Aita Cuartero-ri idazkia, 58-2-23).

## TONKIN-ERAKO GERTUTEN

Manila-ra eldu eta bereala misioirrik zital eta arriskutsuenera joateko gogoagaz agertzen dau.

Eta bereala asten da bere lurralde barriko izkuntza ikasten, anamitarren izkuntza.

Geroago jakingo dogu, bein bere tokian sartu zanean, an egiten dauzan "pastoralak" bere, bertako izkuntzan egiten dauzala. (Ikus, Tonkindarrei pasterala).

Diñoenez, bost izkuntza erabiltzera eldu zan: euskera, gaztelania, frantzerara, latiña eta tonkindarra.

Balentiñen bizitzan, jaioterriko izkuntzaren lotuera eta tokien tokiko izkuntzetako lotsa igarten da.

Naiz eta aitari erderaz idatzi, baten ezik, amari beti euskeraz egingo dau-

tsa. Bardin Ocaña-n ezagutu zituan euskaldun monjei, bere ordenakuak izan ezarren.

Manila-rako ontzian joan ziranen artean, euskaldunentzat oroipen berezia gordetzen dau. Ala diño, tartetan ontzian euskeraz egiten ebala, lau euskaldun batu ziralako bidai berbertan: frantziskotar fraile bat, otxandiotarra; Irundar emakume bat; itxasontziko maiordomoa, bermiotarra eta bera.

Balentin ia urte erdi egon zan Manila-n, misiolari ezaupideak artu eta gertuten.

1.858. urte asieran Macao-n dago.

200 milla Manila-tik ara, eta badirudi gero eta urrerago ikusten dauala eroan bearke dauan bizitzaren arriskua.

Misiolari izatea erdi eskutuan, gauaren illunpean eta lapurretan lez eroan bearreko denpora eta tokietan sartzan ikusten dau bere burua.

Macao-tik idatzitako kartetan sarri gogoratzen da datorkiozan arriskuek; gogoan daukaz ango erriaren gosete eta txirotasuna; gogoan ango giroaren zakarraldiak; gogoan ango martirio, baitura eta erasoaldiak, nekez baiña ziur jakiten diranak.

Eta gero eta geiago igarten dau beretzat lagunuen otoitzen premiña eta adorez eta aolkuz idatziriko mezuen premiña.

Zergaitik eskatuko ete eban Balentiñek Tonkin-era joatea?

Badirudi Tonkin-eko misiolaritzak arrisku eta sailtasun andiko ardura eta ekintzaren entzutea eukala.

Tonkin aldean kristautasuna sartu nairik jesulagunak asi ziran lenengo. 1.624. urtea izentatzen da, lenengo elduerako lez. Dominikotarrak berrogeita amabi geroago eldu ziran, au da, 1.676. urtean. Badirudi lenengo urtetan oztopo andi barik ibili zirala, eta ango erregeak be, orduan Portugal-ek eukan entzutea gogoan eukita, eta ango agintariekin artu-emonetan asteko gogoz, ez ebela eragozpenik ipini. Baiña 1.719. urtean igarten da aurkako lenengo joera bizi bat, Tunkun-eko errege zanaren aldetik.

Bake aldi bat lortu eben, baiña 1.770. urtean barriro sortu ziran asarreak eta eragozpenak, ordurarte jasoak egozan eleiza eta ekintza beratzeak eta ordutik aurrera, Manila eta Macao aldera joaten ziran misiolariak bakea eta on-ikusia igarten baeben bere, andik aurrera joatea martiri izateko bideak sartzea zala baekien.

Badirudi martiri izateak, aurrez artegatu edo bildurtu barik, Balentin ortara adoretuta joan zala, berak karta baten esango eban lez, borreguaren aiztoa noznai zaman aurkitu eikean lurraldera.

## TONKIN-EN


Balentin gabaz, eskutuan eta mozolo lez sartu zan Tonkin-en.

"Borreguaren aiztoa misiolariaren zaman noznai agertzen dan errialde baten sartzeko bezperetan nago".

(Casimiro Soret-eri idazkia, 1858.eko Otsaillean)

Geroagoko beste karta bat irakurri aal izango dautsagu:

"Ile bi daroaguz uri onetan (Macao-n) gure misio maitean sartu aal izateko aukera billa".





(Aita Cuartero-ri idazkia, 1858-11-23)

Karta berbertan beste au:

"Amar egun barru Tonkin-erako bidea artuko dogu. Ez dakigu zelako zoria eukiko dogun an; ez dakigu zelako lotuera eta larritasunak geratuko diran bertan guretzat".

Geroago, Aita Ginzari, 58-3-1'ko kartan:

"Il onen 4 edo 5ean, beladun itxasontzien baten ibiliko gara, gure bide bardina daroen beste 30 txalupa txinarrekaz batean..."

"Txinar batek esan euskuenez, aurreratxago joan ziran frantzetar misiolari bi atxilotuak izan ziran sarreran, eta zidar barra batzuekin erosi eben euren askatasuna".

Esaera oneek orrela, noiz sartu ete zan Balentin lurralde orretan? Zeaztu ete leike egunik?

Orduko kronika eta idazkiak diñoe, egun zurrrik esan barik, "azken baten itargiaren argitan lortu ebala arerioen zaintza eta ikus-ardura gaindu eta sartzea, eta leenengo egin ebana Aita Jeronimo Hermosilla, gero martiri izango zana eta misio aretako gixuren zanari bere onspena eskatzea".

Beranduago billatzen dogu sarrerako egunaren azterrena:

"Gure Tonkin-go sarrera Aste Santuko martitzenean izan zan, gauaz, eta igarri gendun Sion-eko bideak baltzez jantzi ziralako an eta ez egoala iñor aste santuko jaietara joango zanik, danak etsita bizi ziralako. Abadeak euren eskutuetan eskutauta, zeruetara negarrez otoika, eta Tonkin-eko eleiztalde txikia naigabez beteta".

(Aita Orge-ri, 1.858-VII-14)

Tonkin-en sartu-orduko, berak ezetara nai ez dauan izentapen bat artzen dau:

"Jaunak Bikario Apostoliku ordeko izendapena bialdu daust, eta nik ez dot billatzen nire lepoa onetan ipini aal izateko bitartekorik, nire jobide eta pen-tsabide guztien aurkako dalako".

(Aita Riaño-ri, 1858-IV-10)

Egun berberean erantzuten dautso ordurarte Bikario zanari, aal bazan kaliz a berari kentzeko. Eta ez bein, iru bidar bere egiten dautsa eskaria.

Andik egun bira, beste idazki bateri erantzunaz, makurtzen dala diñotso.

Orra Balentin, Bikario ordeko egiña, Gotzain laguntzaile, lagun artean... baiña jazarpenak ezagutzen.

Leenengo astetan Trung-le auzoan egon zan erdi eskutauta. Laster igaritzen dau bere atzetik dabiltzela eta igestu bearrean aurkitzen da.

"Azken gauean Tra-lu-ko gure kobatxoa itxi bearrean aurkitzen gara, eta beladun txalupa baten beste portu batera aldatzeko. Tonkin-en nagonetik itxas ibillerarik luzeena izan da, ia gau guztian ontzian ibili nazalako. Egun sentiagaz batera eldu gara Xuan duc bg-an-era".

(1.858-VI-17)

Ez dago an bere bakerik.

"Gau onetan bapore baten antzekoan ibili gara, eta orain, goizeko zazpi-retan, lurra jo dogu. Ikusiko dogu gauean nora eroaten gaituen. Diñoenez, Aita Estevez dagon tokira".

(1.858-VII-3)

Aste bete geroago beste zoritxar bat: Bere Bikario Nagusia atxilotu egin

dabela diñotse: "Bart gaberarte ez geunkan ziurtasunik, baiña ezpai barik jakin dogu San Pedro Bikarioa uriburura eroan dabela. Nire aldetik ez nago gizonen laguntasunik eskatzeko bere erosketarako: Ori dala eta, inguru are-tako fraile batzuen aldaketak egiten ditu (1858-VII-10).

"Kate astunez lotuta eta kaiola baten sartuta eroan dabe. Bespera gauean eskutauta egoan erritik urten eta gau guztian ibili zan, igesteko biderik ezin billatuta, bide guztiak soldaduak artuta eukezalako".

(Aita Orge-ri, 1.858-VII-14.ean)

Egunak igaro aala giroa garrastuten igarten da.

Ocaña-ko erretoreari Abuztuan egindako kartan illunago dator:

"Gure Jaun agurgariaren ondoren, beste lau bertako misiolariei euren buruak ebagi dautsez".

Aurrera jo daigun, Balentin bere aurrera doalako bere alegiñetan eta bere estutasunetan.

"Arañegun, bazkaltzen nengoala, albiste au emon eusten: Mandariña Aita Doan-en etxean sartu zala. Egia ete zan jakitera bialdu nebazanak biurtu ziran esaten Xa lien, nire ugazabaren etxean bere sartu zirala.

Ori entzun eta bereala kobara jatxi nintzan, eta an ondo sarratua laga nin-duen etxeokak.

Adierazo neutsen tartetan etorteko, zer gertatzen zan jakin eragiten, baiña orduak ordu igaro ondoren, ni asi bear izan nintzan atea barrutik jo eta deika, larri, txarto egindako koba baten gaitz dalako bertan arnasa artu eta bizitzea".

"Atzo etorri zan Prefektoa Ne-ra; an bertan dagoz fraileak, baiña erritarrak bildur dira, diñoenez salataria bertakoa dalako.

Ni koba egalean gertu nago. Apostu egingo neuskizu, eun lagun etorrita be, billatu ezetz.

Errialdetik kanpora jaurtita be, gaitz da gu arrapatzea, daukaguzan leiza eta kobak eukita, gure jarraitzaileen artean Judas txikien bat egon ezik".

(Aita Riaño-ri, 1858.eko IX-2ko idazkian)

Egun batzuk geroago bere Aita Probintzialari idatzia billatuko dogu.

"Misio onetako lagun premia ezagutzeko, ez dago besterik urte beteren barruan iru Nagusi galdu dirala ikustea baiño: Diaz Agurgarria, Meltxor Agurgarria eta Salgot probintziko Bikarioa.

Orregaitik, Zuri eta Misioeko Aolkularitzari eskatzen ausartzen naz gure erruki euki dagizuela, eta gure egoera ikusita barrien batzuk bertarako auke-ratzen badozuez bere, oraingoz ez bialtzeko, edota bialdu ezkerro, ez daitezala Macao-tik onuntz etorri, orain ez dagoelako emen eurak nun eskutatu.

Gauzak baretzen diranean, ontaz bear dana jakin erasoko dogu. Bitar-tean, aukeratuak izan diranak, otoitzean eta ikasten jardun dagiela. Elizalde txiki au jaso aal izateko, bearrezko izango dalako arpegiko izerdi askoren truke ogia jatea.

Akatsak zuzendu. Nik ez daukat denporarik idatzi dodazanak barriro irakurri eta orraztuteko".

(1.858-IX-7)

## ERROMA-RA KONTU EMOTEN

Balentin 1.858.eko Iraillan asten da Erroma-ra Bikaritzako kontuak bialtzen.

Gotzaiña da eta zeregin ori bete bear dau.

Zalantza asko gotzain ardura ori artu bear ete eban edo ez. Bearbada, bere Ordenako arauen bat gaineztu bear, edo arentzako aitzakien bat ziurtatu.

Berak, ardura ori artzen badau, Misioiko egoera ikusita, edozer gertatu ezkerok, nork erantzun gelditzearren da. Ala erakusten dau ainbat bidar, beste ainbestetan zeregin ori artzeko gogorik eza agertzen dauan lez.

Sagaratzea, diño berak Probintzialari egindako karta baten (1.858-IX-7) ixilean eta eskutuan egin zan, "mandarinak ez euskuelako itxiko erriaren aurrera urtetan, guri bizia kendu eta gure kristiñauai laido ugari egitea nai ezik".

"Sagaratzeko aurreko egunetan, benetan larri ibili giñan: jantzirik bere ez gendun, eta guk josi genduzan aurre egunean, zelan edo alan batzuk. Esker-rak sagaratzea baiño ordu batzuk leenago, itxurazko jantzi batzuk ekarri euskuezala".

Orrela, Probintzialari egindako egun berean bialtzen dau Erroma-ra bere leenengo agiria.

Lau zatidun karta luzea da.

1—Tonkin Erdialdeko Bikari Apostolikuak eta bere zerbitzari bik eroape-nez artu eben nekaldiaren kaliza.

2—Fedeagaitik espetxeratuak izan diranen egoera eta nekeak jazan eragin ondoren, erbesteratuak izan diranak.

3—Bikaritzako egoera.

4—Bikaritzazuzendu edo jaurritzeko bearko dituan baimenak.

Zati batzuk agertuko doguz zeaztuteko.

"Uztaillaren 28an eroan zituen iru Kristoren jarraitzaille urkatzera. Mandarin, soldadu, elefante eta zaldi ugari batu ziran, eta euren aurretik Iparraldeko atera eroan zituen Kiep eta Hien anaiak, kanga bat eroiela zamatik lotuta...

(Kanga-uztarri astun bat).

Eta zigor lekura eldu ziranean, soldaduak taldetan banatu, borrreru bat eurekana urreratu, aga bi lurrean sartu, mutillak eurei lotu eta ordubete inguru euki zituen zigortzen.

Onen ondoren Gotzaiña atara eben Sorkaldeko atetik, eta uri erdian erabili merkatarien aurrean. Breviariora eskuan eroian, eta ez eban itxi, Iparraldeko atera eldu eta an bera lotzeko eroian 70 libra pixodun kateari besarkatzen asi arte.

Ogei borrreru bere inguruan, ezpatak aidean zituela.

Gotzaiña basaz beteta eta busti-busti eginda, toki urtsu eta basatietan erabili ebelako.

Bere zerbitzari bien aurrera eroan ebenean, bedeinkatu zituan.

Gero, mandarin batek, elefante baten gaiñetik, turuta jo eta urkatuak izan eitezala agindu eban.

Orrela lenengo, iru zasztadetan, Kiep-en burua ebagi zan, eta borrreru batek artu ta aidean jaurti eban.

Ondoren, beste borrreru batek len-eri zaztada bategaz burua ebagi eutsan eta leengoaren antzera aidean jaurti.

Gero bien gorpuak zulo batera jaurti zituen. Zulo au arantza zorrotzez betea egoan, eta ara jaurti ondoren, elefante bateri zapaldu eragin eutsen zulo a.

Gero borrreru batek, zareta edo azpiko oial bat zabaldu eban lurrean, eta kateak etenaz, Gotzaiñari bertan etzan eragin eutsan, gora begira.

Gotzaiñaren gorputza erdi biluzik egoan, galtzak iztarreraiño bakarrik jasota.

Ondoren borrreroak tenteko aga bi sartu zituen lurrean, eta Gotzaiñaren eskuak bertan lotuta, tengadaka erabili zituen euretan lotu arte, eta beste aga bi geiago lurrean sartu, gorputz guztia, ia buru ingururairiño, euretan lotzeko. Beste aga bi geiago ziurtatu eta oiñetatik tengadaka euretan lotzea lortu eben.

Orrela, etenbako oiñazetan euki ondoren, mandariñaren abotsa entzun zan esaten: leenengo eskuak ebagi, gero besoak, gero burua eta azkenez zabaldu bere erraiak.

Eta borrreruak, zorrotzu bako aizkorekin, leenengo eskuak eta oiñak ebagi eutsezan, egurra ebagiten dan antzera.

Bernak belaun ingurutik ebagi eutsezan, eta bat ebagiteko amabi zaztada bear izan zituen, eskuak ebagiteko sei.

Ebagiten iarduen artean, Gotzaiña Jesuska ibili zan, baiña bein bernak ebagi ondoren, indar barik geratu zan eta mutu.

Gero borrreru batek, amabost zaztadetan, burua ebagi eutsan.

Azkenez, bere erraiak zabaldu, eta gibela eta beaztuna atara eutsezan.

Geroago burua artu eta Eguerdira begira dagoen atean eskegi eben, eta gibela eta beaztuna Sorkaldera aldekoan.

Urrengo egunean, Uztaillaren 29an, burua zatituta, uretara jaurti eben gauean.

Guzti au misiolariak esanda lez adierazten dot...

Fr. Balentin, Gotzaiña

Esan bearrekoa da, Balentin Gotzain lez sagaratzea (konsagratzea) 1.858.eko Ekainillaren 27an egin zala, eta ez eleiza baten, kristau baten etxean baiño.

Eleizkizun onetara San Pedro gotzaiña, Riaño Aita Bikarioa eta Aita Carrera batu ziran, eta tonkindar beste iru abade. Goizeko ordubietan ospatu zan sagaratzea.

## **BEROTASUNAK ETA TXIKIKERIAK**

Balentin bere arduretan asperbako eta ekiñfaleko zala igarten da.

Arduratsua.

Arriskuan ikusten eban bere kristau-taldea eta bere Misioa. Bertako misiolariak eskutuetan, kalean agertzeko indar eta adore barik. Baiña zuurra zan eta ez eban nai barririk bialtzerik, bertako ezaupide barik joan ez eitezan.

Alaz eta minduta agertzen badaki. Eta benetan sentitzen dauana, adierazten.

"Ai ene Jauna! Gure pisu au eroaten lagundu bear leukenak, eurak dira arindu bearrean astuntzen dabenak. Aita barrien premiña andia dogu. Alaz eta badagoz bost edo sei martirioaren grazia opa dautsedanak, bide orretatik zeruetara joan daitezen".

(Aita Riaño-ri karta, 1.858-IX-22)

Zorrotza zan epel, bildurti eta nagiekin.

"...eta Aita areri idatzi egiozu, gertu egon dedilla Kristoren ardiakaitik jasatzeko (sufritzeko). Zerbait gertatu edo igarotzen danetan, ez dedilla kikili-makalan ibili".

(Aita Riaño-ri, 1.859-11-15)

Bat berotzen danean, santurik andienak ere bere urteera bizi eta zolia euki lei. Gordin, lizun, zakar edo txikikeriren bat. Aidean galtzen diran bat-batekoak, brastadakoak.

Balentiñen idazki baten onelako au billatzen da: Caracas! Zerbait esan eutsan bein Aita Bikario Probintzialak monjetaz eta berak zoli erantzun: "Gure Arreba maite-maiteak exkomikatzea nai? Gogorra zara zeu be, Aita agurgarria! Caracas! Itxaron daigun, gure Jaunak bere eroapenez itxaroten badaki eta!

(Aita Riaño-ri, 1.859-2-15)

Caracas! zelako penitentzia eskatzen ete dau bat bateko urteera onek?

Bizkaiko astotxo oneri...".

(1.859-2-18. R.Gimeno, Cebu-ko Gotzaiñari)

Bizkaitarrok beti euki dogu indartsu eta datorrena lepoan artu eta eroaten dakigun entzutea.

Berak bere kartan orrelako esaera azpimarratuta ipintzeko, zerbait adierazo naiko eutsan.

## BESTE URTE BETEKO GORABERAK

Beste ia urte bete geroago, Fedeko Zabalkunde Alkarteari agiri barri bat bialtzen dautso, ango egoera agertzen.

1.859.eko Uztaillaren 1ean kokatua da oraingo au.

Aurreragokoa 1.858.eko Iraillean egiña zan.

Karta luzea da.

Eskutuan eta igeska ibiliarren, adorez eta zeatz egiña.

Amabost illa bete dirala, diño, gau baten Tonkin-en sartu zala.

Eta egun baketsu bakar bat ez dauala euki denporaldi orretan. Egun bakar bat ez, alai jaioarren, gaberako atsekabez illundu ez danik.

"Danak izan dira ekaitz eta asarre egunak, danak zoritxar eta ustel egunak".

Ez da arrigarria kontuan eukiten bada, ango gobernadoreak "ez ebala atsedetik artzen ez gau eta ez egun, bakea zabaldu eta erakustera joan ziranei atzipen eta sator sareak oiñetan zelan gertu ezin asmatuta...".

Bere sagaratzea zelan izan zan?

"Naiz eta arreta eta ardura asko artu, kristau berberak bere igarri ez egien, ez ziran naiko izan etxe aretan zerbait berezi gertatzen zala ez konturatzeko aña. Etxe jabeak oartu eban barruko poz eta atsegin berbera, berari arpe-

gian ez igarteko baiño andiagoa izan ziran eta bera bere berba eta egitetan ezin eskutauta lez ibili zan. Orregaitik, gaua eldu zanean, bakoitza bere bidetik joan bear izan zan, eta aal eban tokian eskutatu eta zeruko laguntza itxaron".

Egun bakar bat ezin igaro alkarregaz, eleiz barrutiko erakundeari buruz azterketak egin, langintza eratu eta gauzarik premiñazkoenak lagun artean erabagiteko be.

Gero, bere Gotzain nagusiaren egoera agertzen dator, misiolari guztien egoera adierazten.

"Nun dago ate bat zabalik? Ez dot iñun aurkitu, Kien-Lao au arte. Goizean goiz eldu naz baketan. Tan-drog-en ostatukoak egozan eta ez ninduen artu. Xuan-Druc-en, zain egozan eta aurrera bialdu ninduen; txalopan ezin nitzan egon, eta orregaitik adoretu nintzan Kien-Lao-ra etortera, naiz eta nire oiñak benetan mindu...".

Eta ondoren San Pedro gotzain nagusiaren atxilotzea, naigabeak, zauriak, miñak, testigu guzurtiak eta abar.

"Gure Gotzaiña baitu ebenetik, il arte, naiz eta alegiñak egin idazkiz bera-gaz artuemonak lortzeko, alperrikoak izan ziran".

Zaindarien jokabide itxi eta aurkakoa salatzen dau. Batek esana: Zidarrezko eun barragaitik bere ez genduke itxiko kristau bateri gotzaiña dagoen kartzelara urreratzen".

Gero gotzain eta bere zerbitzari biren eriotza larria salatzen dator: "Lenengo oiñak ebagi, gero eskuak, gero burua eta azkenez erraiak atara eta zabaldu".

Eta gotzaiñaren ondoren beste abadeekin gertatuak:

Baten Aita Man, bestean F. Duyet, urrengo Aita Tuan... 72 urteko fraile zaarra, erriko legeak aren antzeko agureentzat eriotzatik aske itxiteko aginduarren.

Baiña a be, burua zamatik ebagita il eben.

Eta esandakoen antzera, Jose Tang, espetxean zigorraren zigorrez illa. Eta Domingo Cam, misiolariei etxea zabaltzen eutselako illa. Eta Bixente Tri, erregeraren erabagien zain egon aurretik, mandarin berberaren aginduz burua ebagia. Eta Pedro Vinh, dotrina erakuslea eta beste ikasle biren eriotza.

Oneitatik bateri borrreruak bere sableagaz zaman joarren, ebagi ez; gero eztarrian sartu eta oraindik bere il ez, eta beste ainbat zasztadagaz ezin illa erabili ebena.

Eta Tomas Du, tonkindar abadea; Pedro Mau, au bere bertako misiolaria, eta euron antzera Gabriel Tran, Domingo Cao, Pablo Klank, Jose Klang... frailea, orrela zortzi egunetik zortzi egunera baiketa barriak egin eta eriotza zigortzat eroan ebenak.

Bere berbak dira:

"Ekainaren 18an mandarin bat etorri zan bere gudariekaz, Dau-ko eleiz-taldea inguratzer. Eta bertako abadea baitu eben eta egun berean abade laster egiteko zan gazte bat, beste ikasle bat eta beste ainbat.

Amalau lagunei uztarriak (kangak) lotu eutsezan zametan eta bateri katea gaiñean ipini.

Andik ogei egunetara beste baiketa batzuk.

"Abade zaarra da, ia urteak gaindua. Kartzelatik idatzi dau, beste batzuk

ondo dagozanarren, bera makal dagoela eta ez dakiala burua ebagiko dautsen egunerarte osasunez elduko ete dan...".

Benetan sinisgaitza egiten da kristauen egoera. Baiña testigantzarik onenak or dagoz: eriotzak.

"Ez dot nai ezer esan misioak erasoaldi onetan galdu dabenari buruz; aitatu bere ez kapa, kasulla, alba, zingulu eta amitoetan kendu dauskuezanak; ez eta kaliza, kopoi eta beste zidarrezko edontziei buruz; ez eta liburu eta bertako agiri eta idazki garrantzitsuenik, niretzat biurtu eziñezko galpiderik ezagunenak.

Oraindik erastuna geratzen jat, eta bularreko kurutze eta meza esan aal izateko jantzi bakarra. Ez dot iñoren mesederik bear be. Uda oneri dagokiozan eguneroko otoitzak egin aal izateko, oraindik aro oneri dagokion Breviarioaren zatia, laugarren zatitxoia beintzat, gordeta dodalako...".

Orra gotzain baten ondasunak eta euren egoera.

Txarrena, argitasunik ez aurrerako.

Ango errege eta agintariak gero eta zital eta itsuago.

Bidea erraztuten dan itxuran... kristiñauentzat okertu. Azala zuritu eta barrua baltzitu.

1.858.eko Urriaren 16an, errege agindu bat zabaltzen da. Luzea eta fede apurra daukenentzat minkorra.

Itxasontzi eta merkatari, arrantzale eta ibiltariei, guztiei, txalupetatik urteera eta sarreran, naitaez, kurutzea zapaldu bearra agintzen da. Au da, kristautasunaren aurka eta mingarritzat, gorroto itsu, setatsu eta erruki bakoa.

## GURASOEI IDAZTEN

Urte bete baiño geiago, ia urte eta erdi igaroko ziran, Elorriotik 1.858.eko Maiatzaren 20an egindako kartak, erantzuna artu orduko.

Kontuan euki: Maiatzaren 20an idatzi, Balentinek 1.859.eko Urtarrilaren 18an artu. Gero onek, ez jakin zergaitik, Abuztuaren 1ean erantzun.

Irakurri, euskeratuta, aitarentzat egiña.

Amarena atzean dator, beti lez euskeraz.

Isidro Berrio Otxoari. Elorrion.

Ene aita maite eta gurgarria:

Urtarrilaren 18an artu neban zuk Maiatzaren 20an egindako eskutitza. Poz eta alaitasuna emon eustan irakurtzeak, bere bitartez konturatu nazalako, lanean, baiña osasunez zabiltzela.

Bertan adierazten daustazu nire lengusiña Mariaren ezkontza, Ardantzaren semeagaz, eta fededun mutilla dala jakinerazo.

Auxe da bear dana, aita, fedeko gizona izatea, ez bakarrik kristiñau askok daroagun izenean, bai eta ekintzetan be, gure ekintzak sinismenagaz alkartuaz.

Erlijiñoia izango da gure lanak arinduko dauzana, berak erakutsi eragingo dauskulako bizitza onetako lanak denporaldikoak dirala, eta eroapenez eta maitasunez eroaten diranean, sekula amaituko ez dan zerurako aintza aldi bat emongo dauskuelako.





Erlijiñoiak gure kideekin baketan bizi eragingo dausku, berak erakutsiko dauskulako, gauza guztien egile dan Aita batenak izanda, eta neurri bardiñean erosi eta bereganatuak, danok goazela toki batera, danok gareala zeruko betiko bakean bizitzera deituak.

Gure makaltasun eta akatsetan alkar artzera beartuko gaitu, Jainko gure Jaunak be gugaitik jasan daualako eta eguneroko gure utsaldietan eta berrari egiten dautsaguzan iraiñetan jasaten gaitulako.

Erlijiñoak eroango gaitu mundu onetako gauzak bere neurri zuzenean maitatzera, eta gure biotza Jaunaren gurarien eta bere etxeko ondasunetan ipiniaz, gure argaltasunean amaitzen diran munduko ondasunen gurari larregia gugandik aldentzera.

Orrela ba, nire lengusu barria, sinismendun gizona bada, uste dot bera izango dala nire gurasoentzat zaartzaroko gidaria eta orrek euren ondasunagaitik daukadan kezka baretuko dau.

Zuek, zeun aldetik, gazte orrek euki leikezan utsunak jasaten jakin bear dozue, eta kontu egin danok daroagula aldian pekatuan sortutako gorputz bat, eta gauza batzutan obe dala ixilik egon eta jasatea, erantzun eta aurka jartzea baiño, orrela, onik lortu ez batetik, eta bestetik baztertu nai diran gaitzak baiño andiagoak sortu leikezalako; eta ezin itxuratu leikezan gauzetan, aurka egin aurretik bearrezko da errukizko erraiak lortzea, eta erabili nai doguzan berbak on jausteko, leun eta bigunkeriz jokatzea.

Orrela, aita, gazte orrekin maitekor izango zarie, et egunetik egunera sakondu egingo dira zuen arteko maitasun loturak, eta zaartzaroko lanak ariñagoak irudituko jatzuez.

Batera egin edo bestera egiteak, ondorenik ez dauken gauzetan bere ez da ondo beti norbere irizpideagaz norberagan erakarten aalegintzea euren pentsabide eta lanetan; bakoitzak bere burua dauka, bere irizpidea eta bere pentsatzeko era.

Ona izango litzake bekoak goikoen iritzia beti onartzea, Jaunaren ontasunaren aurkakoetan izan ezik; baiña danok gara Adanen semeak, jaiotzen gareanetik bakoitzaren biotzean arrokeriaren ernemiña daroagunak, eta bakoitzaren borondatea eragiteko makurpen andikoak.

Orregaitik bearrezkoa da gizonaren baldintza au gogoan eukitea, bere guraria indarkeriz makurtu nai ez izateko, orrek alkarregaz lotzen gaitun uztarria ezintzat ikusi eragingo leukelako, bere argaltasuna ez dalako ainbeste argalkeri jasatzeko gai.

Azkenez, aita, Paulo apostolu deunak ondo ulertzen dau irizpide au berba bitan esaten dauanean alkarregaz eroan bear doguzala gure zamak. Izan be, ez da gizon bakar bat egongo, era bat edo bestera besteentzako zama ez danik, baiña zama au zenbat eta andiago edo txikiago izan dautsagun maitasuna, pixuz bere astun edo ariñago izan leiteke, bai astuntasunean bai eta arintasunean.

Orregaitik pentsatu bear dogu, iñor guretzako astun eta eroateko gaitza bada, gu be besteentzat astun eta eroateko gaitz izan geintekezala, eta uste onek gure urkoa gugaz artzera eroango gaitu, berak bere gu beragaz artzera eroan geinkean lez, eta orrela errez ibili aal izango gara gure ibilbideko mundu onetan, danok batera gure zeruko aberrian alkartu arte.

Iazko maiatzean karta bat idatzi neutsun Tonkin-etik, onera ondo eldu giñala esaten. Ez dakit karta a zure eskuetara elduko zan.

Emen, aita, ez dago ez bidairik ez postarik; tartetan baiño ez da egoten Macao-ra idazteko aukerarik eta egoten danetan be ez da ziurra izaten.

Ez arritu, ba, ainbat denporan nire kartarik artu ez badozue; ez da gogoratzen ez zaituedalako; orretan ziur egon sarri gogoratzen zaituedala eta nire oparietan be sarri zaituet aurrean.

Ni, Jaunari eskerrak, osasuntsu eta gogor nago; eta Mandarina gure atzetik badabil bere, Jaunak lagundu eta aldeztuten gaitu.

Gaurkoz naiko da, nire ama andreari bere idatzi bear dautsadalako. Osasuntsu zaindu zaitetz eta otoi zure seme apal onen alde.

Fray Balentin, Gotzaiña.

Ondoren, amarentzako karta au:

## AMARI

Neure amacho maitia eta geure acho bizcorra:

iBici da oindic, ala urten eban mundu onetatic?

Desiua echat falta, neure amaren letra asartua icusteco; urte bat eta erdi da iya, nere amaren noticiariac estaucala. iAzarratuta dago nigas, ala aisquide guera?

Gorroto gustiyac alde batera ichi biar ditugus Mariya Virgiñiagas aizquide izateco. Neure partetic beintsat maite dot nere amacho, eta alperrik otsac izan nere oraciñuac, Jaungoicuaren aurrian presente euquiten dot gure acho piña, eta Ama Virgiña Mariyari escatuten dautsat libratu deiyela peligru gustietatic, esteiyola ichi pecatuan jausten, eta eriotza on bat emon deiyola, Jaungoicuaren arpegui ederra ceruan icusteco secula gustiyetan. Amen.

Acabatu da sermoia.

Amacho, alcar ceruan icusten garianian, erdera berba eguin biarco dogu cergaitic eusqueria ya astu da.

Alli hablar castellano, madre; no puede vascuence, y así con soldados aprender castellano, yo creer, y mucho dolor cabeza. Pero ahora no aprender y después el madre hablar no puede a la hijo en cielo. iEntender madre o no entender?

Ni bizcor eta osasunagas nabil; urte bete eta erdi baño gueiyago da eche baten naguala, eta palacio eder onec lastosco tellatua dauco, cacamasasco ormia, cañasco postiac, cañasco cuartoiac eta capiriyuac, cañasco atiac, estauco suelo bat baño; eta au da lurrecua, Palacio andi onetan erreguiña berian baño obeto bici naiz.

Por eso no tener cuidado, madre. El hijo bien vivir, yo no tengo envidia del reiña.

Ha oscurecido y por esto basta por hoy.

Con que vivir bien, madre. No hay que dejar caer de la mano aquel rosario de cuentas gordas y rogar mucho por su único hijito.

Memorias a todos los parientes y a todos los señores sacerdotes.

Yo ser su hijo humilde.

Fr. Valentin

## AMATXORI IDAZKIA

Gaiñezkako maitasuna amatxorentzat.— Ez daukagu emen betiko bizitokirik.— Zerua, gure aberria.

Tonkin, 1859.eko Abenduaren 6an

Maria Monika de Aristi Andreari

Nere amacho maitia:

Lau illabete pasatu dira neure asquenengo cartia esribitu nebala, oraiñ barrero ocasiñua presentatu da Macaora esribitceco eta nic aprobechatu nai dot ocasiño au, lau letra berorri esribitceco; eztaquit carta au berorren escuetara elduco dan cergaitic emendic eta Macaora bide charrac dagos, eta enemigo asco.

Berorren semecho bacarra osasunagas bici da, Jaungoicuari gracyac ya Tunquineco lurrac ondo artcen nau, orregaitic bici bedi berori ardura baric, gure Aita cerucuac eta Virgiña Mariyac ondo gordetcen nau eta gavian eta egunian bere misericordiasco beguiac nigan ipiñita dagos; espedi ba berorrec gaveric galdu semiaren gañian pensatcen; gaus bat berorrec pensatu biar dau, eta da Jesus Maitiari eta Ama Virginiari biotz gustitic erregutu, neure asquenengo arnaserano lagundu deidala bere gracya eta amparuagas.

Nic ere Jaungoicuari escatcen deusat berorregaitic eta egun gustietan mesa santuan neure guraso maitiaquin acordatcen naiz.

Preparatu gaitian eriotza on bateraco, alcar ceruan icusteco.

Agur, amacho; escumunac aide gustiari, bates bere nere osaba frailiari.

Semiac escuan mun eguiten deutsa amari,

Fr. Valentin Berrio-Ochoa

## EGOERA LARRITZEN

Ezagutu ete eban Balentiñek argi egunik, Kristoren itza egunez eta bakez erakusten jarduteko aukerarik, bere menpean egozan abadeen lan eta ekin-tzak ikusi eta ezagutzeko betarik, azken baten bere kristauak bere beragaz jardun eta nasai ibiltzeko denporarik bere?

Bere idazkiak irakurten jarraituko dogu, euretatic muiña ataraten. Ez dago karta ulergaitzik, eskutukorik, zer esan naiko ete daben ezin ulertzekorik edo gaitz artzekorik. Argia da idazten, eta zeatza, Bateri idatzi nai besteari kontu emon, danetan aurkituko dogu bere biotzari negar eragiten dautsan egoeren bat, edo gertaeren bat, edo ziur jakindako jokabide illunen bat; edo lapur lez ibili bearra gauetaz baliatzen, bere argia erakutsi naiko jardunean; edota basoetako sakon eta eskutuan alkartzen; bai eta ibai ondoetako txalupetan bizitzen, eskutatzen edo eurretan bere gorde eta zaintzen berberen salaketaren bildurrez bebai iñoiz...

Jarrai kartetako txostenak irakurten:

1.858. Uztailak 5.- Aita Riaño-ri idazkia: "Bear-bearrezko da sarri begiak zerurantz jasotea, etsipenean jausi ez eta eroapenik ez galtzeko".

1.858. Uztaillak 30.- Aita Gainza-ri:

"Ez dira alaiak eta pozgarriak emon daiketsudazan barriak: jazarpenak, jarraituaz batera, egunetik egunera geitzen doaz, eta txarrago, ez dogu bake-ezaugarririk ikusten. Besterik ez dabe pentsatzen gugaz amaitzea baiño, eta Kristiñauei gogait eragitea baiño, artu daben sinismena itxi dagien.

Aurtengo urte onetan amalau Aita baitu (preso artu) dabez; euretako zortzi martiri jausi ziran, fedeagaitik burua moztuta ilda, eta beste seirak egun batetik bestera bardin itxaroten dabe".

1.859. Abenduak 9.- Aita Cienfuegos-eri.

"Betikoa naz. Nigaz nobizio izan ziranak ez dira bildurtu bear ni gotzain izateagaz. Betikoa naz. Eta orregaz konturatu edo ziurtatu nai badozue, etorri eta orduko antzera ariñeketa batzuk egingo doguz, baiña gabaz izan bearko litzake, egunez gure bizia galdu ezik gure eskutalekuetatik urteterik ez daukagulako".

1.859. Abenduak 12.- Aita Cervera-ri.

"Jazartuak gara, baiña Mandarinei ziurtatu neuskio aalegin asko egin ezik ez nabela billatuko nire abian, eta aleginduta bere, erakutsiko dautsedala bizkaitarrak oin luzeak daukaguzala iges egiteko".

1.859. Abenduak 12.- Elorrioko Aita Bikarioari.

"Tonkin-en nagonetik Erdialdeko bikaritzak amazazpi (17) anamitar martiri daukaz, euretatik zortzi gure Ordenakuak eta beste bederatzi abade soilak, kalekuak.

Gorputzetako osasuna badaukagu, naiz eta jakin ez arimakorik ba ete dogun. Bide guztietatik jazartuak bizi gara, baiña koitaduok ez dakie eskutalekuak nun doguzan eta ezin gure oiñei jarraitu".

1.859. Abenduak 28.- Aita Tresera-ri.

"Bertako seme misiolaririk onenak illobietan lur emonda dagoz eta ez dago itxaropenik urte askotan ordezkorik eukiteko. Oraingo, bertako semeen artean, emeretzi misiolari bakarrik gelditzen dira, eta latin eta zileizti (moral) ikasletatik ia ez dago zein aukeratu".

1.860. Urrilak 11.- Aita Sales-eri.

"Jazarpenak misiolarien artean egin dabezana kalte ugarien ondoren Bikaritzaz guztian ez dira gelditzen lan egin leiken abadeen artean bederatzi edo amar baiño. Era onetan jarraitzen badogu, urte bete barru ez jaku iñor gertuko".

1.860. Abenduak 10.- Aita Estevez-eri.

"Lengo baten jakin arazo neutsun F. Neron edo Co-Boc-en martirioa; lengo illaren iruan izan zan, burua kendu eutsen. Beste bi geitu bear dira; bata illaren 2an eta bestea illaren 24an, biak buruak ebagita".

"Artu neban dirua, bai eta sudur zapi txukun bat be. Ez dakit ain gauza zatarretan erabili bearko dodan. Aspalditik bakarra neukan, eta bera arratoiak jana, egaletako etenak kontuan euki barik, amairu zulo daukazana. Baiña orregatik ez nintzan keixatuko. Orain orrelako zapi politagaz, arrozeria lakoa sartzen jat. Izan be arriskutsu da bat batean beartsutik aberatsera igarotzea, gizontxutik gizon andira...".

## AZKEN URTEAN

Tonkin erdialdeko egoera ikusita, an lanik ezin egin eikeala konturatuta, lurralde aretatik urtetzeko agindu eutsen Balentineri bere Nagusiak. Itxuraz azken baten an jausiko zalakoan, eta eriotzara eroango ebelakoan, Sorkaldeko Bikaritzara aldatzeko agindu eutsen.

Azken bere kartetan igarten da barrero bere tokira biurtzeko gogoia, baiña unerik ezin artu eta ziurtasunik bere ez lengo bideetara joateko.

Jazarraldiak, ala ere, batean eta bestean, lengo tokian eta oraingoan, noz-nai sortzen dira.

Badirudi Mandarin batzutatik bestetara, aldia igarten dala, baiña azken baten danak diruzaleak dira eta erbestetarren dirua eta pitxiak billatzen ditue, eta guzur eta maltzurkeriz, baiketa eta atxiloketak egin.

Edozetara bere, beti giro txarrean.

Azken aldiko bere kartak, gero eta larriagoak dira.

1.861. Urtarrilak 8.- Aita Estevez-eri.

"Gutziz itzala oraingoaz emengo kristiñauen egoera.

Gauza bik kezkatzen nabe eta nire kontzientzia larritu: bat, nire Bikaritzatik kanpoan bizi bearrak, biurtuko nazan jakin edo itxaron barik, eta bestea, eskutauta bizi bearra, kristiñauak adoretzeko nire bizarrak erakutsi eta eurekaz nire aragian min artu barik. Jaunak argi daigula gure jokabidean bere borondatea betetzen.

Abenduaren 6an Aita Juan Dieu-eri burua ebagi eutsen; illaren 9an Aita Domingo Van-eri...".

1.861. Urtarrilak 31.- Aita Estevez-eri.

Ainbeste jazarpen, eskutuko eta abar... Balentin liburuekatz gogoratzen da.

"Valbuena-ren iztegi bat premiako dot, latinetik gaztelanira eta gaztelanatik latinerakoa.

Abadearen bizitzako oroitzapena deitzen dan liburutik amabi artu gura neukez.

Vallejo bat be premiako dot, kontuak eroaten illun nabillelako...".

1.861. Martiak 17.- Aita Alvarez-eri.

"Aranjuez-en orain lau urte besarkatu zendun Aita Balentin oraindik bizi da gizonen erailtzaille onein artean, naiz eta ez jakin, daroan bizitzagaitik, bizi baiño eriotzaren antz geiago ez ete daukan".

1.861. Martiak 20.- Aita Moran-eri.

"Kristiñau gizarajoak etsipenik andienaren menpe bizi dira, eta gogo eta soiñeko argalkerietan minberatuta..."

1.861. Ekainak 2.- Aita Alvarez-eri.

"Barrero diñoste kristiñauai kurutzearen irudiak zapaldu eragitea billatu eta agintzen diarduela".

1.861. Ekainak 18.- Aita Probintzialari.

"Kristiñau batek egun bat edo bi lenago bere ama gaixoari eleizakoak emotera eroan eban Aita Tuan; eta berbera izan zan andik egun bi edo irutara misiolaria baitu ebana eta gau berbertan toparkiari eroan".

"Itxuraz "Judas" arek errege eta mandarinetatik sarien bat lortu nai eban, baiña oker geratu zan, toparkiako mandariña bera ere sari zalea dalako eta

arek gora jakin eraso ebalako misiolari bat baitu ebala eta mandariñak berari sinistu eutsen".

Urriak 18.— Aita Canera-ri.

"Txarto goaz. Misiolariak amaitzen doaz, eurak ordezkotu eikezanak eskutatu egin dira eta kristiñauak lur jota doguz".

## MARTIRIOA

Esana dogun lez Iparraldetik ebillan Balentin, Erdialdetik urtetzeko agindu beteaz.

Bere inguruan baita Hermosilla gotzain zaarra, eta Pedro Almato eta Gaspar Gonzalez. Danak erdi galduta, nundik nora ibili, nundik nora jo ezin igarrita.

Legorrean ez dauke toki ziurrik bizitzeko. Naiago dabe, denporaldi baten, ibaiko bateletan bizi, an ugari dabilizan bateletako baten bizi, batzutan arrantzaleekin, bestetan bakarrik.

Judas txiki bat agertzen da inguruan ebiltzan kristiñauen artean eta itxasontzi txiki baten eskutauta egoan Hermosilla gotzain jaunaren azterrena artu eta salatu.

Beste batel baten bizi diran Almato eta Balentinek ikusten dabe ori eta urduritasunez beteta geratzen dira, kezkatu: Zer egin? Eskutuan jarraitu? Urten eta arpegia emon?

Inguruko arrantzaleen artean badagoz kristiñauak. Eurak eskutatzen zituenetako baten adiskide zan Agintari-ordeko bategaz itz egitera ausartzen dira.

Onek lenengotan bigun artu eta osalari baten etxera eroaten dauz. Baiña... andik egun bira, atzipetuta, guzurretan, arroz zelai batera urten eragin eta etxea gudariak artuta dauken aitzakiz, arroz-toki orretan itxi, gertuta egozan soldaduak oztopo barik baitzeko eran.

Almato eta Balentinek iges egitea lortu eben, satorkeri ori igarri ebenean. Baiña Almato lurrera jausi eta zauritu zan, ezin ibilita geratuz, eta Balentinek, iges egin eta bakarrik itxi barik, berari laguntzen geratu nai izan eban.

Ori da martirioaren asiera.

Orretan egozala, mandariñaren dei larria entzun eben. Geldi danok, bertan ilda geratu nai ez badozue!

Zemai orreri, Balentinek apaltasunez erantzun: Zuen eskuetan gagoz. Ez dogu iges egiteko asmorik.

Inguruetan ia irureun soldadu, bata bestearen atzean, txalopa eta ibai egalak zaintzen.

Onelako baiketa laster zabaldu zan inguruetan.

Gobernadorearen etxera eroan zituen.

An, sartu baiña len, kurutza bat ipini eutsen lurrean, a zapalduaz sartu eitezan.

Baiña Balentin eta Almato konturatzen dira. Eta zapaldu orde, bere aurrean makurtu, gurtu eta aurrera joan ziran, baituen ezin eta menpetasunez, baiña zintzoen arrotasunez.

Ordukoak diñoen lez, 1861 .eko Urriaren 25ean gertatu zan baiketa ori.  
Oraiñarte ez dogu esan izan gure Balentinek, lurralde aretan, bertako beste izen jator bat erabilten ebanik: Vinh. Misiolarien oitura zan, bertakoen onez eta euren ezaupide errezagotzat.

Orregaitik gobernadorearen aurrean, bere nortasuna emoteko, ango ize-  
nez erantzuten asi zan:

—Zure izena?

— Vinh.

—Noiz etorri ziñan lurralde onetara?

—Badira lau urte.

—Nun bizi zara?

—Nire zeregiña Tonkin Erdialdeko misiolarien ardura da.

—Iraultzaliena.

—Nungo iraultzaile? Nik ez darabilt armarik. Ezta nire jarraitzaileak be.

—Zuek zaree orain iru urteko jasoaldiko b sru.

—Sekula ez dogu iñor aolkatu ez aupa'J erregearen aurka armetan  
jagitera. Ori ez da gure zeregiña.

—Zergaitik zabiltz, ba, emen?

—Kristoren egia zabaltzearren bakarrik. Kristoren maitasun eta bakea,  
gizonen arteko ontasuna...

—Lien gotzaiña ezagutzen dozu?

—Bai. Alkarren kide gara. Asmo bardiñetan gabiltz. Biotzei eta  
kontzientziei deika gabiltz onez, ez indarrez...

Balentinek antzera agertu zan Almato. Ekiena ekien lez autortzen, zirana  
ziran lez agertzen.

Agintariak, igesik egin ez egien, kaiola zatar, estu eta ito baten sartu  
zitu, egoera bera mingarri egiten jaken kaiioletan.

Alaxe kaiolatik kaiolara ikusi eben alkar Hermosilla gotzainak eta bere  
katekista zintzoak.

Arrotu egin eban baiketa onek gobernadorea.

Ez zan egon Erregearen aginduen zain, arek zer esango itxaroten.

Bildur? Ango kristiñauen erantzunaren kezkatu?

Balentinek martirioa edestu dabenak, txikikeri bat edo beste kenduta,  
ados datoz kontakizunean.

Guk Aita Garrastatxuren edestietatik euskeratuko dogu martiritzako  
eguna.

Bere esanetan, onela gertatu zan:

1861 .eko Azillaren lenengo eguna zan. Egun sentia. Kristoren  
jarraitzaileak kezkatu eta urduri dagoz Trang-Tu-ko gaztelu gogortuan.

Santu guztien eguna. Ordu batzuk geroago, santu geiago batuko dira  
zeruan.

Tanbor otsak. Espetxeko atetan borruak, ezpata zorrotzak ataratzen.  
Alde guztietatik dator jendea, korroak egiñaz.

Lekuko batek onela esan eban, Zoriandunak autortzeko auzian:

Bosteun soldadu inguru ikusi nituen gaztelutik urtetan, eta iru elefante.  
Atzetik kaiolak, bakoitza sei lagunek eroanda, eta euren barruetan iru agur-  
garriak.

Egaletan soldaduak eta elefanteak. Erdian, borrua, bere laguntzaileak  
eroiezan aterkin biren artean... Azkenez mandarinak, jendetzaren ostean,



*Santa Anako monja-etxea.*



batzuk zaldi gaiñetan, besteak laguntzailleak eskutan eroandako oetan.

Iru baituak kukulumutxu eioazan, kaiolen egituran okertuta joatera beartuta geratzen ziralako. Gogoratu kartzelan egon ziran artean, kaiola berbertan egon ziralako, gau eta egun.

Aita Herмосilla zarrak, ogeitaamar urtetan ango Misioen arnas eta eutsigarri izan zanak, bedeinkatu egiten eban berari egoan erria. Aita Almato, aingeru antzeko a, beti lez geldi, apal, errosarioa errezatzen. Eta gure Balentin, santutasun egoera baten sartuta, mundutik kanpoan lez agertzen zan.

Andik berreun metrotara, jendetza Budaren pagodaren aurrean geratu zan, Buda-ri baimen eske, martiriak il aurretik. Oneik ez eben sartu nai izan. Eun metro geroago, orra or gaizkilleak urkatzen ziran tokia. Antxe burua moztuko eutsen gure gurgarriei.

Aita Herмосilla-k, apostolu giro eta osotasun betez, eskar edo mesede bi eskatu zitun lagunaren izenean, eta oitura lez ez eutsezan ukatu.

Lenengo, ango seme zan eta errudun lez eroan eben gaztea, eurak kristiñautu eta bateatua izan zana, izan eiala burua ebagiko eutsen lenena, orretara eurak ondo iltzen laguntzeko aukera eukiko ebelako. Eta alaxe egin zan.

Bigarrena: Ordu beteko epea emoteko, otoitz eta alkar autortzen jarduteko, eta euren senide eta lagunaren arimak Jainkoari eskeintzeko.

Zelan otoi egingo ete eben une aretan, batzuk euren maitasunen garrez, eta Balentinek bere gurasoekaitik, eta Elorrioko monjatxoekaitik, eta bere adiskide kutun ziranekatik eta jazartuak ziran kristiñauakaitik? Zelako biozkadaz eskerrak emongo ete eutsazan Jaunari, dominikotarretara eta misioetarako egin eutsan deiagitik, orain berak aspalditik amets egiten eban martiritzara eroanez? Zenbat emongo neuken nik Ama Birgiñari zuzenduko eutsozan arrenak eta Agurra entzutearren, Jaunari bere gogo eta arima eskeiniatz!

Orduko ikusle batek iñoan, irurak nasai, pozez eta kolorez aldatu barik egozala.

Ordua igaro eta Herмосilla Aitak itz egin eban: Gertu gagoz eta adi.

Bete zuen eginbearra.

Kaiolak zabaldu ziran. Herмосilla gotzaiñak urtetean, gualburu batek paparretik kurutzea kendu eutsan eta Mandarin batek gotzain eraztuna.

Aurrez gertuta eta lurrean sartuta egozan aga batzuei besoetatik lotuta ipini zituen. Ango andre adoretzu batek, tunkindar andra andi batek, lurrean zapi zuriak zabaltzeko adorea euki eban, euren odola batu eta erliki lez gerorako gordetzeko.

Tanbor otsak, jendea gertatzen. Gero turutak. Ixilune larria ondoren. Epai-kariak oar bat egin orduko, borraruen ezpatak aidean zama ingurutatik buruak gurgarriei ebagiteko. Balentin eta Almato-ren buruak lenengo otsetik ebagi ziran. Herмосilla-k zagtada bi bear izan zituan. Baiña iruren arimak batera ega egin eben zerurantz...

Aita Garrastatxuren esanetan, eriotza onein barri laster eldu zan Elorrion, eta orduan Elorrioko fraileen buru zan Aita Lorenzo Rodriguez arabarra izan zan bere gurasoei konbentura deitu eta jakin eragin eutsena.

Balentinaren aita, Juan Isidro, 60 urte eukazan ori gertatu zanean Amak lau geiago, irurogeitalau. Aita beste amalau urtetan bizi zan.

Ama, Maria Monika, zortzi urtetan...

Eta Balentinaren oroitzua, gero eta biziago bizi da Elorrion.



## **II ESKUTITZAK**

- 1) FRAILETU ARTE**
- 2) FRAILETU ONDOREN**
- 3) TONKIN-EN MISIOLARI**



*Balentin Elomo'n bizi zan etxea.*

## **II ESKUTITZAK**

**1) FRAILETU ARTE**  
Elorrio eta Logroño-n  
idatziak  
(1842 - 1853)



# 1.—ORDAIN TXARTELA

## **Berrio-Otxoa berberak idatzi eta izenpetutako idazkia. (1)**

Autortzen dot Santa Ana-ko Monjetatik eun eta irurogei eta amasei errial artu ditudala amasei illabeteren buruan sakristian betetako zeregiñagaitik, eta ordain-txartel au emoten dot komeni danetarako, eta bere ziurtapentzat Elorrion izenpetzen dot 1842.eko uztaillaren 31 an.

BALENTIN BERRIO OTXOA (2)  
(zirri-marratua)

*(1) Balendinek 1842.eko Uztaillaren 31an egin eta izenpetutako ordain agiria da, au da, amabost urte eukazala.*

*Aldi aretan berak maitasun berezia gorde eutsen Elorrioko Dominikatarren Konbentuko akolitua izan zan.*

*Txartel ori baiño lenagoko oar bat dago berak eskolan erabilten eban Caton edo silabario dalakoan, baiña ezin leike ziurtatu bere eskuz eta eraz egiña danik.*

*(2) Berari buruz gerotxoago bere osaba zan Aita Juan Ariztik au idatzi eban:*

*"1828. urtean ni Majia-tik eldu nintzanean, Balendin oraindik bularra artzen egoan, umea zan. Bere lenengo urteak konturatu barik igaro jatazan, beragan gauza berezirik oartu barik. Bergarako Itunaren ondoren, konbentutik kanporatuta Castilla-tik etorri nintzanean, Balendinek baeukazan ordurako amabi urte inguru, eta beragan ontasun guztien irudia igarten zan.*

*Anzuolatik eurak ikusten joaten nintzanean, Balendin aitaren aroztegian ikusten neban eta beti "eurei makur" (subditus illis), apaltasun eta eroapen andiz laguntzen. Goizetan, monjetara joaten zan sakristau zeregiñean eta andik laster aita Mendozagaz latiñeko gramatika ikasten asi zan arreta andiz. Gabetan gela illun batera joaten zan, eta bere amaren esanetan, gau ordu luzeak arte otoitz eta ikasten emoten zituen orduak.*

*Aldi aretan, Aita Estrada frantziskotarrak misiñoiak emon zituan Elorrion eta Balendinek eurentan erabagi eban atsegiñak baztertu eta munduari uko egitea..*

*Bere barru eta kanpoko apaltasuna benetan andia zalako, beti, bere gauzetaz ixiltsu itz egiten eban.*

1842. urtean, Elosuako jaietan ainbat senide batu giñan bertan eta eskatu neutsan aurrekua berak atarateko, eta danok arrituta geratu giñan berak egin eban trebetasunagaz. Bear bada barruko nai-eza sentiduko eban, baina bere menpetasuna zintzoa zanez...

1845. urtean Karmeldarrak Ameriketako gure Probintzira biurtzeko asmotan genbiltzan, eta al ziranak batzeko Bilbora joan nintzan eta Balendinek lagundu eustan osterora orretan...

(Agiri au, Gueñeseko ARRIETA-MASKARUA tarrak gordeten dabe.)

## 2—AMARI IDAZKIA

**Balendinen lenengo eskutitza. (1)**

**Logroño-ko abadegai etxean. (2)**

(Sra. Dña. María Mónica de Arizti) (ELORRIO)

Nere amacho maitia:

Oingo concideraciñoco beguiyaquin Logroñora bost bidar beguiratu eban, baña illa bat oindiño ezta igaro, berorrec emondaco plazua baño lenago acordau naiz.

Baña, icer gura dau nic orain esatia? berorrec erantzungo dau: dana dan leguez, edo becela escribitia. Ondo dago bada. Campuan egotecotan, gaizen baño obeto ezin gueindeques egon.

Goizian artcen dogu chocolatehua fotarequin eta baso bete ure azuquerresanarequin; eguardian, sopia, asia, garbanzua, urdaiya oquela tajada onaquin, eta postrian matsa. Arrachian afaitan oliyo asia, baña ez eroceimbe modutacua, beste fratel andi bat bete solomo edo oquela, edo beste alaco tajada onac daucacen gaucen bat; eta postrian matsa. Ondo ipintien eta ostantceco garvitasunen ganian, eztago cer esanic. Governumodu au icusita ez naiz atrevidu preciyuen ganian barbaric eguiten.

Asco da, ama, gaurco, eta orregaitic agur eguiten deutsa urrengo artian berorren seme bacar,

VALENTINEC

(1)Eskutitz au euskeraz egina da, eta Berríotxo berberak erabiltzen eban ortografian agertzen dogu. Maria Monika, Balendinen amak, Garítagoitia tar Eugenioren alarguna zan Eleutería Olabarríarí emon eutsan eta onek 1905. urtean Bilboko San Frantzisko parrokian abade zan Frantzisko M. Ibarrolazari. Gaur Elorrioko Dominikatarren eskuetan dago.

Ez dauka egunik. Baiña naita ez 1845.eko Azillan egiña dala esan bear, bertan esaten dalako ez dala illa bete igaro abadegai sartu zala, eta orí Urriaren 27an gertatu zan. Lenengo eskutitz au idaztean, 18 urte beteta eukazan. Sekula ez zan etxetik ain urrun aurkitu. Elorrion aita Mendozagaz ikasketak egin ondoren, Logroño-ra joan zan abadetzako ikastaroak egitera, eta bere lagunetatik dakigu latina erraz erabiltzen ebala eta erderaz bere ondo konpontzen zala.

Eskutitza, bere ama kutunari egiña da. Eta euskeraz, gartzelania ainbestean ez ekialako. Orrez gaiñera, amaren ikusmenari miñik ez egitearren, marra lodietan idatzia da.



Amaren maitale zan seme baten ardurak. Eta zeaztasun txikiak be, alan uste izanaren, agertzen daki, ain zuzen bere seme kutuna lenengoz urruntzen ikusi dauan amarentzat jakingarri eta pozgarri izango diralakoan.

(2) *Filosofi gaietazko puntu batzuei buruzko oar batzuk ikutu bearrezkoak dira, ain zuzen bere ikas-ardura eta idazteko txukuntasuna erakusten dabelako.*

*Azalpena eta bere legeei buruzkoa da; kanpoko zentzuak egiaren irizpide lez eta nabaritasuna eta antzerako gaietaz. Bide batez erliki maitagarri lez zaintzen eben Maria Berriotxo eta Carmen Ardanza andreak eta oneik Sainz, Montoto eta Fteguera aita Dominikoei emon eutsen eta gaur benetako arduraz gordetzen dabe batetik Aita Tomas Guerrero-k Bergarako Ikastetxean eta bestetik martiriaren lengusiña zan Jakoba Ardantzak, Elorrión.*

(3) 1851. urtean *España eta Batikanoak konkordatoa izenpetu arte, ez egoan Gasteizeko gotzaingorik. Euskalerriko zatirik geiena, eleiz arazoetan, Kalagurriko gotzaingopean egoan eta bere abadegai etxe bakarra Logroñoñ egoan. Eta araxe joan zan Balendintxu, zalburdian, Durango, Pankorbo, Altarte, Tirgo, Cuzcurritilla, Torre-Montalbo, Cenicero eta Fuenmayor-etik zear. Pankorbo-n gaua igaroten eben, eta beste zalburdia artu, lengoa Madrid-erakoei itxita. Logroño-n trenbiderik ez zan zabaldu 1863.eko Iraillaren 2 arte. (Ikus "Historia del Viejo Seminario de Logroño" Fernando Bujandak idatzia, 1948.ean).*

(5) *Maria Monikak iru seme-alaba euki zituan: Balendin, Faustino eta Felipa Elbira. Lenengoa, 1827.eko Otsaillaren 14an jaio zan. Bigarrena, 1829.eko Iraillaren 7an eta bost urte eukazala potsu baten ito zan 1834.eko Abuztuaren 27an. Neska 1843.eko Maiatzaren 25ean jaio zan. Orregaitik diño Balendiñek bere idazkia egitean "bere Seme Bakarra".*

### 3.—AMARI ESKUTITZA

**"Amatxu" maitearen kezka.**

**Bizitzako lanetarako adorea.**

Gora Jesus.

Maria Monika Ariztiri. Elorrio.

Nere amacho maitia:

Sentimendu andiyagas artu neban atso aitaren cartia, ceñetan esaten eustan berori macalic cebillela edo egon zala, baña gaur piscabat lasaitu naiz elorriyoar batec esan destanian jaquita icusi ebala.

Ai amacho! Amaica bider erruquita naiz berorregas consideratcen isan duanian cer otzac pasatu biarco zituzan goizetan aguardiente tratuan; ez neuque nic esango tratu onec eztaucala parte asco berroren gueishuan, da biarbada berori otzac artcen ceguan artian, alabia egongo zan ogue epelian.

Ama criyada, da echeco andra alabia, ostera bere izango dau echiac abia; egurrac, egurrac equin biar gaitu ciurrac; larregui erruquiorrac izatiac, ecarri oi ditu buruaustiac. Sosigusao bicitera equin biar dau ama, bestela <Lnun topauco dau Valentinen ainbeste cariño deutsana? Chanua ta inchaurrac asmatu, amoriyuaren indarrac biditu.

Urrengo escribitten deustenia estimatuco dot berorren letria icustia, escribitten deustala cer modu portetan dan Martincho, cer laguntasun equi-

ten deutsan Felipac; ya goizian goiz jaquita echecho inguru gustiya eguiten daben, berori sosigus daguala.

Orain bada, amacho, animo munduco trabajuetan, lastar igaroco dira, paciencias da Jaungoicuen amoriyuagaitic eramaten badiugus purgatoriyotzat servituco dute, onetaraco deadar eguingo det cerura emon deiyon Jaungoicuac graciya, beraren borondatiagaz conformaturic lurrian, icusteco ceruan, bere arpequiya; au da desio diona berorren seme bacar.

Balentin Berrio-Ochoac.

Baldin esan badot  
bear baño geiyago  
biotzes damu dot  
Barca-esque naiyago.

**Oarrak:**

(1) *Ez dauka egunik. Igarten da 1847.aren azkenetan edo 1848.aren asieran egiña dala. Aurrekotik ona, bitarte andia dago. Bitarte orretan Balendinek idatziko zituan eskutitzen barririk ez daukagu. Gizakera ezkuntza on bat igarten da eta izakera sendo baiña maitekorra.*

(2) *1826. urtean Juan Isidro Berrio-Otxoak beea jota egoan etxe bat erosi eban. Etxe au aurrerako urtean erre zan eta berak barriztu eta jaso eban, bere aleginpean eta kondairarako "Zoriondunaren Etxe" lez geratu da.*

*Etxe-oin bi daukaz eta beea. Emen etxe leku bi egozan. Baten Balendiñen aitaren lan-tegia. Bestean Maria Monika Arizti onak erabilten eben bodegatxo.*

*Urte batzuk geroago, Balendin martiri ilda geroago, eta anai-arteke gerratean, soldadu karlista euskaldun batzuk igaro ziran bertatik, eta euren aurrean egoana Balendiñen ama zala konturatu barik, orduan aoz-ao ebiltzan bertso batzuk kantaten ekin eutsen, gaur egun zarren aotan gogoratzen diran bertsoak. Errenderiko bertsolari batek egiñak ziran. Amaren arradea ikaragarria izan zan.*

*Gaur martiriaren senide bat bizi da bertan, Ardanza tar Jakoba, eta asperbako ardura eta maitasunez zaintzen ditu Zoriondunaren oroigarriak; ala martiritzako laukia, bere erliki bat, berak egindako oe bat, opor-aldietan erabilten eban gela, idazkiak eta abar.*

(3) *Balendinek karta au egitean, Felipa Elbirak 13 urte inguru eukiko zituan. Beraz, oizkoa da neguan etxeko epeletan orduak igarotzea, koñaka saltzen eta otza artzen barik. Alaz eta bere anaiak alegin egiten dau ondo azia izan dadin eta osasunez makal ebillan bere amari laguntzen jardun egian.*

(4) *Esan gura dau maitasunak obeto zaintzen dituala maite dauzanak, azalak íntxaur berbera baiño obeto.*

## 4—ESKABIDEA

**BEKA baten eskaria. (1)**

**Gotzain barik dagoen Kalagurri eta La Calzada-ko eleiz-jaurleriari.**

Balendin Berri-Otxoa, Elorrion jaioa, 22 urteduna eta Teologiako lenengo urteko ikasleak, bear dan lotsaz jakin erazten dau:

Feliciano Palacio-k eukan beka-erdika gai dagola jakinda, eta ikusirik arotzak diran nire gurasoak ondasunik ez daukelako, ezin jarraitu izango dodala Abade-gai Ikastetxean saridun ikasle saillean jarraitzea, eta orai-ñarteko ikastaroak egin dituan Abadegai ikastetxe onetan jarraitu nairik.

Bere gogoko ala dala, beka-erdika ori izenpetzen dauan oneri agintzea erabagi daiala, jakin eraziz mesede onegaitik betirako eskartsu geratuko dala, zerbitzari apal au.

Balentin Berrio-Otxoa.

Logroñon, 1848.eko Urriaren 13an.

*(1) Karta au gure lagun on dan Urkijo Kondea agurgarriaren etxean gordetzen da, Munibe jauregian.*

*Eskabide onetan garbi ikusten da Balendinek benetako garra eukala abade izateko. Geroago ikusiko dogu luzaro eta setatsu jarraitu bear ebala eskabide onetan, baiña lortu arte ez zala geldi egon.*

*Gure ustez, Balendiñen bizitzako arorik garrantzitsu eta zuzenena, 1848.eko Uztailletik 1850.eko Abendu bitartekoa izan zan. Aldi onetan, ondasunik ez eukalako abadetzako ikastaroak lagatera beartu zan, eta bere gogoaren aurkako arerio guztien aurka setatsu jardun ondoren, Jaunaren deia jarraitzeko egozan eragozpen guztiak gainditzea lortu eban. Emen, onerako bere etengabeko kemenean eta goi-eskarraren sinistean ezagutzen da gizona eta santua.*

*Zeaztuta, bere idazkietatik oartzen diran oargarririk berezienak agertu daiguzan.*

*a) Ondasunik ez eukalako, 1848.eko Urriaren bere ikasketak lagatera beartzen da, Abadegai ikastetxe barruko ikasle lez.*

*b) Itxaropena osoan galdu barik, Logroñora biurtzen da bere lagun andi Bordagaz eta eskaria egiten dau, beka erdiarena. Naiz eta emon ez, ikastaroetan jarraitzen dau, kanpoko ikasle lez, eta bertan igaro Gabon jaiak. Baiña oartu bearrezkoa da, kanpotik ikasiarren, eta ziurra da luzaro era orretan jarraitu ebala, ostatuko gastuak ordaindu bearrekoak izango zituala. Zelan konpontzen zan? ezin ukatu ordu azkeetan zerbaitetan lan egiten ebanik. Arotz? Kolegiatako abeslari lez? Ez dakigu.*

*c) Bere gurasoak aal bestean laguntzen dautse. Eurak ordaindu eutsen 1850. urteko matrikula eta bearbada 1849.ekoa ere bai. Eta Perroneren Teologia be eurak erosi eutsen.*

*d) Balendiñentzat Seminaría izan zan luzaro bere gogoaren amets. Eta bere irakasle maiteen laguntzaz, 1849.urtean eleiz-ogibide baten leiaketetarako gertu zan, Elosuako parrokiarako. Jakina da azterketa ona egin eta irizpenik gorena lortu ebala, baiña orduan zeregin orretarako autaketa Gobernuaren esku egoten zan, eta aita-besotakorik lortu ez ebalako, utsik geratu zan.*

*e) Leiaketa galdu ondoren, Elorriora dator bizitzera, aitaren lantegian lan egiñaz. Bitartean Abadegi Ikastetxeko Zuzendaria barriro arduratzen da Balendiñen mesedean, eta eskari bat egiten dau Gotzaingora, gaiso egoan batek bere Beka geldi eukalako. Bere itzak dira:*

*Zillegi ez ete dan Beka orí Berrio-Otxoa, Bergarako Ogibidetzako leiaketan ibiliarí emotea, bere gurasoak ordaindu ezin dautselako, matrikulatuarren, etorri eziñean gelditu zalako...(El Beato Valentin Berrío-Ochoa, Fernando Bujandak idatzia, 81. orrialdea). Ezjakon mesede ori emon, Jainkoak jakin zergaitik, baiña orrela bere gogo zindoaren izatea sendotu egiñaz.*

f) 1849.eko Abenduaren 30ean, Elorriotik Martin Garro-ri idazten dautso, Gatzaga edo Eskoriatzako eleizan Abade-ogibidea uts egoala jakin eraziz eta bere gogoa erakusten, Errege jaien ondoren Logroño-ra biurtzeko eta seminarioko irakatsietara "entzule" lez joan aal izateko. Ezpai barik leiaketa barri batzuetarako gertatzeko asmotan.

g) 1850.eko apirillaren 24an Logroño-n dago eta bertatik gurasoei idazten dautse, utsik dagoen Bergarako abadetzako ogibidea aitatuaz —bertarako leiaketan sartzeko asmoz— eta ikastaroa amaitu arte bertarako deirik agertuko ez balitzen gogoa erakusten dau, ikastaro orretan arako premiñazko diran gaiak sakontzeko premiña eukalako. Ez dakigu leiaketan sartu zan edo ez. Dakiguna da Ekainaren 20tik aurrera barriro Elorrion dagola, eta aitagaz batean aroztegiko lanetan, bere janaria lanean irabazten.

h) Seminaríoko zuzendaria bere alegiñetan ezagutzen da. Ondo ezagutzen dau Balendin eta aurrerako atara nai dau. 1850.eko Ekainaren 15ean barriro eskatzen dau Berrio-Otxoarentzako Beka. Barriro bere lortu ez, Gotzaiñaren aginduz Beka ori Kalagurrí-ko seme zan eta Teologiako irugarren urteko ikasle zan Hilaríon Moreno-ri emon jakolako.

i) 1850.eko azaroan Logroño-tik gertatuarren, urrengo illean Elorríon agertzen da, Abenduaren 9an, Logroño-tik Juan Domingo de Isasik eskubide bat bialtzen dautsalako, bere izenean Aretxabaletako Arkarasoko parrokian, egoan ogibidetza bakararren jabetasuna bere izenean artu egian. (Leengo liburuan, 86. orrialdean.)

j) denporaldi onetako bere oroipen batzuk zaintzen dira, Bizkai aldeko errí batzuetan arotz-langintzan egiñak, Zaldibar, Durango, Amorebieta...

Baiña bere ametsa abade izatea da, eta Erroma-ko ametsetan asten da.

Neguko arratsalde baten ezin kendu dau burutik izen ori: Erroma. An dago Aita Santua, lurrean Jesukristoren ordezkaria... Eta Balendin oiñez joatera gertuten da, bera ikusi eta biotzean ikututera. Eta itxaropen betea artzen dau, bere laguntzaz abade izango dala, eta misiolari eta Krístoren martirí. (Felix Naberan jaunaren eskutitza Aita Jazinto Garrastatxuri, 1848.eko Otsaillaren 12an).

k) Orrelako asmo eta ametsetan ebillela, urte orretan Kalagurrín zabaldu zan Abade Ikastetxe barríko irakasle zan Benigno Merino adiskide kutunaren karta artzen dau. Berak diñotsonez, utzik dago Seminaríoa Azterlarí-Zuzendaritza, len zan Casimiro Peziña kanpora joana dalako, eta gotzaiñak ikasle gazte bateri emoteko asmoa eukala. Eta Jaunari arren egiñaz, beretzako ain egoki izango zan gai onetan, eskutitz bat egiten dautso Gotzaiñdiko Arduradunari bere alde eskatu dagian ardura ori. Eta bizkaitar kemenez eskatzen dautso luzapen barik gai orí aurrera eroateko. Ikusten da Erretorea eta Irakasleak maite ebelako beragaz egozala. Eta ain zuzen, bereala Gotzaiñak ardura orren jabe izendatzen dau. Orrek 30 illabetetan Seminaríoa etenda eukazan ikastaroak barriro asteo aukeran ipinten dau, ziurra dalako utsune orí eukala, ikusten dalako 1848. urteko Urri Teologiko ikasle lez agertzen dala eta barriro ikasle lez 1851.eko urtarrillaren 1ean. (Lengo lanean, 34-36 eta 76. orrialdetan.)

Bein ori lortu ondoren, beretzako ez dauke gaitasunik 1852. urtean eskeintzen dautsezan leiaketa batzuk. Ez eukan premiñarík. Bere gurariak beteta eukazan. Laster lortuko eban Krístoren abade izatea.

Jaunaren eskutuak dirala esan bear orrelako gauzak, 1848.eko udatik 1851.eko urte-barríarte euki zituan amets, alegin eta eroapenak ordaindu nai izan eutsazalako une baten.

1850.eko Abenduaren 31an Elorrion ezagutzen da bere aitagaz lanean. Eta biaramonean Seminaríoko Azterlarí-Zuzendari aukeratzen dabe, aurrerantzean jan bearragaz kezkatu barik eta illero 100 erríal artzen, orrela bere ikastaroak ordainduaz. Aroztegiko lanetik, Seminaríoko irugarren arduraduntzara!

## 5—GURASOENTZAKO ESKUTITZA.

Gurasoenganako maitasuna.— Liburu egokiak iortzeko guraria.

Logroño, 1848.eko Abenduaren 17an.

Guraso benetan maite eta agurgarriok:

Arrituta nago, zuengandik aldendu nintzala ille bi igaro, eta zelan zagozen bere ez adierazteagaz, ni orretan arduratsu egonda.

Uste dot lanak izango dirala orren aitzaki. Jaunak ez daijala nai bestelako ondoes bat bitarteko egotea. Uste dot bildur ori laster kenduko daustazuela, nik nire aldetik eskutitz labur onen bitartez nire ontasuna agertuaz.

Gotzaiña il jaku; azken ostiraleko amabietan igaro zan betikotasunera.

Teologiako liburu guztiak erosi doguz, eun errialetan; baiña oraindik Perrone-rena falta jat, egille biren liburutatik ikasten dogulako.

Asko eskertuko neuskizue, Txomiñogaz Perrone-ren liburu ori bialtzea, Bilbon erositara, gabonetan onera datorrenean, jakin eraziz al bada lau liburutik erosteko eta oraingoz bat bakarria bialdu, Erlejiño eta Teologilekueztaz jarduten dana, ikastaro onetarako bera naiko dodalako.

Pozik joango nintzan Gabonak zuekagaz igarotera, iru edo lau leguako bidea bakarrik bitarteko balego; baiña dagon aldia jakinda, uste dot onartuko dozuela nire ezetza.

Pozez igaro Gabon gaba Frantziskagaz batean.

Oraingoz beste barik, agindu gura dozuen, eskuetan mun dagitzuen zuen seme oneri.

Balentin Berrio-Otxoa

*(1) Dominikoen Ordenak Erroma-n daukan Ardularitza orokorrean agertzen da eskutitz jatorra, bai eta aurreko beste biena, Mutrikuko Augustindar monjen eskuetan gordetzen dala, eta 1905. urtean agertu zirela Zoriontasun-Auzirako.*

*Orain Okaña-ko Aita Dominikoen eskuetan gordetzen dabe bere kopia zeaztutako bat.*

*(2) Ikusten danez, Logroño-ra bihurtu zan ikastaroa astean eta Seminarioan ikastaro orretara eratsu joan.*

*(3) Gaspar Cos eta Soberon jauna, Kalagurri-n 1848.eko Abenduaren 15ean illa.*

## 6.—AITARI ESKUTITZA (1)

GABON ZORIONAK

Logroño-n, 1848.eko Abenduaren 20an.

Juan Isidro Berrio-Otxoa Jaunari.

Elorrio

Aita maite eta agurgarria:

Lagun batek atzo emon eustan.....

Azken igandean (2) idatzi neban karta au eta oraingoz ez dot gogoratzen ezer beronen emoleak esan daiketzunaren gaiñetik. Bakarrik Egubarriak Jaunaren poz eta baketan igaro dagizuezala barriztu. Agindu gura dozuena zuei poz emon nai dautsuen seme oneri.

Balentin Berrio-Otxoa

(1) *Eskutitz au, 1905garren urtean, Ladislao Etxagibel jaunaren eskuetan egoan, Erroma-n Dominikoen Ordenako Nagusitzako Artxiboan agertzen danez.*

(2) *Au da, Abenduaren 17an.*

## 7.—MARTIN GARRO JAUNARI ESKUTITZA (1)

**"MARINELA" Abadetzakoa.— Logroño-ra ostera barria.—  
Seminarioko ikastaroetan entzule lez.**

Elorrión 1849.eko Abenduaren 30ean.  
Martin Garro jaunari.— Kalagurri-n.

Ene jaun agurgarria:

Illabete inguru izango da, Gatzaga edo Eskoritza lurraldean "Marinela" deritxan elizate bateko abade ardularitza utsik geratu zala. Eleiz-auzitegira aginduak eskatu dira eta bearbada oraingoz emonak izango dira. Il zana, Abade egokitua zan.

Ikusirik zelan abadetzara gaituko naberen arduraren baten jabe egin nai dodala, zuregana nator eskatzen, jakin dagizula mesedez eta niri jakin erazi, Abadetzara orrek Ondaretzarik eskatzen daberen edo ez bere jabe egiteko, aurkezpeneko edo leiaketa bidezko dan, eta azken au dala, 24 urte beteak bear diran orretarako edo eta ni sartu ete neiken bertan 23 urte bete ondoren. Uste dot, Jauna, alegiñak egin eta ortaz egon leikenaz jakitun ipiñiko nozula.

Errege eguna igaro ondoren Logroño-ra joateko asmotan nabil, naiz eta berandu, eta entzule lez, eta orduantxe emongo dautsot kontua Redonda-ko Erretore ordezkoiari.

Ondo igaro; emazteari goraintziak eta artu baita nire gurasoen eta nire abegirik onenak. Zure eskuan mun dagitsun zerbitzari.

Balentin Berrio-Otxoa

Atzealdean au irakurtzen da: Bere ardulari izan nintzan Balentin Berrio-Otxoa santu elorriotarraren eskutitzak, erliki lez nire emazte eta semeen artean banandu daitezkan. Erroma-n Dominikoen Ordenako Nagusitzako Artxiboan gordeta dagoz orain.

## 8.—MARTIN GARRO JAUNARI ESKUTITZA

**Bergarako San Pedroko Abadetzakoa.**

Logroño-n, 1850.eko Apirillaren 19an.  
Martin Garro jaunari, Kalagurri-n.

Ene jaun:

Lengo egun baten jakin neban, Bergarako San Pedroko Abadetzaren bere gain daukan Pedro Medina jaunak, ardura ori itxi eta Santa Marina-ra aldatu nai dauka, eta asko luzatu barik ordeztuko zala, leiaketa bidez. Ori jakin erazoten dautsut, egia bada, zer gertatzen dan ziurtatu daidazun.

Redonda-ko Abade ordezkoiari emon neutsezan lengo kontuan zor gelditutako errialak.

Gaurkoz beste barik, emaztearen oroitzagaz, agindu zure eskuetan mun dagitsun zerbitzari oneri.

Balentin Berrio-Otxoa

## 9—GURASOEI ESKUTITZA

**Leiaketetarako gertutera doa.**

Logroño, 1850.eko Apirillaren 24an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Artu dodaz zuen karta maitagarri bi, 320 errealekin datorren txartelagaz batean, onegaz eta bertan doan agiriagaz jakin erazten dautsuedan lez.

San Pedroko abadeak bere zeregiña lagaten ebalak jakin orduko, ortaz ziurtatzeko Kalagurri-ra idatzi neban eta emen bialtzen dautsuedan bestean agertzen dan erantzuna artu neban.

Jaunak ez dagiala nai deiak ikastaro au amaitu baiño len agertzea, gairik egokienak aurtengo ikastaroan daroaguzalako.

Ama, sinistu eziña da niretzat orrelako osterak luzea zuk egitea, eta ain urrutiko lurretatik zear, gaisotasun edo unoreen bat bitarteko egon barik. Naiz eta zuek esan ez, orren kezka nago. Jaunak naiko al dau nire burutapena besterik ez izatea.

Aita eta ama, oraindik zuen egunei buruzko zorionak bialtzen dautsuedaz, eta euran gorputz eta arimako osasunez ospatzera eldu zaitezela.

Oraingo ez daukat besterik esateko, Etxeko guztiekin bete nirekikoak, bai eta Markoida, Olalde eta abarrekaz, eta nai dozuen lez agiñdu zuen seme eta menpeko oneri. Eskumiñak.

Balentin Berrio-Otxoa

I.O.— Igazko matrikularik ordaindu bearrik euki ezik, daukadan diruagaz zela-ala elduko naz.

(1) *Maria Berrio-Otxoa, Zoriondunaren leengusiña betea, Juan Isidroren eriotzan egon al izan zan 1869. urtean eta berak emon eutsazan Balendinek eskuz-eskuzko idazki batzuk, eta berak, gero, opari onurakor lez, Elorrioko Santa Anako monjei eskeiñi. Au da euretako bat. Oraingo, jatorra, Gasteizeko Obispadutzan gordetzen da.*

## 10—JOSE ROKE-RI ESKUTITZA (1)

**Elorrion biurtzea.— Bere abadetzako deiturarako une garratzak.**

Elorrion, 1850.eko Ekainaren 20an.

(Jose Roke jaunari)

Adiskide maitea: (2)

Zure karta atsegiña artu dot eta bertan diñozuna ikusita, karta onen eroantzaillegaz bialtzen dautsut manteoa, sotana eta beka (3); Logroño-tik errira eroateari buruz, ez dago zetan jardun.

Borda dala eta, esan bear dautsut Zileiztia (Moral) ikasten dagola erri txiki baten, eta datorrenean emongo dautsula zure eta nire etxeakoandarearen etxean laga zendun mai, orgatxu eta garbi-gailluaren dirua.

Aurten zenbat asi diranen barririk ezin neuskizu emon. Ikasbideari buruz esan neikena da alde gitxigaz aintziñakoa artu dabela.

Oraingo esan daikedana orixe da, Agurtzeko, nire agurrak Astarloari, eta jakin Elorrion daukazula zure agindupean geratzen dan adiskide eta zerbitzari au.

Balentin Berrio-Otxoa

(1) *Eskutitz onen jatorria Gasteizeko Gotzaingoan gordetzen da, eta bere Zoriondunzarako Auzian erabili zan bat da.*

(2) *Bere adiskide Jose Roke Iraurgi eta Agirreri zuzendua da, 1850. urtean Logroño-n ikasle eta Fray Balendinen zoriondun aukeratzean, 78 urtedun abade zartxo.*

(3) *Elorrion Balendinek eroaten eban bizimodu eta bere ikastaroak etenda euki zituan bitartean erabiltzen eban jantziei buruz, irakurri El Beato Valentin de Berrio-Ochoa, Fernando Bujandak idatzia, 77. orrialdea.*

## 11—MARTIN GARRO JAUNARI ESKUTITZA (1)

**Azterlari-Zuzendariaren zeregiña. (2)**

Elorrio, 1850.eko Abenduaren 31 an

Martin de Garro jaunari.

Kalagurri.

Ene jauna:

Uri orretako Filosofi Irakaslea dan nire lagun kutun Benigno Merinok jakin erazo daust, Logroño-ko Seminario Andian leen azterlari-zuzendaritza ardu-



radun zan Jose Pastor-ek, eta azkenean Casimiro Peciña jaunak, utsik laga dabela zuzendaritza ori eta Gotzaiñak ikasle gazte bat ipini nai dauala ardurara orretan.

Nire ikastaroak jarraitzeko eziñean nago eta abadetzara eltzeko ezelako nortasun barik; orregaitik uste dot ez dodala aukerarik itxi bear ardularitza orregaz jabetu al izateko.

Ori dala eta, ni neuk bere gaur bertan idatzi dautsadan irakasleagaz atondu ondoren, eskatu egizu berealako baten ardularitza orretarako nire eskarien bat, eta ondorena jakin eragin...

Balentin Berrio-Otxoa.

*(1) Idazki-eskari onegaz betetzen dau Balendinek Erromara joan aurretik abadetzara eltzeko eukan azken aukera. Eta Jaunari, Gotzaiñari eta Seminarioko irakasleei esker, eskatu-ala urten eutsan. Agiri au Erroma-n gordetzen da.*

*Onek uts emon ezker, beste urtenbide bat eukan, arriskutsua eta oiezkoa. Baiña aleginduko zan. Orrela diño bere lagun zan Basilio de la Espada, Gemikako artzipreste jaunak. Azken aldiz 1906. urtean Elorrjora joan zan bere aintziñako lagunaren erikiak laztantzera. Igar, agure eta okertuta, urte eta oroimenen ondorioz, pulpitora igo eta itz egin naian asi zan Elorrjoko martiria goratzeko asmotan. Baiña biotz-arradaz, abotsa eztarrian estutu ondoren, mara-mara malkoz begiak bustita... itzik egin ezinda beratu zan, entzuleak barruko itotasunez beterik lagata, euren artean orain Durango-ko artzipretea dan Pedro Rafael Aboitz.*

*(2) Ardura onetaz eta bere zeregiñei buruz, ikusi "El Beato Valentin Berrío Ochoa" liburutxoa, Fernando Pujanak, Seminarioko erretoreak idatzia, 89.orráldea.*

## 12—MARTIN DE GARRO JAUNARI ESKUTITZA

**Abadegintza artzeko gertatzen.**

Logroño, 1851 .eko Otsaillaren 6an.

Martin de Garro jaunari.

Kalagurri.

Ene jauna:

Gotzaiñak nire lagun dan Benignoren bitartez erakutsi daustan borondatea beteaz, datozen Tempora aldirako abadegintzako aginduak artzeko eskabidea egitea erabagi dot; orretarako nire gurasoei eskatu dautset bialdu dagistela bateoko agiria, eta au oraindik ez da nigana eldu, baina Prima-ko duintasuna eta nire prestutasunaren egiaztapenagaz batera bialduko dautsut, Zuzendari nortasuna bialtzea bearrezko danik ez deritzadalako.

Gertatu leiken lez Bateoko Agiria il onen 14 aurretik ez artzea, zuri jakin eraztea erabagi dot, egun ori aurretik Ordenak artzeko eskabidea egin dagizun.

Ondo igaro eta agindu nai dozuna eta zure adiskide onen eskumuñak.

Balentin Berrio-Otxoa.

## 13—MARTIN DE GARRO'RI ESKUTITZA

**Barriri Bergarako San Pedroko Abadetza.**

Logroño, 1851 .eko Otsaillaren 10ean.  
(Martin de Garro jaunari.— Kalagurri-n.

Ene jauna:

Emen bialtzen dautsut Zuzendari nortasuna, Prima (1) koa, bateoko agiria eta prestutasunaren egiaztapena, bai eta sakramentueterako sarritasuna, eta abar, euren bitartez Ordenak eskatzera igaro al izateko.

Bergarako San Pedroko Abadetzakora aurkeztuteari buruz, egiten diran deiak ikusita gero erabagiko dot, oraingoz Teologia ikasten ekiteko gogo geiago daukadalako, leiaketetan ibiltzeko baiño.

Ondo zaindu eta agindu, eskumuñak artuaz, zure adiskide min oneri.

Balentin Berrio-Otxoa

I.O.—Ez dautsut Zuzendari nortasunik bialtzen, Erretoreak bere egiaztape-  
nean aitatuta lagatzen daualako.

*(1) Koroitze edo Tonsurako agiriataz ari da, 1846.eko Ekainaren 14an egin eutsela-  
ko, bere guraso eta arreba besarkatzera joan aurretik, Filosofiako lenengo urtea  
"bikain" ezaugarritz amaitu ondoren.*

## 14—MARTIN DE GARRO JAUNARI

**Bere guraria: abade izatea.**

Logroño, 1851 .eko Otsaillaren 13an.  
Martin de Garro jaunari.— Kalagurri-n

Ene jauna:

Zure azkenengoan esaten dozuna ikusita, Zuzendari nortasuna bialtzen dautsut, bera eta lenago artutako agiriekin, gura dodana lortu daidan.

Ondo igaro eta beti lez, eskumuñakaz, zure kutun eta zerbitzari.

Balentin Berrio-Otxoa.

## 15—BERE GURASOEI ESKUTITZA

**Abadegintza laster artzeko egoala.**

Logroño-n, 1851 .eko maiatzaren 19an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Egun gitxi barru idatziko neutsuen eskeintza beteaz, gaur esan nai dau-

tsuet Abadegintzako Ordena eskatu dodala, Irutasun egunerako eta oi dan lez Kalagurri-n artuko dodala, uste danez, Gotzaiña, orain egiten dabillan ostera amaitu ondoren, ango etxera joango dalako.

Uste dot gogo bizia eukiko dozuela nire lenengo meza or emoteko; baiña niri ez jat atsegin orrelakorik. Beste arrazoi astunagoak itxita, batzuen artean barru-miñak sortu leikezalako, batzuk gonbidatu eta eurak ez egitean. Orrez gaiñera Pedro Infante jaunak (3) emen izateko gurariz jarraituko dau, aspaldi esana daukadalako emengo Augustindar monjetan meza abestua eskeini bearko nebala eta berak sermoia egin.

Orregaitik, arren eskatzen dautsuet, orrela gertau ezkeru, ez mintzeko.

Logroño-n Misiñoiak dagoz. Ziurretik il onen 21ean asiko dira.

Emendik ondo nabil, eta ala nai neuke zuek be. Etxekoekin bete, bai eta Amileta, Olalde, Retolaza (4), Markoida, Bikarioa, Aita Bikarioa, eta abarrekin.

Zuen seme onen maitasuna artu. Eskumuñak.

Balentin Berrio-Otxoa.

I.A. Nere amacho bigunac  
neurtuco du bay dempora  
bere biotzeco cutunak  
casulla bota artian lepora.

(1) *Dominikoak Erroma-n dauken Eske-Ardularitza orokorrean dagozan oarretan agertzen danez, eskutitz au, 1905. urtean, Jose Vicente Ortiz Bidasolo elorriotarraren eskuetan egoan.*

(2) *Balendinen Abadegintzako Ordenei buruz, ikusi "El Beato Berrio-Ochoa" 1949,95-104. orrialdetan, Logroño-ko Seminarioko Erretoreak idatzian.*

(3) *Don Pedro Infante, Arabako Yekora-n jaioa, Seminarioko Irakasle izan zan eta Erretore-Ordeko. Balendinen adiskide andia zan. Logroño-ko bere senideak oraindik gordetzen dabe bere argazki bat, orduko idunekogaz (alzacuellos), txatal zuri eta baltzez beteta.*

*Gizon au orduarien maitale zan. Mekanikan zaletua. Eta ez jakin Balendineri oroigarri lez eskatu eutsan edo ez, edo Balendinek bere borondatez eskeini, ziurra da Balendin Okaña-ra joan zanean, dominikotar misiolari egiteko asmotan, orduari-esnatzaille ori eskeini eutsan, berak otoitzarako esnatzeko gauero erabiltzen ebana, eta orduari ori ondo zainduta dago, abade aren illoba dan Eleuteria Torres andreari esker.*

(4) *1950. urtean Eibarren, Urtarrillaren 28an Bizenta Egidazu andreak idatzitako esku-titzan au irakurtzen da:*

*"Bere adiskide Margarita Agirre eta bere aitzak, bere ama zan Antonia Askazibarreri entzunda eukela Jose Domingo Retolaza osaba abadea euki ebela, eta au Elorrioko parroko izan zala kanonigo izan aurretik.*

*"Antonía eta Jose Domingo jaun andreak Balendin Berrio-Otxoaren amaren adiskide andiak zirala, eta au arratsaldetan euren etxera joaten zala jostera eta antxe askaldu edo meriendatzen ebala.*

*"Balendinek, dominikoen taldean sartzera joatean, bere sotana emon eutsala bere adiskide zan Jose Domingori eta onek luzaro erabili ebala, eta urteak geroago bere senideei itxi eutsela, eskatuaz, lotsaz eta arretaz zaindu egiela, santutzat eukan Balendiñena zalako.*



*Berio-Otxoa'ren Irudia. Bere Jaiotetxean*

## 16—BERE GURASOEI ESKUTITZA

Abadegintza artzen dau.

J.M.J.

Logroño-Kalagurri, 1851 .eko Ekainaren 15ean.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Atzo izan zan abadegintzako ordena artzeko ametsetako eguna, eta biar Logroño-ra biurtzeko asmotan nabil, an meza eskeintzeko erabideak ikastera eta autortzak egin al izateko baimenak lortzeko zileiztia (moral) ikastera, sinodoko azterketa uri aretan egin bearko dodalako.

Orregaitik, eta Zileiztia aspaldi berrikasi ez nebalako, ezin joango naz orra Santiago edo Santo Domingo aurretik; Jainkoa lagun, orduntxe eukiko dozue ikusteko poza.

Atzo Borda-k nire adiskide Merino eta nigaz bazkaldu eban eta biar sartuko da sinodoan. Orrela 100 errial eskatu eustazan, eta euren gurasoen etxean artuko dozuez eurak.

Nire oroitzak etxekoei, Olalde, Retolaza, Markaida eta abarrei, eta agindu, Jainkoaren errukiari esker aingeruak bere dardaraka artzen daberen duintasun batera sartu naberen zuen seme oneri, makurtuaz eskumuñak emoten dautsuezanari.

Balentin Berrio-Otxoa

*(1) Lau illabeteko epe laburrean, Balendin bere aitaren aroztegitik abadetzara aldatzen da, bere irakasleen poz eta ikasbide eta menpekoen atsegiñez.*

*Ekainaren 14an artu eban Abadegintzako ordena, sasoi aretan Kalagurri-ko gotzain zan Migel Jose Irigoyen guztiz agurgarriaren eskutik. Au naparra zan.*

*Egun berean abadetu zan Luis Inazio Borda, durangarra, bere adiskide miña. 1845. urtean alkarregaz ibiltzen ziran Elorrioren domeka arratsaldetan; batera sartu ziran Logroño-ko Abade-lkastetxean; egun berean abadetza artu, biak ziran Kristoren maitale gartsu eta arimekin amets egiten eben. Eta 1866. urtean Balendin Martiriaren erlikiak Elorriora eldu ziranean, Luis I. Borda au izan zan Elorrioko parroko lez, erriaren sarrean agur egin eutsena, bere barrua ordurarte sekula ezagutu eban pozez beteta...*

*(2) Denporaldi onetan Balendiñek asko ikasi bear izan eban. Bere lagunak iru illabete aurrez ikastaroa asita eukun, 1851.eko Urtarrilan bera sartu zanean. Gero Azterlari-Zuzendaritzak bere, denpora asko eroaten eutsan.*

*Orrez gaiñera konturatu iru azterketa euki zituala Ordenak artzeko, eta beste iru bidar gogo-jardunak egin bear.*

*Orregaitik ez da arrigarria etxeko orma-artetan bere Teologiako liburuagaz ikustea, egunak argi egiten eban arteko une guztiekaz baliatzeko.*

*Gauzak orrela, eta osasunez bere naiko makal ibiliarren, ikastaroetan gaitasun agirik onenak atara zituen, bere ekiñari esker eta zeruak emon eutsazan argitasunaz ustiatu zalako. Gai guztietan "bikain" lez geratu zan eta azken urtean "meritissimus".*

*(3) Eskutitzan diño bere lenengo meza Logroño-ko Augustindarretan emoteko ustea eukala, naiz eta egunik izendatu ez, ez eta ordena artu eban Kalagurri-ra biurtzeko egunik be, ezta bere Elorriorako noiz urtengo zan. Bere asmoa Elorriora Uztailaren azkenetan edo Abuztuaren lenengotan eltzea zan.*

## 17.—ABADEGINTZAN

### Axpen, bataiatzen. "Luisa Sagastagoia eta Okiza"

"Mila zortzireun eta berrogeita amaikako Abuztuaren emeretzian, izenpetzen dodan onek, Abadea, Logroño-ko Seminarioko Zuzendari-ordekoa, ontarako Axpeko eleizateko Abade Zerbitzari dan Alejo Abasolo jaunaren baimen bereziagaz, neska bat bataiatu dot, ekarri ebenen esanez, egun onetako goizeko iruretatik laurak bitartean jaioa, eta LUISA ipini dausat izentzat. Ramon Sagastagoia eta Martzelina Okizaren legezko alaba da, a Abadiñon jaioa eta au Axpeko eleizate berbertakoa, biak eleizate onetako bizilagunak. aitaren aldeko aitita-amamak: Martin Sagastagoia eta Maria Madalena Gari-tazelaia, a Abadiñotarra eta au Berrizen jaioa eta oraingotan Abadiñon bizi direnak. Amaren aldeko aitita-amamak: Jose Okiza eta Juana Mendia, biak Axpeko eleizate onetan jaio eta bizi diranak. Aita Besoetakoa: Martin Jose Sagastagoia eta Juana Mendia, a Abadiñon jaio eta bizi dana eta au elizate onetan jaio eta bizi dana. Jakin eragin neutsen lotzen zituen gogozko senitarteak eta beste eginbearrak".

Eta jakingarritzat izenpetzen dogu.

Balentin Berrio-Otxoa.  
Alejo de Abasolo.

*(1)Agirí onek, 1851.eko Abuztuaren 19ko eguna daroa. Bataioetako Liburutik atarata dago. Izenpena zoriandunarena izanarren, idazkera bertako parroko zan Alejo Abasolo jaunarena da.*

*Azpimarratu bearrezkoa da emoten dan nortasuna: "Abadea, Logroño-ko Seminario-ko Zuzendari-ordekoa..."*

*Abadetza artzeko eskarian bere deitura orí erabiltzen da: Seminarioko Zuzendari-ordekoa."*

*"Logroño-ko Erretore eta Irakasle jaunen Orniturako liburuan" bere, au irakurtzen da: "Zuzendari jaun Valentin de Bemo-Ochoarí. Eta bardin urrengo urteetan.*

*Eta azkenez, "Ikas-agirietako Liburuan", 1853. urtean, Idazkaríak "Seminarioko Zuzendari" deitzen dautso. (Ikus "El beato Valentin Berrio-Ochoa" liburua, Fernando Bujanda, 1949, 93 eta 120. orrialdeetan).*

*Bere adiskide batzuk, euren artean Luis Inazio Borda-k, Seminarioko gogo-zuzendari deitzen dautse.*

*Badirudi ardura orí gaur alde batetik Araudi-zaindarí eta beste zati baten Gogo Zuzendariak betetzen dituanen kideko dala.*

## 18—MARTIN GARRO'RI ESKUTITZA

### Azterlari-zuzendari lez egiña.

Logroño-n, 1851 .eko Iraillaren 27an.  
Martin Garro jaunari - Kalagurri-n.

Ene jauna:

Gaur goizean Eibarreko gazte bat agertu da Seminarioan sartu nairik, baiña ezelako eskabiderik egin barik, bere oarpenerako.

Orregaitik eskari au agertu egizu mesedez Auzitegira eta bear diranak egin bere onarpen edo izendapenerako. On Tomas Idazkariarengana joan naz agiriagaz, baiña orra zuzenduta.

Aztertu ondo eta ikusi zertan lagundu daiketsun eskuan mun dagitsun zure zerbitzari onek.

Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Aurreragoko sarreraren gastuetarako 60 errial emon neutsazan eguaztenean Altube jaunari.

## **19.—MARTIN GARRO'RI ESKUTITZA**

**Seminarioko sarreretako arduradun lez.**

Logroño, 1851 .eko Azaroaren 9an.  
Martin Garro jaunari. Kalagurri-n.

Ene jauna:

Zuk Auzimaian agertu zenduan Eibarreko ikaslearen eskarian, itxura danez, Seminarioko sarrera eskatu eban bere gurasoen gurarien aurka, euren argitasun batzuk eskatzean erantzun daustelako euren guraria ez zala izan euren semea barruko ikasle lez geratzea. Ikasle a gomendatzen etorri zana emendik agertzearen zain nago, bitartekotasunezko gastoak ezartzeko.

Datozan Tenporetarako eskatu mesedez lenengo koroetzako eskabideak Martin Zengotita-Bengoa, Berriztarrantzat eta Lukas Lasuen, Logroñokoarentzat, biak Seminarioko ikasleak.

Ikasle bi oneen sarrerako gastuetara egoan zorreko 60 errialak, zure esanetan Mondragoen ordaindu bear ziranak, ordainduta dagoz.

Ondo igaro eta agindu eskumunak damotsuzan zure zerbitzari oneri.

Balentin Berrio-Otxoa.

Lasuen 28-4

Erantzuna, agiriak eta egiaztapenak irakasleari bial-tzeko.

Zengotita 28-4

## **20.—MARTIN GARRO'RI ESKUTITZA**

**Abadegaiekin arduratuta.**

Logroño-n, 1851 .eko Azaroaren 20an.  
Martin Garro jaunari - Kalagurri-n.

Ene jauna:

Oraindik ez dodaz artu lenengo koroatzeko eskabidea egiteko bear diran ikasle bien bateoko agiriak, azkenengo kartan gogoratzen neutsuzan lez,

naiz eta zurea artu eta bereala eskatu. Bearbada egun gitxi barru elduko dira, eta oraindik denpora balego aurkeztuteko, esan, bialdu dagitsudazan. Ondo igaro eta beti lez eskumuñekin, zure zerbitzari maitekorra.

Balentin Berrio-Otxoa

## 21—GURASOEI ESKUTITZA

**Madriдерako bideko bizkotxoak.— Galtzeak atsekaberik geien emoten daustana.**

V.J. V.M.

Logroño-n, 1851 .eko Azaroaren 27an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Lengo igande goizean nire lagun Isasik emon eustan lñazioren kartatik jakin dot zergaitik zegozen ain arduratuta nire osasunagaitik, au da, Polikarpok garaiz ez eutselako emon nire liburuak eioazan kutxa (bertan baita nire eskutitza). On lñazio berberaren arrebaren etxean. Uste dot, bein artu ondoren, kezka ori baretuko zala, eta oraindik bere bildurren bat badaukazue, kendu kezkok, zuen seme au ondo dagolako.

Markoidari esan, "Astete"ak Urtarrillako liburuekin batera bialduko dau tsadazala, eta aztutzen ez bajataz, emon bearko diran lenenak dirala. Elitzake arrigarri aztutzea, kontutan eukita, amak Erretorearentzako emon eustazan bizkotxoaren arduraz beteta ibili banintzan be, Pankorbo-n burditik jeistean aztu egin jatan zaldizaiñari eskatzea eta onek Madrid-era eroan zituan; orregaitik ain atsegin jausi jatzuez Logroño-ko melokotoiak, Erretore oneri Elorrioko bizkotxoak lez.

"Ah mutillen sentimentua! Arrazoa dauco Amacho, sentimentuac vizcochuac ecarrico baleustas; baña cein negar eguin, cein barre eguin, vizcochu baric dago Valentin. Gauza bat galtcia pena emon biar deuscu, eta gauza au iceinda? ócein? da Juangoicuaren gracia, eta bacarric Jaungoicuaren gracia, cergaitic au galduas gauza gustiac galtcen dira, eta au dau canari ecer echaco falta. IO gracia, graciai Zure preciyua gustis da andiya. Jaungoicuaren semiac guretsat irabaciya, gure amores igaruas eriotzaco larriya, zugas mundutik doianentzat da ceruco gloria; ainche icusi nay neque nic nere ama Mariya".

Aurten ikasle asko dagoz Seminarioan. Barrukoak 72 batzen dira eta kantopotik ikasten dabenak beste 160 inguru.

On Pedro Infante gure Martinegaz batzen da eta jolasaldia eukiten dau bere kontura. Bere apaltasunagaz arrituta dago.

Merinoren 317,5 errialak, aspaldi artu nituan.

Gaurkoz naiko da.

Etxekoei gorantziak, eta nire aldetik mutillei esan kontu eukiteko Iruleen bidea zapaltzen eta Gabonetan Bigeras kalean, labana dalako eta jausten badira gizonen erremedioentzako kalte andia egingo dabelako.



Nire lagun eta adiskideei bere nire barri emon.  
Zuen seme onen maitasun biozkorrenak artu. Eskumuñak.

Balentin Berrio-Otxoa.

*(1) Eskuz idatzia Elorrioko Dominikar monjak gordetzen dabe, Martiriaren ainbat oroitzen jabe lez eta batez ere bere oroimenean jarratzaile lez.*

*(2) Balendin abade egiña zan eta Seminarioko Azterlari-zuzendari. Udan Elorriona etorri zan, gurasoen etxera.*

*Ezpai barik orduntxe berba egingo eben Erretore eta Irakasleak beragitik euki eben arduratzaz eta amak, eskartsu, bere ezintasunean be, bere eskerra agertu nai izan eutsen, gozo kajatxu bat bialduaz.*

*Baiña Zoriondunak, Pankorbo-n burdia aldatzean, aztuta laga zituan eta geiago ezer jakin ez.*

*Gertaera ori gogoratzen dau Balendinek, eta oiñarri lez artuta, esker ongariari bidezko gogarte zeatz bat egiten dau.*

## 22—GURASOEI ESKUTITZA (1)

### EGUBARRI ZORIONTSUAK

V.J. V.M.

Logroño-n, 1851.eko Abenduaren 17an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Zuen osasunari buruz zerbait jakiteko garretan nago, batez ere amari dagokienean, egunetatik zerbait jakina nagolako. Ez luzatu orren barri emoterik.

Juana Amezua andreari esan Sorkunde egunetik bere semea eta Martin gogo-jardunetan dabiltzala, eta biar goizean jaunartzeagaz amaituko dituela eta etzi Kalagurri-ra bidaltzeko asmoa daukadala egunero emendik Tutera-ra joaten dan kotxean.

Gabonak egun orretako ospakizun eta misterioak agintzen daben eran igaro dagizuezala nai dot. Nik, Jaunaren eskerragaz, alaxe egiteko ustea dot.


Gotzain jaunak seminariora 6 errialeko meza talde bat bialdu eban eta niri amaika agindu eustezan; orregaitik ez geiagorik bialdu nire dei barri bat artu arte.

Ondo zaindu, etxeko eta lagunekin bete eta agindu gura dozuena benetan maite eta emengo eta geroko zoriona opa dautsuen zuen seme oneri. Eskumuñak.

Balentin Berrio Otxoa.

*(1) Idazki onen jatorra Elorrioko Dominikar monjetan dago.*

*(4) Berak Azterlari-Zuzendari zala zaindu eban ereduazko jokabidea eta ikasleei egin eutsen mesede andiari buruz, ikusi "El Beato Valentin Berrio-Ochoa", 1949, Fernando Bujanda-k idatzia.)*



*Mariñtzako kateen erikiak. Filipinas/etako Euskaldunak bialdua.*

## 23—GURASOEI ESKUTITZA (1)

Antzerki-jai eratzaille.— Musikari ospetsu bat.—  
Ama Birgiñari maitasuna.

Logroño. 1852-1-5'an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Gabon alaiak igarotzen diardugu bertoko ikasleekaz batean. Euron artean danetarikoak dagoz.

Gabon egunean, Jesusen jaiotza antzestu eben. Urte barri egunean, arañegun, atzo, gaur eta biar, bestelako antzerki eta jostirudiak eta batek ez jakin zelako gauzak; baiña ain ondo egiten dituelako, bitsetan gaukez.

Datorren zapatuan Maitasun Ederreko Amaren irudia bedinkatuko da uri onetan. Egun orretako goizeko zazpirak orduko gure Seminarioko eleizara ekarriko dabe eta ementxe egongo da arratsaldeko bostak arte eta gero Kolejiatara eroan.

Ez da egoki bere semetzat gagozanok bere alde ezer ez egitea, eta orregaitik Salbe ete Letania abestuko doguz. Salbea badaukagu, baiña Letaniarik ez. Orregaitik eskatzen dautsuet karta au artuaz batera Fray Pedrori eskatzeko emon dagitsuela ondo egindako letani bat, pianorako laguntza eta guzti, eta beste eresgaillu batzuentzat gertua bada, bardin. Bai eta gabon kantaren bat edo gure etxean artzean egoki litzaken kanturen bat. Eta, denpora aurrera doan lez, au artu eta gau berbertan sartu bidarian eskatzen dautsuedana.

On Pedro Infante-k egingo dau agerbideko itzaldia. Ez dakit Erretoreak irakasle bategaz eta nigaz emongo daben Meza.

Arin nabil eta parkatu geiago ez esatea.

Eskumuñak, zuen seme.

Balentin Berrio-Otxoa.

(1) Eskutitz onen jatorra Elorrioko Dominikatarrak gordetzen dabe.

(2) Idazkian esaten dan Ama Birgiñaren Irudia, ziurretik gaur Logroño-ko Kolejiatan dagona da. Balendiñek eraspen andia gorde eutsan eta 1853. urtean negarra ataratzan eban sermoia egin ebanean bere aurrean.

(3) Bere musikaren ezaupide eta gaitasunak, bere idazki batzutan agertzen dira.

Besteen artean gogoratu geinke Manila-tik 1857.eko Uztaillaren 4an egindako eskutitz bat. Bertan aitutzen dautsa itxasoko bidaian iru abotsetarako Miserere bat abestu ebela.

Santiago Palacios eta Cabello jaunak, bere ikaskide izan eta geroago Logroño-ko Seminarioko erretore izan zanak diñoanez, bein biak ikasle zirala, Erretoreak baime-na emon ebala Pentekostes jaietan musikagaillu batzuk jotzeko. Orduan ikasle guztiak Balendiñeri eskatu eutsen flauta jotzeko, ondo egiten ebalako, eta berak nagusien borondatea ezagututa, zalantzan egon barik, ikusleen eta entzuleen txalo artean jo eban. ("El Beato Valentin de Berrio-Otxoa", Fernando Bujanda, 48. orr.)

Artista utsa zan. Aurrekua dantzaten ekian, flauta jo, Mezak abestzea, zuzendu, eta abar.

Eta beti bere Jaunari atsegin egitearren, gizonen zerbitzuan. Santutasun alai eta eroapentsu baten egitura. Hilarem datoren diligigit Deus.

## 24.—BERE OSABARI ESKUTITZA (1)

Anzuolako Abadetza.— Eta Santa Marina-koa.

J.M.J.

Logroño, 1852.eko Otsaillaren 11 an.  
Fray Juan Cruz Ariztiri. Elorrión.

Osaba maitea:

Ezelako eleiz ogibiderik eskatzeko gogo gitxi neukan, zure azkenengo mesedegarria artu nebanean, eta ez nindun poztu Anzuolako Azkarate abadea iltean utsik geratu zan abadetza eskatzera, zure eskaria zan lez.

Zotin geiago eragin eustan Gabon aurrean Arratabe jaunak egin eustan, esanez kemenez beteta beregana joan ziñala bere ustez nik agertu bearko neban agiritaldea gertuteko asmotan.

Egia esan, ortaz emengo Irakasle bategaz jardun ondoren, bere gurariz, nire naia agertu neutsan Oñateko Kondeari.

Baiña badirudi ardura onetan sartu nindun Jainkoaren ardurak, ni deitua izan nintzan egoeran ipiniaz, oraingoz ardura au ez lagatzea nai dauala; ala, ni lenengo eskabideak egiten asi nintzanerako, patroia asita egoan zeregin aretarako eta ogibide aretarako tonsuradun bat aurkeztuten, Arrataberen erantzunean ikusi daikezunez.

Bergarako San Pedroko Parrokoak be eskeiñi eustan Santa Marina-ko zerbitzua, (3) baiña ukatu egin nintzan. Jaunaren maastian lan egin nai badot, aukera ona daukat egunen baten eleizaren oiñarri izango diran landare gazte oneik (4) zaintzen.

Ondo zaindu eta agindu bildur barik zure illobari. Eskumuniak.

Balentin Berrio-Otxoa.

*(1) Idazki onen jatorra, Elorrioko Dominikarrak gordetzen dabe.*

*(2) Oñateko Konde jauna zan gaitzat bere onartuak aurkezten zituana.*

*(3) Santa Marina-ko Ogibidetza aurkezpenakoa zan, ez ondarekoa. Baiña Balendineri ez etorkion egoki. Kristoren abade zan!*

*(4) Seminarioko ikasleen ezkontzan zintzo eta arretaz lanean ziarduan. Denpora azkeetan, urian sermoiak egin edo autortzak entzuten zituan, eta sarri joaten zan Ospitalera gaisoak ikustera. Bere gogo zuzendaritza zabala zan: abade, ikasle eta kaletarrentzat.*

## 25.—BERE AMARI ESKUTITZA (1)

Barriro bizkotxoak,— Aberastasunen egarri.— Seme-maitasuna.

¡Bici bedi Jesus!

Logroñon, Martiyen ogueta irugarrenian, milla sortcireun da berrogueta bigarren urtian.

Amacho:

<Niri deustan amoriyuac burutic erain deutso? ortic urte nebanian emon

eustacen bizcochuac birian galduta, mereci neban ez gueiyago bialticia; orregaitic icaratuta guelditu nintsan lengo egunian Estevan errotariyen semiac sei bizcochu ecarri eustazenian. Sei onetatic bi nere lagun maite Merinori erregalau neutsacen: bat Erretore Jaunari: beste bat Infante Jaunari: bat beste Catedrático bati; eta beste bat guelditu neban neugas. Esque-rric asco ama.

Asquenengo cartia escriptuta laster artu nituan sortcireun errial Landaco semien escuetatic; egon bada ardura baric.

Osabiari esan beiyo Maijatceco loretan Elorrijoarrai sermoe bat eguin bear deutcela ondasunen zaletasunen gainian, bada vizcaitarrai diruaren gosiac ezteutce izten guicentzen ariman Jaungoicuaren aurrian; da au ezto-dala esaten chanchetan.

Asco da ama gaurco; aitari esquini beijos semiaren biotceco afectuac; da cumpletian dabela osabiagas, arrebiagas, mutillacas, Yzeco Susanagas da beste gura dituzan gustiacas.

Jaquin be badaucala Logroñooco Seminarijuan seme bat mundu onetan desio deusana gracia ugari, da ceruan gloria bere Amari.

Valentin de Berrio-Ochoa, deicho berari.

*(1) Idazkiaren eguna oker dago. Ez da 1842. urtea, Balendiñek oraindik amabost urte baiño ez eukazalako, 1852. urtea baiño, abade egin eta arimen alde aspergabe lanean ebillanekoa baiño.*

*Bertako zer esanak be ala agertzen dabe, kontuan eukita bizkotxoan gertaera 1851.eko Azaroaren 27 baiño geroago izan zala.*

*Erroman Dominikoak dauken Eskale-Ardularitza Orokorrean irakurten danez, esku-titz au erliki berezi lez gordeten dabe Mutrikuko augustindarrak.*

## **26—SATURNINO JAUNARI ESKUTITZA (1)**

**Hipoteka batzuk dirala eta.**

Logroño-n, 1852.eko Azaroaren 21 an.

Erroma-n Dominikarrak dauken Eskale-Ardularitza orokorrean, idazki oneri dagokion oar bat dago, hipoteka batzuk dirala eta. Gaur ez jakin non aurkitzen dan.

## **27—LEON BARRUTIETA JAUNARI ESKUTITZA (1)**

**Bere osasun egoera.— Liburuentzako maitasuna.—  
Apostoladutzako egarria.**

J.M.J.

Logroño, 1852.eko Azaroaren 21 an.  
Leon Barrutieta jaunari- Marzana-n.

Barrutieta anaia:  
Aspalditik nebillen gure adiskide batzarra egin gendun gauan zuetatik

aldendu nintzanean egindako eskeintza bete naian; baiña sinistu egidazu, lanez beteta nabil, arnasarik bere artu ezinda, esaten dan lez.

Zuek argal ikusten ninduzuen bidean asteko; baiña onera eldu eta laubost egunetara or beste amabost egun atzerago urtenda baiño gogorrango nengoan. Elorrión makalago nengoan, alaxe zaindu bere egiten nintzalako; baiña Logroño-ra eldu ezkeroko gogor nago, gogor lez zaintzen nazalako, naiz eta oraindik euki ez Marzana-ko abadeak aiña aragirik. (2)

Arpidetzea eskatu zendun Alzog-en Eleizaren Kondaira orokorreko lenengo lau liburuak emen daukadaz, eta gogoratzen banaz, kristau urteroko lenengo bialdueran igorriko dautsudaz. Beste biak, Espaiña-ko Eleizako Kondaira bereziari dagokiozanak, urten ala bialduko dautsudaz, bai eta Biblia-ko liburuak bere, onetatik lenengoa bearbada Kondairako laurkaz batera.

Gure oraingo Erretoreak (3) bere erriko "Magistralia"-rako leiaketak egin eta izendatzea lortu dau; bera baiño zerbait okertxoago dan bat etorteko garretan nago.

Gotzaiña bere (4) Madrid-era joan zan orain zortzi egun sagaratzera; biurtu daitenean emengo 400 ikasle matrikulatuei, batez ere barruko 72ei bere aginduak emoten ikusi nai dot.

Ondo zaindu, zerutar garrez Jaunak emon dautsun maastia lantzen.

Biok adiskide dan Bordagaz bete, gura dozuna esanda, bai eta zure guraso eta arrebagaz. Eta agintzen dautsut, egun baten joan zaitezala nire izenean nire gurasoen etxera bazkaltzera, euren seme onen eta zure adiskide dan barriak emonaz.

Berrio-Otxoa.

(1) *Eskutitz onen jatorra, 1905. urtean, Igorreko seme eta Zeanuriko abade laguntzaille dan Benito Undurragak eukan, erosita eta erliki lez. Gaur, Gasteizeko Gotzaingoan dago.*

(2) *Marzana-ko abade zan On Leon berberagaitik esana.*

(3) *Jose Ramon Garzia, Tuterako semea.*

(4) *Juarez eta Berzosa tar Cipriano, Kalagurri-ko eta Santo Domingo de la Calzadako "dean"-a.*

## **28—SATURNINO BASAURI JAUNARENTZAKO ORDAIN TXARTELA (1)**

Logroño, 1852.eko Abenduaren 20an.

Autortzen dot, Jose Iturbe jaunagandik, zazpireun eta larogetamar errial eta amabi marabedi artu dodazala. Dirutza au ni neuk ipini neban Saturnino Basauri jaunaren Eleiz Bikarioaren aginduz, Hipoteketako Liburuan Eskribu baten egiaztapena artzeko eta bere izenean biurtu dauste. Eta bear diran ondorenetan erakutsi al izateko, artutako txartel au idazten dot, Logroño-n, 1852. urteko Abenduaren 20an izenpetuaz.

Balentin Berrio-Otxoa.

790 errial dira.  
12 marabedi.

(1) *Idazki jatorra Elorrioko Dominikarretan gordetzen da.*

## 29.—BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Logroño-ko Kolejiatan sermolari.— Ama Birginari eraspena.**

Logroño-n, 1853.eko Maiatzaren 14an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Gaur bertan artu dot sakutxu bat indiabakin, eta barruan bost eskapulario, amairu zingulu eta amabi domiña miraritsu Ama Birgiñarenak; baiña kartarik ez dot billatu, naiz eta arakatzen ibili. Bearbada Elorrion ez dago tintarik, ez paperik, ez lumarik edota ez idazlerik.

On lñaziok bere azken kartan esaten eban zerbait jakin ez baneu, ez neban jakingo norentzat datozen indiabak, baiña ordukoaz konturatuta, maistraei bialtzeko asmoa daukat. Ala dala, ondo; bestela bere, bardin.

Gotzaina emen egon zan egun batzutan illaren asieran eta Pontifikal era-ko meza eskeini eban Kolejiatan, jaunaren Igokunde egunez. Gero, Santo Domingo-ra joan zan, deunaren eguna ospatzeko eta Irutasuneko ordenak emoteko; illaren 5 edo 6 inguruan biurtuko da "graduak" emotera eta ondoren Lurraldetarako osterata gertauta dauka. Oi dan lez, Bergaratik igaroko da.

Emen zaletasun andia dago Mariaren loretarako. Ukar ugari batzen da. Eun eta amalau errial batu diranak be egon dira. Nik 16 eta 18an daukadaz sermoiak. Azkenengoz apirillaren 30ean egin neban ikasleentzako bat.

Retolazari esan, egun batzuk geroago erantzungo dautsadala; eta arreba-ri eskapularioak ondo dagozala, baiña marrazkia falta dabela.

Ondo zaindu eta agindu benetan maite zaituen seme oneri. Eskumuñak.

Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—On lñaziogaz egon zaiteze eta alegin daiala meza batzuk bialtzen, esateko daukadazanak gitxi diralako.

(1) *Idazki jatorra Elorrioko Dominikarretan dago.*

(2) *Ekaiñaren 25ean Gotzaiñak Logroño-ko Seminarioko Batxiler gaitasuna emon eutsan Zoriondunaren ikasbide zan Santiago Palacios Cabello jaunari.*

(3) *Idazki onetan ikusten da Balendin jakitun ebillela gotzaiñaren joanetorriekin.*

(4) *Ama Birgiñaganako zaletasuna igarten da, Maiatzean birritan sermoiak egiñaz bere goramenez.*



117 THÁNH TỬ ĐẠO VIỆT-NAM  
LOS 117 SANTOS MÁRTIRES DEL VIET-NAM  
LES 117 SAINTS MARTYRS DU VIET-NAM

ROMA, 19-06-1988

*Viet-nam-go Martiriak.*



## 30—SATURNINO BASAURI JAUNARI BESTE ORDAIN TXARTELA (1)

Logroño-n, 1853.eko Maiatzaren 19an.

Autortzen dot, bean izenpetzen dauan Abade eta Kalagurri-ko Gotzaingo-ko Seminarioko Zuzendariak, Elorrio aldeko bikario dan Saturnino Basauriren izenean zortzireun eta irurogeita emeretzi errial eta amasei marabedi artu dodazala Nikolas Abalas jaunaren bitartez. Eta ala agertu dedin, txartel au izenpetzen dot Logroño-n, milla zortzireun eta berrogeitaamairugarren urteko Maiatzaren emeretzian.

Balentin Berrio-Otxoa.

(1) *Elorrioko Ama Dominikatarrak txartel onen kopia bat dauke. Jatorra galdua da.*

## 31—AUTORTZA DALA ETA

**Autortzako sakramentua zintzo erabilteko arauak.**

Ondorengo Autortzako sakramentua erabilteko gertaketa, Balendin Berrio-Otxoa Gotzain eta Martiriak, Logroño-ko Seminarioan bere esku eta letraz idatzia da; eta orrela dala ziurtatzen dot, Elorrioko abade eta bertako Bikario arduradun nazan.

Saturnino Basaurik

### AURREZ

- (1) *Danen gaiñetik, kontzientziko garbitasuna eta pekatu astunik eza.*
- (2) *Jaungoikoa goratzeko gogo zuzena eta bere ospe eta aintza billatzekoa.*
- (3) *Pekatuaren gorrotoa eta pekatariaren erruki samurra, zein eta zelakoa dan begiratu barik.*
- (4) *Zerbitzua beteteko bearrezkoak diran onoiimenak eskatzea, esanez: Da mihi, Domine, sedium tuarum assistricem sapientiam. Cor mundun, eta abar.*

### UNEAN

- (1) *Zentsuak zeatz zaintzea, duñtasun itzal eta bete batean.*
- (2) *Begirapen andia, itaunetan txikikeri barik, batez be gai lizunean, premiazkoetan uts barik eta jakin naietan sartu barik.*
- (3) *Jaunaren aurreko egoera osoa, autorle eta pekatarien Epaikari zuzena.*
- (4) *Zitzaldi, zailtasun eta pekatarien premien baterako, Jaunagana arin biurtzeko oituru ona, esanez Deus in adjutorium, eta abar eta Domine ad adjuvandum me festina.*

### GERO

- (1) *Zelan jardun dauanaren azterketa zeatza, batez ere zalantzako gaietan edo sailletan.*
- (2) *Jaunaren zuzentzaren aurka egin leikezan utsuneen parke eskatzea, apalik, edota danon arerioa danaren zorabioz eskutatu al izan diranena, Errege profetak esaten ekiazan itzak erabiliz: Ab occultis... eta abar.*

(3) *Jesusen laguntasun maitekor eta aitatasunekoari eskeintzea artu diran erabagi okerrak zuzentzea eta pekatarien premiñak.*

(4) *Biurtze arrigarrien baten egon leikezan zurtasun eta pozen aintza norberetzat artu barik, Jaungoikoarekikotzat sinistu eta ezagutzea, esanez: Non nobis, Domine, non nobis. Au da, Ez da nirea, ez, zurea baiño, Jauna, garaitza onen grazia, eta beragaz zerbait emon nai izan badaustazu, zor geiago dautsut, eta nire zor andiaren ordezkertzat artu eta, gogai onek agintzen dauan beste esaeren bat.*

*Eskuz idatzia Gasteizeko Gotzaingoan gordeten da. Ez dauka egunik, baiña ziburra da Balentin Logroño-ko Seminarioan bere apostoladutza egiten ebillanekoa dala.*

## 32—CASIMIRO SORET-ERI

Elorrión, 1853.eko Uztaillaren 1ean.

Nire nagusi eta jauna:

Atzo arratsaldean inguru onetako eleiz-bikarioagaz nengoala, mesedez eskatu eustan zuri itauntzeko ezagutzen ete zenduan Cenicero-ko erriagaz daukan zentzoari buruzko mozkiñak batzeko esku garbiko iñor edo orretarako aukerarik eukiko ete zenduan, berak erri orren aurkako 30.000 edo 33.000 errialen zentzua daukalako.

Eskatzen dauan gizon ori aukeratu badaustazu, bai Cenicero-n edota bai or bertan, mesedez emoidazu bere gorabera guztiekin bere nortasuna, Bikario jaunak bere eskubidea emon dagion.

On Damaso nire adiskideari idaztean esan neutsan Jon done egunaren urrengo astean, Loiolara joango nintzala, indarrak barriztatzen igarten nebalako, ortik urten ezkeru uda sukarrrik ez nebalako igarri, eta geiago eukiko ez nebalakoan. Baiña gero euki dodazan joaldi bik, nire osterari atzera-teratu eragin dauste. Noiz arte? Osasunean aldakuntzarrik ez badot, azken amabi egunetan euki ez dodan lez, ara joateko gogoa daukala dirudian abadeak aurreratu edo atzeratu eragiten ez badaust, eta orain Avila-ko abadeei gogo jardunak emoten diarduna Aita Gerriko odurako Loiolara biurtzen bada, uste dot San Iñazio eguna baiño amar edo amabi egun aurretik joango nazala, gure zaindaria orren bezperan edo eguna berean amaitzeko. Orrela dala an itxarongo dautsat Juan Manuel'eri, Rufina andreari eta nire Dionisio kutuntxoari. Eleizkizunak amaitu ondoren, Elorriora etorriko gara nire etxea utsean egonaz egin naiko daben penitentzia bete artean.

Nire osteran atzerapenik balego, aurrez idatziko dautsut, Iñaki deunaren jai ondoren Elorrión igarroteko egunak, aurrez egin daiguzan, orrela orain amaitzea uste dodan egunetan barik, aurrez igaro daiguzan.

Ondo zaindu zaitez. Nire eskumuniñak zure emazteari, Gertrudis andreari, Jose Manuel jaunari, Rufina andreari eta nire Benjamin txikiari. Guztioi eskeintzen naz, eta zuk agindu, dakizun lez.

Balentin Berrio-Otxoa.

*Idazki au, Asuncion Lorente-ren etxean gordeten da (Av. Nabarra 10-1-Logroño).*

### 33.—JOSEFA G. DE SORÉT ANDREARI ESKUTITZA

Jesus eta Mariaren Biotzei eraspina.— Gogo jardunak Loiolan.

J.M.J.

Elorriotik, 1853.eko Uztaillaren 14an.  
Josefa G. de Soret, andreari. Logroño-n.

Ene andere ona:

Azken illeko 30eko eskutitzan nire adiskide Damaso-k esaten eustan zuri bialtzeko Jesus eta Mariaren Biotz sakratuen Alkarte Santuko Bulak, bera eta ni orain ille batzuk sartu giñanak, berak izentatzen zituan zortzi lagunentzat.

Il onen seian idatzi neutsan Durangon bizi dan adiskide bateri, erri aretan ortaz arduratuta dagoanari eskatuta, lortu eta bialtzeko, esanez gaiñera il onen 16garrena izentatzeko sarrerako eguntzat, zuek Indulgentzi osoa lortu al izateko eran, Alkarte Santu onetakoei bertan sartzeko egunean emoten jaken lez.

Baiña ikusirik nire adiskidea atzeratu egiten zala bialtzen, nik zergaitiaren barririk ez dakidala, barriro idatzi neutsan atzo, besterik ezean zergaitik bialtzen ez zituan jakiteko, berak agindu eustalako bialtzea.

Eta ara gaur Elorriora eldu eskatutako Bulak, bearbada nire bigarren karta ori berak artu aurretik.

Danak bialtzen dautsudaz, Agiriagaz batean, Damaso jaunak bialduta lez, zeureagaz geratu eta alkarte Santu onetan sartu diran besteei zabaltzeko.

Gertrudis andrearen Bulan, bere abizena dala eta, akatsik badago, zuzendu zeuk eta esan zelan dan, Alkartuen liburuan bear lez ipintzeko.

Uste dot Bulak bialtzen dautsuedazan guztiok Jesus eta Mariaren Biotz sutsuei nire aldez otoi egingo dautsazuela beti, baiña batez ere, datozen aste bietan. (1)

Jakin eragin Kasimiro jaunari bikario onek idatzi dautsala Zelaia jaunari.

Ondo zaindu, zure famili maiteagaz batean, eta eurei nire lotsa eta begirarena agertu.

Jarraitu zuk eta danok oraiñarte lez zuen inguruan asten igarten diran iru landare orreik zaintzen, bere denporan frutu asko emon leikelako, uren egaLEAN landutakoak emoten dakien lez.

Eta benetan agindu zure eta zure sendikoen menpe eskeiñi eta geratzen dan zerbitzari oneri. Eskumuñak.

Balentin Berrio-Otxoa

*Oarra.— Zure seme maiteak eta ni erreztasun geiagoz Loiolan alkartu gaitzean (Jainkoa lagun igandean an atsedean egiteko asmoa daukat), ziurrena izango da nigaitik Kolegio aretan eurak itauntzea. Euren atzetik ni urtengo banintz, gaitz izango litzake alkar billatzea, Zaindari santuaren egunean jendetza andia batzen dalako bere eleizkizunean. Eta au amaitu ondoren, nik il onen lenengoan idatzi neutsan lez, don Kasimiro-ri esaten neutsan zuzenbidea artuko dogu.*



*Berho-Otxoa'ren lo baketsua.*

(1) Eurretan Gogo jardunak egin nai zituan eta bere deiari erantzuna emon.

(2) Balendinek bere gogo jardunak 1853.eko Iñaki deunaren egunean amaitu zituan, eta eurretan bere deiaren indarrez eta Aita Morey-ren aolkuz, dana itxi eta dominikotarretan sartu eta misiolari egitea erabagi eban.

Aukera egokia zan. Lenago ezin eikean, kontzientziz bere gurasoei laguntzera bear-tuta egoalako. Baiña aldi onetan bere arreba Felipa Elbira ezkondu zanean, Jainkoaren ordua beretzat eldu zala uste izan eban, bere biotzean eukazan garrak aseaz. Gogo jardunak amaitu ondoren, bere adiskideak batu zituan Elorrion Dominikar monjak dauken arrera-aretoan, eta askarí txiki bat eskeiñi eutsen agurtzeko. An egon zan Aita Mendoza, an bere autorle izan zan Iñazio Burguiñas jauna, an Saturnino Basauri jauna, bere illoba eta beste batzuk.

Balendin bere barruko poza ezin agertuta ebillan. Baiña itz egin naietan, bere abotsa korapillatu egiten jakon eztarrián.

Lagun bat, eskuan kopa bat artuta, asi zan brindisa egiten eta Balendiñeri itaunka: —Ondo da, baiña jakin leike nora zoazen?

—Bai gizon, erantzun eban berak, garrantzia kendu nairík, santu egitera noa Bizkaiak bat euki dagian.

Barrezka artu eben danak urteera orí. Eta orrela ixildu eban bere erantzun betea, batez be bere gurasoei, ainbeste maite eben gurasoei, miñik ez emotearren.

Eta Abuztu eta Iraillaren keixu ibili zan bere gertaerak egiten, Gotzaiñagandik Okaña-ko Dominikoen Nobiziadutzan sartzeko bear eban baimena lortzeko. Okaña-ko Konbentu au zan uren beste alderdirako misiolariak gertatzen ziran etxea.

(3) Eskutitz orí ez dogu ezagutzen.

Lenengo zati au amaitzeko esan nai dogu Logroño-ko Seminaríoko kapillatxoan, bearbada Balendin berberak egin eban belaun-aulkia benetako maitasunez gordetzen dala. Belaun-aulki au berak emon eutsan bere lagun eta gero bere Azterlari-Zuzendaritzan ordeztu eutsan Francisco Aaurí jaunari, Ocaña-ra joatean.

Belaun-aulki au erabilten eban Berrio-Otxoak bere gelako otoitzetan, atsedinari eguneko leen eta azkenengo orduak kenduaz.

Orregaitik, orain Kalagurri-ko gotzain dan Fidel Garzia jaunak, belaun-aulki au gordegarri eder baten sartuta eukitea agindu dau, Zaragoza-ko Navarro jaunak egiña eta bertan Madrid-eko Granda jaunak egiñiko erlikarí zoragarri bat ipini, martiriaren erliki bat gurtuz. Erliki ori bere eskumako orpo azurra da, 1926. urtean Gasteizeko Gotzain zan Zacarias Martinez jaunak Logroño-rí eskeinía. (Ik. "El Beato Valentin Berrío-Ochoa", F. Bujandak 1949- 7-12. orrialdeetan.)



## **II ESKUTITZAK**

**2) FRAILETU ONDOREN**  
**(MADRID, OCAÑA, CADIZ, MANILA ETA**  
**MACAO-TIK)**  
**(1853-1858)**



*Ondarroa'ko parrokiaren gurtutuen danaren zati bat.  
Izurrategi abadeak eskiñi eutsan Ondarroa'ri Kintin de la Torre'ren irudi eder au.*



## 34— DAMASO AMIGO JAUNARI ESKUTITZA (1)

Ocaña-rako bidean.— Soret familia.— Agur mundua!—  
Arimen egarria...

J.M.J.

Madrid, 1853.eko Urriaren 12an.  
Damaso Amigo jaunari.— Logroño-n.

Amigo adiskidea:

Sinistuko zenduke dominikotar fraile izateko bezperetan nagola Ocaña-ko Ikastetxean, bertarako Logroño-ko Seminariotik azken igandean urtenda, eta baita Casimiro Soret jaunaren etxetik? Onek 210 errial emon eustazan ukartzat, burdiko jarrilekua Madrid-eraño ordainduaz, bestela oiñez etorri bearko nintzan-eta.

Ba, egia da.

Bart sartu nintzan emen eta dominikotar fraileak euren anai izango nazan lez artu ninduen. Eta biar, Jainkoa lagun, Ocaña-ko Erretore jaunaren besarkada artzeko asmoa daukat, eta egun gitxi barru beste amabost edo amasei lagunekin batean, Aita-guren aren jantzi santua artu.

Urte luzetan itxaroten nebana lortu dot: Domingo deunaren jantzia zan nik nai neban duintasuna.

Lortu dot eta mundutik zoriontsuen lez nago.

Agur mundua, mundu gaiztoa; zure zorakerien irriz egongo naz klaustroko bakartadean, baiña... zer diñot? Zure itsutasuna eta okerkeria negartuko dodaz; emen gertuko naz egunen baten, argal baiña alguztiduna dan Jainkoaren besoan indartuta, zuri guda gordin bat egiteko, baiña bakea ekarriko dauan guda, griña aizeak zirikatutako olatu bizien kezka baretuaz.

Agur Amigo adiskide. Noiz arte? Jainkoak gura dagiala zeruan ikusi arte. Osasunak lagundu eta nire deia egizkoa dala ikusten badot, ez dot geiago lagun bat ikusiko, Amigo lako adiskide bat.

Agur, Kristogan anai. Maite daigun gure Jainkoa, eta gure Jainkoak egun gitxi barru batuko gaitu zeruko gure aberrian; maitatu daigun lagun urkoa; gosea euki daigun, txakur gosea, Kristok erositako arimena, baiña pekatu bidez oraindik deabruaren menpean bizi diranena. Oneik izan bear dira gure gurari eta arduren gai, eta ez urre eta zidarra.

Asko eskeintzen naz zure otoitzetan eta batez ere Meza Santuko eskeintzetako otoitzetan; nik be ez dot aztuko Amigo neurea, ba bere adiskide naiz.

Balentin Berrio-Otxoa.

(1) Eskutitz onen jatorra Urkijo Konde agurgarriaren etxean dago, Markinako Munibe etxean.

Muniben zelan dauken, Angel Manso jaunak diño:

"Damaso Amigo eta Fitón, Santo Domingo de la Calzada-ko Katedraleko Abata il

*zanean, senide batek bere etxera deitu eustan, ango paperak aztertu, balio ez ebenak baztertu eta liburuen balioa neurtzera.*

*Eta eskeintza lez an egozan paper batzuk emon eustezan, nik benetan eskatu nituanak, au da, Berriotxoak Beka eskabidea 1848.eko Urriakoa, eta konbentutik idatzi eban lenengo eskutitza bere adiskide kutun eta nirea bere dan Damaso Amigo eta Fiton jaunari...*

*"Zeuri lagatzen dautsudaz. (Eurak lagatzea asko kostatuarren) zeuri eskeintzen dautsudaz, zuk kristau zintzo, euskaldun agurgarri eta geien bat Martiri agurgariaren zale sutsu lez maitatzen jakingo dozuzalako. (Anjel Manso jaunaren idazkia ezin aztua dan Jose M. Urkijo jaunari. Au eta Adolfo Urkijo jaun agurgarria izan ziren 1906. urtean, Fray Balendin Berrio-Otxoa zorionduna izan zanean, Erroma-ra ostera eta beste jaien suspertzaile eta eragileak.)*

*(2) Au da, Urriko 9. eguna.*

*(3) Soret famili ezagunak benetako eraspena eutsan Berrio-Otxoari. Etxe onetako Kapillan emon eban bere azken meza Ocaña-ra urten aurretik. Gaur Kapilla a orduantxe lez zaintzen da, Ama Sortzez Garbia aldarean dala eta zaintzen da baita Berrio-Otxoak meza eskeiñi eban kaliza, bai eta beste oroipen samur batzuk, famili aretako senideak maitasunez daukezanak.*

*Famili laguntzaille eta ongari onegaitik izan ez balitz, Balendiñek oiñez egin bearko eban Ocaña-rako ostera, Madrid-etik igarota.*

## 35.—BERE AMARI ESKUTITZA (1)

**Jainkoak deitzen dautsa eta beragaitik dana izten dau.— Agurtza eta Meza egunero.— Alkar maitasuna.**

J.H.S.

Neure amacho maitia:

Artu dot berroren cartia desiatua baña bildur bat emon deust, eta da asco espadabe, pizcabat asarre egon biar dabela nigaz.

Eguiya de San Luis Gonzagac Jesuita izan baño lenago Gurasuay parte emon eutsela; baña eguiya bere da San Luis Beltranec echetic igas eguiebala gurasuay ecer esan baric, eta gure santo Tomas andiya preso euqui ebela dempora ascuan bere echecuac miseriya ascoren erdiyan Fraile sartu salaco, baña asquenian berias urten eban, cergaitic Jaungoicuac destinata eucan gure Erlidigiñuai honra andiya emoteco.

Alde onetatic, ama, pleitua galdu da. Esango neutsan nic Fraile izan gura nebala, ona etorri baño len, esperantza piscabat euqui banau ichico eustela, eta agur eguitera etorrico nintzan, bildur espaniz, biotzic eznebala euquico berorren negarrac icusita, Fraile izateco. Baño Logroñun zela ezneucan neure buru ariña baño orregaitic arin ibili nintzan. Au eguin banaban bere, profesia allegau artian ezin nei ciertu esan Fraile izango naizala. Esagutuco banau Jaungoicuaren vorondatia au estala ezneucan izan gura.

Izan dedilla izango dana, gausa bat importa dauscu mundu onetan; ondo bici gaitiala egun laburretan; orrela icusi daigun ceru altuetan, eternidade acabu baguecuetan.

Amacho, ez icaratu trabajuac gaitic, ipesetacho bat irabastiagaitic eztabiz guizonac gau eta egun ichasuan eta leorrian, izarciya becoquian da? cer eguin biar eztogu bada cerua irabastiagaitic? Mariya Virginiya arpeguiz arpegui icustiagaitic?

Ezteiyela iñoc echian egunic pasau errosariyua errezau baric, eta aldabe-  
la mesia bere goshian entsun, bada onetan emoten dan demporia ezta gal-  
dua. Jaungoicuac gueihso bat bialtcen badau nai eta nai ez galdu biar dira  
astiac eta illac, eta jan bere bay osasunian, irabasiaco cuartuac.

Alcar ondo artu beye, batatc bestiari bere faltac sufrituagac, eta batez bere  
gueishoco demporetan lagundu beiyue alcarri amorio andiyagac iñolaco  
moduz arpegui illunic ipiñi baric, eta berba garratz baric; bada oian dagua-  
nac lanin asco (dauda) bere gueishuagaz.

Urrengo artian.

Gorantciyac echecuay, eta osaba Frailiari.

VALENTINEC

(1) *Ez diño noizkoa dan, baiña 1853. urtearen azkenetakoa da. Jatorra, euskerazkoa, Elorrioko Dominikatarrak dauke.*

### 36.—BERE AMARI ESKUTITZA

**Eskuzabaltasuna Jainkoagaz.— Soret Familiari eskerrona.—  
Nobizi-aroa.**

J.M.J.

Ocaña

(Sra. Dña. María Mónica de Arizti) (ELORRIO)

Neure ama maitia:

Ya predicadore baten leguez escritan icasi dau.

Berorren cartan aituten emoten deust Jaungoicuaren vorondatiagac con-  
forme daguala, beretzat ni gura banau erreligiñuan; asco alegretan naiz;  
bada jaquin biar dau baldin da biotz biotzetic esqueintsen badeutza beror-  
ren semia Mariya bitarteco ipiñi ta, mundu onetan eguin aldeiyen Jaunaren  
obra gustocuena egingo dabela uste dot.

Escatu beiyu profesu etorri baño lenago euqui deirala acierto on bat, eta  
aurrera; ezgaitian Jaungoicuas urri ibilli; ceruan lecu zabalac daucas gure-  
tzat; lurrian bere vorondatia eguiten badogu.

Animo, asco baliyo daben gauzia asco costetan da.

Domequetan biyua Santanaco conventura, eta Aita Santo Domingoren  
oñetan auspastuta esan bejo: Aita Santo Domingo, seme bat baño estauca-  
t, eta bera gustis maitia, baña zeuretzat gura badosu, zeuria dozu; bacar  
bacarric ezcatuten deutzut zeure eguiyasco seme bat egin deizula, eta izan  
zaitiala neure aita bere vicitsan eta eriotzan alcar icusi daigun zu zagozan  
lecuan. Amen. Alan izan dedilla, ama.

Logroñuko saldun chiquiyen aitac pagau eustan diligentciyia Madrileraño,  
eta orregaitic iñosco demporan ortic pasauco balira bañuetara, alegrauco  
nintzaque beracas cumpliduco baleu, bada nic mereci espadot bere, arec  
mereci dau, berorren seme bati alaco graciya eguin eutsalaco.

Agur, ama Mariya.

Frailleco bat dago semia, casic edurra lango jantci zuriyas.

VALENTIN BERRIO-OCHOAC

(1) *Eskutiz onen jatorra Eiorrioko Dominikatarretan gordeten da. Eta naiz eta noizkoa danik esan ez, bertako jardunetik ataraten da 1854. urtearen asieran idatzia dala.*

(2) *Agiriko da Nobiziadutza asita eukala ainbat misiolari, martirieta santuen sortzaille izan dan Ocaña (Toledo) Konbentu guztiz ospetsuan.*

## 37.—BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Arimaren zoriona prailegoan.— "Ez naz jaio mundu onetarako..."**

J.M.J

Ocaña-n, 1854.eko Maiatzaren 8an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Azkenengoan aztu egin jatan zueri esatea Ogira-ko ikasleagaitik Martin Garro Kalagurri-ko arduradunari 37 errial eta 6 marabedi ordaindu neutsazala Logroño-ko Seminarioan sartzeko egin ziran azterketakaitik, eta ango Erretoreari emon neutsan sarrerako idazkia; jakin egizue egunen baten ikaslearen gurasoekin egon bearra bazenduenerako eta kitapena egiteko.

Orretarako eragozpenik balego, Ardulariak emongo dautse bear dan txartela.

Erliki bi bialtzen dautsuedaz, nire oroipen bat eukiteko; andiagooa, biotza, Teresa deunaren biotzari ikutua da, eta txikiagooa berberaren gorputzari.

Orañarte ondo dagokit bizibide au eta poz pozik nago bera artuagaz.

Ezpairik ez daukat zuek naiago izango zenduela zuen inguruan eukitea eta bearbada atsekaberen bat eukiko dozue ni klaustro baten sartzeagaitik.

Baiña gure Jainko Jaunak bere etxean nai ba nau, zertarako nai nozue, nire gurasook, munduan galtzeko dagoan beste arrisku artean?

Ez ete da egia izatea zerurako izateko emon zeunstela? Eta ez da ziurra, baita ere, frailetza zerurako bide ziurragooa dala kalekooa baiño?

Emon, ba, eskerrak zuen semeari emon dautsan eskerragaitik, eta eten barik eskatu bere deiari zintzo erantzun dagiola.

Zorionak, zuen egunekoak bai eta arrebari be berekoak.

Ondo zaindu zaitezala gura dot, eta arreba eta koiñatuagaz baketan bizi zaitezala. Nire eskumuñak eurei eta zuek bere artu nire samurrenak. Zuen seme apal.

Fray Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Emen Nobiziadutzako etxe barri bat laster amaitzeko da, 70etik 80 bitarteko geladuna, gitxi gorabera orko baiñu-etxe barriaren antzekooa, eta uste dot Iraillean fraile jantzia artzeko ainbat egongo dirala.

Bete nire lagun eta senideekaz, eta bereziki, orra doanean, osaba fraileagaz.

(1) *Erroma-n gordeten da, Dominikoak dauken Eskale-Ardularitza Orokorrean.*



*Bilbo-ko Gizakunde eleizan.*

## 38.—BERE AMARI ESKUTITZA (1)

J.M.J.

Ocaña...

(Sra. Dña. María Mónica de Arizti) (ELORRIO)

Amacho:

Berorri gusto emotiarren artu dot plumia, cartia ichi ta guero lau berba baño espadabe esateco alperric zereguin aundiyac euqui.

Emen guizon santuen erdiyan arquitcen naiz, gau eta egun Jaungoicua alabetan dagos; gaberdiyan bein baño sarriyago jaiqui dira maitinac cantetan.eta Aingueruen oficiyua eguiten eta berroren sabeleco seme bat bere bay beraquin batian. ¡Ay, ama, cer zoriyoneco gaberdiyac arec! berori lo eguan demporan berorren semia Jaungoicuari erregututen eguan. Amacho, aserre ala adisquide guera? Ni beintzat adisquide nas berorregas.

Santa Monicas mesa bat esan neutsan, eta ez neuque gura azquena izan dedin.

Agur, ama, semecho bat ceruan dauca beti erregututen berorregaitic, triste dayuanian, deadar eguin beiyoy, eta bitartecotzat artu bei bere erreguetan. Euqui deigun confiantza andibat ceruan gustiocalcar icusico gariala. Arashe ecarrico deusades Indiyetatic erregalucho batsuc.

Agur.

VALENTINEC

(1) 1854.eko Maiatzean idatzia. Elorrioko dominikatarrek benetako arretaz gordeten daben bilduman dago.

## 39.—DAMASO AMIGO JAUNARI ESKUTITZA (1)

Gogo jardunen gar-tegia.— Sinisbakoen arteko Misiñoetara joateko eskeintza.

J.M.J.

Ocaña-n, 1854.eko Maiatzaren 8an.  
Damaso Amigo jaunari.—  
Santo Domingo de la Calzada-n.

Amigo adiskidea:

Naiz eta berandu, zure Otsaillakoari erantzunaz, diñotsut:

(1) Karidadeko Monjak gordetzekotan bialdu dautsuezan iru liburuak, zureak izatea nai dodala, euretariko bi izan ezik "Jesus al Corazón del Sacerdote" eta "La selva de predicables", Ligorio santuarenak. Alan izan ezkeroy, euretariko bat Elorrioko Abadetzako dan Inazio Burguinaz Olalde jaunari emotea nai neuke, eta bere ordezy Monja Nagusi areri eskatu beste

egokiago jatortzunen bat, eta eurekin zeu geratu, nire adiskide, opari txiki lez.

(2) Nik lekaide-ziña egin ondoren, euki naiko nituzken guretar liburu bazuei buruz Monja Nagusi berberagaz ulertu bearko zara, baiña oraindik ez dakit zeintzuk bearko dodazan.

(3) Gogo-jardunetako gar-tegian berotzeko daukazun asmoa txalotzen dot, eta orretarako ez neuke nai deabruak agertu daiketsuzan eragozpenak atzeratzerik, nik bialtzen dautsudan beatea bitarteko dala eta ain eder agertuko jatzun lur-oria aitzaki dala.

Aurrera, adiskide; ikastaroa amaitzean ez geratu egun batik bere Loiolara-ko bidean sartu barik. "ingrediar totus, manebo solus etá egrediar alius" asmoz. Baiña komeni da aurrez ango Aita Erretoreari idaztea. Igaz Antonio Morey zan, eta berari zure asmoa agertu eta noiz bertan agertu zeinkezan eguna iragarreko esanez.

(4) Zertan ari nazan zure jakin miña asetzeko eta dominikotar izatean zelako betebearrak artzen diran adierazteko (ala izan naiko bazendu), esan dautsut goizeko lauretan jaikitzen garala, eta lenengo ordu bi eta erdi meza, otoitz txikiak eta agurtzak eroaten daustela. 6,30etan korora joaten gara, zortzirak arte. Zortziretatik amaikak eta erdietara legea ikasten dogu. 11,30etan jan tokira. Ordu bietan, ofizio txikia eta korora irurak arte; iruretatik lau eta erdietara, legearen ikasketa. Lau eta erdietan ofizio txikia eta korora sei eta erdiak arte; sei eta erdietatik zazpi eta erdietara edo zortziretara, lege ikasketa. Zortziretan, apari ariña edo aparria. Amarretan, gelara, gau erdian maitinak egon ezik. Ala dagozanetan, aparitxoak zerbait aurreratu egiten da.

Bete-bearrei buruz bakarrik esango dautsut eten bako barua daukagula Iraitteko Kurutz egunean asi eta Berbizkunde Paskorarte: urte guztian bigiliko lez jaten dogula; nobiziadutza guztian, barruan egoteari buruz, monjen antzeko garala; egiten diran oiturazko iru eskeintza edo botoen gaiñez. Zinitza emotean, Pilipinasetara gure Nagusiak agintzen dauskuenetan joateko eskeintza egin bear dogula, eta Manila-n egunero abestuten dirala maitinak gau erdian.

Amigo adiskide, au izango ete da egingo dautsudan nire azken eskutitza? Ez dakit; baiña alan balitz, ez neuke nai arrituta geratzerik, denpora ondo neurtua dogulako gure arazoetarako eta gure Erakundeak dei egiten dausku, edo egin bear dausku gure lagunen gurariak beteten atsegin artzea ez diran beste gauzetara. Ez mindu ain zorrotz jarduteagaz.

Eskeiñi nagizu zure anaiaren otoitzetara, daukan ardura barriagaitik nire zorionak emonaz, eta zu, Mezatan, ez aztu Gogo-jardunetan zeruko bedeinkapen guztiak opa dautsuzan lagun onegaz.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.— Nai dodan lez, ziña eskeintzera eltzen banaz, eta azkeneraiño jarduteko zoriona artzen badogu, zeruan kontatuko dautsut astiro zelan ibili nazan inditar errukarrien artean.

(1) *Ikus CARTAS DEL BEATO 1927, 91-94. orrialdeetan. Damaso Amigo eta Fitón, Filosofiako irakasle zan Santo Domingo de la Calzada-n.*

## 40—BERE AITARI ESKUTITZA (1)

**Osasun oso ona.— Nobiziadutzat jarraitzen dau.— Misiolari geiago Sorkaldera.— Bere lenengo mezako oroitza.**

**J.M.J.**

Ocaña-n, 1854.eko Uztaillaren 15ean.  
Isidro Berrio-Otxoari. Elorrio.

Nire aita maite eta agurgarria:

Ille bi inguru dira zure lagungarri bat artu nebala, amaren bategaz lagun-duta, eta bertan esaten eustan ondoesen bat euki zendula, niretzat benetan mintsu, batez ere bildur nintzalako nire onako etorrerak zerbait ikutu egingo eutsula.

Niri dagokidanez esan bear dautsut ez zinduezala ondo argitu Bilbon, ni emen gaiso egon nazala esan eutsuenean. Jainkoari eskerrak emon bearran nago osasuntsu zaintzen nabelako, eta fraile-jantzia artu nebanetik egun baten ez dot utsik egin erakundeko zeregin bakar batera ere gaiso edo ondoezik egoteagaitik.

Auxe berau ez ete da, era batean, Jainkoak munduan ez nindun naiaren ezaugarri bat? azken iru urtetan euki nituen iru-erasoaldiak esaten zirana-gaitik baziran, emen andiagoak irauten dabela esan leike.

Edozer gertatuta bere, biotzez eskatzen dautsut Jaunari eskatzea emon dagidala bere deiari buruz bere borondatea ezagutzeko bear dodan argia, orretarakoxe nagolako nobiziadutza onetan; eta Jaunaren borondateagaz zin-egitera elduten banaz, eskeini egiozue berari zuen seme onen borondatezko eskeintza au, berari atsegin izango jakolako, ez ain zuzen nigaitik, zueri dautsuen maitasunagaitik baiño.

Egun gitxi barru urtengo dau etxe santu onetatik Filipinas-etarako bialduen taldeak. Ez dakit zenbat joango diran; beti bere amabi inguru.

Jaunari erregutu eurekaitik itxas-bide bitartean, Cadiz-en asi eta lau illa-bete ingurukoa izaten dalako bidaia.

Jakin dot itxasontzian fraile jantziagaz joaten lagaten dautsela; falta dana da beste joaldi baten bidez burukoa bere lagatea eta gure sinismeneko ezaugarriagaz edonundik ibiltea.

Pentekostes Paskoetan Badajoz-eko gotzaiña euki genduan emen, eta pontifikal erako meza eskeini eban lenengo edo bigarren egunean eta misiolari batzuei abadegintza emon.

Etorri nintzanetik iru meza barri egon dira emen; baiña zelako alderantzia onein ospetik nik eskeiñi neban lenengoko pobretasunera! Emen bezperatik ikurriña igo-tzen dabe dorrean, eta meza barri egunean barruko guztiak ibildeunean eroaten dabe abade barria, ereserkiak abesten, nobiziadutzatik eleizaraiño, eta mezatan itzaldia egoten da. Egun orretan abade barria izaten da elkargoko jai guztietako buru. Orrelaxe goratzen da abadetzaren asiera etxe onetako semeen artean!

Nik ezerezan emon nebala nire lenengo meza esan badot bere, egon ziran eskuan mun emotera etorri ziran batzuk.



Ondo zaindu, eta nire arreba eta koiñatuari nire gorantziak emonaz, artu zure seme onek gordeten dautsun maitasunaren ezaugarri bero bat.  
Eskumuñak.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

(1) *Eskutitz onen lenengoa, Elorrioko Dominikatarrek gordeten dabe.*)

## 41 — LOGROÑO-KO OSPITALEKO MONJA NAGUSIARI (1)

**Bere erlegiño-zin egin aurretiko jaubetasun-iztea.**

Ocaña-n, 1854.eko Azaroaren 18an  
Karidadeko Monja Nagusiari.- Logroño.

Jesukristogan nire arreba maitea:

Lengo igandean egin neban nire Kristogazko ezkontza. Ori dala eta zure eskuetan itxi neban nire jabetasuna ukatu neban, bai eta munduan euki edo gura neuken edozer, azken baten zimaurrea baiño ez dalako.

Gotzaiñari agertu neutsan zelan itxi nebazan gauzak zuri eta zure Arrebei agur egitean eta berak esan eustan zuri idazteko liburuak Madrid-era bialtzeko, Nekaldi kaleko 15. zenbakira, Aita Antonio Garcia-ren izenean eta zu geratu Croisset-en "Año Cristiano" gaz eta beste jantziekin, Ospitalaren mesedean zabaltzeko edo zure ustez egokien litzakenean. Liburuen geigarri lez ordaindu zenduna esateko, bialtzeko, eta bidaiko ordaiña Madrid-en ordainduko zala liburuak artzean.

Kontuan euki agindu onetan ez dirala eskatzen Damaso Amigo-k artu zituala esaten eustan liburuak, ez eta nire aginduz Aita Martin-ek artu zituanak bere.

Seminarioko Zuzendaria edo besteren bat etorriko jatzu bialdu bear diran liburuak gertatzera.

Zure eta beste Arreben oititzen premiñatan nago. Esan eurei egunetik egunera euren senar Jesus-egaz gero eta atsegiñago izateko gogoia agertzen dautsedala, azken baten eurak eta ni arduratzen gaituana orixe da eta.

Eta gurari bardina zuretzat, Jesus-egan eta Jesus-gaitik maite zaituan onen aldetik. Eskumuñak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

(1) *Eskutitz jatorra gurpen bereziz gordeten dabe Logroño-ko Karidadeko Alabak.*

## 42—BERE GURASOEI IDAZKIA (1)

**Egun gogoangarria.— Fraile-ziña.— Izurritearen kalte larriak.**

J.M.J.

Ocaña-n, 1854.eko Abenduaren 1ean.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Gure Amaren Zaindaritza eguna izan zan niretzat, Bateoaren urrengo

bizitzako egunik gogoragarriena, bertan, nire fraile-ziñagaz batera Jaunari nire Eskeintza egin nebalako. Eskatzen dauzuet Jaunari eskerrak emoten jarraitzeko egin daustan mesede onegaitik eta nire deiari zintzo izaten jarraitu daidan.

Lengo astean Nobiziadutzako etxe barrira igaro giñan, Andra Maria irudia bertako gela guztietatik zear eroanaz, agurtza deuna abestuz.

Lengo igandean Parrokietako baten eleizkizun bat egon da eta emengo Fraile guztiok joan giñan Jainkoak izurritearen zigorra jaso ebalako eskerrak emotera. Izurrite bitartean Ikastetxe onetan iru fraile il ziran, euretariko bat Aita Bikarioaren adiskidea. Uste dot izurrite orrek erakutsi ederra laga daua- la emen. Bere denporan Aita batek lau aste osotan egin zituan sermoiak eta besteak ainbat ordu igarotzen zituan aitorekuetan.

Igande baten, etxe onetatik Kristoren irudi bat atara, bere bederatziruena kaleetan zear egin ondoren, eta arrezkero azken larunbaterate, oker ez banago, iñor ez da izurritez jausi eta uste dot gero bere bi edo iru bakarrik gaisotu dirala.

Zuek ondo zaindu, arreba eta koiñatuagaz batean. Eskumuiñak eurei, bai eta nire adiskide, senide eta osaba fraileari, Jaunagan zuen seme apal au gogoan euki dagiela eskatuaz. Eskumuñak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Ni ondo eta osasuntsu nago, beti lez, eta oraiñarte Jaunari esker ez dot egun bat oean egoteko premiñik euki.

Izurrite denporan kurutzak ipintzen genduzan gure geletako ateetan.

Euren antzeko bat bialtzen dauzuet, premiña egon ezkeru erabili nai bazen- due.

*(1) Eskutitz jator osoa Elorrioko Dominikatarrak gordeten dabe.*

*(2) Dominikotarren artean fraile-ziña egitean garbi agertzen da Jaungoikoari, Ama Birgiñari eta Ordenako nagusiei Arau eta Legeak agintzen dauan lez menpetasuna eukiteko beartasuna. Eta Balendiñek gabero egiten eban zeaztasun guztiz Jaunari egindako eskeintza zelan bete eban azterketa. Sekula ez eban utsik egin.*

## **43 -CASIMIRO SORET JAUNARE ESKUTITZA**

**Geien artzen dauana, bearpen geiagoz geratzen da.— Balendin eta umeak.— Andra Mariaren agurtza.**

J.M.J.

Ocaña-n, 1854.eko Abenduaren 2an  
Casimiro Soret jaunari.- Logroño-n.

Ene jauna:

Andra Mariaren Zaindaritza eguna izan zan niretzat bizitzako egun gogo- ragarrietako bat: aspaldiko urtetatik amets egiten nebana, eta bertan, nire biotza, iñor ez lez aseta, ninerik ezer euki ezarren, beste toki askotan esan ez eikeana esateko eran egoalako: Zelako gauza ona dan Domingo deuna-

ren fraile beartsu izatea! Egun au egunero gogoratu bearco dot Jaunari ainbat mesede eskeintzeko, bere ontasunez amaika anaik fraileziñitza batera egin gendulako.

Zugandik artutako ainbat mesede eskartzeko darabildan dirua, aldetik zuri eskatzen jarraitzea da famili guztiagaz batean Jaunari nire aldeko otoietan jarraitu dagizuela, nire deiari erantzuten jakiteko eskerra emon daidan, artu dodan pisuagaz makurtzen itxi barik. Zenbat kontu emon bearco dautsagun Jaunari, beragandik ainbeste mesede artu dogunok!

Ondo zaindu emazteagaz eta semeekaz batean. Gorantziak eurei eta zuk artu nigandik Jesusegan dautsudan maitasun ezaugarria. Eskumuñak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Osasunari buruz biziera au ondo datorkit.

## DIONISIO TXIKIARI

Dionisio maitetxua: (1)

Dautsudan maitasunagaitik ezin itxi idazki au zuri agurra emon eta biotzera zerbait esan barik, nire ustetan egiña izango dozun lenengo autortzagaitik nire zoriona emonaz.

Pekatu izena bakarrik entzunda ikaratuta geratu zaitezala nai neuke, maitetxu, bizitzako zure egunetan zure biotzean lekurik emon ez dagiotsazun, batez be zure lenengo urte oneitan.

Sinistu egidazu, nire semetxo, orain asten dozun bidetik ez zareala zartzaroan urrunduko, Jaunak bertaratzen bazaitu beintzat.

Orain biotzez eta maitasunez eskatu Andra Mari Ama maiteari, bere biotzean zukazalako, amar milla lagunaren artean Jesusen biotzaren gogoko izango dan adiskide kutun bat aukeratzen lagundu daizula; eta zure arima zintzoa beragan itxita, ez zaitez an urrunduko ez eskuma ez ezkerretara jaunak bere bitartez zuzendu naiko zaitun gizaki orretatik, zuk aingerutzat artu bear dozun orretatik, orain, iñoiz baiño geiago, orrelako lagun baten premiña daukazu.

Gogoratu baita ere Jesus bere aragi ilkorrez bizi zanean, maitasunez begiratzen eutsela zulako umei eta benetako atsegiña eukiten ebalu eurak beregana urreratzean. Ala, orrelakoena dala, diño berak, Zeruetako erreinua.

Jakin bear dozu baldintza bardiñean agertzen dala orain Aldareko Sakramentuan, eta bertatik, bere maitasunaren tronutik lez, eleizan sartzen zaran bakoitzean esaten dagola: Bazenki Dionisio umetxoa, bazenki zenbat maite zaitudan eta zenbatean sartu nai neuken zure biotzean dana nire egiteko, ni neu bere osorik zurea egiñaz!

Ez ba gor egin bere deiari; biztu zureagan aingeruen ogiagaz janaritzeko garra; eskatu zure guraso eta adiskide kutunari ainbat ariñen emon dagitsuela Jesus, zuk Jesus barik bizi ezin zeinkelako.

Ez bildurtu, oraindik ume zarala-eta; zure aldetik al dozuna egin eta bearco dana Berak geituko dau.

Bai eta eskatzen dautsut orain diñotsudan au entzuten dozunean, zure amari errosario bat eskatzeko, lotarako bere saman eroan bear dozuna, eta

errosarioa otoiztutearen zale izan bear zarala, baiña ondo, kontuan eukita, ondo esandako errosarioa, osabide orokorra dala aitzaki eta gaitzetan mindutako gizonarentzat, bai eta ortaz jardutea aukeratuen ezaugarri dala.

Denporak ez dau tokirik lagaten maitasuna eskatzen dabillanerako; orregaitik zu Artzobispo egitean emon naiko zenduken izendapenari uko egiñaz, arren eskatzen dautsut zure otoiztetan ez nagizula aztu, jakin eragiñik asko maite zaitudala Jesusengan eta bere bitartez.

Zure adiskide naz.

Gizankundeko Fr. Balentin.

*(1) Balendiñek benetan maite eban Dionisio umea. Casimiro Migel Soret eta bere emazte Josefaren semea.*

*Dionisio Logroño-ko Bigarren Maillako Ikastetxean sartu zan eta an Latin eta Filosofi ikastaroak gaitasun andiz egin 1.856-1.861.urtetan.*

*Batxiller egin ondoren, Seminariora joan zan eta Teologiko lau urte an egin, beti ere agiririk onenak lortuaz.*

*Kaletik ikasten eban. Teologiko bostgarren urtea amaitu eta Diakono lez sagaratu ondoren, Balendin zoriontsuak zerura deitu eutsan bere ondora.*

## 45—BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Bere "amatxuri" zorionak.— Lorerik maiteena.— Andra Mariaren oñetan.— Lanak eta santutasun-bidea.**

Ocaña, 3 de Mayo de 1855  
Sra. Dña. María Mónica de Arizti  
ELORRIO

Nere amacho gustis maitia:

*¡Ce egun da biyar? Santa Monica; nere amaren eguna. Urte ascotan celebrau deiyela animaco, eta gorputzeco osasun baquiagas.*

*Artu neban aitac asquenengo escribitutaco cartia. Asco sentidu neban an leitu nebanian cerbait macalic ebisela alan berori, nolan nere arreba Felipa, eta gaur bere bein baño sarriyago negarrac beguitara salto egin deust ori pensau ta; baño gaur bertan piscabat consolau nau D. Ignacioren cartabatec, ceñean esaten deustan, bere lanetan dabilela berori.*

*Biyar badaucat asmoa berocaitic mesa bat esateco eleisan daucagun milagrosco Santo Cristo baten aurrian; beraren bitartes Jaungoicuac librau guinducen coleratic; eta beste echeco Fraile santu biri bere esan deutset berogaitic mesia esateco.*

*Jesus maitiaren odol preciosuac biyar deadar eguingo deutse Aita Eternuarei nere guraso eta arreba eta coñatuagas erruqitu deila, beron trabajuchuetan consolau deizela, eta bere vorondate santuan conformidade andi bat emon deiyuela.*

*Ez naz, ez, amacho beroquin astu; ondo presente daucadas, sinistu nai espadau bere. ¡Celan posible izan leique neure ama maitiac nigaitic pasau situzan trabajuaquin astutia? gauza batec beste ascon artian dauca nere bijotza penas beteta, eta Mariya Virgiñaren entraña garbijacgaitic escatuten*

deutsat consuelua. iEta celan? berroren vorondatia conformatugas Jaungoicuarenarequin nere estaduaren gaiñian.

Bai, amacho, consuelo au emon biar deutsa bijotses maite daben seme bati, Maiyatceco ill onetan Ama Virgiñari esquiñi leiquion loraric ederrena aushe da. Onegas gañera, beste loracho bat ofrecidu biar deutsa. Bijua Mariagana, eta bere oñetan auspastuta: Nere bijotceco ama gustis lastana esan beiy; trabajuaren carguiac macurtuta nauco lurreraño; escatu eguiotu zeure seme divinuari quendu deigula carga au; baña, Ama lastana, ezpedi eguin nere vorondatia, ezpada zeure seme Jesusarena; bere vorondatia bada, pronto nago munduco trabaju gustiac poz pozic eramateco; bacarric escatuten deutsut Virgiña garbiya, alcanzau eguidazula gracia ondo eramateco, eta nere erioetsaco orduan etorri saitala nere arimachua zeure escuetan artcera.

Consolatu bedi, amacho, Mariya Virgiñiagas. Negar eguin nai dabenian bijua Mariagana, eta bere oñetan urtu bedi berorren bijotza. Afligiduric arqitcen darian bijua Mariagana, eta confianza andi batequin zabaldu beijo berorren biotza. Artu bei aimbat sarrijen escuan errosarijo santua, eta erreza beijo devociño andi batequin, bada erresarijua arma gustis indartsua da.

Artu bei aimbat sarrijen, eta aldaben bijotcic garbijengas Jesus Sacramentadua, bada gustijoi deies esaten deuscu; atoste nigana trabajus cargautu zagocen guztijoc, eta nic carga arinduco deutesubet.

Pensau bei, amacho, Jaungoicuac guere onerako trabajuac bialtzen deuscucela, eta guc trabajuetatic purgatorijo bat eguinbiar dogu, ill da guero sucen cerura juateco. Aina (ainshe) bai bicico garijala aleguere. Bici gariartian euqui daigun ceruan biotsa, eta cembat eta lurrian guejago padecitu, Jesusen amarijagaitic bada, ainbat eta gloria andiyagua ceruan euquico dogu.

Gustioc alcar consolau bedis beron penetan, aldabenac ezin dabenari lagunduas, eta alcarri beren impertinentciac sufriduagas, bada aushe da bideric sucenena Jaunaren amariyagaitic eguiten darian, bere consuelua, eta misericordiya alcantcetaco. Ea bada, ama lastana, artu deigun gueure biscalrian Jaungoicuac bialtzen deuscun gurutcea eta goiacen anchi anchica Jesusen atcian.

Nic beti present euquico ditut nere oraciño argaletan, eta batez bere mesaco sacrificio Santuan.

Ondo bici bediz, eta agur urrengo artian.

Valentinec

*(1) Bere amak, Maiatzaren 4an ospatzen zituan bere egunak eta aitak il bereko 15ean.*

*Eskutitz jatorra Gasteizeko Gotzaingoan dago.*

## BERE AITARI

Nire aita maite eta agurgarria:

Amagaz batera, laster datorren zure egunerako zorionak bialtzen dautsuz.

Artu neban zure azken benetan pozkorra, eta miñez irakurri nituan menderatzen zaituen lantxo batzuen barriak, orrez gaiñera baita Bixente Isasi jaunaren bat bateko eriotzaren barria. Esaten zenduan pozik zengozala beragaz eta bere aolkuekaz. Ai aita! Sinistu daigun mundu oker onetan ez dagoala ez poz eta ez alaitasun iraunkorrik eta pozik andieneko eguna atsekaberik bizienero bezpera izaten dala, ta atsekabeak, Jainkoaren maitasunez eroaten diranean, poztasun bezpera izaten dirala.

Orregaitik, orain Jainkoak bialtzen dautsuen gurutzearen pisuagaz menderatuta bazagoze, adoretu zaitze atsegiñez artzera, ez bakarrik dauka zuena, bai eta geroago emon daiketsuena bere, zuen negarrak Berak poztan biurtuko dauzan itxaropenez. Zuen begiak Kristogan jarriak euki egitez; errugabetasun utsa izanarren, bere zama errugabeen gain gure pekatu guztiak jaso zitualako, bere eredu jarraituz gu pekatari argalok bere maitasunaren zerbait jasatzen alegindu gaitzan.

Zirikaldi denporan zerurako altxor ugari gorde geinkez, beti be gure zintzotasuna ezagutzeko Jainkoak gugandik eskatzen dauanaren borondategaz bat egonaz, eta orrela zeruko sarrera aurreratu geinke, gure pekatuen penitentzia lez eroanez eta esanez: Jauna, pekatu egin dot eta gaiztakeriz jardun naz eta ez dot artu merezi neban ordain zuzenik. Ebagi emen, erre emen, ez egidazue emen ezer parkatu, gero betiko bizitzan parkatzekotan.

Orrela egiten badogu, etorkizunaren bildurrik ez daigun euki, edozer etorrita bere. Aita maitekorra dan Jainko gure Jaunak ez gaitu baztertuko, eta orde zaindu egingo gaitu, bizitza onetarako bearrezko janari eta jantziak emonaz.

Ama Birgiñari asko eskeini zaitetz, bera deitzen dalako Gaisoen osasun eta naigabetuen alaitasuna.

Naiko da gaurkoz.

Eskumuñak zure seme apalak.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

## 47.—BERE OSABARI ESKUTITZA (1)

**Nire zoriagaz poz pozik.— Alegin begi nire guraso jaunak alaitzen.**

J.M.J.

Ocaña, 1855.eko Maiatzaren 4an.

Fray Juan Cruz Arizti.- Elorrio.

Nire aita Fr. Juan osaba agurgarri eta maitatua:

Oraintxe irakurri dot emengo Karmeldar Monjen Ama Nagusiari illaren 26an idatzi zeuntsana. Biar joan bear naz bertara, gipuzkoar nobizia bi aurtortzera, aita Manuel il ondoren billatu ninduelako, erderarik ulertzen ez dabelako.

Baketzeko esan bear dautsut oraindik etxe santu onetan nagola, Menpe-tasunak beste zerbait agindu arte, osasuntsu eta nire zoriagaz poz pozik, naiz eta aste onetan Nobiziadutza lagateko atsekabe pixkat artu, Jaunak alan nai izan ezker bertan betiko naiko neukelako. Baiña beste aldetik,

Jainkoak Menpetasunak nai daben lekuan ipinten naualako pozik, dakidala-ko Bera nigaz egongo dala nire argaltasunetan laguntzeko, benetan bere billa banabil.

Bai osaba maitea, Jainko Gure Jaunari eskerrak emon bearrean nago, mundu gaizto orretatik atara eta Etxe santu onetara ekarri nindualako, bertan bizi diran ainbat Jainkoaren otseinekin batean bizitzera. Emen oartu dot zelako gozo eta maitekorra dan gizon santuekaz itz egitea, ta zein bigun eta atsegiña dan erretiroa eta gelako bakardadea, eta zelako atsegiña dan gau eta egunez Jainkoari aingeruekin batean gorapenak abestea.

Zure kartatik dirudianez, Elorrion egongo zara au orra eldutean; orregaitik, ziur dakidan daustazun maitasunagaitik, arren eskatzen dautsut alegin dagizula nire guraso, arreba eta koiñatua alaitzen, dirudianez zerbait atsekabetuta dagozalako, eurak adoretuz euren lanak eroapenez eroatera, eta eurekaz baliatzera. Bestela zertarako da "quid prodest" a...?

Oraintsu jakin dogu Gure Aitaren eguna ospatu ondoren emendik Filipinas-etara joan ziran gure misiolariak osasunez eta ondo eldu dirala, eta San Jose inguruan beste abade bi diakono bat eta menpetasuneko anai bat joan ziran. Abadetako bat italiar Aita agurgarri bat zan, inkisidore izana eta igazko urtearen azkenetan ona etorri zana Tonkin-era joateko asmotan.

Ez nekien nundik zebiltzazan, zurea irakurri arte, nire barriak emoteko.

Ondo zaindu eta Urrutitik igarotean, nire maitasunak agertu guretar guztiei, eta onen bidez zure illobak dautsudan maitasun ezaugarria artu, zure otoitzetan kontuan euki nagizula eskatuz. Eskumuñak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

## 48—BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Bere arreba Felipa Elbira II.— Eriotzaren erakutsiak.— Sinismenaren poztasunak.**

Ocaña, 1855.eko Maiatzaren 8an  
Isidro Berrio-Otxoa jaunari. Elorrion

Aita maite eta agurgarria:

Oraintxe artu dot nire arrebaren eriotzaren barria eta illen otoitzak esan dodaz, Jaungoiko gure Jaunak ainbat lasterren zeruetan sartu dagian bere laguntzagaz poztutzera eta nire anai txikiagaz batera, urteak diralako an gure zain dagola, negarrezko mundu onetatik urteten ezer garbitzeko ba eukan egiñaz.

Aita maitea, lengo aste erdirantz idatzi neutsuena gogoratzen nator. Alkar poztu zaiteze eta eroapenez eroaten alegindu bere eriotzak eragingo eutsuen atsekabea. Gure otoitzetan Jaunari sarri gogoratu dagiogun, ainbat ariñen bere aurrean gure bitarteko izan dedin.

Feliparen eriotzatik gure animentzazko onuren bat atara daigun. Gure bizitza zelako laburra dan gogoratuaz, egunetik egunera Jainkoaren legea zintzoago betetzeko alegiña egin daigun eta Berarentzat bakarrik bizitzeko eskeintza; auxe da, aita maitea, nire arrebak igaro dauan unean alaituko gaitun bakarra.

Nik nire malkoak zureekaz batzen dodaz eta nire atsekabea zureagaz.  
Alaz eta poztu bear gara sinismeneko benetako aginduekaz il dalako, eta gure Erlegioaren laguntza guztiekaz, On Iñaziok bere eskutitzan diñoan lez.  
Agur aita maitea, orain gero eta geiago eukiko zaitu gogoan bere otoitze-tan zure seme apal onek. Eskumuñak.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

*(1) Eskutitz jatorra Balendiñen lagun zan Jose Rokek gordeten eban 1905. urtean.  
(2) Jose Agustin Isasigaz ezkondua, Seiña egin eta laster il zan. Bere neskatoa be, jaio eta amairu egunetara il zan.  
Orregaitik barrero atsekabez beteta geratu ziran Zoriondunaren gurasoak, eta onek barrero Jainkoari opari mintsu bat egin bearra izan eban, gurasoak barrero ezelako laguntza barik ikustean.*

Nere amacho maitia:

Ondo esagutcen dot cein andija izango dan berorren biotcen penia egun onetan. Sinistu beit, ama, neuri ere alperric egon urrin negar asco costa izan jatala Feliparen eriotziaren noticia tristia, eta nai neuque beraquin berorren biotza consolau.

Neu bere consolau nau don Ignacioc beste noticia batequin eta da: beroc alperric trabaju andiyen erdian aurquitu, gustis animauta egozela.

Bai, amacho, maitia, animatu bedi Jaungoicuac bialdu deutsan trabajuc eramatera, bere borondate santuan conformatuagas, bada egunen baten ondo pagatu dio ceruan.

Esquiñi beiyo egunian asco aldiz Catalinacho, eta bere arimachuaren inocencia icusita erruquitu deila berorregas.

Consolatu bedi, ama; laster juango guera Juan Mariacho eta Felipa icustera.

Consolatu bedi Jesus, eta Mariaren oñetan. Euqui bei beracaz confianza andibat, eta ez bedi bildurtu. Negarresco valle au pasateco biardabena ezchaco faltaco.

Eracutsi beiyo Jose Agustini bere nere sentimentua, eta neure partes animau bei.

Agur, amacho; nere oraciñuetan presente euquico dot, eta biotcetic escatu deusat Jaunari gustioco ceruan batu gaicen. Agur; ill barruan lau letracho ostera bere escriptuico deusadas erregularmente.


Valentinec

*(1) Amarentzako idazki au ez da iñongo bildumetan agertzen, eta ez egoan bere aztarrenik be. On Eugenio Larrañaga bizkaitar abadeari zor dausat.*

*Berak, lanen nekeak kontuan euki barik, nire Lan onen euskerazko zatia aurrera eroaten lagundu daust.*

*(2) Orrelaxe deitzen zan Balendiñen odoleko illoba.*





*Berio-Otxoa. Elorrio'ko eleizpean.*

## 50—BERE GURASOEI ESKUTITZA

Izurritearen ondorenak.— Dominikar fraileak il arte ikasi bear dau.

J.M.J.

Ocaña-n, 1855.eko Irailaren 13an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Osasunez ondo nabillela esanaz, eskutitz onen zergaitik batez ere osabaren zuzenbiderik ez dakidalako, berari bialdu nai dautsadan onegaz baterako kartarentzako jakiteko da.

Karmeldar monjak esan eustenez, euren konbentuan monja bi il ziran izurriteagaz denpora gitxi dala, euretariko bat ama Nagusia. Orregaitik idazten dautsat.

Nire aurreko kartan esaten neutsuen anai frailea eta gaisoak gogor jo eban jaikitzen azia da eta meza entzuten dau. Beragandik kanpora, beste iñork ez dau euki arretazko gaisorik.

Urian ez dakit zelan dabilzan izurriteagaz, baiña uste dot badagozala kutsatutako bat edo beste, baiña ez asko.

Emen esaten danez, inguruko erritxo baten Ama Birgina agertu zan argitasunez beterik bere zale dan soldadu bateri, esanez erriko Abadeari eskatzeko ibildeunean kalez kale atara egiela, eginda euken eskeintza beteaz, eta bete ezik, odei illun bat agertuko zala eta beragaz batean batbateko izurritea.

Soldaduak bete eban Ama Birgiñaren eskaria; baiña esaten dabenez Abadeak ez eutsen sinistu eta orrela agertu zan odeia eta berealako baten izurritea, eta bere ondorenez soldaduak izendatutako guztiak.

Barri au gure Ardulariak ekarri euskun igandean Toledo-tik etorri zanean, esanez, an bear ziran azterlanak egiten iñarduela.

Aita Lendakariak esan eustan meza-dirua artuta eukala, orregaitik ez arduratu ortaz.

Monjen Aita Bikarioarentzat bere agurrak emon daustaz gure Aita Probitzialak, eta beztun gaisoagaitik izan ez balitz, ortik joana izango zan.

Zaindu zaiteze ondo eta bete lengusiña, nire senide eta lagunekin, eta artu zuei dautsuedan maitasun agerpena. Ez naz aztuten Jainkoari zuek aitik otoiitz egiten. Eskumuñak.

Gizakundeko Fray Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Biar asten gara baru latzekaz eta batez ere eskolekaz; orregaitik ez kezkatu len aiña idazten ez badautsuet, asko ikasi bear dalako. Eta Santo Domingoren fraile bear kunak ondo bete ezkerro, arnasa artzeko denporarik be ez da gelditzen, baiña zeregin oneik ondo datorkidaz eta eurak dira nire atsedenek onenak.

Ama maitea, otoi nigaitik Andra Mariari. (1)

*(1) Idazki jatorrean esaera au marra lodiagoetan agertzen da eta errezago irakutzeko. Balendiñek bere amari egiten dautsan eskaria da.*

## 51—DAMASO AMIGO-RI

Ocaña-n, 1855'ko Azillaren 6an.

Nire Amigo adiskidea:

Artu neban itxaroten neban zure 14koa, eta bera ikusita ezin neike besterik esan au baiño: adiskide gaisoa!

Egunaren argirik ez ikusteko arriskuan gagozala? Beti illunetan ibili bearraren bildur zarala? Adiskide gaisoa!

Jakin egizu, adiskide, zerurako bidean arerio bi gitxiago eukiko dozuzala. Bestela... zenbateri ez jake eriotza sartu begietatik?

Orrela uste eban beintzat gure Ordenako Zoriondun batek. Begi bat galdu ebanean, bere lagunak jai egitera gonbidatu zituan, ori zala eta arerio bat gitxiago eukala uste ebalako.

Zuk orrelako jai bat ospatu nai badozu, oindixek naukazu gogoz gai orretan esku artzeko gertu eta ez esateko adiskide gaisoa!, zorioneko adiskidea baiño.

Orrela gogarte eta Jaunaren eskutuetan pentsaldi geiago eukiteko aukera izango dozu, eta orrelako gogo-jardunetan eraspén bereziagoaz egiteko bidea.

Ez al da orrela, adiskide? Au onuratsuago izango dozu, orrela eraspénaren lodieragaz zure arima egunero geiago loditu al izango dozulako, eta orrela... Esan dautsudana, adiskide. Bernarda illaren meza biak eskeini dodaz eta zuk edo eurak beste geiago eskeintzeko aginduen zain egongo naz; eta ziur jakiten ez dozuenean emen nagoala, niretzako kartak, azkenengo bialdu dautsazuen nagusiari eta Erretore jaunari, edo Ikastetxeko Zuzendariari, eta oneik bialdu dauste nagoan tokira.

Zer nai dozu nire azkenengoan esan neutsunaren gain? Literatur ariketei buruz zerbait esango dautsut.

Irailleko Gurutzetako egunetatik asita Tomas deunaren "Suma" ikasten nabil, au da, ikastaroa asi zanetik, Jon deuna edo Madalena bitartean amaitzeko, eta bardin egin neban igazko ikastaroan.

Goizetan, zortzi eta erdietatik bederatzi eta erdietara, katedra eukiten dogu, eta emendik asi eta amarrakarte, guk lagun-inguru edo zirkulua deitzen dautsaguna, au da, ikasleen artean Katedran azaldu dana erabiltean.

Arratsaldetan iru eta erdietatik lau eta erdietara izaten da.

Orrez gain, amar eta erdietatik amaikak eta erdietara, itzaldiak eukiten doguz astelen eta martitzenetan, logika ikasleak zerbait aurreratu dabenean, eta eguaztenean. Itzaldi orreik ondoren bat azaldu eta aldezteko izaten dira, eta orrein aurka aldezte edo ikaskide batek ekiten dautsa, edota teologo edo irakurle batzuk.

Barikuetan Ekintza deitzen dautsaguna ospatzen da. Bertan ondoren bi aldezte eta suertatu bear izaten dira eta kondairari buruzko azalpen bat teologoei jagokoenetan, eta euren aurka jarduten da, itzaldietan lez.

Eguenetan, edo jai eguna gertatzen dan egunen baten, Retorikako katedra eukiten dogu Aita Granadari buruz.

Abenduko lenengo domekan asita, jantokian euren itzaldia egin bear iza-

ten dabe bazkari bitartean teologo guztiak eta filosofi ikastaroetako irugarren urtetakoak.

Ori ikusita pentsatu zeinke loratan denpora galtzeko denporarik ba ete dogun, kontuan eukita len esan neutsuzan koruko orduak doguzala eta Tomas deunaren "Suma" ori iru urtetan ikasi bear dala.

Orrez gaiñera urtean birritan azterketak eukiten doguz; Santo Tomas inguruan eta ikastaroaren azkenetan.

Gabon bezperan, eguna argitu baino len, andikiro abesten dan Calenda-ren ondoren, teologo batek egiten dau koroan sermoia fraile guztientzako latiñez. Atsegin jatzuz onelakoak? Ni beintzat pozarren egoten naz, biotzari eutsi ezinda. Fraile dominiku izan nai badozu, euretan saiatu al izango dozu, batez ere erlijiosoan artean geiago egiten danean ekiteko aukera eukiko dozu, onoimenean alegintzea.

Ez daustazu ezer esaten Maitasun Ederreko Amari buruz. Eutsi, adiskide, Berari. Ama Birgina buruzko gauzetan, burua jaso eta bera aldeztan lenena izan zaitez. Ama ona da; beragaz nai dogun guztia lortu geinke. Gora Maria, Gora Maitasun Ederreko Ama! deitu bear dogu, bere goratzeko ekintzen aurka zerbait agertzen danean.

Zure anai eta on Joakin-en otoitzetan batu nagizue, baiña zu aztu barik Jesusegan maite zaituan onegaz eta "salva tamen obedientia" zure zerbitzari dan

Fr. Balentin Berrio-Otxoa

I.O.—Aita Felixek zuretzako errekadu bat emon daust, eta zure esanetara geratzen da beragandik zerbait nai dozunetarako.

Idaztea pentsatu neban, baiña arazoz beteta dabilrelako, egunero berak katedra bi daukazalako, eta orrez gaiñera ikasleen erakusle, monja eta fraileen autor-entzule, bai eta beata eta beste ainbat orrelako ez diranena bere, uste dot naiko dala au adiskide bategaz ondo geratzeko.

Ni bere gogoratzen naz Amigo-rentzat doala mokoloiz betetako idazki au. Ez dautsut lenago idatzi izan, nik bere, esandako zeregiñetatik gain, beste berezi bat euki dodalako.

Orrela, ba, adiskide, benetako gogoz zeruetan ikusi nai zaitut; bitartean gizon lez ekin daigun Jesusentzako gogoak irabazten, baiña gu geu menpe-tu ondoren, edo beintzat orretan alegindu ondoren, eta gero an eukiko dogu gure gauzak astiro kontatzeko denpora.

## 52 — BERE GURASOEI ESKUTITZA

**Atsekabeen ibarra.— Jesus Gurutzetuaren atzetik.— Ondo esandako erroarioa.— Zelako atsegina dan Jainkoa otseintzea.**

Ocaña-n, 1855.eko Azaroaren 7an.  
Isidro Berrio-Otxoa jaunari.- Elorrión.

Nire aita maite eta agurgarria:

Artu neban zure lengo illaren 14'koa. Beragandik, aurreko guztietatik legez, gero eta geiago ziurtatzen naz mundu au uzkerien ibar bat baiño ez

dala eta orregaitik gure biotza ez dala igarotzen diran ondasunetan gelditu bear, onera etorri ezkerotik zuek igarriko zenduen lez, goragoko batzuen ametsetan berotu baiño eta oneik zerukoak dira.

Jan eta jazteko aiña euki ezker, asetu gaitezen -esaten eban Paulo Apostolu deunak.- Eta olakorik ez jaku faltako, Jesukristok esaten dauskun lez, benetan Jainkoaren erreinua eta bere zuzentza billatzen badoguz.

Ez zaitetz, aita, bertan bera galdu, naiz eta orain zerbait atsekabetuta egon. Jaunak bialtzen dauskuzan lan guztiekaz gure garbilekua egin daigun, bere eskutik etorriak lez artuta eta, gure pekatuen ordezkariak. Orrela egin ezker, eriotzeagaz danak amaituko dira; eta eriotzaren ondoren, geiago igaro izan bagendu naiko dogu, Jaunak bere maitasunaren alde jokatzan dabean guztientzat gertaturik daukan saria ikusi daigunean.

Lanakaitik sartu zan Jesukristo zeruetan, eta ara joan bear diran guztiak bidezko da Jesusek erabili eban bidea ibiltzea. Gure Gaizkatzailleak laga euskun ondarea bere lanak dira; eta zuek, bere maitasunagaitik daroazuena gogoan artuaz esan zeinke: Jesusen ikasleak gara. Geienetan santuak santu egin badira, euren lan eta atsekabeekaitik izan dira.

Ez kikildu; osasungarritzat Sakramentuak sarri artzera egokitu, bai eta Errosario santua erabili bere. Gogoratu bertotan esaten dan au: Ondo esandako errosarioa, osabide orokorra dala aitzaki eta gaitzetan mindutako gizonarentzat bai eta ortaz jardutea aukeratuen ezaugarri dala.

Ni ez naz aztuko sarri-sarri Jaunari, batez be Eukaristi eskeintzan, zuen lanetan lagundu daitsuela eta bere aintzara eroan arteraiño eskutatik ez zaitetzala itxi. Antxe ikusi nai zaituet benetako garrez eta besarkatu.

Nire agurrak lengusifari eta beste senideei, bai eta lagunei bere, eta zuek artu zuen seme apal onek dautsuen maitasun guztia. Eskumuñak.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

## 53— BERE AMARI

Nere amacho maitia:

<¿Con que larri icusi aldira coleriaquin? Gure pecatuac asarreturic dauque Jaungoicua; baña bere asarrean bere beti misericordiyagas beguiratcen deuscu.

Cenbat peccatari triste eriotzia beguiyen aurrian icusi ta, bere pecatuco bidiri ichico eutsen coleraco demporan? Igas eta aurtan Jaungoicuaq barcatu deust niri eta berorri bere bai.

Cer escatcen deuscu bada Jaunac mesede andi onegaitic! Gueure bizitcaco egun laburrak empleatu daigucela bere serviciyuan.

Bai, amacho, Jauna servitcia: O zer gauza gozua dan! gozua bicitsan eta gozuagoa eriotzaco orduan. Jesus maitiaren estisco agotic, atoz nere serbitsari maitia ordu larri ortan entsutiagaitic; Mariya Virginiaren arpegui ederra ceruan icustiagaitic, icer pena eta cer trabaju pozic eramango estitugu?

Meza santuan presente euquico ditut Jaungoicuaq paciencia emon deiyon bialdutcen deusacen trabajuetan.

Agur, amacho, Gavon jaiac artian.

Valentinec.

(1) Eskutitz onen jatorra, Erroma-ko Dominikoen Eskale-Ardularitza Orokorrean dagoan oar batek diñoanez, Elorrioko Ladislao Etxagibelek eukan.

## 54.—GOGO JARDUNAK EMOTEN (1)

### Gogo jardunetako egitaraua

Aita Valentin Berrio-Otxoak Ocaña-ko Karmeldarren Konbentuko Santa Teresa-ren Sor Maira Luisak erabili egian egindako egitaraua.

J.M.J.

Ordu banaketa Gogo Jardunetako egunetan.

**"Osorik sartuko naz, bakarrik egongo naz eta beste bat urtengo naz".**

#### Goizean:

5etan jaiki, eta Jesus Sakramentaduari ikustaldia, eguneko lanak eskeintzera

5,30tan, Errosario zati bat ta Otoitz laburretako Orduak.

5,45etan, gogarteko gaiak irakurtzea, arretaz.

6etan. Batasunagaz batera buruzko otoitza, zazpirak arte.

7tik 7,15era, otoitzaren azterketa.

7,15etik 7,45era Otoitz andietako Orduak.

7,45etik 8tara: Denpora askea.

8tik 8,30ra, Meza.

8,30tik 9ra, gogoarekiko irakurgaia.

9tik 9,15era, bigarren gogarterako gaiak gertatzea.

9,15etik 10,15era Buruzko otoitza.

10,15etik 10,30era Buruzko otoitzaren azterketa.

10,30etik 10,45era, denpora askea.

10,45etaik 11tara, egun guztiko azterketa.

11tan, bazkaria, Jesus Sakramentaduari ikustaldia, iru edo lau minututan bakarrik, beste 7 minutu inguru gelan ibili eta ordu batak arte eguerdiko loa.

#### Arratsaldean

1 etik 2ra, gogoarekiko irakurgaia, Bezperak eta Kompletak, Otoitz laburretakoak.

2tik 3rta, otoitz andietako Bezpera eta Kompletak eta Errosarioko bigarren zatia.

3tik 3,15era, irugarren gogarterako gaiak gertatzea.

3,15etik 4,15era, buruzko otoitza.

4,15etik 4,45era, otoitzaren azterketa eta denpora askea.

4,45 etik 5etara, laugarren gogarterako gaiak gertatzea.

5etik 6ra, Buruzko otoitza.

6tik 7ra, otoitzaren azterketa, jan ariña eta ixillean ibiltea.

7tik 8ra, Errosarioko irugarren zatia, Ama birgiñaren Letaiñagaz eta autortza orokorrerako azterketa.

8tan Maitinak, Otoitz Laburretakoak eta bereala Otoitz luzeetakoak.

Maitinak amaitu ondoren arratsalde guztiko azterketa, Jesus Sakramentaduari iru minutuko ikertaldia, biaramoneko lenengo gogarteko gaiak irakurtzea eta geratu barik, lotara.

### **Oarrak.**

1) Denpora askeak ez dira bakoitzak gura dauana egiteko, asmo eta erabagi onak idazteko baiño, eta otoitzetan euki diran biozkadakin alaitzeko, edota Batasunaren zerbitzuan ekiteko, ala bear balitz, edota premiñaren bat betetzeko.

2) Gogo jardunen bitartean, euretan agertzen ez diran beste eraspeneko ekintza guztiak baztertu egin bear dira.

3) Azterketak ez dira belauniko egin bear, eguerdi eta gabeko damu ekintzetan izan ezik.

Egun oneitan egin bear dan bakoitzarekiko azterketa, egitarauan esaten diran bazkari eta lotarako denporen aurrean egin bear dira. Onartutako ekintzen ontasunari buruz bear da eta ondorengo gai edo antzekoei buruz egin leike:

a) Itxartuagaz batera, nire gogoeta lenenjo gogarteari dagokion gaian erabili ete dodan.

b) Egunez, eta nire gogoz, naiz eta onak izan, eguneko gaietatik kanpora-koetan pentsatzen ibili ete nazan.

c) Ekintzak banatzen zeatza izan eta nazan, segundu bat galdu barik.

d) Ekintza bat asteen, asmoa aldatu ete dodan, Jainkoa pozteko bakarrik egin naiaz, eta ez beste atsegin eta pozaldiekaitik.

e) Ekintzak gogo barik edota asper-guraz bete ete dodazan.

4) Gogarte bakoitzarentzako izendatutako tarte batzuk, asmoak idazten bete leikezala.

5) Esandako guztia Nagusiak agintzen dauanean punturik uts barik ulertu bear dala.

(1) Ordu banaketa onek kondairarako bere balioa dau, gogora ekarten daualako garai aretan zelan egiten ziran Gogo jardunak.

Idatzi jatorra Ocaña-ko Karmeldarren etxean gordeten da. Sarrerako oarretik igarten danez, Zorionduna Ocaña-n egon zaneko denporaldikoa da.

## **55.-RUFINA SORET ANDREARI ESKUTITZA (1)**

**Gaztetasuna eta garbitasuna.— Ama Birginari eraspenna.— Jesus Sakramentukoari ikustaldiak.**

Jesukristogan nire arreba Maitea:

Artu neban zure atsegiña, zure amarenaren ondoren eta zure anaitxo Dionisionagaz jarraituta. Atsegiña izan jat irakurketa, batez ere Andra Maria goratzen ipinten dozuen garragaitik, bere zerbitzura eskeiñiz zuen ondasun, lan eta izaki berberak.

Munduko atsegin zoroiei buruz jardutean, iges egin, arreba bedeinkatu orrek euretatik, eriotz berbertatik baiño ariñago, eta etxeko bakardade illunean mundutarren itsutasuna negartu; baiña Ama Birgiña bitarteko danean eta bere onespenna indartu bearretan, gizon arteko lotsari guztiak zapaldu bear dira, eta griñak baztertu, ala bear ezkeru su-ziri bat artu eta Jainkoaren Amaren alde dunbadak egiteko.

Maitatu egizu Ama Birgiña eta sekula bere beragandik ez urrundu maita-

sun geiago eskatu barik; gurtu Birgiña eta berari zuzendutako eskarietan, gero eta gogotsuago gurtzeko guraria eskatu. Bere irudiak zure eskuetako lanekin edertu, eta zure gaitasunak zeregin orretan erabiltzen dozuzan artean, biotza beraganako maitasun eta esker onezko zeregiñetan euki, bai eta asmoaren zintzotasuna ere zaindu, arrokerizko aizeak eroan ez dagiezan.

Ama Birginaren eta bere Seme guztiz donearen begirapenen gai izan nai badozu, maite asko, asko benetan eta guztien gain gogo eta soiñeko garbitasuna, Jainkoaren ontasunez ala maite dozula ezpai barik uste dodan lez, eta iñoiz baiño geiago orain, bizitzako beste edozein alditan baiño oraintxe jakolako atsegiñen Jainkoari gaur munduan ain gitxi ezagutzen dan aingueruen birtute ori.

Apaltasun eta eratasunaren aldeko ukapen batzuk egin bearko dozuz.

Baiña eutsi maitasunari, eta maitasunez dana gaindituko dozu, maitasuna eriotzaren antzera gogorra dalako.

Ez aldendu amaren itzalpetik, bera izango dozulako arrisku askoren aurka jarduteko orma sendo lez. Badakizu noiz galdu zan Dina, Jakob-en alaba? Bere aita eta anaien itzalpetik aldendu zanean, Sichen-en alabak ikustearren.

Aita Granada-ren **Guía de Pecadores** sarri irakurtzera zaletu zaitez, bai eta Sales-ko Frantzisko deunaren **Filotea** bere. Guía-ko lenengo liburuan zure biotza onoiemen zaletasunera zaletzeko gai indartsuak eta Filoteak munduan onoiementsu izateko arauak emongo dautsuz, zure giza-egoerak daukazan erabide eta eskabideen artean, (esaten dan lez, nunbaiten jantzi nabar edo saialen bat jazteko zorotasuna sartu ezik).

Onezkero naiko izango da idazten ez dodala esan ez dagizuen, eta atara daustazuen onoiemena erakusteko. Illei buruz, pozik eskeintzen naz euren aldeko otoitzetara, eta uste dot zuek bere ez zareela aztu joandako Maiatzean il zan nire arrebaren aldezkoetan.

Goraintziak zure gurasoei eta anaiari, idazten dautsazunean, bere otoitze-tan gogoratu nagiala eskatuz; bardin Aita Martin eta Silvestre-ri, etxetik doazenetan; eta zuk Ama Birgiñari gure Aita Domingo santuaren gogoa eskatu bere zerbitzari apal dan onentzat. Eskumunak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Errekadutxu txiki bat aztuta neukan, au da, Sakramentuko Jesuseri lagun egiozula bere aurka ainbat irain egiten diran Aratuste egun galgarri oneitan.

Eta gure Benjamin txikiari, zer? Dionisio, ikusten dot idazkeran aurrera zatozala. Orrelaxe joan bear gara Jainkoaren bidean, gure lanetan egunetik egunera obetuaz, egunetik egunera eleizetan apalago, eratsuago eta etxeoago izanaz.

Ez da ba, egia, Dionisio, batzutan olgetan ibiltzen zarala eurretan?

Jakin egizu, Jesus maiteari ez jakozala atsegin orrelako nasteak; eta gurasoe-kin apalago eta lotuagoak nai dituala.

Ez da, ba, egia, anai txikia, batzutan maiña batzuekin min emoten dautsazue-na bere? Parkatu, Dionisio, okerretako pentsamentauk erabili badodaz; badakizu maite zaituan laguna nazana.

Fr. Valentin



(1) *Dionisio gaztearen arreba da. Balendin bere gogo-zuzendaria zan. Logroñoako Jainkoaren Amaren Frantziskotar monjen Konbentuan sartu zan monjatzarako, baiña osasunez makal zalako, bere guraria baztertu bearrean aurkitu zan, etxera biurtuaz eta an bizimodu errukitsu eta santua eroan eban, adin andira eldu eta il arte. Berrio-Otxoa Martiri lez zoriondutzat emon ebenean, 1.906.urtean, oraindik bizi zan.*

## 56 — BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Jainkoagan ustea.— Pasko Zorionak.— Ama Birgiñari maitasuna.**

Ocaña, 1856.eko Martiaren 24an.  
Isidro Berrio-Otxoari.- Elorrion.

Aita maite eta agurgarria:

Pasko zorionak, gogo eta soiñeko ontasunez beteta.

Ni, betiko antzera, osasunean aldakuntza barik.

Orain ille batzuk arrenak egiten iñardugun, Ikastetxeko ondasunak aidean ebiltzalako eta ordaintzat emoteko legean sartuko ziralakoan. Baiña Jainkoari eskerrak agintariei, biotza bigunduaz gure aldeko epaia emotera bultzatu dituelako. Ori dala eta, TE DEUM kantatu genduan lengo batetan.

Guk gure zeregin guztiak Jainkoagan lagatzen doguzanean, gu bere ziur egon bear dogu berak zainduko gaitunaz.

Ondo zaindu. Goraintziak nire senide eta lagunei eta zure seme onen zintotasuna artu. Eskumuniak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Oraintsu Ikastetxeko Lendakariak itaundu eustan Aita Eguskitzaren illoba bategaitik, etxe onetan fraile jantzia artu gura ebalako; ez neban jakin ze erantzun emon zure lobekin gitxi gogoratzen nazalako. Ertorten bada, elorriotar bi egongo gara bertan.

(Eta ondoren amarentzako:

## 57 — BERE AMARI

Neure amacho gustis maitia:

Urte ascotaco pascuac desiatcen deusadas arima eta gorputseco osasun baquiagas, bada semechua gustis ondo dago, Jaungoicuari gracyac.

Jesus maitiarequin guc ere erresucitatu biar degu, geure trabajuchuac conformidad andi batequin eramanagas; bada Jesusen lagunac baguera trabajuetan, consueluetan, bere izango gera.

Agur, gorantciyac Angelari, eta esan beyo Ama Virgiñaren adisquidea isan deila biotz garvi baten vitartez.

Escumunac osaba Fraileari, eta Urruti gentiari, Susana Gastañacori eta beste aideari.

Valentinec.

Idazki onen jatorra, bai erderazkoa eta bai euskerazkoa, Elorrioko Santa Ana konbentuan gordeten dira. Ikusi zelako samurtasuna eta maitasuna darabillazan amari idaztean.

## 58—BERE GURASOEI ESKUTITZA

**Juan Isidro-ren suiñaren gorabera.— Diruari maitasun larregia eta ondorenak. Guztien gain arduratu bear gaituana.— Zeruko Ama.**

Ocaña, 1856.eko Ekainaren 5ean.  
Isidro Berrio-Otxoari.- Elorrion.

Nire aita maite eta agurgarria:

Artu dot Apirillaren 13ko zure atsegiña, eta pozik jakin dot Jose Agustinegaz zendun arazoa era onean amaitu dala, gastu barik, eta gorroto zer esan eta abar barik, orrelako guztietan eta diruak bitarteko diranean, alkarregaz batera bizita be egon diranekin gertatzen dan lez.

Zenbat banaketa eta atsekabe galduko litzakez munduan, diruari atsegiña gitxi edo asko geiagoz beartuago balitz, jateko bear dogunagaz ase eta gure billoiztasuna estaltzeko bear dogun jantziagaz poztuko bagiña, eta pentsatuko bagendu eriotza datorrenean ez dagola beste alderik ona eta gaiztorena baiño.

Gura zenduken osasunagaz ez egoteak minduten nau. Ni, Jaunari eskerak, brontze baten antzera gogor nago, eta sekula ez nau nekatzen ez ikasketak, ez koruak, ez eta gure Erlegiñoko beste zamak. Onelakoxe osasuna opa baiña geien opa dautsuedana eta Jainkoari indartsuen eskatzen dautsadana, arduratzen naben zuen gogoaren salbamena da.

Naiz eta lan txiki batzuk eroan bear, egunaren azkenean Jaunaren ikuspegiagaz atsegintzen bagara, ikustean eroapen eta penitentzi gogoz egindako lanak dirala eta Jesukristok poztasun ori emoteko gugaitik egindako lanekin baterakoak dirala, betirako bedeinkatuko dogu bide ezbardiñetatik, baiña beti be azken batera eroateko gure Jaunak daukan guretzako ardura.

Osasunez zaindu eta goraintziak senide, lagun eta Santa Anako fraileei, eta artu zure seme apalaren maitasunik beroena. Eskumuñak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

Eskutizik ezin amaitu bere amari agurrik bialdu barik:

## 59—BERE AMARI

Neure amachu maitia:

Berorren letrac gustos leitu nituzan, baña gusto andiyaguas aitcen emoten eustan berorren trabajuchuetan Jaungoicuaren borondate santuarequin conforme eguala.

Bai, amacho, Jaunaren escutic datorrena, escu onetic dator, eta gracyac emonagas artu biar dogu.

Santa Monicaren egunian guchi gora bera amazortci urteco fraile gaste-cho bat il jacun, eta ilda guero barresca eguala esan seiquian. Bat ilten dan ordutic eta enterratu artian gabes eta egunes, Frailiac errezatcen egon dira difuntuaren onduan, momentu baten ichi baric.

Maria Santisimiari euqui biar deutsagu devociño andiya, bada bera da geure ama gustis lastana.

Gorantciyac lengusiniari eta asco alegratcen naizala ondo laguntcen deuselaco.

Agur, amachu, Santa Anara  
doianian, Aita Santo Domingori  
erregu beijo bere eguiasco semia  
izan nadin. Agur.

Valentinec.

(1) *Idazki onen jatorra Elorrioko Dominikarretan dago.*

## 60—GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Maitasunezko eskutapen andia.— Bidea, Egia eta Bizitza.**

Ocaña, 1856.eko Abenduaren 23an.

Nire guraso maite eta agurgarriak:

Zorionak, Gabon Paskoetan, eta euretan ospatzen dan maitasunezko misterio andiak emoten dauan fedeko alaitasunez igaro dagizuezala. Adoretu gaitezen, gure maitasunagaitik milla beartasunetara makurtua izan zan Jainko umearen ereduagaz, gu bere berak lotu nai gaitun estuntzak eroatera menderatuz.

Bai, nire gurasoak; Jesus gure maitatia beartsu jaiotzen bada, pekatuak beartsu biurtutako gure arimak aberasteko dala; negarrez jaiio bada, aultasunez betetako ibar onetako arantzak ataratzen dauskuzan negarrak arintzeko dala; eta miñetan jaiio bada, gure izatea txarto erakutsiarentzat ain aldatz gora biurtzen dan Kurutzeko bidea arintzeagaitik dala.

Jainkoaren Semeak, gugaitik jazanaz, gure lanak bedeinkatu zituan, guk kristau gogoz eroaten jakiten badogu.

Zeiñek adoretuko gaitu eurak eroatera?

Kurutzeko bidea bada zerurako bide zuzena, Jesukristok, bera bidea izanik bere bizitzan beste biderik erabili ez ebalako, zein ukatuko da bide orreatatik ibiltzera, arantzaduna dala itxuratu arren, gure zoriona bide orren amaieran dagola pentsatuta?

Gaiñera, guk gure pekatuakaitik merezi doguna aia artzen badogu, zelan izan leike keixatzeko aoa eukita, naiz eta munduko lan guztiak batuta gure gain etorri?

Gareana eta doguna Jainkoagandik artu badogu, zelan dan dana bere eskuetan itxi ez, berak atsegin jakona egin dagian?

Zein arrazoi daukagu edota egon ete leike aitzaki makalagorik, Jainkoak berea dan gauza bat, naiz eta guretzat maitagarria izan, kendu dauskulako asarratzeko?



*Clepera'ren margoa.*

Guraso maiteak, Jainkoarentzat opariak egitean, biotz andia eta emankorra euki daigun, bera bere, bere maitasunez egiten doguna saritzeko ugari izango dalako.

Alkarri lagundu zuen gurutzea eroaten, eta orrela bigunago izango da. Zuen poz eta atsegiña Jainkoa eta Ama Birgiñaren aldeko lanetan billatu, eta ez munduko gizonetan, laidotuak ikusiko zareelako; Jainkoak gure biotzen barruan lanik egiten ez badau, gizonenak ez diralako naiko izango, estututa dagoanean.

la urte bete izango da, oker ez banago, zuen kartarik artu ez dodala. Baiña orregaitik ez naz asarratzen, ezagutzen dodalako ez nazala duin zuen ardurara artzeko.

Ezagutzen dot seme okerra izan nazala, eta atsekabe asko zueri emona, zuekin bizi izan nazan artean. Ori ezagutzen dot eta ezaguera orrek zuen aurrean baleunikatzera beartzen nau, nire uts guztien parkamena eskatuaz.

Barrero idatziko dautsuet, Jainkoa lagun, egun gitxi barru. (2) Bitartean Jainkoari eta Ama Birgiñari otoi egin, zareena eta daukazuena euren eskuetan itxiaz.

Zuen seme apal onen eskumuñak artu.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

*(1) Idazki jatorra Elorrioko Ama Dominikatarrek gordetzen dabe.*

*(2) Bere biotzak ez dautsa agintzen bere guraso maiteei agur egiterik.*

*Aste bete geroago, Misioetarako urtetzen dau. Gero ikusiko dogunez, Cadiz-etik idatziko dautse, itxasontzian sartu aurrean.*

## 61.-RUFINA SORET ANDREARI ESKUTITZA

**Santutasunaren izatea.— Biotzeko eraspina Andra Mariari.— Jaunari eskeintzen dautsa Misiñotara joatea gurasoei agur egin barik.— Agur!**

J.M.J.

Ocaña, 1856.eko Abenduaren 27an.

Migel Soret-en Rufina andreari.

Logroño.

Kristogan arreba maitea:

Zure aita maite eta agurgarriaren eskutitzari geitutako idazkietan igarten dot, onak izan ezker aolkuen gosez zagozala.

Ori ez da adierazgarri arima batentzat, gorputzarentzaat izaten dan lez komeni jakon janariaren gose eukitea.

Baiña nora zatoz, arreba bedekatua, aolkuak eskatzen? Ni neuk iñoiz euki ete dot euren premiñarik gaur daukadan aiña? Zelan nai dozu, ba, emotea?

Bat ona daukat, eta askoren aiñakoa da, eta au da: irakurri egizula arretaz eta sarri Sales-ko Frantzisko deunaren Vida Devota, munduan bizitza santutu nai daben neskaitilla batentzat aolku ezin obeagoak diralako liburu eder onetakoak.

Pozik zagoz? Ala bear zenduke, baiña ez zaitut orrela ikusten. Eta beste aldetik, zela-ala zure gogoasetzera beartuta nago (batetik, aldi baten, zure arima nire eskuetan ipini zendulako; eta bestetik, nai eta duin izan ez, ez eta gitxiago bere, fraile aolkari izena daroat eta orrek beartu egiten nau arimek laguntzeko une guztiekaz baliatzera). Orregaitik burura datorkidazan bat edo batzuk emongo dautsudaz, askorentzako denporarik ez daukadalako.

Bat, eta lenena, onoinena (birtutea) maitatu dagizula, zaletasun andia gorde beretzat, eta ardura andia bera lortzeko erabili leikezan bitarteko guztiak erabiltzen. Aolku au, era baten, beste guztien oiñarria da; maite ez dana ez dalako gura izaten eta gura ez dana ez dalako billatzen eta billatzen ez dana ez dalako lortzen. Birtutearen maitasun andi ori lortzeko bidegaitik itauntzen badaustazu, nik ez dakit gauza egokiagorik agintzen Aita Granada-ren Guía de Pecadores-eko lenengo liburua irakurtzeko eskatzea baiño.

Bigarren aolkua au izan bedi: Zure gogoan kristau ontasunaren benetako gogaia irarten alegin egin dagizula, bestela atzipetuta biziko zaralako. Zentzat dagoz barauekin argaltzen, sarri autortzen, ugariago Jaunartzen, zilizioz beteta ibiltzen, eta abar, eta zertarako? Orreik deunago ez al dira?, esan ziñei.

Ez litzake arrigarria eurak orrela ustea eta munduak bere ala ikustea, baiña ez litzake arrigarria bere izatez deabru utsak izatea. Jesus! Gitxi gitxiago; santutasuna ez dagolako orreitako baten be, eta deabruen aztikeria orrelako gauzen lagun dalako.

Orretaz, orrelako gauzetan baten bere ez sartzeko esan nai al dot? Ez olakorik. Nik esan nai dodana da ez dala ori kristau ontasuna. Baiña orrek ez dau ezer kentzen erabide orreik ortarako egokiak izatea, bai lortzeko eta bai bertan irauteko; eta kristau edo erlijioso benetako izan nai badogu, asko saiatu bear gara eurretan.

Non dago ba, errakuntza? Aita Augustin doneak esaten dausku: atsegiñez artu bear gendukena, erabili egiten dogula, eta erabili bear gendukena, atsegiñez artzen dogula; bitartekoari azken izatea emoten dautsagula, eta azkenagaz bitarteko balitz lez baliatzen garala.

Beste errakuntza bat dago onoinenatzaz jarduten diranen artean, gogo onez bai, baiña oker erakutsita. Batzuk uste dabe santu egin nai daben guztiak erabide bardiñak erabili bear dituela, eta ori ez da orrela.

Ez dago eragozpenik, azken naia bardiña izatean eta bitartekoak ez bardiñak. Zuk Madrid-era joan nai bazendu eta nik be bai, ibillerako azken bardiña izango litzake, baiña ibili bearreko bidea ez bardiña.

Kristau ontasunaren oiñarria bardiña da gizaki guztien egoera guztietan, baiña egoera ez bardiñeko era askotara jazten da, asko diralako gizon batzuek besteetatik bereizten dabezanak.

Jainkoa asko maitatzea eta lagun urkoa bere maitasunagaitik; gurea dogunetik bakoitzak bere burua ukatzea; eta bere esku errukitsutik artu dogunagaitik Jainkoagaz eta Jainkoagaitik maitatzea, orra kristau bizitzako oiñarrizko zeregin eta izatea.

Ai, ene arreba bedeinkatua! eskutitz au baztertuta neukan, luzatzeko asmotan baiña osterarako oniritzia artu dogu eta biar ez dogu bestetako denporarik eukiko gure mezak eskeini eta gertatzeko baiño.

Agur, ba; gure soiñak banatuta egongo dira, baiña gure biotzak Jesuse-

gan alkartuta euki geinkez. Bere Biotz Sakratuan aurkituko gara gura dogun guztietan.

Batez ere alegindu gaitez an bakoitzak bere egoerako bizimodua eroaten, eta zeruan eukiko dogu alkar ikusteko zoriona, geiago ikustea galdu barik.

Agur; apala izan zaitez, uso txiki baten antzera, eta garbitasuna maitatu, Jainkoak deitu zaikedazan edozein egoeretan, Jesus arima garbien maitale andia dalako.

Ama Birgiñari zure ama maitea deitu, premiña guztietan beragana jo, amarik maitekorrena lez.

Oitu zaitez etxetik ez urtetera aurrez bere onespina eskatu barik; eta bere irudi baten aurrean belauniko jartzeko aukerarik euki ezik Agur Mariagaz agurtzeko, besterik ezean barru barrutik berari dei egin eta Mariak ez dauetsu utsik egingo.

Agur, agur, agur. Itz oneik kantuz erabiliaz agurtu gara oraintxe Errosarioko gure Amagandik.

Zure guraso maite eta agurgarriei milla gauza esan nire aldetik, eta Nagusiak sei meza eskeintzeko agindu daustazala; orregaitik lkastetxean dirutuko naz.

Zelako atsegiña artuko neban zure anai eta nire adiskide Juan Manuel besarkatzen! Baiña ez da ori izan Jaunaren borondatea, ez dalako alan izan niretzat Jainkoaren ordezkotza egiten dauanarena, eta oraindik ez dakidalako zein norabide daroagun. Erantzun bear neutsan, baiña uste barik artu naualako, ez daukat denporarik. Cadiz-etik idaztea izan leike, an atsedean egun batzuk eukiten badoguz, oi dan lez. Orain zuk egin nire orde.

Zure eskuetan mun dagitsun zure zerbitzari naz.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

## 62—BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Misiñorako bidean.— Jaunaren etxeko maiordomo.— Agur nire guraso maiteak.**

Bahía de Cádiz, 5 Enero de 1857

Neure guraso maitiac:

Egun guchi pasatu dira neure asquenengo cartia escriptu nebala, eta carta artan prometidu neban becela artcen dot gaur plumia berriz bere escriptuteco.

iNolan, neure guraso maitiac, Jaungoicuari esquerrac emongo deutasdas, eguin deustacen mesede gustiacgaitic? mundu gaistuaren atasaparratic libratu ninduan bere misericordiasco beso senduagas, ni baño pecatari chiquiyaguac peligraren erdian ichiten cituzela.

¿Eta cembat graciya ugari neure arima esquier gabecuari bialdu deutasdas erreligioco portu seguruan?

Eta gustia guchi balits bezela, bere Apostolutsat escogitu ninduan, bere becoguico izardiyagas, bere sanetaco odol preciosuagas, eta bere eriotzia-

gaz erositaco animac irabasteco; eta neure vocaciñuari erantsuten badeu-  
tsat secula gustiyetan izar argui bat bezela ceruan egoteco.

iCer emongo deuscat bada nic neure Jesus maitiari? neure vicitsa, eta  
naizen gustia beriac izan biar dau. iEta cer graciya, ce esquierrac emon biar  
deutses beroc bere, seme bat escogitu dabelaco ceruan eta lurrian dan  
dignidaderic andiyeneraco?

Gurasoric asco arrotuta bicidira munduco conde edo marquesen batec  
bere pagetzat escogitu dabelaco bere semen bat, eta pocez choratuta egon  
oidira catanarrua sendotceco esperantza bategas.

cCe arrotasun santua bada euqui biar eztabe beroc, conde edo marques  
gustiyen Jaubiac bere ehecho mayordomutsat, ceruco atien ichi ereguitsa-  
lletsat escogitu dabelaco beron seme bacarra?

Biots gustitic bada esquini beiye Jaungoicuari seme triste au Abraham  
Patriarca Santuaren oñatzai jarraituagas. Uste dot ce entsuten nagola beron  
agotic: *Jauna, ceuc emon deuscusu Valentincho, bada gueuc bere ceu-  
rí esquintcen deusugu, equin eizu beragas nai dosun gustia.*

óNun nagola uste dabe nere guraso maitiac? Cadizco catedralian atso  
mesa nagusiya entsun neban, eta conventuan banego bezela, nago eseribi-  
tzen carta au ichasuan Cadizco vistan. Atso sortci goizian conventutic atera  
guiñan lau Sacerdote eta lau diaconu Pro curadoriaren laguntasunagaz, eta  
urte barri goizian allegatu guinian Sevillara.

Emendic urten guinduan sapatu goizian ichasoco baporian, eta iluntcico  
allegatu guinian Cadizera, baña ez guinian Ciudadian sartu, ezpada en  
seguida etorri guinian lancha baten barcu onetara; eta emen gaos ordu lau-  
ren edo ordu erdiyen distantciyan Cadiztic, eta emen egongo guera ama-  
bost egun edo gueiyaguan, gentia etorri artian, eta particularmente berro-  
guei Frayle Francisco. Gustis gente ona da barcuaren nagusiya, eta Capita-  
na vizcaytarra da, guizon formala, eta Frailien adisquide andiya. Barcuco  
biarguñac indiyaco gentia dira; arpeguis cobriaren colorecuac, baña gustis  
servitsari onac. Barcuca palacio bat bezelacua da eta sala gustis ederrac  
daucas. Sevillaco Ciudade andi eta ederrian baño contentuago nago emen.

Espeiye bada ecen bere ciudaduric euqui nigaitic; ecer bereezchat niri  
falta; baña gausa gustien gañian estimatcen dodana da daucadazen lagun  
eta erreligioco anaiac. Alperric guera Provincia ascotacuac, iru catalan, bi  
valencianu, manchegu bat, castellanu bat eta ni vizcaytarra, alcarri gueiyago  
nai deusagu aita baten semiac baño.

Lengo eguneco cartan ez neutsan ezer escriptu viagiaren gañian, cergai-  
tic ece echetic urten artian eztaquigu guc gauza ciertoric, eta amalau ordu  
urten baño lenago ezenequiyan noiz guendocen eta birian parau artian ce  
camino eruango guenduan. Ardura gustiyac erreligiñoco nagusiyan lepora  
botata daucagus eta berac dauque gure ciudadua gurasoric onenac bezela.

Nere lagunac eta nic estaucagu apurric ichasuaren bildurric eta ain poses  
beteric gaos gustiyoc, mundutarrac casa campo batera diverticen doiasen  
bezela. Letracho bi escriptuco deutseras Filipinara urtetceco vesperan,  
derrepente ezpada urteria.

Eta carten bat escriptu nai badabe emen naguan artian, modu onetan ipi-  
ñico deutse sobria:

*Al Padre Fray Valentin BerrioOchoa, misionero Dominico, a bordo de la  
Bahña de Cádiz.*



Eta onen gañian beste sobre chu bat modu onetan:

- *Andaluca. Sr. Don Ignacio Fernández de Castro, del Comercio de Cádiz.*

Eta ostantceco carta Ocañaco Colegiyora neure sobriagas edo Colegiyoco nagusiarentzat.

Gorantciyac nere lagun gustiai eta senidiai, particularmente Mariri eta Osaba frailiari. Nun dagan jaquin baneu escriptuico neutsan.

Agur bada, neure guraso maitiac; ascoc bialtzen ditu bere semiac indiyetara lur pisca baten atcian; beron semia bere indiyetara doia ez urriaren eta zidarraren billa, ezpada ceruaren billa beretsat, eta beste batsuentsat.

Erregutu beiyue Jesus maitiari eta Ama Virginiari ezteidela faltatu beren amparua. Misioneruoc bere echetic urten baño lenago cantau guenduan errosarioco altaran mesa eder bat, eta estaucagu beste bildurric ezpada pecatuan erortia.

Agur, erreguen vesperia da gaur.

VALENTINEC

Nik dakidala auxe da bere aitari euskeraz idatzitako karta bakarra. Bearbada azken uneko barruko arradagaitik, bere erriari azken agurra egitean eta azken baten misiotarako eta martiritzarako urtetzean, Jabierreko Frantzisko doneari lez gertatuko jakon. Diñoenez, aperi bere, eriotz orduan, barru barrutik urten eutson Agur Mariak euskeraz.

Eskutitz jatorra Elorrioko Santa Ana-ko konbentuan dago.

## 63—OSABA FRAILEARI ESKUTITZA (1)

"Vincula et carceres me manent"

Bahia de Cadiz.  
Aita Juan Ariztiri  
Elorrion.

Ene osaba maitea:

Manila-rako bidean nabil. Quae ibi ventura sunt mihi ignorans. (Zer gertatuko jatan ez dakidala). Baiña an, "Vincula et carceres me manent! (Lotuera ta kartzelak egongo dira niretzat)

*(1) Bere osaba karmeldarrari Cadiz-etik idatzitako kartako lerro oneik bakarrik geratzen dira, "El Beato Balentin de Berrio-Otxoa" Vergara, 1.905, 144. orr., agertzen dituan Aita Sainz-eri eskerrak.*

*Eta Aita Sainz-ek geitzen dau, benetan bere aruntzago lotuera eta kartzelak eta martirioa geratzen jakozala. Baiña au lau urte lenago esaten eban, eta bere ekintzetatik eta garaitzetatik sei mila leguatara.*

## 64- INAZIO BURGUINAS JAUNARI ESKUTITZA (1)

Bahía de Cadiz.  
Ignacio Burguinas jaunari. Elorrion.

Betoz, betoz burdin eta su eta inpernuko amorru eta indar guztia, nik fedebako anai bateri maitasun eta errukiz beteriko Jaunaren ezaupidea emotearen ordeztu .

*(1) Zoritxarrez, karta orretako zati au baiño ez da geratu, eta bera Aita Sainz-ek bere EL BEATO VALENTIN DE BERRIO-OCHOA" Vergara, 1.906, 149. orrialdean, agertzen dauanari esker.*

## 65.-AITA FELIX FERNANDEZ DE CASTRO-RIESKUTITZA

**Misiolaria eta Ama Birgiña.— Musikako ezaupideak.**

Bahía de Cadiz, 1857.eko Urtarrillaren 24an.  
Aita Felix Fernandez de Castro-ri. Ocaña-n.

Nire Aita agurgarri eta benetan maitea:

Gauza bi agindu zeustazan erregu bereziz nire agurrean: Jainkoari otoitz ugaria eta Ama Birgiñari eraspene samurra.

Ez dakit orduan asko iruditu ete jatan zure erregua; baiña benetan, alan izanda bere, Etxe santu orretatik urrundu ezkeroko egunetan ikasi dodanak, gitxitzat irudi eragiten daust nire biotzean berba orreik irarten egin zundun alegiña, niretzat zure azken nai lez diralako eta nire oraingo eta geroko zoriona eta nire menpean egongo diran anaiena bere, ori betetzera lotuta egongo dalako.

Aita agurgarri orrek, nire aldetik bere aolku bat emoten itxi bear daustazu, bearbada zuk emonaren semea eta au da: zure zuzendaritzan egongo diran gazte misiolariak danen aurrez eta danen gaiñetik Jaunari otoi asko eta Andra Mariaren eraspenean zaletzea. Eta misiolari batentzat zuzenduko dan ikasketarik bereziena Jainkoari otoitz asko eta Ama Birgiñari eraspene samurran izan daitezala, eta misiolariak ziurtzat artu bear dauan egia eta sinistu bear dauana au izan bear dala: Jainkoari otoi asko eta ondo egin barik, eta Ama Birgiñaren maitale samur izan barik, ez dala ezer edo gitxi baiño jakiten.

Nik beintzat alaxe ikusten dot eta orain len baiño geiago, naiz eta ni neu salatzen jardun, egitadak ez datozala bat asmoekin. Jauna erruki bedi gutaz.

Egun batetik bestera gure anai frantziskotarren zain gagoz eta eurak etortean, eguraldi onak badira, gure urteera erabagiko da.

Atzo, Ocaña-ko gure anaiekaz batuta, baiña eurei aurea artuta, bost eta erdietan asi giñan Raymundo deunaren meza abesten, 6 garren doiñukoa, eta Aita Lendakariak emon ebana, bere sermoiagaz eta Te Deum abestuz

amaitu genduan, 4 garren doiñukoa, bere bertsoaldi eta otoitzekaz.

Uste dot gure osterara dala eta jakin leiken guztia jakingo dozula, bai eta egoera eta gogo jardunena be eta orrela ez daukat zertan barriztatu.

Eskutitz au egin barik itxi neikean, baiña bearrezkotzat euki dot jakin eraztea biotzean zaroazala, zuk atean itxi ez nagizun, Jaunagaz guri dagokiguzan gaiak erabiltzerakoan.

Nik gurako neuke gure ibilaldia iru illabeteren barruan egitea, orrela denpora orren barruan barriro arro nintzakelako nire koroe eta jantzi santuagaz. Oraingo jantzi au ez datorkit ondo.

Agur Aita, ez itxi agur berezi bat emon barik Aita Lendakariari, ni Santo Domingo-ren erakundean sartu nindun Aita guztiz agurgarriari; Aita Costa-ri eta Aita guztiei, bai eta ikasleei et bereziki nire nobiziokide izan ziranei, bai eta nire anai legoei bere.

Jaunari eskatu ez nagiala aztu Etxe santu orretan artu dodazan mesedee-kaz eta Erlegioari esker artu nebala mokoak kentzeko zapia; irizpide au ezin esan onurakorra ez danik. Eskuan musu dagitsun zure semea naz.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Aita Lendakariak anai guztiekin batean agur dagitsue Aita Agurgarri eta Ikastetxe guztiari.

*(1) Eskutitz jatorra oneraspen andiz gordeten dabe Avila-ko dominikotarrak.*

*(2) Ocaña-ko Menpetasuneko Anaiei buruz ari da, gogo zuzendaritzaren ardura euki ebane buruz. Biotzez maite izan zituan eta atseden barik jardun zan ontasun bidea erakusten sinismen eta eginkizunen bitartez.*

## 66—BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Bost illabeteko itsas-bidea.— Aste Santua.— Maiatzeko illa.— Gentil-llen aztikeriak.— Arrera goragarria.— Jainkoaren Amaren aurrean.— Andra Mari gidaria.**

J.M.J.

Manila, 1857.eko Uztailaren 7an.  
Isidro Berrio-Otxoa jaunari.- Elorrion.

Nire aita maite eta agurgarria:

Cadiz-etik idatzitako azken eskutitzan esaten neutsuen, gure osterako barrien zain ez egoteko Iraillaren azkenengoak arte.

Bearbada oar orrek arritu egingo zinduezan ; baiña naiz eta oker burutua izan, ortazko oiñarrik ez neukalako, gaur badakit okerrik ez dala egongo.

Amaitu dogu gure itxas-ostera eta gure misiñoko lurrera eldu, Ocaña-ko Ikastetxetik urten eta sei illabete zuzenetara, edota itxasontzian sartu giñanetik bost illabete egun bi gitxiagotara; eta zenbat esker zor dautsaguzan gure Jaunari osterara orretan emon dauskuzan irabaziakaitik.

Ibillaldiko bost millatarako ez dira faltako egin doguzanak; eta ainbesteko ibilleran be egunik ez dogu igaro batasunean otoi egin barik, batasunean gogartea egin barik eta maian jan barik. Ez aize eta ez olatuak, naiz eta itxa-

soetan ugari izan, ez daukue eragotzi gure mezak egoki esan eta batzuk abestuten be.

Ez dot uste pentsatu be egingo zenduenik, Aste Santuko maitinetara joango zifanean, gu geu bere Elorrioko ospetasunez edo gitxi gitxiago ari giñala meza abestuten, iru Ordena ezbardiñetako fraileak arima eta biotz bat egiñik.

Egia da, eta zer esan geiago bere bai. Urteko egun santurik andienean igaro genduzan itxasorik maltzurrenean gengoan; alaz eta Eguen Santuz eguerdiko ordu bi eta erdietan, iru fraile jantzita, euretatik Dominikar bi eta Frantziskotar bat, eguneko Barri onaren zati bat abestu ondoren, Kristok bere azken aparian egin eban apaltasun ekintza barriztu genduan, jai orretako zuzendari egiten ebanak amabi fraileri euren oiñak garbituaz. Andik laster, oiñak garbitu zituan berberak, gure Misiñoko Lendakari danak, sermoi bat egin eban egin genduan ekintzak zer adierazten eban gogoratzen.

Gaueko zazpiretan maitiñak abestu genduzan eta Miserere iru abotsetara abestuaz amaitu genduan.

Urrengo egunean, goizeko zazpiretan, Kristoren Nekaldiari buruz itxasontziko kapillaua zan fraile frantziskotarrak egin eban itzaldia eta gero Kurutzekoak egin genduzan, eta gabean, aurreko egunean lez, maitinak abestu.

Zapatu Santu egunez, meza abestuten dan orduan, lau kañoi eztanda entzun genduzan.

Maiatzeko illa bere egin al izan genduan, eta bertako otoitzetara pozik etorten ziran itxasontzian joiazan asko. Ama Birgiñari zuzendutako gogozko lorak artzen zituen, gabero banatzen genduzalako. Eta Maiatzaren 24an, Martiaren 22tik ikusi barik geunkan lurra ikusteko zoria euki genduan.

Andik egun bi edo irutara, Anger-en aingura jaurti genduan, Jaba-ko. ugar-tean ura eta premiña genduan beste gauzak artu genduzan; Ugarte andi aretan dagozan arboladi ederretan ibilteko atsedeen eguna artu genduan, eta an ikusi genduzan, arrituta, gizonak billoizik bai eta miñez bere fedebakoen illunpean bizi ziran areik, deabruari eskeintzak egiten an ikusi genduzan mezkita batzuetan.

Inguru aretan bare aldiak ezagutu genduzan eta orregaitik egun asko igarogenduzan Singapoor-era eltzen, naiz eta illara bardiñean eta urrun egonez, eta ango Baian sartu giñan Gorpuzti egunean.

Uri barri, baiña andi onetan, frantzeztar fraileak zuzentzen daben Misiño katoliku bat dago. Gure Misiñoko Lendakaria eta Itxasontziko Kapillaua joan ziran bertakoak ikustera, eta biaramonean, oker ez banago, euretariko bi etorri ziran gu ikusi eta eurak infra-octava jaiak ospatzen eben igandean bertara gonbidatzera.

Alaxe, egun orretan, goizean goiz urten giñan ontzitik bederatzi frantziskotar, agustindar bat eta zortzi dominikotar, eta eguzkiaren urteeran lurrera urten eta eleiza-katoliku aretara joan giñan, bat bera ikusi barik ainbat illabete igaro ondoren. Meza santua eskeini genduan eta pozik ikusi genduan ango katoliku barriak zelako adore eta garrez urreratzen ziran Mai Santura indartsuen ogiagaz sendotzera, ordurarte euki zituen irakaspen oker eta deabrukeriak baztertu nairik eta Eleizako nagusi Gorenarentzat euki eben erasoalditik urten nairik.

A zelako lotsaria ainbat eta ainbat espaiñiar kristaumentzat, gure Erlegiñoko

misteriorik andienak oztasunez ezagutzen dituenak eta iñoiz euretara urreratzen badira geiago izaten diranak irriz artzeko, apalik goratzeko baiño.

Bikario jaunaren etxean gozalduek ondoren, ordu egokian Meza Nagusia entzun genduan, Meza emole itxasontziko Kapillaua zan eta laguntzaille Augustindar frailea eta beste Frantziskotar bat.

Bertan ingelesez itzaldia egin eban bertako Bikarioak. Eta meza amaitu ondoren txinarrez beste Aita batek. Onek, goizeko zazpiretako mezatan, beste itzaldi bat egin eban izkuntza berean.

Eleizkizunak amaitu ondoren, Frantziskotarrak Bikarioaren etxean geratu ziran bazkaltzen eta gu burdieten eroan ginduezan mendigain batera, erritik urrun samar egiten zanera, Misiñoetarako Ardularitza bat egiten egozan tokira.

An Aita agurgarri bat billatu genduan, ango kristautasuneko zuzendari lez, egozan guztiak ziran lez. Onek, itxaron leikezan maitasun ezaugarririk bizi-nakin artu ginduzan. Bazkari eder bat emon euskun; erderaz eukan jardunaldi gozo eta alai ez alaitu ginduzan, eta emoten euskuzan barriekaz konfiantzaz bete eban gure biotza, beragandik jakin genduzalako Ocaña-ko Aita batzuen barriak, bai eta Manila-ko gure konbentukoena eta beste misiolari batzuenak bere. Arratsaldean, laurak inguruan, barriro eleizara joan giñan eta Bezperak abestu. Eurak amaitu eta Sakramentu Santuagaz kalez kale urten giñan, milla eta bosteun laguneko kristau jendetzatik joan leiken laguntaldeagaz, danak gurtzaille onak.

Sinisbakoak ikusle geratzen ziran, bidea zabalduaz. Ez dakit zelako arrada eragingo eutsen jai arek. Dana dala, ez genduan ezelako aurkakorik oartu, Aita Santua baiño katoliko andiagotzat eukiten diran askoren lotsari.

Karidadeko Monjen ikastetxera joan giñan, eta beste bide batetik biurtu. Eleizkizuna kantu alai eta fedetsuz amaitu zan, katoliku barri areik eukan garrez abestuta (eurak be Jainkoak mundua sortu aurretik bere ikuspegi luzean karidade bitartez santu eta garbi izateko aukeratuak eukazalako) eta sekula ainbestean goratu ez dan Fedearen Zabalkunde erakundeak urruneko lurralde areitara bialduta eukazan Aita Misiolari on areik agurtu genduzan, eta gauaz barriro gure itxasontzira sartu giñan.

Urrengo martitzenean aingurak jaso eta aizearen laguntzaz urten eta andik amaika egunetara Manila-ko kaian sartu giñan.

Andik ordu gitxitara, gure iru fraile eta beste iru frantziskotar etorri ziran itxasontzi baten gure billa. Minutu gitxi barru, an gengoan ormaren alboan.

Lurrera urten ordurako, andik laster dagoan gure konbentuko kanpaiak oska asi ziran eta Eleizan sartu giñan, atean bertako talde guztia zain genduala.

Andik asi zan ibildeuna, Te Deum abestuaz, organoz lagunduta; Errosario Santuko eleizara zuzendu giñan (eleiz txiki antzeko geratzen da, bere bost aldare eta organoagaz) eta bertan sartzen, argi artean Gure Ama maitagarria ikusi genduan, Errosario-ko Amaren irudi miragarria, Ugarte oneitako zaindaria.

Eta zer egin geinkean guk, pekatari argalok, Amaren irudi gurtugarri a gure aurrean ikustean?

Luze etzan giñan lurrean, bere onespina eskatzen eta gero belaunikotuta alaxe egon giñan bertako Batasunak Te Deum abestu arte.

Gero barriro etzan, Fraileak ibillaldian egin geinkezan utsaldien parkame-

nez fraileak otoitzean iñarduen artean. Eta otoitza amaitu ondoren, banan-banan besarkatu ginduezan fraile guztiak eleiz berbertan, arrera ori ikustera etorrita egozan ainbat jenderen aurrean.

Biaramonean, goizetik eroan ginduezan Manila-tik laster egiten dan etxe batera, an zortzi egun atsedenean igarotzera. Barri naiko esan dautsuet eta orain amari euskeraz berbatxu batzuk esan gura dautsadaz jaiá amaitzeko.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

## 67 — BERE AMARI

Amacho maitia:

^Cenbat gau galdu ditu Cadiztic urten ginduan esquero? Eta nic sosigu andiyan pasatu ditut lo ichasuaren erdiyan.

Egunac contatcen egongo zan sustos beteric carta au artu artian eta osasuna baquiagas egon da gure artian. Jaungoicuari milla esquer, faltatu echacu ecer. Beti euqui dogu may ona, eta egunian egunian ogui biguna.

Lau eusqueldun bere etorri guera, noizian bein itz eguin dogu eusqueraz. Bat zan San Francisco frailia eta bera Ochandioco semia. Andracumia beste bat, Irunen situan bere asabac. Beste batec eucan barcuaren aguindua, eta au san Bermion jayua. Fraile dominucua laugarrena, semia da Mari Eleizaldena.

Piscabat lucetu da gure viajia; aiziaren faltiac dauco culpia. Bost milla legua ibili guera eta estutasun guchitan icusi guera.^Virgiña Mariyaren amparuan galduco guiñian ba ichasuan?

Bost illabete guenian, lurreratu guinian; cer pozic Virgiñaren arpeguiyan, ipini nituan nere begui biyac! <|.Norc esplicatu Virgiña onen edertasuna? Ascori emoten dio gorputceco eta arimaco osasuna; bera da Ciudade onetaco ondasuna. ¡Viva gure Virgiña Mariya! beria izan dedilla biotz gustiya.

Amacho, bete dot ya papela; uste dot gaurco asko dabela.

Agurdiotgurasuari, gorantciyac esconbarriyari, don Ignacio Retolaza, eta beste cabiduco Sacerdote Yaunac, artu dizatela neure escumunac. Santa Anaco fraile, eta monja gustiyac, Jaungoicuari nigaitic eguin deiyela erregu andiyac. Agur, cumplidu senide gustiaquin.

Apenas cabiduco da emen.

Valentin.

(1) Karta eder onetan eskutatu egiten dautsaz Balendinek osterako gauza mintsu batzuk bere gurasoen biotz miatekorrari miñik ez emotearren.

Baiña, orde, ez dauka bildurrik bere Gogo zuzendariari eta Migel Soret jaunari agertzen, geroago ikusiko dogun lez.

(2) Deitura onegaz ezagutzen zan errian Zoriondunaren ama, naiz eta bere abizen jatorra Arizti izan.



*Simon Arrieta'ren Margoa. Bilbo'n, Berriotxoa'ren Idazkaritzan.*

## 68 - JUAN ALVAREZ MANZANO AITA GUZTIZ AGURGARRIARIIDAZKIA

Ibillerrako goraberak.— Azturazko ezaupidea.

J.M.J.  
Manila, 1857.eko Uztaillaren 31 an.  
Juan Alvarez del Manzano Aita Guztiz  
Agurgarriari.- Ocaña-n.

Aita Lendakari guztiz agurgarria:

Ordua da nire agerbideren bat egiteko, azken bidarian, naiz eta Manila-n egon, ez nebalako egin nire alpergurea ondoez txiki batekin alkartuta, ain zuzen ere bidai egunetan batutakoagaitik.

Tertziana osorik igaro zan, bai eta Anger eta Singapur bitartean igarotako bizimodu txarreko aztarnen eta ondorenak. Badirudi orain alperren artean soññez ontsuen moldatu nazen bat dirudiala.

Jaunari eskerrak emoten dautsadaz, lanerako indartsu aurkitzen nazalako, Ocaña-n egoten nintzan antzera, naiz eta orain zirikaldiak gainditzeko ezaupide egokiago bat lortua euki.

Misiñoko beste Aita eta anaiak ondo dagoz, nire lagun Fray Pedro izan ezik. Onek egunak daroaz Nobiziadutzarik urten barik belarriko miñagaz, eta Sales Aita Nagusiak be egun bi euki zituan makal, baiña gaur meza esan dau.

Lurralde onek eukan bero entzuteagaz, esan neike España-ko lurralde batzutan aiña ez dodala igarten, naiz eta iru astetatik onantz zerua garbi agertu eta eguzki izpiak goitik bera zuzen jausi.

Lur ikara txiki bat oartzeko atsegin edo arreta bere euki doguz, gu bazka-londoko loaldia egiten gengoan aldi; erasoaldirik gogorrena lo nengoela artu nebala dirudi, nik oartu nebana ez zalako izan gero entzun nebana. Zorionsua naz.

Gure ibillera luzean geratu zan; euri zaparrada bat etorrelakoan, ur manga luze bat osotzen igarri genduan eta gure ontzi gaiñera etorrela ain zuzen. Ori ikustean barrukoak gaiñean genduan arriskuagaz ikaratu giñan, misiolariak ama Birgiñaren oiñetan belauniko jarri, bere laguntza eske eta bereala, manga bere norabidean aldatu eta arriskua urrundu zan. Lagun bakar bat egoan onen ardura barik, lo konkor sakonean egoalako eta ori ain zuzen bere ni nintzan, Aita Balendin, bildur eta ikarako unerik garratzenak lotan igarotzeko zoria daukadana.

Orañarte iñor ez da zeregiñen baterako izendatua izan, Aita Sales izan ezik. Au nobizioen Maisu eta Nagusi-ordeko izendatu dabe. Izan leike Aita Prat Tonkin-era joatea.

Atsekabez artu dogu Aita Moran-en alboringoaren barri eta gure Aita guztiz agurgarriaren gaisoarena; azken barriak zerbait poztu gaitue, arriskutik kanpora dagozala jakitean.

Jaunak euren bizia zaindu dagiela Ordenaren eta bereziki gure Probintziaren onerako.

Eleiza apaintzen asiak dira gure Aita Domingo deunaren egunerako;



emengo tapizak gure Ikastetxeko Sortzez Garbi egunak gogoratzen daustez.

Nire agur eta makurrak eskeiñi gure Aita gustiz Agurgarriari, eta Aita guztiei batez ere buru gogorreko gizon txiki onen gogai eta maitasunak zuzentzen urrenen lan egin ebenei.

Aita Agurgarri orrek, andik zoazenean, monjei niretzako otoitzak eskatzea ondo baderitxazu, ondo. Ordez, batez ere Euskalerrian jolasaldi lez artu leikela uste badozu eta egin ez, guztiz ondo. (1)

Artu nire menpetasun eta seme-maitasun agerpena. Eskumuñak.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

(1) *Ocaña-ko karmeldar monjakaitik dabil, an bere zuzendaritzapean egon ziran monja batzuk egozalako, gaztelaniarik ez ekienak.*

## 69—BERE GURASOEI ESKUTITZA (1)

**Manila eta errosarioaren eraspina.— Angelus.— "Mundua... zoroentzat".— Neurritz txiki eta bizar andidun.**

J.M.J.

Manila, 1857.eko Azaroaren 30ean.

Isidro Berrio-Otxoari.- Elorrion.

Nere aita maite eta agurgarria:

Uste dot garretan egongo zarala etorri nintzan giro barri onetan zelako osasunez nabillen jakiteko.

Orañarte, Jainkoari eskerrak, Ocaña-ko Ikastetxean bezain ondo nabil.

Arrituta nago España-tik urten nintzanetik zure kartarik ez artzeagaz, orrela eskatu ondoren Cadiz-etik urten nebanean eta Ugarte oneitara eldu nintzala adieraztean. Asko poztuko nintzake lengusiñaren ezkontza zuen mesedean egiña izateaz.

Emen Errosario eguna eta bere zortziurrena, ikusi dodan eleiz jairik ospatsuen lez ospatua izan da. Benetan onerasgarri zan bederatziurreneko lenengo egunean, goizeko lau eta erdietan eta beste zortzi egunetan jendetza andia gure Ama maitagarriari Errosarioko Agur Mariak deadarka entzutea.

Baiña batez bere Zortziurrenean badagoz egun bi inditarrak Errosario Santuaren eraspina ezpai barik agertzen dabenekoak; Errosarioko igandea eta zortzigarren eguna.

Egun bi oneitan, arratsaldeko ordubiak baiño aurretxoago, isiltasun sakon bat oartzen da Eleizan, famili ugari, asko bere asko egoten dira euren sailetan alkartuta errosarioa eskuetan dabela eta orduari begira, bere orduari adi. Ordubiak joten asi orduko, euren errosarioak abots zabalez otoitzen asten dira, gu koroan alkar ezin entzunda geratzeko eran. Ordu bete osoan jarraitzen dabe, gitxienez, bertako 150 Agur Mari otoiztuten, Ama Birgiñari dautsen menpetasuna goratzen.

Goizeko zortziretan meza abestua eskeintzen zan egunero, eta egun

batzuetan birritan, eleiztarren oneraspenari erantzuna emoteko. Bereala bederatziruena, poz-agerpen eta Agurra abestuaz.

Errosarioko igandean ibildeuna egin zan, parkamenak irabazteko, baiña eleiz inguruan bakarrik. Zortzigarren egunean uri guztiaren ingurutik zear, jendetza eta eratasun arrigarriz.

Etxean bi milla kandela baiño geiago banatu ziran, eta eurekin joiazanak illaretan joaten ziran, gizonak alde batean eta emakumeak bestean.

Manila-tik laster, Morgako Kurutzetik Elorriora dagoan bitartearen antzean, Manila baiño erri andiago bat dago, Dominikotarrak erabiltzen dabena, eta emen Errosarioko bederatziruena eguneroko sermoiekin egiten zan eta etxean aiñako ospez Errosarioko zortzigarren egunean. Jendetza bardiña.

Arritu gaituan beste gauza bat au da, Agur Mariak kanpai jotean asteko dauken zintzotasuna. Une orreitan danak geratzen dira, erri ibildidean dabiltzan kotxeak bebai, eta une batzuetan kanposantuetako isiltasuna lakoa oartzen da. Orrelako zerbait gertatzen da oraindik Bizkaiko erri txikietan, baiña España-ko urietan ez dot aintziñako eraspén onen aztarrenik bere artu.

Emen eguna laburragoa da: eguzkia 5,30ak eta minutu batzuk geroagotan sartzen da eta egunik luzeenean 6,30ak baiño minutu batzuk lenago. Euri asko jausten da eta orregaitik España-n baiño bero geiagoko egunak, naiko freskoak izaten dira. Lurrak asko emoten dau; artoa, erein eta berrogei egunera elduta egoten da; urtean uzta bi artzen dira arrozarenak; orregaitik inditarrak, lan gitxi egiñarren, errez billatzen dau janaria. Txal bat, probintzietan, ogerleko baten salduko da; oillo bat laurden baten.

Naiko da gaurkoz barrietan. Agur, aita maitea. Ez itxi idazteari, naiz eta merezi ez.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

Bere aberritik zenbat eta urrunago, eta bere biotzean amaren oroitzua gero eta samurrago:

## 70—AMARI

Nere amacho maitia:

Celan dago gure gentia? Yshilic dago cartia; acaso erratu eguingo eban bidia; izanic ain lucia; ezta milagro andia. Oindiño badaucat ezperantzia, leiruteco amaren letria; alperric icaraz egon plumia, amoriyuac ventcitcen dau gustia.

Ce gente dira escon barriyac? gente honratua emon oidau Urrutiyac. Pruebac emongo ditu lengusiña Mariyac.

Amacho bada berori bapere macurtu? Ay urtiac iñori esteutce barcatu; oindiño esta aimbeste achotu, ardatcian norc berori ventcitu? baña urtiac gaitic ez icaratu. Jaunaren bildurrian vicitza bada pasatu, ill baric ezta iñor ceruan sartu.

Choruentsat utci deigun mundua; Yauna maitatcen badaucagu biotza berua, ezta faltaco ceruan ostatua.

Alperric lurrian nequez lan artua, bicitza pobria ceruraco da atajua, ez larregui desiatu dirua. Alperric izan urria ederra, galtcen foada gure anima bacarra, ezta faltaco beguiyan negarra, ez lepuan sua eta garra.

Errosariyo sendua escuan. Aita guria eta Ave Mariac aguan; pensamentu santuac buruan; ce gauza ederragoric munduan?

Ea bada ama guria, deiyes dago berorren semia, euqui daigun biotza garbia, cergaitic dan Yaunaren leguia. Iñoz badau pecatuac loitcen, cergaitic ezguera Eleizan sartcen? Aingeruac ceruan asco dira postcen, pecatiariyac pecatua debenian confesatcen.

Aita Santo Domingori nigaitic erregutu eta Mariya Virgiñiagas ez astu; ora-ciño ondo eguiñac apurtu oidios diabruari aguiñac.

Laster utcico dot Manila, vicitatcen noya gentila; izanagaitic guizon chiquiya, asi biardot bizar andiya, tapatcen danian aurpeguiya, orduan bai ni icaragarriya.

Agur, ama, ondo bici, ez larregui burua ausi. Agur, urrengo artian, badao diversiñua cartian, biotza bada nasaitu dedilla, ondo dago berorren mutilla. óLeituco ditu letra onec? Ala uste dau

Valentinec

*(1) Onen jatorra, Anastasio Meabe lekeitiar abade zartxoak eukan 1905. urtean. Gazteizko Katedraleko Eskola-maisua izan zan, eta Lekeition eukan arreba monja dominikatar bateri eskeiñi eutsan. Oraintsu, Batasun onek, neurri bako esku zabaltasunez, oparizat emon eutsan Jazinto Maria Garrastatxu Aita Dominikotarrari, eta onek benetako maitasun eta eskarrez gordetzen dau.*

*(2) Karta au oso osorik eta beste batzuk zatietan, Berríotxoak lerro bertsotuetan idatzi zituan, Martiriaren berberak lez beste euskaldun jatorrak benetako atseginez irakurriko dituez idazki oneik, bertan igarten dalako Zoriondunaren bertsolari sena eta bere misiolari aldiko unerik garratzenetan agertzen ekian alaitasun gazte eta ukatu eziña.*

## 71—IÑAZIO BURGUINAS JAUNARI ESKUTITZA (1)

**Tertzianen erasoaldia.— Irakaskintza Bizkaian.— Modako argibidea.— Jokabideko tokirako urteera.— Umetasun deun aldeko lan-gintza.**

J.M.J.

Manila, 1857.eko Azaroaren 30ean.

Iñazio Burguinaz Olalde jaunari.- Elorrion

Ene jauna:

Ugarte oneitarako gure eldueraren barri jakingo dozula uste dot, bai eta ibillaldian euki genduzan gertaera zorionsuen barri bere; eurak, benetan, pozaldien bat emon eutsen gure biotzari.

Baiña egia esateko, esan bearrezkoa da nire gurasoak ez atsekabetutearren, gauza batzuk eskutatu egin neutsezala, batez ere Zufer eta Singapor bitartean euki neban erasoaldi bat, tertzianetan amaitu zana. Egun asko iraun ez ebalako, Manila-ra eldu aurretik osatu al izan nintzan.

Orrez gaiñera, orrelako bidai luze baten gertaera asko egoten dira, osorik Jaunaren eskuetan itxitako eskeintza asko, bere aurrean ondo artuak izango lirakenak.

Irakaskintza zein maillatara igo da Bizkaiko errietan? Zer egin da gure aintziñako aberkideen apaltasun eta ez-jakintasun argiagaz? Zer gertatu da oituraz euken Eleizako ordezkarienezako lotsa eta errespetuagaz? Jaunaren gauzetarako atsegiña beratu ete da? Gure gizarteko barrizalekerien griña biztu ete da bizkaitarren artean?

Nik ez dakit ezer, baiña zure azkenengo illetak orretarako oiñarria emoten dauste.

Ai, on Iñazio! Zenbat bidar ikututen dogun Jaunaren erakuspide aren egia: Nemo potest duobus dominis servire. Iñork ezin nagusi bi otseindu.

Biotza garbiago eta obeto menpetua bedi, bere biozkada guztien jauna danaren aginduetara; zoritxarreko lurreko ondasunen dizdira guztiz eta mundu zaletasunera otseinduta geratu leiken eguna. Egun aretan bere gain igarriko dau len ariñagotzat eukan Jaunagazko uztartiaren pisu neketsua, len bere gain jausten zan zerutar eskarra ez dalako bere gain lengo ugaritasunez agertuko, gertaera ezbarbiña dalako, eta Jainkoak gura dagiala bere biotzean oraingo griña nastetsuen menpetasun ikurra ez ezagutzea.

Manila-n gauza askok arritu gaitue; baiña azken baten Ugarteetako Kor-tea da, espaiñarren uria da, geienak modarako ikasiak. Inditar beartsuekin dauken artu-emonak ez dau onura ederrik emoten. Biotza zaletu egiten da lureko gauzetara, eta era bardiñean Jaunaren gauzen atsegiña galdu.

Alaz eta indartsua da erlegiñoaren indarra inditarren biotzetan.

Beste ibillera baten sartzeko bezperetan nago. Atzo itxasoratzea erabagita egoan, baiña gure zain egun batzuk Makao-n egon zan Tonkin-go Misiolari bat atzo etorri zan, eta orregaitik egun bi atzeratzea lortu dogu.

Etzi, ba, Jauna lagun, belapean sartuko gara gure Bikaritzza Nagusirako bidean.

Bikaritzza orretan misiolarien aurkako jazarpen gordiña dago; eleiza guz-tiak beratu edo erre zituen, eta bere otoitz-liburu eta meza-liburua atara izan dauzan misiolaria, zoriontsutat agertzen da.

Igokunde bezperan, Diaz jaun Agurgarria atxilotu eben eta Uztaillaren 20an bere siniskerakaitik burua kendu. Beste misiolariak sakabanatu ziran, bakoitzak al eban tokian bere eskutua billatuz.

Jazarpen oneik orrela izanarren, Kristoren Barri Ona bere fruitua emoten dago Bikaritzza aretan; 100.057 kristau dagoz eta igaz 34.000 ume bateatu al izan ziran in articulo mortis, eta eurretatik eun inguru bizi izango dira, osasunez ataratzea lortu izaten diranen artean. Orrela, misiolariak, besterik lortu ez da bere, ontzat emon leikiez euren lanak.

Bikaritzza orretan dagon Aita Atxurra nire lurraldekidea laster ikusteko asmoa daukat. Aita au ezagutu dabenak asko goratzen dakie bere ardura eta goimaitasunagaitik.

Agur, on Iñazio; orain iñoiz baiño premiña geiago daukat Jaunaren otioit-zetan gogoz aldeztu naizun, aukeratu naben nire apostolutar zeregin onetan zintzo eta iraunkor lan egin dagidan.

Nik badakit zuk zure otioitzetan alan egingo dozula, batez ere Meza san-tuan, eta adiskideei esango dautsezuela beste ainbeste egiteko.

Ez itxi Santa Ana-ko Aita fraileei gure anai Diaz-en martirioa edestu barik,

nire agur samurra emonagaz batera. Bardin Bikario, Erretolaza, Borda, Marrutieta, Markaida eta beste jaunei. Guztiei eskertu bearrean nago gure Aita Orge guztiz agurgarriari konbentua ikertzen egon zanean egin eta emon eutsezan opariak; Ocaña-ra eldu zanean poz pozik egoan; nik andik urten baiño egun batzuk lenago izan zan ori.

Agur. Nork jakin barriro idazteko aukera eukiko ete dodan? Zenbat arrisku igaro bearke ete oraindik gure Bikaritzza orretan sartzeko! Agur. Jaunaren laztanean, nire agurra. Jainkoaren grazia zure espirituagaz bedi. Amen.

Zure zerbitzari apala,

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.  
Dominikotarra.

I.O.—Asko poztuko nintzake zuek Umaro deuna izeneko alkartasuna zabaltzen aleginduko baziñe. Frantzian jaio zan erakunde au, eta urte batzuk dirala España-n lekutu. Bere asmoa santua da, au da, sinisbakoen ume txikiak erosi edo eskuratu, ezi eta elikatzea.

Zenbat bidar misiolariak bere biotza minduta ezagutuko dau, diru apur batzukaitik ume guri errukarria Katoliku Eleizatik kanpora bere azken arnasa emoten igarten daualako; orrela betirako Jainkoaren ikuspegi maitekorretik urrunduta!

Gure Misioko Ardulari Orokorra dan Aita Mariano Cuartero-k, Ocaña-ko Ikastetxean bizi danak, esan eustan "Anales de la Santa Infancia" argitaratzen asteko asmoa egoala, eta bera eta Ikastetxe berbertan egoan Aita Moran izango zirala idazleak.

Lan onetan sartzeko eragozpenik ikusten ez badozue (eta txikia ez da izango, ulertuta daukadanez, espaiñarren artean dagoan gose eta ezereztasuna) eurerariko edozeiñegaz artu-emonetan asi zaitekeze.

Badakizu, on Iñazio, Pablo Apostoluak zelako garrez agintzen eutsen bere jarraitzailiei, euren ukar eta laguntzekin Jerusalem-go anai beartsuei laguntzen ekiteko, eta bera bere ez zala ukatzen batu aldietako ondasunak berberak eroatera eskeintzen. Txirotasunaren bildurrak euren esku zabaltasuna estutu ez egien, agertzen eutsezan zergaitiekin ondo konturatzen zan.

Bardintsu jokatu dagigun; eta onurak bardiñak ez badira, gogoratu daigun saria banatzeko egunean, ordaiña ez dala izango lortutakoaren neurria, egin dan lan, alegin eta goimaitasuna baiño.

*(1) Eskutitz onen jatorra Gueñez-eko Karidadeko Alaba deitutako monjak gordetzen dabe benetako maitasunez.*

## **72.-SATURNINO BASAURI JAUNARI ESKUTITZA**

**Macao eta jainkoen gurtza.— Misiolari kezka.— Erasoaldi odoltsua Tonkin-en.— Umeen aldeko Misiñolana.**

Macao, 1858.eko Urtarrilaren 10ean.  
Saturnino Basauri jaunari.- Elorrión.

Nire begiramen eta maitasuneko Jauna:

Manila-tik Macao-rako urten nintzanean bidairik ez egoalako, nigaz eroan

neban illabete baiño geiago idatzita daukadan on Iñazioentzako eskutitza, emen bialtzeko aukera egokiagoa eukiko nebalakoan.

Baiña gu onera eldu aurretik, Mala Europarako urtena zan. Orregaitik egun atzeratua dauka.

Ondo egin genduan 20 legua inguruko ibillaldia, amarren bat egunetan, eta laburrago izango zan bidean bare aldia euki ez bagendu.

Azken urrengo gauean bildur txiki batzuk igaro genduzan, ez jakin arrazoiz edo arrazoi barik, gure azala galtzeko arriskua euki genduala uste gendualako. Nigaitik esan neike Jainkoari eskeintzen asi nintzala, igaro eikeanaren bildurrez.

Lau txalupa txinarrenak gure ontziaren inguruan ebiltzan, batetik besterako osteretan. Bearbada arrantzaleak izango ziran, baiña nik ez neban guzurtzat artuko erdi itxas-lapur ziralakoan ikusten zituenik, aukera on bat emon ezkerro beintzat. Orrelako asko dabil itxas oneitan.

Milla esker emoten dautsudaz, gure Aita Orge guztiz agurgarria ortik joan zanean beragaz esku zabal agertu ziñalako. Danekaz pozik etorri bazan, batez ere zu zeunkazan gogoan. Niri eginda lez artzen dot dana eta orregaitik eskertsu agertzera beartuta nago.

Bikario jauna, uri onetan, errialde onetako beste ezin konta-alakoetan lez, kristau baten begiak negar egin eta mintzeko gai asko ikusten dauz.

Kristautasun au osotzen daben portugaldar katolikoentzat geienbat, asko dira sinismen bako txinarrak, euren gurtzat posporo argiz argitu eta txinar marrazkiz apaindutako, zer diran ez dakigun irudiei gurtza egiten dautsenak.

Kaletatik igaroeran, naitaezkoa dala esan leike orrelako gurtzak ikustea. Eurak oneraspen andi eta zintzoak dira orduetan, bai eta euren saltokiak ondo argituaz apaingarri lez agertzen diran jainkoak etxeko lez ezagutzen dira, naiz eta alkarganako zuzentasunak eskatzen dituan neurrietatik urtenda ibili. Arreta gitxi eukiten dabe al dituen tranpak egiten.

Badagoz Pagoda batzuk bere; bein, olako baten aurretik igarotzean, oartu genduan tanbor antzeko bat joten iñarduela, ots indartsu eta geldian, eta gero zarata illuneko kanpai bat, orrela biotz nastuen bat beregantzeko eran, baiña onela pentsatzeko San Bruno-ren semien etxeren baten aurrean gengozala pentsatu bearko genduan.

Baina etxe a, uriko zaratatetik aldendua, arboladi andi eta kerizpetsuen makurpean, eta itxuraz bere atetan bete-beteko itxialdia erakusten dauana, "vos ex patre diabolo estis" deitu leikioen gizonen bizilekua da.

Gizon oneik, ogibidez bakardadean estutzen dabe euren bizitza eta betiko eriotzara daroezan zigorrekaz makurtzen dabe euren soiña.

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa, Jesukristo Gure Jaunaren Aita, berak mundua osotu aurretik maitasun bidez bere Seme kutunaren gogoetan aukeratuta genduzalako santu eta garbi izateko, eta orain ainbat oneraspezez bete gaitulako, bere odolaren bitartez illunpeko indarpetik atara gaitulako eta Apostoluak esango leuken lez "bere seme kutunaren erreinura" urreratu.

Ene jauna, fedearen ontasuna sekula ez da obeto ezagutu eta sentitzen, gure erosketa ziurtatzen dauskuen eskutukoei begira, eta lurrezko etxe au amaitu dadiñean (domun non manufactam aesternam incoelis) zer igaroko

oartzean, norbere begiekin sinismenik ezak gizonaren berezko zintsotasuna eroaten daben akats eta gordinkeriak ikustean baiño.

Txinoen alboan, badagoz baita zerbitzari protestanteak, eta jakiña, emakumeak eta laguntzaile txikiak. Euren zeregiña, dirudienez, Bibliak zabal-tzea da, ez bakarrik doan, bai eta eskupekoa emonda bere. Eta sinismen bako txinarrak, euren egarria asetzeko aukerarik galtzen ez dakienak, orre-lako barri-emollengana urreratzen dira, eta belarriak itxiaz, euren eskuak luzatzen dautsez txapekei eta Bibliiei, euren azalekin oiñetakoen azpiak egiteko eta euren paperakin...esateak lotsatzen dauana. (Dicere pudet).

Lutero-ren erroltzetan emongo dabez euren izenak, baiña Confuzio-ren seme izaten laga barik. Izan bere, protestante abadeak ez dagoz sartuta "euntes docete" dalakoan.

Egun batzuk dira jakin genduala Tonkin-eko Sorkaldeko Bikaritzako bertako seme zan aita dominikar bat, beste lau mutillekaz Tonkin-en baitua izan zala, eta uri burura eroan ondoren, oitura dan lez, kristautasuneko ezau-garria zapaltzera zemaitu zituela; baiña aren biotza Eroslearen graziz indar-tuta egoan eta bere gogo gertu Kurutzearen aurkako lotsa galdu baiño len borrruari sama eskeintzera.

Danak ukatu ziran Eroslearen ikurriña ukatzera eta uste dogu Aita arek Barri Oneko egia bere odolagaz azpimarratuko ebala eta beragaz ebiitzan gazte adoretuak euren bizia asko laburtuko daben lurraldeen batera atze-rriratuak izango zirala.

On Iñazio, badaukazu beste gure anai baten martiritzaren barririk?

Gure misioño zigortu eta negartian sartzeko aukera baten zain gagoz.

Agur, ene jauna, zure otoitzen laguntza eskatzen dot, bai eta on Iñaziori agertu dautsadanerako laguntasuna bere.

"Sinite parvulos venire ad me".- itxi txikiei nigana etorten".

Ezpai barik erru gabeko gaztetxo birsortu batek zoratu egin bear dau Jesusen Biotz maitatia; baiña sarritan guraso fedebako batzuk bitartean orma lez sartzen dira euren seme eta Jesus bitartean, eta arima zale au beregana urreratzen ikusi barik geratzen da.

Baiña orma au izkillu andi barik beratzen da. Txapeka batzuekin misiolari eskuzabalak laster lortzen dau gaztetxoaren bitartean zerutar ontasunak zabaltzea, eta mammona ikustean aitak semea askatzen dau, eta au ur gar-bia artzean Jesusegana urreratzen da, eta Jesusek bere bekokian aukera-tuen ikurra ikustean, bere Aitaren etxean gordeten dautsa jesarlekua. Gaz-tetxoa, munduko begiak itxi eta zeruko aintzara begira jarten da, eta bere Egille eta Eroslearen ikusmenak laster sartzen dau bere anima etengabeko poztasunetan. (Taliū est enim regnum coelorum).

Zeiñek ez dau nai izango orrelako irabazpideekaz Jesusen biotz mindua gozatzerik?

Ba, ba, Bikario jauna; Gogoratu daigun "Dei adjutores sumus", Jaunaren laguntzaille garala gizonen deuntasunerako eta Kristoren Gorputzaren ontasunerako.

Nik garbi ikusten dot batzuen goseak eta miseriak eta besteen aberastasu-n egarriak traba asko jarriko dabezala onuraz lan egiteko; baiña fede bizi batek asko egiten dau ezerestasanik argalenean bere.

Badirudi Pablo deun Apostoluak baeukala ontaz ikasiren bat, Corintoko bere jarraitzaileei Jerusalem-eko anaiekaz maitasuna eukitean adoratzean

Mazedonitarren eredia aurrean jartzen eutsenean, onein borondatea euren ala baiño geiago zabaldu zala esatean eta arren eskatzen eutsenean euren laguntzak onartzeko, santuekin erabiltzen zan arduetan alkartu al izateko.

Amaitzeko, Jainkoagaz alkartzen dan Kristoren goimaitasuna, Ebangelioaren bitartez gure deiaren aginduen lankide diranak alkartu eta euretara zabaltzen dana, ugari ixuri daitela elorriotarren biotzetan.

Asieran alan pentsatu barik, eta ia nai barik, nire luma errez ibili da papertxo oneitan.

Zure lagunkide diran abade guztiak agurtzen dodaz, eta euren otoitz-laguntza eskatu. Santa Ana-ko nire anaiei eta Retolaza jaunari milla parkamen eskatzen dautsedaz eurekaz euki bear neuken gogamenik ez dodalako. Esan nire isiltasuna parkatzeko, tonkindarren izkuntza ikasten arduratuta nabillalako.

Agurtu baita zure etxean bizi zan atsotxoa, naiz eta bere izenik ezin gogoratu.

Eta zuk aitzakirik ipini ezik, pozik agurtuko neukez zure bitartez Amiletako andrak eta Casajara'ko Markesa, or baldin badago bere amagaz, lenengoen "Toison de Oro" dalakoak eta bigarrenaren liburuak ardura au eukitera beartzen nabelako.

Azkenez, artu zuk eskumuñak emonaz geratzen dan zerbitzari onen lotsazko agerpenak.

Fray Balentin Berrio-Otxoa.

## 73.—SOR MARIA LUISA-RI (1)

**Erlegioko bizitzako zentzunez beteriko arauak.**

Macao, 1858.eko Otsaillaren 18an.  
Santa Teresa-ren Sor Maria Luisa agurgarriari.  
Ocaña-n.

Kristogan arreba maitea: (2)

Egun gitxi dira zurea artu nebala, zure arima eta soiñeko egoeraren barri emoten.

Ainbestera eldu da zure indarren makaltasuna, Nagusiak lan neketsu guztiak galerazotzeko neurri gogorra artzera beartzeko aiña? aorik bere ezin zabaldu, biotzeko maitaleari goraka jarduteko, Jesus maiteari abesteko?

Jainkoa lagun ! Zure urteen lorea ain arin galtzeko, ez zendun egingo ba burugabekeriren bat!

Nik ez dakit, baiña alan balitz, nik esango neuskizu, arreba bedeinkatu orreri, zure gaitzagaz zer ikusirik ez dauken lan batzuk borondatez artzea, zure arimagaz jabetzen dan atsekabea aintzat artzea, Batasuneko eleiz-ekintzetatik ardi galdu lez kanpoan ikustea, eta eriotza berbertatik urrun ikustea bere, bearbada egongo ez dan erruaren naiko ordain izango dirala.

Orrela, zure biotza artegatu eta estutu leiken edozein itzaltasun, igarri orduko aldendu egin bear dozu; besterik ezean orretan alegindu, arerio lez ezagutuaz, berari leku egiten dautsan arimeagaz egiten dauan okerrik txi-



kiena, barruko berotasuna galtzen datorrelako, eta birtutean tatarrez ibiltera beartzen daualako.

Alegindu beti bere zure biotzeko bakea zaintzen, eta bere maitasuna, guztien jabe egin al izango zara; ez baztertu zure arima atsegintzea, zure akatsen gogoratze eta ikusmenak miñez betetzen dabenean; poztu zaitez zure gaiso eta argaltasunean, Kristoren grazia argitsuago ikusi al izateko, grazi ori ugari zabaltzen dalako bere aintza baiño bilatzen ez dabenean; eta biotzaren zabaltasun andi bat igarriko dozu, Jaunaren agindu eta aolkuetan zear ibiltzen arduratuko zaituanaeta birtutearen erabidean gure berezko izaki okertuak euki leikezan zailtasunak, zerurako bidea eten barik, ariñago igarotzeko indar biurtu leikez.

Bere ontasun eta anditasunean mugarik ez daukan Jaungoiko baten aurrean egoteak, bere ezereza eta okerkeria ezagutzera makurtuta eta beia jota lagatzen dauan monja batentzat; bere Jauna, bere semeen malakoak legortzen alegituz dan maitasun utsa dan Aita dala ezagutuaz; oneik Sakramentutik artutako ondare aberatsa galtzen dakienak dirala konturatuaz, berari apal eta zarataka "Aita, zeruaren aurka pekatu egin dot eta ain zuzen bere zure aurrean" autortuaz deika joaten diranen Aita dala konturatuaz, bere arima pozez beteta ikusten dauan monja batentzat; bere ontasunaren gozotasuna artu eragitearren bere aulkia bere biotzean ipini dauan Aita maitatiagan itxaropena jartzen dauan monja batentzat; monja orrentzat ez dago gauza gaitzik, ez neketsurik, berak gura dauan baiño gitxiagoko danik, beragan Eroslearen kurutzearen irudia beragaz irarri al izateagaitik. Aragi asarrea espirituaren aurka jaiki naian igarten dauanean, bere besoa arma maitekorragoekin beteko dau; naiz eta arrazoia bere alde egon, bere aiztekin lotzen daberen karidadeko lokarria ez etetzearren, berak jakingo dau bere aoa isiltzen; bere ukapenekin Jainkoa poztu egiten dala konturatzen danean, bera aleginduko da berak atsegiñen dauzan gurarien eskabidea ukatzen eta bere irizpideak emoten dautsazan eskariak baztertzen, zentzumbakoak dirala uste izan arren; azken baten bere gurarien egoak zabalduko dauz, onoiemenen maillan egunetik egunera igoten joan al izateko.

O Alaitasun santua, gure lagun izan zaitez negarrezko mundu onetan gabiltzan artean, eta Jaunak bere aukeratuentzako daukan aberrian egongo diran poztasun guztien billa gabiltzan artean.

Barrero diñotsut, arreba maitea. Alegin beti baketan eta alaitasun donean irauten; alai, gaiso edo osasuntsu egonda; apal apalik alai poztasun eta iker-taldi aldian, eta eroapentsu alai ezerezean eta bakardadean; sendotasunez alai zirikaldi denpora guztian, eta zuertasunez apal arerioak bare eta baketan lagaten daberen orduetan. Eta beti Jaunagan alai.

Askotan gertatzen da gudan ezagutzen doguzan itzaltasun eta atseka-beak, gure eginkizunen bearrak beteteko eta zaintzeko daukagun garretik sortuak dirala uste izatea; baiña gogoaren argi asko bagendu, ikusiko genduke benetako iturria gu geuk gure buruari dautsagun maitasun larregitik sortua izaten dala.

Ez dago ukatzerik, norbere maitasun griñaren janaririk onena, lan onak dirala, oneik gure anaiak ezagutuak diranean. Gaiso denporan, ezin bete al izaten doguz Araudiak danentzako eskatzen dauzan kanpoko lanak, gure anaiak Betebear guztia euren lepoetan daroela; orduan norberaren maitekeria bere ezifaz mindu egiten da, ez leukelako iñok oiñik aurrean ipinterik; eta



gure onoinen makalak apalketa ori gaitz lez artzen dau, berak euki nai ez leuken gaitz lez. Eta orra itzaltasuna eta atsekabea etxean.

Ez al da orrela? Ez diñot ain zuzen bere ori dala zuri gertatzen jatzunik. Baiña eragozpenik badago gure makaltasuna ez autortzean?

Egia au da, gure biotzaren gain zuurtasun andia ipini ezik, sarri egongo garala gure eskutuko etzipenen menpe jausteko eran.

Nik uste dot atsekabe eta barruko kezka asko baztertuko gendukezala, dana bere aukeratuentzat gertatzen dauan Jaunaren eskuetan bete-betean gure izatea lagata biziko bagiña, gure nortasuna, gure onorea, gure osasuna, gure bizitza eta gure salbamena beragan itxita, bere graziaren aginduak maitasunez eta betetasunez jarraituz.

Ez dogu baztertu bear, arreba maitea, Jaunaren errukia guregan eten barik goratzerik. Biotz eskartsu bat, Jainkoaren grazia ugari artzeko gertu dagon biotza da. Ontasun naiak, naiz eta andia izan, ez gaitu kezkatu bear akatsdun ikustean; ori bai, apaldu bear gara, eta era berean, Jesukristoren izenean Jainkoari eskerrak emon, akats geiago ez doguzalako.

Ez dozu ikusten mundutarrak itsu lez doazala okerkeriaren bidean, ura lez pekatua edanaz? Zergaitik zuk euren oiñak jarraitu ez? Ba, Jainkoaren eskar berezi bat dozulako zugan. Orra Jainkoaren errukia eten barik eskatzeko gai bat.

Beste aldetik diñozu ez dozula penitentzirik egiten zure pekatuakaitik; baiña zeñiek kentzen dautsu egiteko gogo bizia eukitea? Eta ez dakizu, gure Jaunak, beti lez gizonekaz eskuzabalak, gurariak guratako lanak egingako lez ordaintzen dakiala, alegintsuak diranean beintzat, eta ala ez diranean gizonaren eskuetan dagola alegintzat ipintea? Gaiñera, zeñiek ukatzen dautsu Jesusegaz gero eta geiago batzera karidadeko ekintzekaz eta al dan bestean berari atsegin izateko gurarietan?

Eta ez dakizu lagunak euren gauzak alkarren artean erabiltzen dituela, jabetasunik eskatu barik? Eta zein Jesus baiño lagun egitsuago eta adiskidetasun legeak obeto betetzen dauzanik, batez ere gure aldetik biotza berari eskeintzen alegintzen garanean? Eta gitxi deritzazu Jesusek gure pekatuagaitik egin eban penitentzia?

Gu, karidade bitarteko dala beragaz batzen garanetik, bere penitentzia gurea da eta gure lez eskeiñi geinkio Betiko Aitari.

Monjaren doteari buruz esan bear dautsut, eziñeko bat eskatzen daustazula.

Ni, arreba maitea, Filipinas-etarako urtena naz, biurtzeko itxaropen eta gogo barik.

Tonkin-erako bidean nago; lurralde onetan misiolariak, ez dauz bakarrik kristauen gogo-ardurak euki bear, goseti askori jaten emoten eta beste asko jazten lagundu bere, euren eginbearretan dagoz.

Zenbat kristau beartsu ez litzakez gosez galduko, misiolariak bere ukarretatik erosi leiken janariak emon ezik? Sarri ikusten dira eurak itxaropentsu artu nai izaten daben uzta, emen ain ugari diran euriteak galdu eraginda. Eta orrelako ondamendietan prisaka ibili bear izaten gara.

Geiegi luzatu naz, zureak ortara beartu ez banindu, idazteko asmorik ez neukan karta au egiten, eta orrela zuri ukapen on bat ezarteko asmoz.

Baketan bizi zaitezcan guraria daukat, eta zure biotza Jainkoaren gorantzatik kanpora aske geratu daian naia. Orrela, premiñazkoa da artu eta ogei-

talau ordu igaro baiño len karta au sutara jaurti eta erretzea (3). Au ondo ulertzea nai dot: "carta au erre eguin biar dozu sutan".

Zure Nagusi eta aizen otoitzetan gogoratu nagizue. Guztiok maite zaituet Jaunagan, eta alegin nigaz geiago ez gogoratzen, zoriontsuen aberrian Jainkoaren aurrean egon arte. Ez dago okerrik, Jesusegan maite zaitun eta bere Biotzari lotuta billatu nai zaitun analetako txikien onegaz geiago ez zaitzala gogoratu diñotsut.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.  
Dominikotarra.

I.O.—Nire adiskide Aita Carreras-ek monja guztiei bere agurra bialtzen dautse eta euren otoitzetan gogoratzea eskatu.

## 74.—SOR ANTONIA-RI

Hermana María Antonia:

Alperric suc niri es esribitu lau verba esan diar deutsudas. Lenengo ta bat hermana Luisari esribitu deutsan gustia igual da suretsat.

Bigarren; ez astu Ama Virgiñia biotz viotzetic maitatcen, berari gusto eman nai badosu atenciño aundiagas errosarioa errezatu eguiosu, eta egunian egunian mortificasiñoren bat esquiñi eguiosu.

Irugarren; maitatu eguizu asco seure celdia eta necesidaderic estaguanian ondo da ortic ez urtetia: aintxe ondo entsungo dosu Jesus maitiaren verbia, ause da alegre bisitzeco bidia.

Laugarren; oraciñuari euqui eguiosu aficiño andiya, oraciño baric ez sera isango eguiasco monjia, seure lanen erdietan jaso biotza cerura; anche daucagu gueure ondasun gustia.

iO nere biotzeco Jesus maitia! Larri dabil emen gentia. iNoiz libratuco da gorputzeco soquia? inoiz isango nais gustia suria? iO celan lucetzen dan neure visitsa? Eguin bedi gausa gustietan seure vorondatia.

Agur, hermana, agur cerura artian.

Es nigas acordatu. Biardosube carta au erre eta quisqueldu.

FR. VALENTIN

(1) *Lenago bere zuzendaritzapean egondako Ocaña-ko monja karmeldar biri bialdu-tako eskutitzak dira.*

(2) *Bere izena Teresa deunaren Sor Maria Luisa zan, eta bestearena Sor Maria Antonia.*

(3) *Monjak, Zoriondunaren gogoa betetzearren erre nai izan eban, baiña Ama Nagusiaren agindua egon zan bitartean eta eskutitza erre barik geratu.*

(4) *Euskeraz "quisqueldu" diño; au da, erre, sutu edo desegitea baiño geiago.*

## 75.-CONCEPCION MURUA ANDREARI ESKUTITZA (1)

Macao, 1858.eko Otsaillaren 23an.

(1) Concepción Murua andrea, Valle-ko Kondearen alaba zan. Bere billoba Felipe Maria Azkona eta Alvarez de Eubate, Bergaran jaioa, ezkondua

zan Erromako Eskale-Ardularitza Orokorrean agertzen danez idazki au eukana. Murua au Soret-tarren senide da, Logroño-n, 1950. urteko Abuztuan Bixente Paterna jaunak esan eustanez.

## 76.-CASIMIRO SORET ETA SENDIARI ESKUTITZA

**Ibillaldiko bildur batzuk.— Tonkin-etik barri itzalak.— Martiri izateko garra.— Gurasoen semeekiko eginbearrak.— Balendin eta gazteak.— Errosarioa Otoiztutea.**

Macao, 1858.eko Otsaillaren 23an.  
Casimiro Migel Soret jaunari.  
Logroño.

Nire jaun eta jaubea:

Ainbat nire eginbearren artean, ez bakarrik bearrekoak, premiñazkoak baiño, Jaunak bialdu nabenei bakearen Barri Ona euren izkuntzan azaldu al izateko, izkuntza ori ikasteen lez sartuta nagonean; ori ikasten diardudala, burutapen bat euki dot: meseden bategaz lagundua izan dan bakoitzak, bere ongillari eskartsu agertzeko bearrena daukala; orregaitik nire buruaren aurka lez nebillen, Logroño-tik Ocaña-rako bidai luzea erraz egiten lagundu eustan jaunari, ain luzaro ezer esan barik isilik egotegaitik.

Orregaitik eta borerreruen aiztoa, dautsen gorrotoagatik, misiolariaren buru gain ain sarri agertzen dan aitzopera joan bear nazan lurraldera joateko bezperatan nagoala, angoak eriotzako gorrotoz ikusten dabelako misiolarioa eta edozetara bere, al izan ezker, bere bizitza ainbat ariñen eteten alegindu, misiolariagaz batera Kristoren erlegiñoa bertan bera galdu eragiteko asmoz, joan aurretik, nire zeregiña une baten lagatera ausartu naz.

Nik ba, Kasimiro jauna, zorionez egin neban España-tik Filipinas-etarako ibillaldia, olatuekin burrukan ibili ondoren, bost illa bete egun bi gitxiagotan.

Orrelako ibillaldi luze baten eta bide ain arriskutsuan, aizeak ondo jota ere, naitaezkoak dira izu-larri eta neke batzuk.

Alaz eta, gure Ama maite eta andre on dan Errosariokoa gure zaindari zala ikusita, naiko baketsu begiratzen neutsen gure ontzia jo eta aidean erabiltzen eben olatu apartsuei, beti bere ziurtzat lez artuta, asko eta ugari sortu eta andituarren, makalegi zirala Ama Birgiñak gu zaintzen ipinten eban indarra baiño.

Guk, beste aldetik, naiz eta beti bere orrelako Ama samur batek merezi dauan baiño gitxiago eginda bere, ibillaldi bitartean bere omenezko sinismen jaiak eratu genduzan, bere errukien babes lortzearen.

Orrelako jaien artean, Maiatzeko lorak ospatu genduzan, Maiatza dalako ama ori goratzeko illik bereziena.

Benetan ikuspegi zoragarria egiten zan, il berezi orretako egunetan, Cabo de las Tormentas izeneko ingurutan, ango uren erasoaldiak kontuan euki barik, anai lez batuta, aizeen txistu eta olatuen orruen artean, Andra Mariari kantuz jarduten giñanean.

Ez ziran bakarrik fraileak ekitaldi oneitako lagunak; Kapitana eta ontziko lagunak, ofizialak eta soldaduak, andi eta txikiak, danak ekiten eutsen Andra

Mariari kantuz, eta danen artean banatzen ziran egunero bakoitzak bere eguneroko lora ipini eta Andra Mariari goratzeko papertxoak.

Ama Birgiñak ez zituan entzun barik itxi bere maitaleen deiak.

Bere itzalpean Manila-ra eldu giñan Pedro eta Paulo apostolu santuen egunaren bezpera-aurrekoan.

Oraindik lurrera urten barik gengoan, baiña gure eldueraren barriak Domingo deunaren eleizan ainbat jende batu eragin eban.

Bertako fraileen Baltzua ateetan egoan gu itxaroten, eta guk eleiz eder aretako lurra zapaldu genduanean, Te Deum abesten asi ziran.

Ibildeunean eroan ginduzan Errosarioko kapillaraiño. Zelako biotz arrada gurea, ara eldu eta gure Zaindari donearen irudi miratsua ikusi genduanean!

Aldarara urreratzean, beian gañean luze etzan giñan guztiok, bere zaindaritzaren ordezkerrak emonaz eta gerorako onesprenak eskatzen.

Te Deum-a amaitu eta Baltzuak oi diran otoitzak egin zituan, Jaunari eskatzen gure erruki izan egiala, bidean egin al izan geinkezan iraiñak baztertuz.

Illa bi dira uri onetara eldu giñala eta oraindik ezin sartu al izan gara Tonkin Erdiko gure misio aretan, nobiziadutzako beste lagun bategaz joan bear nazan lurralde aretan. Datorren astean bertarako urtetzeko asmoa dogu.

Gure misioetako azken barriak itzalak izan ziran; Eleiz-bikario bat burua kenduta il eben, beste misiolari bat, semez bertako zana baituta euken beste iru-lau lagunekin batean, gure Eroskuntzako ezaugarriak zapaltzera ukatu ziralako; Eleiza, Ikastetxe eta bertako misiolariak banatuta.

Ez dakigu zelako zoria eukiko dogun. Bertan oitu eta bizitako misiolari bategaz batera joateko zoria dogu.

Ondo zaindu eta ez itxi Jainkoari zure zerbitzari eta eskuan musu emonaz agurtzen dan onen alde otoitz barik.

Gizakundeko Fr. Balentin Berrio-Otxoa.

I.O.—Nire agurrak Aita Silvestre-ri, etxetik doanean.

## 77—JOSEFA SORET-ERI

Andre Josepa: (1)

Zure ontasun eta kristautasun irudi okerrago baneu, esango neuke nigaz asarre edo biurri egongo zarana, ni ortik urten nintzan lez, agurtu bere egin barik, orrelako pozik emon barik, urrundu nintzalako.

Fedeak zuzpertzeko eutsun gurari au, eta fede berberargaitik uste dot baretuko ziñala, konturaturik fraile bat ez dala izaten bere buruaren jabe.

Ni beintzat orrela baretzen naz.

Uste dot zure seme maitea Doktore ezaugarriagaz orniduta ikusteko zoria eukiko zendula, eta oraindik bere pentsatzen nago zure biotzak poz barri bat eukiko ebalak ikusirik seme berberori, Tobias fedetsuaren antzera, bere lagunak euren griñak jainko guztietei eskeintzera eioazan bitartean, bera eleizara baztertzen zala, Israel-eko Jaunari bere gurtza eskeintzera.

Bere menpekoen deiak beti entzun izan dauzan gure Jainko Jauna, ez zan gor geratuko zureak artzean, batez ere zure semeengan bereganako

maitasuna iraun eragitean, ur osasungarriak emotean, Jaunaren seme izateko aukera eta bere altxorrerako eskubidea emonaz.

Egi au ondo sartuta eukiko zenduan, zure semeari Madridera laguntzen joatea erabagi zenduanean.

Naiz eta semeengan oartu ez Augustin baten okerkeririk, ondo dago eurekaz Monika baten zaintza eta ardura eukitea.

Memeltasun biguna eta bigunkeri geiegia ez ziran sekula egokiak izan kristau semeak ezitzeko.

Egia bada oituren garbitasuna eta bizitzako ontasunak eskubidea emoten dautsela semeei gurasoak beti euren gain euki ez dagiezan, egia da baita ere gurasoen aginpideak bere eskubidea daukala, eta eskubide ori geienetan ukatu egiten dala gizonen artean, zintzotasun sendo baten ziurtasuna euki barik, semeen ekintzekin bildur izateko.

Zenbat okerkeri ebagiko litzakezan, gurasoak egi oneikaz asetuta biziko balira!

Jauna goratzen dot, bai eta bere seme Ki isto bere, zure ezaupide orreik eukiteko argia emon dautsulako, eta eurak lortzeko egokitasunik ukatu ez dautsulako.

Uste dodan lez Juan Manuelek gradoak artzea lortu badau, nire aldetik zorion beroak emon eta esan egi eta zuzentzaren maitale izan dedilla, eta ezeukien, umezurtzen eta alargunen auzien maitale, orrela zeruetako Aitaren eredupean jokatzeko, berak liburu santuetan ainbat bidar agertzen daualako jendetza orregaz bereziki arduratu bearra dagoala.

Rufina bere zerbait esateko itxaroten egongo da. Beretzat au: Nik, Kristogan arreba maite, bere maitasunaren, etenbako eta gogo sutsuzko otoitzak eskatzen dautsudaz argien Aitaren aurrean, berak eurak emon dagidazan ni neu ezagutzeko eta ezaupide orren barruan bizi nadin eta lagun urkoari bere santutasunerako komeni jakona ezagutu eta bete dagidan.

Ni bere nire otoitz argaletan zugaz gogoratuko naz, Jainkoari eskatuz, ez zaitzala galdu eragin bateatzean ukatu genduzan munduko anditasunen arteko argi bizietan galtzen.

Ai, aingeruen eskuetan itxi genduan ukapen ori, gure biotzetan ondo sartua balego! Zelako aldia legoken munduaren bizimoduan!

Ez zaitut gai onetan txartetsi, ez, arreba maitea. Etxean egoten nintzaneke apaltasunez eta eratasunez ikustea nai zaitudan zintzotasunez esaten dautsut; orrela berezko pekatu txiki edo andi ugari aurreratuko zendukez, eta deabruak ez leuke arrotu bearrik eukiko beste arima asko galdu eragiteko zugaz baliatu dalako.

Ez dautsut ezer geitu nai gai onetaz; lagun zintzoak esango dautsu, bizitzako gertaera bakoitzean, gogoan euki bearreko diralako geiegikeriz edota gitxikeriz pekatu ez egiteko.

Agur, Jesukristo asko maitatu, bai eta bere Ama Birgiña be.

Azkenez, zugana nator, Dionisio nirea.

Onezkero mutil txairoa, ez? Zeu asetzeko aiña bai? Seme, sekula poztasun orrek ez dagiala menperatu zure biotzik.

Arroen printzea dan deabruak, sarri sartu naiko dautsu pentsakera ori; baiña zuk begiak gora jaso, ikusi zoriondunen etxea, eta fedearen argiagaz lagunduta, begiratu sortu bako edertasun ara, munduan gure biotza zora-

biatzen dauan iturri eta sortzea danera, eta esan: Ene Jaun eta nire aintza! Zure eskuak egin ninduen, Jauna, eta inguruak niretzat edertu.

Zuretzat bedi aintza eta onorea gizaldien gizaldietan.

Dionisio, bizitzako egun guztietan atsegiñez menpetu bear gara Jaunaren legeko buztarrira, baiña badirudi beartasun au sekula ez dala, bere indar eta zintzotasunean, gazte aroan baiño estuago.

Ai zure egun oneikaz baliatzen bazenki! Onelako denporaldian baliatu ez nintzalako, gaur egin bear izaten dodazan bular jote eta izu-aldiak aurreratu-ko zendukez!

Lagun gaiztoengandik iges, batez ere ao zikin diran gazteengandik. Ez artuemonik euki eurekin. Barriro diñotsut, artuemonik ez eukiteko.

Orain arte zerura daroan bidea baiño besterik zapaldu ez badozu bere, gaiztoen arteko jardunak atsegin izatera elduteko aldia, zure galpideko denpora lez izango da eta ez dakit bide onera biurtzeko zorionik lortuko zendukenik.

Gura dozu zure biotza gazteen artean ain berezko diran okerkerietatik garbi zaintzea? Ikasle ez zara ba? Entzun Jeronimo deunak diñoana eta gorde bere itzak zure biotzaren eskutuenean: Maitatu idatzien ikasketak eta aragiaren griñarik ez dozu maitatuko. "Ama studia litterarum eta carnis vitia non amabis."

Zu lako gramatika ikasle batek ez dau bear itzulpenik.

Bai, nire maitea; zure gogoia alaitzeko bear dozuzan lagunak, liburuak izan bear dira; zure artuemonak eukiteko lagunak eta eritzia eskatu bear dautsazun maisuak, liburuak.

Eta ikasketatik onurarik lortu nai badozu, zure biotza bat etorri dadilla zure adimenagaz, eta aukeratutako lanak zure argibideekaz batera datozanak.

Zure zalantzetan argia billatu nai badozu, gaiztasunetan urteera, eta gai sakonetan ulerbidea, nik adierazoko dautsut zure asmoetarako liburu egoki bat, baiña komeni da egunero egunero irakurtzea eta irakurri bere arreta eta gogo onez.

Badakizu zein dan? errosario santua.

Jarrai nire aolkua eta zuga igarriko dozuzan ondorenetatik igarriko dozu Sanchez zoriondunaren esaeraren egia: "Tuus Thomas pro fructibus mentis e Rosario emanatis sufficit".

Ondo igaro, eta zure otoitzetan ni bere sartu nagizu.

Agur Josepa andrea; zure ontasunak, famili guztikoarenak lez, jakingo dau fraile onen txikikeria, bere baserritarkeria eta baita idazkietan egiten dauzan mokoloak itxuratzen bere.

Nire erritarrari, oraindik bere zintzo jarraitu badau, eta etxe orretan nire agurreko egunean egon ziran andre eta neskatillei, nire agurra emonagaz batera esan euren eguneroko Errosarioan "gu pekatariokaitik erregutu" esatean, tarteko nazan onegaz bere gogoratzeko.

Eskumuñak emoten dautsuzan zure zerbitzari apala naz.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.  
Dominikotarra.

(1) *Casimiro Soret jaunaren andrea da au. Jaunak iru seme emon eutsezan: Juan Manuel, Rufina eta Dionisio. Azken bi oneei eskeintzen dautsez maitasunezko lerroak.*



## 78—AITA CUARTERO-RI ESKUTITZA (1)

Kristoren gudari.— Kateak eta martirioa? Izkuntzaren ikasketa.

J.M.J.  
Macao, 1858.eko Otsaillaren 23an.  
Aita Mariano Cuartero-ri.- Ocaña-n.

Aita guztiz agurgarria:

Manila-ko gure Konbentuan bost illabete igaro ondoren, nire nobiziatutzako lagun izan neban Aita Carrera-gaz batean, Tonkin Erdialdeko Bikaritzako misiolari lez aukeratua izan nintzan, aurrez toki orretarako gure eskabidea egin ondoren.

Jaunak gura dagiala, nire aurretikoen lez, odol leku aretan Kristoren gudari zintzo lez jokatzeko jakitea.

Ille bi baiño geiago gagoz uri onetan, gure misiofoko lurralde maite aretan sartu al izateko aukera billa.

Denporaldi onetan, Aita Riaño eta ikasle baten zuzendaritzapean, bertako izkuntza ikasten alegindu gara. Jaunari eskerrak lenengo oztopoak gainditu al izateko aukera au emon dauskulako eta estutasun batzutatik zelan alan urteteko aukera bat eukiteko aiña ulertzera eldu garalako.

Amar egun barru urtengo gara emendik Tonkin-erako; ez dakigu an zein zori eukiko dogun; ez dakigu zer lotura eta nekaldi eroan bearko doguzan.

Gaur jakin dogunetik dakigunez, frantzetar misiolari bi baitu zituela sarrean, baiña zidar zati batzuk ordaindu bear izan zituela euren askatasunagaitik. Ortik ataraten dogu, Martiri andiaren odola, edota Tonkin-eko eleiz nekatuaren kanpoan egindako zauri latzak, ez dirala naiko izan Jesukristoren arerioaren egarria asetzeko eta bere izen goretsiaren aurkako amorruren sua itzaltzeko.

Elduko ete da zoritxarreko orreik deabruetak lotzen dabezan kateak birrintzera ausartuko diran egunik? Urte asko dira orren itxaropenez gatozala, edota kezka menperatzen gagozala. Jauna goratua bedi bere aolkuetan.

Onera etorrita laster Manila-tik artutako karta bidez jakin genduan Ikastetxe maite orretako Erretore aukeratu zinduezala ao batez. Zure jakituri, zurtasun eta gogoak zure on ikusiz gure familian sartu leikezanen birtute eta menpetasunezko onurak lortuko dauzala itxaroten dogu. Itxaropen onek adoretzen nau eta Jainkoari, eta gure Zaindari dan bere Ama guztiz deunari eskatzen dautsat, emon dautsula zure zeregin latz orretan ondo betetzeko bear dan argitasuna. Naiz eta berandu, artu nire zorionik beroenak.

Nire agurrak eta eskumuñak Ikastetxeko Aita guztiei, eta balio dabean aiñan nire otoitzetan euren gogorapena eukiten dodala.

Zure zerbitzari apal lez ezagutzen naz. Eskumuñak.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa

I.O.—Mesedez, bialtzen dautsudazan eskutitzak, euren lekuetara bialdu.

(1) *Balentiñen beste kartak lez, Ocaña-ko ikastetxean gordeta dago.*

## 79—FRAY MANUEL-ERI (1)

Macao eta 1858.eko Otsaillan.

Fray Manuel adiskide maitea:

Naiz eta sinistuta egon zuk emondako berbeari zintzo izango ziñala Kurutze bat bialdu zeustala agindu zendunean, itxaropenez bizi izan nazen bi iru illabetetan, ikusi izan dot alako etsipena lakoa, agindutakoa niregana elduko ez zalakoan.

Baiña nire etsipen eta bildurak bertan bera jausi dira gaur, Manilatik etozan iru kutxa andiak zabaldueran, nik maiteen nebana agertu dalako. Orain, ba, ziur autortu neike berbako gizona zarala. Eta ezin besterik egin, eskerrik beroenak emon baiño, batez ere zure zintzotasunagaitik.

Etorri diran beste irudi guztiak be, gure gogokoak dira.

Besterik ez badago, Tonkin-erako gure urteera ez da egingo datorren aste guztian.

Osasuntsu zaindu zaitetz. Nire goraintziak Aita Orge, Alonso eta abarrei. Ezagutu nagizu zerbitzari lez.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa, Dominikotarra.

*(1) Idazkia Filipinas-eko dominikotarren probintzian gordeten da, (Ouezon uria, Manila-n) eta andik bialdu dausku kopia bat bertako artxibo zaiña dan Fr. Pablo Fernandez-ek, 1958.eko Azillaren 9an.*

## 80—AITA GAINZARI ESKUTITZA (1)

**Odola irakiten Tonkin-en.— Apaltasun sakona.**

Macao, 1858.eko Martiaren 1ean.  
Aita Frantzisko Gainza.- Ocaña-ra.

Aita guztiz agurgarria:

Zuri dautsudan maitasun eta itzalak indartzen nau zuri idaztera, artuta neukan erabagia etenaz, une oneik izkuntzaren ikasketan bete nai dodazalako.

Labur izango naz, baiña jakin erazteko aiña zure oroitza, naiz eta urrun egon, nigan ez dala galdu.

Illaren 4 edo 5'ean, besterik ez bada, sartuko gara itxasontzian, beste 3 txinarrekin batean, danak gure bidea daroelako.

Badirudi oraindik Tonkin-eko agintariak odol beroa daukela.

Txinaren baten esana egia bada, frantzetar misiolari bi baitu zituen errialde artako sarreran, baiña zidar zati batzuekin askatasuna erostea lortu eben.

Sartuko al gara gure aurretiko agurgarriak ain aintzagarri egin zituen baltzuan! Jaingo gure Jaunak emon daigula eurak euki eben bizitasuna, Kristoren gudari on lez adorez jokatzeko Eleizari emon eutsan altxorra aldeztuten.

Arren eskatzen dautsut, nire Aita, tartetan denpora pixkat artzeko, zure aolkuekin nirelako gogo bigun bat adoretzen.

Bere geldi egonaz Jaunak emondako altasunari baliorik ataraten ez dakian morroi alperrak daukan zorion ori kentzea merezi dau. Egia da. Biotz gogor izanik, zure aolkuen bidez ereindako azia legortu egin dala nire biotz gogorrean, eta merezi dauala bere gogortadean eutsi eta geiago azi onik bere lurrean ez ereitea. Autortzen dot, baiña errukiak gaindu bedi zuzentza eta nigana betoz zure aolku ongarriak.

Ondo zaindu zaitez, eta ez itxi Jainkoaren otoitzetan eta Errosarioko Andra Maria gure Amarenetan nire oztasuna gainditzeko aiñako garrez ni goratzea.

Fr. Balentin Berrio-Otxoa.  
Dominikotarra.

*(1) Azken baten, Tonkin-en sartzea lortzen dau, illargi argitan, arerioaren zaintzatik igestuz. Eta lenengo egiten dauana, misiñoko gisuren dan Aita Jeronimo-ri bere onespena eskatzea da.*



## **II ESKUTITZAK**

### **3) TONKIN-EN MISIOLARI**



## TONKIN-DIK EGINDAKO KARTAK

Azkenak diran lez, Tonkin-dik egindako kartak azkenerako eta sail berezi baterako itxi doguz.

Asko dira, eta osoan euskeratu orde, euren azal-azaleko zeaztasun bat emongo dogu, zeñeri eta noiz egiñak diran agertuaz eta bakoitzeko gai berezien baten laburpen bat emonaz. Orrela, euren argipena garbi geratuko da.

Balentin Berrio-Otxoaren idazkien iru ataraldi egiñak dira, Aita Jacinto Garrastatxuren eskutik. Banaka batzuen aldakuntza igarten da lenengo agerbidetik azkenengora, batez ere euren ordenan zeatzago kokatuaz.

Orregaitik, guk 1966. urteko argitarapena erabiliko dogu, "Cartas y Escritos" deitzen dana, azkena zanez, bear lez osotu eta zuzendua izango zana-ren ustez.

81 —

1858-IV-10 — **Aita Riaño-ri**

Bikario Apostoliku izateko agiria bialdu dautsela adierazten.

82 —

1858-IV-10 — **Bikario Apostoliko txit agurgarriari.**

"Al bada, kendu nigandik kaliza au..."

(Bilboko dominikotarretan gordeta dago)

83 —

1858-IV-12.— **Bikario Apostoliko txit agurgarriari**

Izentapena onartuaz. "Zure agindupean nago...", Kristorekin batean opagai..."

(Billaba-ko Aita dominikotarretan gordea)

84 —

1858-IV-.— **Aita Riaño-ri.**

Tu Duc erregeari ordainketei buruz. Paulo deunaren irizpidearen eredia.

"Kristau ez dan erri baten gagoz, naiz eta zeken izan ez, zekenkeria gorrotatzen dauanean..."

85 —

1858-V-10 — **Inazio Burguinaz jaunari.**

Idazki laburra, denpora guztia tonkindar izkuntzan Barri-Ona zabaldu al izateko bertakoa ikasten diardulako.

Ikasteko zail, europar izkuntzekin zerikusirik ez eta oguztuteko (pronunzia-tzeko) gaitz egiten jakolako.

86 —

1858-V-13.— **Aita Roy-ri.**

Oraingotan bake alditxoa lakoa dogu...

87 —

1858-VI-13 — **Bikario Apostoliku txit Argiari**

Trung-le-ko Tra-Lú-n dagola, eroan ebenean ipini eben lekuan. Sasi artean. Benetan itzala dala angoen egoera.

(Idazki au, Kejana-ko monjak emonda, Aita Garrastatxuk eukan).

88.—

1858-VI-17.— **Aita Riaño-ri.**

Euren erritik iges egin bearra euki dabela, ia gau guztian itxasoan. Gotzain laguntzaille izentapena onartzera makurtzen da.

(Gaur, Bizkaiko Aldundian gordeten da)

89 —

1858-VII-3 — **Bikario Apostoliku txit Argiari**

Legorrera etorri gara, gau guztia ibili ondoren. Ikusiko dogu gaur gabean nora eroango gaituen.

90 —

1858-VII-10.— **Aita Riaño-ri**

Bikario apostolikua kartzelan dagola adierazoten. Arduradun batzuen aldatketak.

(Jakoba Ardantzak gordeten dau Elorrion)

91 —

1858-VII-14— **Aita Orge guztiz agurgarriari**

Eleiza menperatua. Jaunaren izenean. Gotzain sagaratzea.

Meltxor Garzia Sanpedro gotzaiñaren baiketa. Bikaritzaren astuntasuna.

92 —

1858-IX-2 — **Aita Riaño-ri**

Txokolatea aldiandik dodala nabil. Koba-zulo ondoan beti gertuta. Itoteko arriskuan.

(Ocaña-ko konbentuan gordea).

93 —

1858-IX-7.— **Fede Zabalkundeko Alkarte sakratuari**

Tonkin Erdialdeko Bikario Apostoliku eta Balentin berberaren gotzain sagarale Meltxor Garzia Sanpedro gurgarriaren martirio eta beste goraberak.

94 —

1858-IX-7.— **Aita Probintzialari**

Goztzen sagaratzea.- Bikaritzan bere aurretiko zanaren martirioa.

95 —

IX-11 — **Aita Riaño-ri**

Ango egoeran ikasle ziranak galtzeko bildurra.

96 —

IX-25 — **Aita Riaño-ri**



Aita Duc nondik ete dabillen jakin naia. Barrero "fandangoa" asiko ete dan kezka.

97 —

1858-IX-29.— **Aita Riaño-ri**

Zeregin astuna eta bakarrik...

98 —

1858-XI-30 — **Bere aitari**

Nire pozik andiena.- Zigorrak eta beste nekealdiak. Eguzkiaren argirik ikusi barik. "Urte bete baiño geiago nago toki baten, eta ez dakit noiz baimenduko gaituen mandariñak gure kristauak ikusi gagezan. Benetako ondasunak. Seme-maitasun oparoa.

99.— **Aita F. Roy Ardulariari**

Aita Santuaren Bula, Salgot-entzako ekarria, azkenean beretzat gertatu...

100 —

1858-XII-17.— **Aita Ginzari**

"Eskertu bearrean nago, gu danok itxasontzi batera eroan gagingen egin dozun alegiñagatik. Baiña oraindik ez deritxat egoki. Oraindik etorriko da egun alaiago bat misio oneintzako.  
(Avila-ko Aita Dominikoetan gordeta dago)

101 —

1859-1-3.— **Aita Ardulariari**

Gaurko gabeen zortzi karta egiñak dodaz. Luze idazteko gogo gitxi...

102.—

1859-1-25.— **Gotzain idazkia bere abadeei**

Zintzo jarraitzen daberen kristauekin zelan jokatu, bai eta beste edozegaitik, fedearen aurkako erasoaldian kurutzeta zapaltzera beartuak aurkitu zirane-kin.

(Dominikoen Ordenako Etxe nagusian gordeten da)

103 —

1859-11-7.— **Aita Estevez-eri.**

Aita Quang-en erailketa agertzen dautso.

104 —


1859-11-15.— **Aita Riaño-ri.**

Kristau bat gaiso jausten danean, iru zintzo billatzeko, inguruan ibili leiken Aitaren bati jakin erazoteko.

105 —

1859-11-17.— **Aita Riaño-ri**

Zurtasuna goratzen.- Aginpideko arauak.



106 —

1859-11-18.— **Gimeno jaun txit argiari**

Txirotasunaren anditasuna. Erasoaldi zitala. Martirioa eta beste gogortaldiak.

107 —

1859-11-25.— **Alcazar jaun txit argiari**

Martiritzarako gogoia.

108 —

1859-11-15.— **Aita Riaño-ri**

Lapurretak.- Lenengo dirua lortzen dauanean, beragaz gogoratzeko, oraindik ezer artu ez dualako.

109 —

1859-IV-17 — **Aita Carrera-ri**

Mandariñak asi dirala barriro erasoaldietan.

110 —

1859-V-15.— **Aita Riaño-ri**

Bildurra dauka gaiso dagon Aita baten laguntzara beste bat bialtzeko, jausi eta galdu ez daiten.

111 —

1859-VII-1 — **Fede Zabalkundeko Alkarte Sakratuari.**

Eskerrak.- Amabi illabete eguzkiaren argirik ikusi barik. Nam-Dinh-eko gobernadorea eta Meltxor Garzia Sanpedro gurgarria.

-Deabrukeriak.- Gotzain sagaratzeta.- Sinistu eziñeko oiñazeak.- Gotzaiñagaz alkartu eziña.- Martirio iguingarria.- San Pedro Gotzaiñari buruzko jakingarriak.- Otso amorratuak lez.- Te Martirum candidatus.- Domingo Man.- Francisco Duyet.- Beste dominiku bat: Aita Thuan.- Agure ule zuria.- Jose Tang, dominikotar irugarrendarra.- Domingo Cam.- Bixente Tri.- Pedro Vinh, dotrina erakuslea eta beste ikasle bi eta beste ainbat lagun zertzeladak, geienak illak.

112 —

1859-VII-5.— **Aita Riaño-ri**

Bearrezkoa da begiak zerurantz jasotzea. Arriskuak eta ondasunak. Bere Erdialdeko Bikaritzara bihurtu nai baiña ezin.

113 —

1859-VII-30.— **Aita Gainzari**

Misiñoko egoera larria.- Kristogaitik iltzeko guraria.

114 —

1859-VIII-1 — **Bere aitari**

(Karta au, liburu onen lenengo zatian osorik euskeratuta agertzen da).

115 —  
1859-VIII-1 — **Bere amari**  
(Karta au euskeraz egiña da eta osorik agertzen da liburu onen lenengo zatian).

116 —  
1859-VIII-2.— **Gimeno txit argiari**

Dagoan jazarpena.- Deabrukerizko nekeak.- Apurtzeak. Gazteei zemaia.

117.—  
1859-VIII-2 — **Fede Zabalkundeko Alkarte Sakratuari**  
Bikaritzako egoera adierazoten.

118 —  
1859-VIII-3.— **Inazio Burguinas jaunari**  
Kristauen odola.- Gurutzea zapaldu... sekula ez! apaltasun agerpenak eta obispadutza ardura barik misiolari soil izateko gogo. Bere gurasoen txiro-tasuna eta kontzientziko ardurak. Illunetan idazten.

119 —  
1859-VIII-4 — **Aita Gainzari.**  
Martiri barriak.- Bear dauzan liburuak. Egunetik egunera lapurreta, zapalke-ta eta lotsagarrikeri geiago.

120.—  
1859-VIII.— **Ocaña-ko Erretore jaunari**  
Buru mozketa eta erailketak jarraitzen dabela adierazoten.

121.—  
Iraila-11.— **Aita Riaño-ri**  
Fedearen garra makaltzen doa eta kristauen arteko karidatea oztuten.

122 —  
(Egun barik) **Alcazar jaun txit argiari**  
Uztailaren 4tik, azkenengo barrietatik, amar martiri geitu bear...

123 —  
1859-X-18.— **Aita Carrera-ri**  
Barri txarrak.- Misiolariak amaitzen doaz, ordezkioak eskutatu egiten dira eta larri eta estu gagoz...

124.—  
1859-XII-6.— **Bere amari**  
(Karta au osorik agertzen da lenengo zatian)  
(Elorrioko Monjetan gordeta dago)

125 —  
1859-XII-7.— **Aita Carrera-ri**  
Eriotza barriak, katepean lotuta eroan eta kurutzak zapaldu eragin nairik...

126 —

1859-XII-9 — **Aita Cienfuegos-eri**

Gotzaingoaren duintasunagaz apalik.- Adiskide on. Egunez eskutuetan. Gauetako apostoladutza.- Itzal andiko bizarrak.

127 —

1859-XII-12.— **Aita Cuartero-ri**

Tonkin-eko gertaerarik goragarrienak.

128 —

1859-XII-12.— **Aita Moran-eri**

Ocaña-ko etxeagaz gogoratzen.- Beti esker oneko.

129 —

1859-XII-12.— **Aita Cervera-ri**

Oin ariñak.- Martirioa eskatzen.

130 —

1859-XII-12.— **Elorrioko Aita Bikarioari**

Beti jazartuak dirala. Martiri geiago.  
(Elorrioko Monjetan gordeten da).

131 —

1859-XII-12.— **Eiorrioko Monjatxoei**

Arimen zaletasun andiko irakaspidea. Dominikar deiak. Bide ziurra...

132.—

1859-XII-28.— **Treserra Erretore jaunari**

Bikaritzarako ordezkotza? Basa eta ur artean. Soldadu zarra, Aita Riaño noiz baituko.

133 —

1860-11-16 — **Hilario Alcazar eta bertako misiolari batzuei**

Anamitar izkuntzan egiña. Ango jazarpen eta bata bestearen ondorengo eriotzen barri emoten.

134 —

1860-11-20.— **Aita Riaño-ri**

Mundua beti mundu.- Eta gizonak beti gizon.- Misiolariei dautsen maitasuna. Jaunagango itzaropena.

135 —

1860-11-1.— **Aita Riaño-ri**

Indarra kintalka bagendu... besterik ezean tartetan urtetzeko bere!

136 —

1860-IV-15.— **Aita Manuel Estevez-eri**

"Aita Tuan-eri idatzi neutsan, au nastuko balitz bere, koba au billatuta eukiteko. "Gertuta daukala, baiña joaten gaitz. "Nik, danen gain, nire artaldeagaz



egon nai dot. Urte bi dira beragandik urrunduta nabillela..."

137 —

1860-IV-16.— **Alcazar jaun txit argiari**

Oraingo onetan mandariñak txinarren aurkako gerragaz kezkatuta dabilz. Gosea dauke eta lapurretara beartuta dagoz. Eriotza ugari egiten dabez. Emakumeak zerbitzaritzat eroan eta euren umeak anketatik oratu eta basora jaurtitzen dautsez ama berberen aurrean.

138 —

1860-IV-20 — **Aita Rivas-eri**

Ikasketarako bear dituan liburu batzukaz gogoratzen da.

139 —

1860-IV-21.— **Aita Estevez-eri.**

Martiri barriak. Ikasketetan jarraitzeko etenbako garra.

140 —

1860-V-1.— **Aita Estevez-eri**

Zoritxarra, miseria da bat ain zoritxarreko izan eta ainbeste zoritxar ikustea.

141 —

1860-V-18— **Umetasun Deuneko lendakariari**

Esatan dautsazan gauzak esanda, konturatuko dala gaitz dala errege idola-tra baten eta bere zerbitzarien oztopoak gainditzea. Alaz eta ortan jardun bearra bedeinkatzen dau.

142 —

1860-V-30.— **Bere aitari**

Nere aita maite eta biotzekoa:

...Niri dagokidanez, ziurtatu nesiizue osasun on ona daukadala, Jaunari eskerrak; baiña ezin geintekoz ziur egon gure sendotasunagaz, gizonik osasuntsuenak une batetik bestera kezkatzen diralako, eta argal eta makalak euren egun eta urteak luzatu. Dagokiguna, arima sendoa eukitea, onomén guztiak erabiltzen oitua; etorriko jakuzan kezka aldietan tinko egon al izan gaitzen. Nik zuek osasuntsu egotea nai dot, eta Jaunari eskatzen dautsat eskar ori. Aberastasunik ez dautsuet opa, aberatsak errezago jausten diralako zirikaldietan eta deabruaren sarean. Danen gaiñetik opa duatsuedana, arima gaizkatzea da, eta au da nire otoitzetan geien eskatzen dodana zuentzako eskar lez. Gora ba, aita, zuen pentsamentuak, gora gure gurariak, gure buru eta biotza zerura begira euki daiguzan, an dagolako gure On eta gure altxorra dan Jesukristo, gure Eroslea, bere Aitaren eskumaldian jezarrita...

Tonkin-eko jazarraldiei buruz...emen gagozenok bakarrik iruditu al geinke gure kristauak jasatzen dagozana. Euren dirua galtzen dabe, euren soloak saldu laidokerietan ez jaustearren, eta etxeak lagatzen dabez euren fedeari eustearren, Bateo santuan egindako eskeintzak zintzo betetzearren.

Ez euki nire ardurarik, ni lako pekatari eta gaiztoak mandarinak baitu ezin dabezalako, naiz eta zuk eskatu bear ainbat ariñen baitu nagiela eta sablez-

ko zztada baten burua moztu, mundo onetako txikikerietatik ataratzeko. Alaz eta onena au da; Jaungoikoari biotzez esatea: Zure borondatea egin bedi zeruan lez lurrean bere.

(Karta au, denporekaz, iluntzen joan da eta zatiak galtzen)

143 —

1860-VI-22 — **Aita Atxurra, Salvador, Domingo, Carrera eta abarrerri**  
Ango barri emoten. Abenduan baitutako guztiak, bardin jarraitzen eben Maiatzean. Eta il onetan, ainbat estualdi ondoren, askatu dabez. Uste dot egun gitxi barru Aita Riaño bere baituko dabela...

144.—

1860-VI-22.— **Aita Rivas Ardulariari**  
Misiñoari dagokiozan diru kontuei buruz jarduten da.

145 —

1860-VII-5.— **Aita Estevez-eri**  
Erakundeari buruz jardun ondoren, diño: Bagillaren erdi inguruan Hung-Yen errialdeko deabruak aske ibili dira kristauoi gurutzak zapaldu eta laidoz bete eragiten...

146 —

1860-VII-26.— **Alcazar jaun txit argiari**  
Adiskidetasuna zaintzen jarraitzeko gogoia. Galiziar eta bizkaitar bati gertatua, jateko errezetakin.

147 —

1860-VIII-1.— **Bere amari**  
(Idazki au osorik agertzen da beste orri batzuetan).

148 —

1860-X-11.— **Aita Sales-eri**  
Iru urte eguzki argirik ikusi barik. Kristauen arteko goimaitasuna.- Martiri barriak.- Dana galdu obe, fedea ukatu baiño.- Egoera larria.  
(Ocaña-n gordeten da)

149 —

1860-X-14.— **Aita Probintzialari**  
Jazarpenak aurrera eten barik. "Gure misiolari asko izan dira estutuak, baiña iñor ez Fray Juan Tu-ren antzera. Tenazakin (mortixakin) aragiari tengadaka ibili jakozan...

150 —

1860.eko Azillan — **Aita Estevez-eri**  
Barriei buruz, txarto be txarto. Aita Bien oraindik ez dabe erail, eta ez dakigu zergaitik. Aita Van eta Huying bere oraindik munduan dagoz. Meron misiolaria bardin. Baiña txapeka bat jokatuta daukat au ez dabela erailgo...



151.—

1860.eko azkenetan.— **Aita Riaño-ri**

Fede eta itxaropen barik zagozala? Karidaderik ez baztertu beintzat.

152 —

Egun barik.— **Aita Estevez-eri**

...lengo baten artu neban dirua eta zapi txiki bat bebai. Azpalditik zapi bat baiño ez neukan, bera arratoiak jana eta amairu zuloz beteta. Orain txukun bat daukat, baiña ia arrokerian jartzeko eran. Arriskutsua da une batez ez-eukitik aberats biurtzea.

153 —

1860-XII-23 — **Aita Riaño-ri**

Erria kezketan dabil.- Pasku zorionak.- Berakatz sopa kazularatxoa.

154 —

1860-XII-24.— **Aita Estevez-eri**

Mundu erdi beste erdiagaz asarre.- Bere itaunei erantzunak.

Zuzentzen zituan ikastetxe biei buruz. Jazarpenak.

155.—

1860.— **Aita Muñoz-eri**

"Gotzaiñak bere aitortu egiten gara..."

156 —

1860.— **Aita Carrera-ri**

Amanitar kristauen egoera argala, fedeko irakatsietan ondo sendotu barik dagozalako.

157 —

Egun barik.— **Aita Riaño-ri**

"Lau barra zidar gastatzeko agindu dot premiña daukenen alde..."

158 —

1861-1-8.— **Aita Estevez-eri**

Kontuak ezin atarata. "Zatikako kontuetan galdu egiten naz..."

159 —

1861-1-31.— **Aita Estevez-eri**

Iztegi bat eskatzen latin-gaztelania eta gaztelani-latiñekoa.

Eta "Memoriale vitae sacerdotalis" liburuaren 12.

160.—

1861-11-10.— Berari idatzi nai dautsanean zelan egin. Zelako miña artzen dodan beste gizon bat miñetan ikusten dodanean! Jazarpenak gero eta beroago...

161 —

1861-11-18 — **Bere aitari**

Miñak bardin ikututen dautse aberatsei eta beartsuei. Goiz eta gau Jaunagana urreratzea baiño obarik ez. Mezako oparian gogoratzen.

162.—

1861-11-23.— **Aita Carrera-ri**

Emen batzuk gaiso eta besteak osasunez. Aita Riaño gaiso aspalditik. Jaunak eroapena emon dagiola, giro onetan gaiso bizitzeko bearrezko dalako.

163 —

1861-11-9.— **Aita Riaño-ri**

Ainbat ariñen jaso dagiala Jaunak gure pekatuen jazarraldi au.

164 —

1861-11-17.— **Aita Alvarez Manzano-ri**

Iru urtetan idatzi ez dautsalako parke eske. Ilda geiago bizi dala, bizirik baiño. Beste misiolarien martirioak.

165 —

1861-11-20.— **Aita Moran-eri**

Etsipenik andiengan. Bide guztiak itxita...

166 —

1861-11-25— **Alcazar jaun txit argiari**

Gogo-jardunetan egon dala. Eta gogarteen premiña daukalako, karta laburtxo bat.

167 —

1861-IV-20.— **Aita Estevez-eri**

Jendea galtzen ikustean, badirudi itxaropenean makaltzen igarten dala. "Ez daukagu zeñeri laguntza eskatu ere..."

168.—

1861-V-9.— **Aita Riaño-ri**

Osasuna eta gaisoa Jaunagandik datoz. Ama Birgiñari deika. Jazarpen itzala aurrera.

169 —

1861-V-28.— **Aita Jose Fernandez Checa-ri**

Umetasun Deunaren erakundeko lendakariari karta-giñan, bera bitarteko zala.

170 —

1861-VI-2.— **Aita Alvarez del Manzano-ri**

Kristaututako gazte bat kartzelan.- Bardinbagako gizurentasuna. Atsekabe eta alaitasunak.- Umore ona zaindu nairik. (Ocaña-ko Ikastetxean gordeten da)

171 —

1861-VI-9.— **Aita Riaño-ri**

Gure aldetik dagoan guztia eginbearra. Jaunari erreguka eta maillugaz jotzen. Diru premiña.

172 —

1861-VI-18.— **Aita Probintzialari**

Jazarpen negargarriak.- Gazte bateri amairu aragi zati kendu. Itxasontziak eta ondorenak.

173 —

1861-VI-18.— **Aita Domingo Treserra-ri**

Jazarpenak jarraitzen, gero eta buruauste geiago.

174 —

1861-VIII-8.— **Aita Manuel Estevez-eri**

Atzo jakin nebanez, berrogei lagunek ez eben kurutzerik zapaldu nai izan, naiz eta orretara indartu. Egoaldean diru eske, abadeei bizirik lagatearren.

175 —

Egun barik.— **Amari**

(Karta onen euskal jatorra galduta dago. Erderatutakoetatik barriro euskeratzen dogu).

Nire ama maite-maitea.


Atsegiñez irakurri neban zurea eta pozik, nire familia osasunez egoalako. Zure semea bere alaxe dago Tonkin-en. Gure Jaunarenak dira gure ontasun guztiak. Guztien emolea milla bidar bedeinkatua izan bedi.

Asko poztu nintzan jakitean txokolatea artzera joan ziñala Retolaza abadearen etxera. Nire aldetik esan, jai andietan gonbidatzeko eta atsegiñez entzungo dozuzala bere aolkuak, txokolate onak zure biotza alaitzen badau. Obispo baten amak merezi bere badau eta.

Zeregin asko daukat, nire ama maite-maitea; eta ez asarretu karta au laburtzat artuta. Kostatu egiten jat euskeraz idaztea.

Lasai bizi zaitez eta ez nire kezkarik euki, osasunez beti nabillelako ondo. Jaunari asko erregutu eta bizitza onetako lanakaitik ez bildurrik euki. Danok gara pekatari eta garbitu daiguzan gure pekatuak lan eta penitentzien bidez, orrela, eriotzako orduan, Jaunaren arpegia ikusiaz alaitu gaitzezan.

Agur, amatxo maitea. Beste bat arte. Zure semea ez da aztuko zugaz Jaunaren aurrean.



*Berrio-Otxoa'ren erlikiak Gernika'ko Batzar Etxeko kapillatxoan.*

### **III GORESPENAK**


- A) MARTIRITZA ONDOREN**
- B) BERTSO, KANTU ETA IDAZKI**



*Martiritzako irudi bat.*

### **III GORESPENAK**

#### **A) MARTIRITZA ONDOREN**



*Balentin'ek sarri gogoratuko eban Santa Ana ingurua.*



## MARTIRITZA ONDOREN

Balentin en martiritza 1861 .eko Azillaren 1ean gertatu zan.

Zazpi illabete geroago eldu ziran Erroma-ra Tonkin-eko barri itzalak, lengoen gain Eleizako agintari eta ordezkarietan atsekabe eta ardura kezkatia sortu eragiñaz.

Denporaldi berean eldu ziran Elorriora bere.

Orduko jakingarriak diñoenez, Santa Anako Monjen kapillau zan Aita Lorenzo Rodriguez, jaiotzez arabarra, izan zan albistea artu eta oraindik bizi ziran Balentin en gurasoei jakin erazoteko ardura euki ebaha.

Itxuraz arek konbentura deitu eutsan aitari, eta esan nai eta zelan esan asmatu eziñez, zeruan seme santu bat euki naiko ete eban itaundu eutsanean, Balentin en aita zarataka asi ei zan, "Semea il dauste, Semea il dauste!" didarrez.

Gero, naigabearen gaiñez, itotasuna etxean, berak ezin esanda eta amak, igarri ebana, ezin iruntsita.

Baiña sinisgarri da, Elorrion artzen zituen Indietako barri eta kartak ez zirala urre eta ondasun dizdirak, artualdi bakoitzean larritasun eta naigabe isil eta itogarrien zartadak baiño, eta gurasoak gertuta edo eginda egongo zirala azken baten antzerako albistea artzera.

Bereala zabaldu zan barria, ez bakarrik senitartean eta Elorrion, inguru guztian baiño.

Bizkai guztian zotin eragin eban ain gordin eta gorrotagarri agertu zan eriotzak, baiña ordezkari bat batera asi zan erria, kristauen fedez, Bizkaiak santu bat zeruetan eukala eta poztuten, eta sinismen ori laster egin bear ziran Gernikako Batzar nagusietan igarriko zan, elorriotarrak izenpetuta eroan eben txostena irakurtzeak Batzarreko aldunengan sortu eban arradaren baikortasun eta batasunean.

## GERNIKAKO BATZAR NAGUSIETAN


1862.eko Uztailaren 15ean, Batzar Nagusietarako Elorrioko ordezkariak eta bertan bizi ziran Erki-Gurasoak, txosten au idatzi eta izenpetu eben, eta biaramonean Batzarrera aurkeztu:

"Jaun txit argia:

Azken Azillaren 1ean, Tonkin Erdialdeko Misiñoetako Gotzain, Dominikotarren Ordenako eta Elorrioko seme zan Fray Balentin Faustino Berrio-Otxoa gotzain jaun agurgarri eta oneimentsuari, 35 urtedun zala, emondako eriotz aintzagarriak alde batetik miñez bete dauz erri aretako bizilagunak, baiña bestetik itxaropenez adoretu.

Miñez bete Eleizako ordezkari aren eriotza bitarteko dala, laster Eleiza Katoliku, Apostoliku eta Erromatarrera biurtuko ziran millaka sinisbako, oraindik okerkeri eta nabarmenkeriaren mende geratu diralako. Itxaropenez adoretu, Bizkaia eta batez ere Elorrioko uria alaitu daitekezalako, ondo pentsatuta, martirien artean euren seme bat zenbatu leikelako.

Orregaitik, Jaun txit argia, gertaera arrigarri orrek, agertzea gaitz dan aiña-



*Dominikotarren etxe bat Filipinetan.*

ko arrada sortu dau. Izan ere, kristau onomenez betetako bizi aberats bat martiren koroiaz amaitzen ikusi da; Berrio-Otxoa agurgarri eta doatsuari, Jainko eskerrak lagunduta, goimaitasun indar eta zeruko onomien zaletasunak jazan eragin eutsan martirioa, arpegi baretsu, errubakoen nasaitasun eta eroapen zerutarrez artzen.

Era orretan, eta Aita Santuaren aldetik martiritza eta zoriontasunaren ager-garrien bat al danik ariñen lortu leiken unerako, gotzain onomentsu aren sortzea eta jatorria sekula ezpaian egon ez dadin, bateoko agiri legezkatua bialtzen da.

Ori orrela, eskari au izenpetzen daben Elorrioko ordezkariak, eta bertako bizilagun diran Bizkaiko Guraso diranekaz alkartuta, erriaren eskari bereziz, Batzar Nagusiari erabagi oneik artu daizala eskatzen ausartzen gara:

1.- Oraingo Batzar Nagusietako agiriak Liburuan sartzean, gertaera onen argitasuna geratu dedilla, Fray Balentin Berrio-Otxoaren jaio-lekuari buruzko ezpairik sekula egon ez dadin.

2.- Eleizako Buru Nagusiaren aotik bizkaitar martiri onen zoriontasun ezaupidea lortzeko, egin bearko dan bidezketasun eta ziurtapen aurre-agiria kontuan eukiaz, Aldundi orokorrari agindu berezi eta gogotsua emon dagiola, bere aldetik euki leikezan aukeretan, bai "Fide Zabalkunde" Alkartean, nai beste alkarre edo Auzitegi egokietan, gurari on eta egoki ori ainbat lasterren lortua izan dadin alegintzeko.

Gernikako Aretoan, 1862.eko Uztaillaren 15ean.

Izenpetzen dabenak: Fausto Urkizu - Valle Kondea - Jose Nizeto Urkizu - Bonifazio Gasteaburu.

Txostenaren irakurketa amaitu eta Erkiko Guraso Jose Migel Arrieta Maskarua asi zan berbetan, eskari orren alde, era onetan:

**Arrieta-Maskaruaren itzaldia.**

Jaunak:

Ez nator entzun dozuen eskaria aupatzen. Zelan egingo neuke orrelakorik, Gernikako Batzar Nagusiei orrelako ezezpen bat, euren aburu on, erri-zaletasun sutsu eta sekula ukatu bako elizkoitasuna jakinda?

Zelan eztabaidatan Bizkai osoa ipini, bere legezko ordezkarien bitartez, bat batean eta bereala alkarre ez leikenik, elorriotarren pentsabide egoki orregaz?

Eta gaur gizartea usteltzen dauan sinisterik ezean, fedea zaindu bakarrik ez, bere erlegioko siniste eta sentimena edonoiz agertzeko gertu dagon Bizkaia?

Eta batez ere orain, Berrio-Otxoak lortu dauan garaitzaren antzekoak goratu eta ospatzen Gotzain katolikuak IXgarren Pio Aita Santu ilezkoaren oiñetara joanaz, benetan minberatu gaituenean?

Geiago oraindik, kontuan euki ezker, bere eriotzaren barri Erroma-ra eldu zala, -gertaera arrigarri eta bakana-, ain zuzen ere an, urruneko lurraldeetan Kristoren sinismenaren alde euren odola ixuri eben beste martiri aintzagarri batzuen gurenda ospatzera joanak ziralako, eta martiri arein artean euskal errialde martzal onetako seme bat agertzen zala?

Ez nator, ez, irakurri dan eskaria onartzeko nire alegiña ipinten, orrelako eskariak osotasunez, batasunez eta batbateko txaloz onartzen diralako.

Bakar-bakarrik nire sentimenei zuenekin baterako zabaltasuna emoten nator; badakidalako gai onetan bardintsuak dirala. Zeruak gure erriari emon dautson aintzagaz zuekin batean poztu nai dodalako nator. Jaurreriko Gurasoei zorionak emoten nator, bai eta Elorrioko ordezkari eta bizilagunei, beste erriak baiño lenago jakin dabelako Berrio-Otxoa lako seme bat bertako semeen artean eukiten.

Ain zuzen ere egun oneitan, Igokundeko Martin Agirre edo Loinaz santu egitean, gizaldi bi baiño geiagotan Bergara eta Beasain auzietan darabilzan eztabaidak barriro berotzean emoten dauskun ikuskizunak, zuen jobide ori egiaztatu eta begikotu egiten dau.

Azken baten, Batzar Nagusiei zorionak emoten nator, gaur Bizkaiaren gorapenetan beti gogoratuko dan orrialde bat idatzi dalako, gaurtik aurrera zeruetan zaindari bat eukiteko zoriona eukiko daualako.

Zelan zalantzan ipini, eta au bere gertaera arrigarria da, lendakaritzaren inguruko jarlekuetan, gure Lurraldeko ordezkari jator bat ikusten badogu, bertako eskubide eta foruen begirale eta zaindari dana, Bizkaiko Sindiku Ardulari orokor jauna, eta gizon zintzo ori, bateoko agiria irakurtean entzun dozuen lez, jaiobarria bere eskuetan artu eta graziz betetako jantzia artzera Eleizara eroan eban aita-besoetakoa izan bazan, eta ain zuzen ere goratu nai dana, aita-besoetako orrek bere ordezkari eskatu eban sinismenaren alde odola ixuri dauan berbera bada, eta ao berberetik egindako eskeintzak zilluz ziurtatu dituana?

Itxi egidazue zaldun orrengana zuzentzen, esateko, bere zorionaren ondamuz nagola, milla bidar zoriontsu dalako une aretan ain zeregin zintzoa beteaz, eta orain, bere jezarleku berezi onetatik, Bizkaiko Batzarrak, eta euren bidez Bizkai guztiak bere besoetakoari eskeintzen dautson maitasun eta deduzko agerpena artuaz.

On guztien egille dan Jaunari eskerrak emon daioguzan ainbeste medegaitik Gero eta ugariago izan daitela Bizkaia ainbeste gizon deunak sortzen; orrelako zaindariak bitarteko dirala, ez dalako bildurrik euki bear gure erriaren etorkizunari buruz eta gure erri maitearen ospari eusten."

Batzarrak atsegin biziz artu eban eskaria eta ao batez onartu, agiritako liburuan sartzeko aginduz.

Balmasedako aldunaren eskabidez, txosten orrek Batzarrean sortu eban arrada igarrita, lendakariak, batzarkideen on iritziz, batzarra eten eban goizeko amaiketean.

(Zazpiren izenpeak dagoz, au da, Korrexidore, aldun Nagusi bi, Sindiku bi eta Zuzentzako idazkariak).

Idazkaria, Luis Gonzaga Agirre izan zan.

## **1863. URTEKO DOMINIKOTAR FRAILEEN KAPITULOA MANILA-N**

1863. urtean Dominikotar Fraileak Manila-n egindako Kapituloko Agiriak, azkenengoz Tonkin-en egindako Batzar ondoren ildakoen gorespenak egitean, auxe diño Balentineri buruz:

"Erdi-Aldeko Bikaritzan, Fray Balentin Berrio-Otxoa, Bikaritzaren aretako Bikario Apostolikua, guraso zintzoetatik jaiotako Elorriko, Bilboko lurraldean.

Umetatik erakutsi eban gero zer izango zan. Arotz lanetan ekin eutsan aitagaz, Jainkoak dei egin eta Logroño-ko Abadegaien etxean sartu arte, abadetzako ikastaroetan.

Bere ikaskide eta lagunentzako eredu izan zan, berak eukazan ontasun argitsuakaitik lez, ikasketarako eukan zaletasunagaitik.

Orregaitik laster abade sagaratu eta bereala ikasleen gogo-zuzendari aukeratua izan zan.

Baiña bere biotza goragoko gauzetarako deitua egoan eta mundukoak baiño ontasun geiago nairik, Ocaña-ko gure Ikastetxean sartzea eskatu eban, eta bertan Ordenako jantzia artu 1853.eko Urriaren 27an.

Ordena barruan zintzo ibili zan, eta naiz eta abade egin eta adintsu izan (26 urte), ez eban nai izaten bere nagusiak iñoiz eskeintzen eutsezan baimen edo mesederik artzerik, beste nobizioen antzera erabiltzeko eskatuz, eta Ordenako zeregiñik apalenak egiten.

Jaunari agindutako eskeintzak bete ezik, ez zan duintzat etsiten, eta bai pekatari.

Bere buruagaz zorrotza zan eta bere lagunekaz baikor. Garratz artzen eban bere soña eta zigortu bebai, naiz eta eskutuan, zurdaitz eta zigorrekaz, gogoaren onera makurtu naian. Azkentzat etsiten zan beti eta menpetasunari benetan lotuta, eta esaten ekian, gertu egoala potzu batera ezelako aitzaki barik bere burua jaurtiteko, bere Nagusiaren gogoa a bazan. Otoitz sakoneko eta Idazti deunak irakurtzera emona, batez ere Paulo deunaren Idazkiak, eta Tomas deunaren "Suma", ikasketa orreetatik jakintza eta onoi-men onuratsuak ataraten aleginduz.

Nagusien aginduz ugarte oneitara etorri zan, eta ezagutu ebenen atseka bez eta naigabez, Manila-ra eldu 1857. urtearen erdi-aldian, eta bereala jarri zan Nagusiaren menpe, Tonkin-eko misioetara joateko gertu.

Bere gurariak beteaz, 1858. urtean eldu zan misioño aretara, eta bereala, bere doai bereziakaitik, Meltxor Garzia Sanpedro jaun txit argi eta gotzaiñaren gotzain-laguntzaille sagaratua izan zan, eta a il ondoren, bere ardurekaz jaubetu zan.

Oraiñarte Tonkin Erdialdeko Bikaritzan igarten dan jazarraldi gordiñaren erdian sartuta, bizitzeko itxaropenak ere galduta, ia errialdeko izkuntza eza gutzera eldu barik, eta Jaunaren borondatean bakarrik itxaroaz, ezin besterik egin izan eban bere ardien zoritxarra ezagutu eta negartu baiño, Jainkoak nai izan eban bere odola zintzotasun betez eskeintzeko ordua eldu arte Sinismen katolikoaren zabalkundearen mesedean."

## LIBURU ETA BERTSOAK

Badirudi Balentin Berrio-Otxoaren eriotzak santu-guraria biztu ebal Bizkaian. Eta orduko jokabidetik igarten da gurari ori siniste biurtu zala errialde onetan.

Batzar Nagusiak, Balentinen eriotza jakin eta gertatu ziran lenenak, ardura orregaz kutsututa igarri ziran eta gaiñera odolaren gorabera eta bere jatorria argi eta garbi lenengotik zeaztuta lagateko gogotan.

Batetik ezaguna zan Beasain eta Bergara arteko asarre bizi eta ulertu ezi-

ña, Igokundeko Martin deuna bitarte, batzuk Agirre zala, eta orrela bergararra eta besteak Loinaz, eta ortik beasaindarra.

Bestetik Gipuzkoak baeukazan ordurako deuntasuna osoan aitortuta eukenak eta aldaretan gurtuak ziran bi. Bizkaiak ba eukazan zoriondunak, gurgarriak, baiña oraindik deuntasuna ezagutu edo ziurtatu bakoak.

Orrez gaiñera, atseginez ezagutzen eben euren zaindari edo patroe lez errialdeak euretan sorturiko santuen bat. Bizkaiak Loiolako Eneko aukeratu eben, Ondarroatik etorkion odola bizkaitar odola zala eta, naiz eta jaiotzez gipuzkoarra izan.

Orregaitik Bizkaiaren gogoia, bertako sinismen sendoa ezagututa, ulertez ere egiten da, eta bardin lenengotatik, oraindik gurasoak bere bizi zirajaiotzako leku eta jatorriaren zeaztasunak emotea eta agiri ziurtatuetan zabaldu leikezan auzietan sartu naia.

Balentinaren eriotzaren goraberak laster zabaldu ziran aoz aoz, orduko erarik errezena ori zalako.

Baiña laster argitaratu zan bere bizitza idatzia, Jose Migel Arrieta Maskaruak idatzita: "Vida del venerable mártir el Ilmo. Sr. Dn. Fr. Valentin de Berrio-Ochoa, Obispo de Centuria y Vicario Apostólico de Tonquin".

1865. urtean zabaldu zan.

Arrieta-Maskarua au Gueñeztarra zan, Bizkaiko Aldun Nagusi, eta baita Korteetarako aldun.

Liburu ori argitaratu bazan ere, zotin geiago lortu eben erriagan, Juan Frantzisko Petriarena, "Xenpelar" lez ezagutzen zanaren bertsoak, 1867.ean egiñak.

Ez bakarrik Bizkaian, Euskalerrri guztian ere millaka bertso paper zabaldu ziran, eta diñoenez ia etxe guztietan abestuten ziran bertso areik, eta erri maillan eurak izan ziran Berrio-Otxoaren eraspina bizi-bizi gogoratu eragiten ebenak.

## AZURREN KEZKAK

Asko izaten dira itaunduten dabenak: Orrelako jazarraldi gogor eta itsu baten, zeñek daki non geratzen diran martirien ondorenak, euren azurrak eta abar?

Lekukoak esanda jakin zan, iru illen gorpuak, batera il zituenenak, iru egunetan egon zirala jendeak ikusteko eran. Eta Van deitzen zan gizon on bat gertu zala eroatera.

Buruak ere aga batetik dindilizka ipini zirala, zazpi egunetan alaxe eukiteko aginduz.

Orrela, diru ordezkatuak izan zirala, eta Mot-era eroan, eta ango monastegi bateko andre nagusiak, maitasunez batu eta iru pitxar anditan gorde eta eskutatu zituala.

Berrio-Otxoaren erroketen, meza-liburu, zilizio eta bularreko kurutza bere gorde ziran.

Balentiñen gorpua, iru egun igaro ondoren, kutxa baten sartu eta Erdialdeko Bikaritzara eroan eben, Bui-Chu-ra, ango kristauen eskabidez.

Gero, Bizkaiko deia onartuaz, Hong-kong-era bialdu ziran, andik domini-

kotarren ardulariak Bizkaira bialtzeko asmotan.

Azurrak Tra-Ly-ko portura eroan ziran, eta andik txinar txalupa baten eroiezala, ekaitz bat sortu eta tira-bira egin, baiña gerotxoago, ondartza berbertan billatu ziran. Andik Manila-ra eroan ziran eta emengo dominikotarrak Europa-ko bidean sartu zituen, "Isla de Luzon" izeneko ontzi andian.

Ramon Mendezona bizkaitarra, mundakarra, zan itxasontzi orretako kapitana, eta Onzain jauna, gorliztarra, bere ordeko edo bigarrena.

Azurrak emon eta ondo zaintzeko alegiñak egiteko Mendezona jaunari eskatu eutsenean, onek erantzun ei eban: Ni itxasontziko kapitan nazan artean, ontzia eta ni Barcelona-ra eltzen bagara beintzat, ondoren ez da galduko.

Ogeitabost urte igaro ziran Balentin Tonkin-en il eta bere azurrak Barcelona-ra eldu bitartean. Esan bearrezkoa da, Balentin eta lagunuen eriotzaren ondoren, misiño aretako jazarraldiak bara aldi on bat euki ebela, Errege berbera kristau barrientzat apal eta makur ezagutuaz.

Balentin azurrak ekarrezan "Isla de Luzon" itxasontzia, 1886.eko Ekainaren 3an eldu zan Barcelona-ra.

## BARCELONA-TIK ELORRIORA

Balentin azurrekin, Barcelona-tik Elorriorako bidez, bitarteko jai eta abar agertzeko, "Euskalerrria" aldizkariak 1866.eko Ekainaren 30eko zenbakian erderaz agertu ebanetik euskeratzea iruditu jaku egokien, zintzotasunik andinez egiteko erarik ziurrena dalakoan.

Filipinas-etako ostera egiten eban itxasontzia, "Isla de Luzon", Ekainaren 3an eldu zan Barcelona-ra, Manila-n emondako azurdun kutxa bertan ekarrela.

Illaren 6ko goizean agertu zan bertara Aristides Artiñano Bizkaiko ordezkari jauna, eta Aldundiko beste ordezkariak eta Elorrioko Udalekoak bertan egozala, Kutxagaz jabetu zan.

Armada-ko ontzi batek atoian eroan eban azurrekaz eioan txalupa, eta bere inguruan ainbat itxasontzi batu ziran agur egiten.

Bake Atadia deitzen dan tokian, jendetza andia egon azur orre in zain.

Gobernadorea, Alkatea, Katedraleko Kanonigoak, Auzitegiko Lendakaria, Barcelona-ko aldundiko batzorde bat eta ainbat alkarte eta eleiz-batzorde itxaroten egozala, molla egalera eltzerakoan, Luis Iñazio Borda Elorrioko Parrokoak eta Iñazio Onagoitia bertako alkateak atara eben Kutxa.

Zortzi zaldik eta beste ainbat euskal gaztek alde bietatik zainduta, jendez betien-bete egoan ingurutik ibili zan kotxea, Rambla eta alboko kaleetan zear.

Leioetatik bere jendea agurka igarten zan, eta lora txorta eta koroiak jaurtitzen zituen Kutxa gaiñera. Kutxa gaiñean Artiñano jaunak eskeinitako estalgarri eder bat eta euskal ikasleak opaldutako ainbat apaingarri.

Katedralera elduaz batera, jendez gaiñezka egoala, errespontsu bat abestu ondoren, Santa Eulalia izeneko kriptan gorde zan Kutxa.

Eleizkizun onetan Barcelona-ko Alkatea egon zan, eta parroketako alkar-te guztiak. Gotzainak ez in etorri adierazo eban, errietatik ebillalako, artzai ikustaldia egiten.

Berreun milla lagunetik gora izango ziran ibilbide ori ikusten batu ziranak. Urrengo goizean, zazpiretan, agintariak eta jendetza andia bertan egozala, trenera eroateko atara zan Katedraletik azurdun Kutxa.

Artiñano jaunak Bizkaiko ordezkarietara emon eutsen Kutxa ori, euren ardurapean ekarri egien. Bide batez agur bero eta eskartsu bat zuzendu eutsen kataluniarrei.

Trenak urtetean, Berrio-Otxoari, Barcelona-ri eta Bizkaiari gorak entzun ziran.

Illaren 8ko arratsaldeko ordu bi t'erdietan eldu ziran azurrak Gasteizera eta eurekin etozan Zabala, Jauregi eta Urizar aldunak.

Gasteizeko Seminarioko abadegaiak eta euren irakasleak egozan geltokian, agur egiten.

Seiretan, Gasteizeko eleiz eta erri-agintariak alkartu ziran, eta Katedraleko eta parrokiako abade, abadegai, musika talde eta abar, eta Cazadores de Las Navas batalloeko gudariak inguruan zaindari eiozala, Katedralera eroan zan azur eta autsdun Kutxa gurgarria. Kutxa ori Tonkin berbertan egiña zan, Wenceslao Oñate Hipopolis-eko Gotzaiñaren aginduz.

Gotzain au naparra zan, Lizarran (Estella) jaioa.

Gasteizeko kaleak apainduta egozan eta jendez beteta.

Goizeko amarretan atara ziran, Elorriorako bidea artzeko, eta Gasteizeko mugararte ainbat kotxe ta lagunak lagundu eutsen.

Arratsaldeko lauretan eldu ziran Durangora. Erri geiena bidera urtenda egoan. Txalo, koroe eta ospez beterik agurtu zituen. Bost t'erdietan San Faustuko ermitan, Gasteizeko gotzaiña jabetu zan Kutxagaz.

Elorrioko atetan egozala, euri zaparrada asi zan, eta orregaitik, lepoz eroan bearrean, gertuta egoan lez, kotxean geratu zan Kutxa.

Elorrio arku ta apainduraz beteta egoan, kaleetan be ezin ibili aiña jende, gitxienez bederatzi milla batu zirala uste da, eta etxe eta leioak bere jantzita igarten ziran.

Gotzaiñak agindu eban, Kutxa kotxean eroateko Santa Ana-ko konbenturairiño, eta an sartu eben sei abadek; an bere errespontso bat otoiztu zan eta Agurra abestu.

Andik, lepoan eroan zan Parrokira, eta emen bere errespontsu baten ondoren, Te Deum abestu zan, Aureliano Valle zuzendari zala orkestra batek lagunduta.

Gotzainak itzaldi sutsu bat egin eban.

Gertaera samur bat gogoratzen da. Parrokiko bateotako urontziaren alboan, kandela bat biztuta eskuetan eukala, agure bat zain egoan. Ez zan Balentin eta bera toki aretan lenengoz batzen ziran eguna. 59 urte lenago, orain agure dana, berbera izan zan leku aretan Balentin besoetan eroan ebana aita besoetako lez, bateoa artzera.

Ondorengo iru egunetan aurrez iragarrita egoan iruurren ospetsu bat egin zan.

Egunetako meza nagusiak Gotzainak, Dominikotarren Probintziala zanak eta Seo de Urgel-eko Katedraleko Ventades jaunak emon zituen. Gogoratzeke da, meza abestuen artean Gorritiren bat abestu zala, parrokiko organista zan Lizarraga jaunak orkestarako gertua.

Sermoiak euskeraz eta erderaz egin ziran. Erdaldunentzat Ganbari, Aros-





*Logroño'ko abadegaietxeko elizatxo.*

tegi eta Bada jaunak, eta euskaldunentzat Fray Baertel, Fray Geronimo eta Larragan jaunak.

Ondorenen obiratzea illaren 11an egin zan. Aurrez ziurtatu ziran Tonkin-etik ekarritako agiri, zillu eta abar.

Elorrioren sekula ez zan ainbeste jende ezagutu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorritako lagunak ezagutzen ziran, esateko lez, euskaldun guztiak eskeini izan gura eutsela euren omenaldi biotzkorra.

Gogoratu bearrezkoa da euskaldunak gogoz eta biotzez artu ebela Balentinen gorabera guztia. Euskalduna izan zan Tonkin-en misiolari egoala, bere azur eta autsak gorde eta Elorriori eskeini eutsazana; euskalduna Manila-n eurekaz jabetu zana; euskalduna itxasontziko kapitana, Mendezona jauna, bai eta bere bigarrena be eta euskaldunak "Isla de Luzon"-eko itxas gizonak; euskalduna baita Barcelona-n agurra egiñaz eurekin jabetu zan Artiñano jauna ere, eta euskalduna Barcelona-tik Elorriora bitartean euren zaindari etorri zan batzordea.

Azkenez esan bearrezkoa da Aita Santuak bere onspena bialdu ebala jai oneitan era bat edo bestera esku-artu eben guztientzat.

("Euskalerra"-tik laburtuta)

## ZORIONDU NAIRIK

Tonkin-go martiritzaren barri jakin ondoren, bizkaitarren sinistea eta fedea indartu ziran, martiriak laster zorionduak izango ziralakoan, eta santutasun autorpena be luzapen barik egingo zalakoan.

Jakiña, orretarako alegiñak egin bear ziran.

Erriak, lenago esan dogun lez, Bizkaiko Batzar Nagusien bitartez, 1862.eko Uztaillaren 16an Gernikan artu eban erabagiak, lotu eta zirikatatu egiten eban Bizkaiko Aldundia alegin orreitara.

Batzarretako agindua zeatza zan baiña zabala: "Berak al bestean" alegin egiteko.

Batzarretako erabagiak arau gidari izaten dira Aldundiarentzat, eta orrela asi zan au lanean. Baiña lengo gizaldian Euskalerra odolez eta naigabez bete eben gerrateak bizi-bizi jazaten zituen gure asabak, batzutan bertako lurraldeko erri-aginte erakunde eta eskubideak bertan bera zapalduta edo ezetsita ikusteko egoeretan gertatzen ziralako.

Alaz eta bein Balendin martiriaren gorpuzkiñak Elorriora eldu ziranean, barriro sutu zan emengoen sinistearen garra.

Azurak eldutean Elorrioren egin ziran jai eta ospakizunak batetik, eta ango erri eta eleiz-agintariak bestetik, barriro gogoratu eragin eutsen Aldundiari ortaz arduratu bearra, eta Bizkaiko Aldundiak 1887.eko Maiatzaren 24ko batzarrean artutako erabagietako bat au izan zan: Berrio-Otxoaren zoriontasun autorpena lortzeko auzia barriro eskuartera atara, eta mai gaiñeratuaz jarraitzea.

Onetan jakiña zan Pio IX. garrenak 1869.eko Urtarrillan Dekretu bat emona eukala zoriontasun auzi orreri asiera emoteko baimentzen. Eta jakiña zan baita, auzi ori zabaltzean Eleiz-Fiskalak aitortu ebala, Hermosilla, Berrio-Otxoa eta Almató, irurak, martiri il ez baziran ere, zoriontasun auzia lortzeko aiñako gizon on eta onomenez beteak zirala.

Orrek bidea labandu eban.

Onela, 1902.eko Apirillaren 22ko agindua agertu zan. Bere bitartez, elei-zan aztertzen zan auzia Hermosilla, Berrio-Otxoa, Almató eta Khang-en alde bakarrik erabagitekotan asi zan eta ala egitea ziurtatzen eban geroago Leon XIII. ak eta azkenean 1905.eko Bagillaren 24an onartu.

Onen ondorenez, orrelako auzietan naitaezko dan gorpuzkiñen ezaupidearen ziurtapena egitea izaten da eta alaxe egiteko agindu zan.

Eginkizun ori Elorrioren 1905.eko Iraillaren 16an egin zan.

Aldi aretan Gasteizeko gotzain zan Cadena y Eleta arduratu zan orretan. Kutxa bitan gordetzen ziran gorpu-ondakiñak, ikusi eta aztertu zituan. Azurtza osorik egoan bizkarreko bat eta beko matal-azurra eta belaun-koskor bat ezik, oneik Tonkin-en geratu zirelako ango kristauen gurtzarako.

Geroago matal-azur ori Elorriora bialdu eben 1913. urtean, Tonkin-etik Elorrioko Santa Ana konbentuari opaldu eutselako, martiritzean lotuta euki eben katekaz batean.

Oiturazko gorpuzkin-ezagutze ori egin ondoren eta bertako ziurtapenez, egun andia gero ta urrerago geratzen zan.

Ala 1905. urteko Urriaren 15ean, Gasteizeko Gotzaiñak agiri baten bidez jakin eraso eban, zoriondun ezaupide eta gorespina 1906.eko Maiatzaren 24an ospatuko zala, naiz eta gero illaren 20an bete ospakizun ori.

Orrek Bizkai guztia poztu eban. Eleiz gertaerak eta jaiak iragarriagaz batera, bereala asi zan ortazko Batzordea Bizkaitik Erroma-rako ibilaldi andi eta errikoi bat gertatzen.

Ara, urte berbertako Domu Santu egunean, Azilaren 1ean, zabaldu zan Deia.

## **EUSCALDUNEN PEREGRINACIÑUA ERROMARA**

### **FRAY VALENTIN BERRIO-OCHOAREN BEATIFICACIÑUA**

Milla zortireun irurogueta bigarren urtian jaquin eban Bizcayac bere seme batec gueure fedieren alde bere biziya emon ebala Tomkin derichon China-co errialdian milla zortireun irurogueta bacarren urteco Zemendiyaren lenengo egunian.

Ordutic ona bizcaitar eleizaticuac sutsu ta gogoz biar eguin dabe gueure Ama Eleiza Catoliquiac jaso daguiyan altaretara biarguin apala, abade ona, praille zietza ta Obispo andiyeneticua izan zana; ta berrogei urteco aleguiñen ostian urreratuaz dator eguna - 190 garren urteco Mayatzaren azquenetara izango da- zeñetan gueure Ama Eleiziac declarauco daben bizcaitar argui aren birtute gorengocua, ta ipiniric modelutzat eta jarrigarritzat bere erritarrai ta Eleiza guztiyari, aguinduco ta iregarrico daben Vaticano-co Basilicatic Fray Valentin Berrio-Ochoa gloriyosuaren beatificaziñua.

Beatificaziño au logretaco arduria euqui daben Comisiñuac bere biarra azquen onera ecarri daben ezquero, lenengotic aurquitu ebazan eragozpen guztiyac igarota, gueure Obispo maitiac izenta dau Junta bat zuzendu daguiyan euscaldunen peregrinaziño icusgarri bat Erromara, obispadu one-

taco guztiyac joan gaitezan gueure erritar da Santu gloriyosuari Eleiza Ama Santiac esquiñico deutzazan lenengo honorietan parte artutera, baturic gueure erreguac Pío X Aita Santuac eguingo dabezanacaz aren erlequiyeen aurrian, da aitorturic Vaticano-co eleizan gueure fede ausiezcorra, gueure eleizatasun sutsua, ta gueure maitetasun osua San Pedoren oñordecoagana.

Junta zuzentzalla onec eztauco dudaric peregrinaziño au andiyeneticua izango dala, asco goratuco dabela gure obispaduco historiya, ta gueure gurasuen fedia biyotzian daucagun euscaldun guztiyac Erromara joanic, munduaren aurrian aguiri ipiñico dogula gueure Euscalerriyaren eleizatasuna, eracutziric Eleiziaren Buru danari, zeñen aurrera uste dogu elduco gari-la gueure Obispo guztiz maitiagaz batera, euscaldunac guertu gagozala, Berrio-Ochoa leguez, garian guztiya esquitzeo al dogun guztiya eguiteco gueure fediareen, Eleiziaren eracutziyen, da gaur estuturic eta catigu dagoan Aita Santuaren alde.

## CONDEZIÑO GENERALAC

Peregrinaciñua eguingo dan demporia ondiño urrun dalaco zelan izango dan ezin esanarren zietz, orraitziño Junta zuzentzalliac ipinten dauz urren doiazan condeziñuac, baña jaquin eraguiñic eztiriala fijoac, eta beraz mudau leitequezala:

1.— Peregrinaciñua izango da, Jaungoicuac gure badau, 190 garren urteco Mayatzaren 15-etic, 31-ra bitartian ta iraungo dau guztiz (Bilbotic Bilbora) amabost egunetic oqueira, zortzi guichienez Erroman gueldituric.

2.— Joango dirianac naicua izan ezquero, asmua dago peregrinaciñua aldra bitan banandutia:

Ichasotico aldria: Bartzelonan ontziyan sartu Civitayecchia-raño;ta.

Liorretico aldria: Bilbo, Hendaya, Lourdes, Bintimille, Pisa, Erroma.

Gueyago izango balira peregrinaciñuac, beste irugarren Aldra bat atonduco litzaqui liorrez Bartzelonatic, Cataluñaco muguia igaro ta Prantziyan sartuta; eta izan leiteque, escatzalla naicua balegoz, beste laugarren Aldra bat bere atondutia, ichasoz eguiteco joan etorri labur laburra (amarren bat egun guztiz) ta merquia, Erroman egoteco jaiac iraungo dabien iru edo lau egunetan bacarric.

3.— Ezin lei esan ondiño zeinbat costaco dirian billetiac ez lenengo, ez bigarren, ez irugarren clasian. Peregrinaziño asco izatetic etorririco da preciyuac chiquiyaguac izatia, ta orregaitic gaur ezin lei esan eguin=eguiñian zeinbat izango dan billetia.

Bacarric esan guñiai ichasozco joatia zerbait merquiago izango dala urrian liorrezcua baño, ta Junta onec ipiñico dabezan preziyuac merquiaguac izango dirala Españaco obispadu batzuetatic Erromara igaz eguin zirian peregrinaciñuetacuac baño, zeintzuetan izan zirian preciyuac 660 peseta lenengo clasian, 540 bigarrenian, da 380 irugarrenian.

Bilbotic Erromara bitarteco puntu batzuetan, Bartzelona leguez, batu leitequezan peregrinaziño chortai errebañac eguingo jaquez, Bilbotic puntu ataraño dagoan distantziya contuan euquiric.

4.— Junta zuzentzalliac bere ardurapian artuco dau, bai bidian da bai

Erroman, tren, vapore, coche, ostatu ta onetaricuacaz zer icusi daucan, berba baten, peregrinuac biar daben guztiya, onec ezeren arduraric euco eztabela beiñ biajia asi ezquero ta amaitu arte.

Billetien precyuetan dagoz sartuta biajia, janedana, ta ostatua peregrinaciñuac iraungo daben dempora gutziya, baita debalde sartutia Museoetan, Pinacothecan, Vaticanuan, Letrango San Juan eleizan, da onetarico beste lecu batzuetan.

5.— Fecha onetatic asita - 1905 Zemendiya 1.- apuntau leitequiez peregrinuac, eta bere izena emoqueran entregauco dauz bacochac: 50 peseta lenengo clasian joan gura badau, 25 bigarrenian bada, ta 10 irugarrenian izan ezquero, adierazoric ichasotico edo liorretico aldran joan gura daben.

Diru emparaua emoteco Junta zuzentzalliac ipiñico daben plazuaeren barruan iñoc esaten badau eztabela joan gura apuntauta guero, altzauco dau atzera 100eco 75 aurreztic emonico dirutic.

Diruac entregauco dira, noberez emonda, edo girotic edo beste bide batez bialduta, Bilbon, Don José María Urquijori.

Baita be Junta zuzentzalliac errepresentantiai emon leyoez, Araban - Don Mateo Mujica, Vitoriano catedraleco Lectorala- ta Guipuzcuan- Don Vicente Loidi, Plaza del Buen Pastor, 1, San Sebastián; eta peregrinuac apuntaziñua errezago eguiteco gura dau Juntiac, eta onetan lan eguiten diardu, obispaduco parroco guztiyac izan daitezala bere errepresentantiac euren erriyetan, eurocaz aitu daitezcan zuzen peregrinuac izan gura dabienc.

6.— Bere egunian eguingo da particiñua fondetaco guela, ontziyetan lo eguiteco lecu, ta emparauena, beguiraturic orretaraco bacochac daucan numeruari; ta jaquiña, onenac izango dira lenengo apuntau diriantzat. Apuntetaco gogua dauquienac aimbat ariñen eguingo balebe obe, onan lenago jaquingo litzaque billetien precyio fijua, zein izango dan aimbat chiquiyagua zeimbat gueyago apuntetan dirian.

7.— Estranjeriyan eguiten dan lez peregrinaciñuetan, Junta zuzentzalliac gordeten dau escubidia artuteco edo ez artuteco peregrinaciñuan joateco eguingo jacozan escabidiac, baita apuntauta egonarren atzeratuteco bere iñor, billetiagaitic aurreratu daben dirua emon ezquero atzera osuan.

8.— Peregrinuac jarrico da Junta zuzentzalliac emon leiquezan aguindu, erabagui, ta paguraco condeziñuen azpiyan, peregrinaciñuaren aurreztic eta berau dan artian; iñoc urtengo baleu condeziño onetatic Juntiac escubidia euco dau alde batera isteco, ezer atzera emon baric eta ezetan zer erantzunic eztauquela.

9.— Edozer motibogaitic peregrinaciñua eguingo ezpalitz, Junta zuzentzalliac biurtuco deutse billetiaren kontura emonico dirua apuntau dirian guztiyai, beste obligaciño baric.

10.— Junta zuzentzalliac ataraco dauz demporaz circular barriyac jaquin eraguiteco ondo ta zietaz biar dabienc guztiya peregrinuac izango dirianai ta circular barri orretan aldatuac izan leitequez, biar izanaina, emen ipinten dirian condeziñuac.

11.— Irugarren claseco billetiaren precigua al danic gueyen errebajetaco ustian, osterantzian joan ezin leitequezan empliadu ta biarguin pobriac apuntan daitezcan peregrinaciñoraco, Junta zuzentzalliac escatu dauz da artu be bai diru emoienc batzuc, eta eleizatico persona guztiyai erregututen deutsie lagundu dayiela suscriciño onetan.



Apuntetaco escabidiac eta Juntiarentzaco carta guztiyac bialdu biar dira Bilbora, Don José María de Urquijo edo Don Luis Garitagoitiaren izenian, Junta zuzentzalliarene presidentia lenengua ta secretariyua bigarrena, carta barruan sello bat ipiñita erantzuetaraco.

Bilbon, 1905-garren urteco Domu-Santu egunian.

**JUNTA ZUZENTZALLIAREN IZENIAN:**

José María de Urquijo,  
**PRESIDENTIA**

Luis de Garitagoitia,  
**SECRETARIYUA**

## **JAIK**

Azken baten maiatzaren 20 garrena izentatu zan zorientze egun lez.

Milla eta bosteun lagun batu ziran Erroma-ra joateko.

Egun onetan, esandako lauren gain, beste lau bere zoriendu ziran. Danetara zortzi.

Aita Santua gaisorik gertatu zan egun orretan.

Eleiz Oitura Batzordeko Kardenalik gorenak gurtu eta goratu zituen zoriendun barrien gorpuzkinak eta euren birtuteak autortu, Erroma-n onelako jaietan egiten dan ospe, aintza, gora eta aleluien artean.

An egozan Bizkaiko agintari gorenak. Aldundiko lendakari eta aldunak, Elorrioko alkate eta ziñegotziak. An baita erri askotako kristauak, ez bakarrik Bizkaitik, Euskalerrri guztitik joanak baiño.

Bertan Dominikutarren Aita Maisu Nagusia, ain zuzen ere zoriendun guztiak bere ordenakoak ziralako. An zorientasun auzia eroan eben eleiz gizonak. Bertan baita ainbat eleiz erakunde eta Ordenetako buruak. Bertan baita gotzain batzuk, Gasteizekoa buru zala.

Erroma-n, 24, 25 eta 26 egunetan, iru-urren bat ospatu zan. Irugarren egun orretan Aita Santuak, oraindik makal egonarren. Elorrioko agintariak eta zorientasunerako auzia eroan eben batzordeko jaunak artu zituan, euskaldunen fede eta sinismenari buruzko gorak entzunaz, eta Berrio-Otxoaren mesedeak opatuaz.

Elorrioko agintariak errira biurtu eta bereala asi ziran jaioterrian egin nai ziran ospakizunak gertatzen.

Bizkaiko agintari eta elorriotar guztiak alde batetik; Gasteizeko gotzaingoko agintariak eta Elorrioko parroki bietako eta inguruko abadeak eta dominikotarrak bestetik, iruurren bat gertu eben Elorrion ospatzeko, inguru eta errialde guztiko eleiztarrak bertara urreratzeko eran.

1906. urteko Uztaillaren 13, 14 eta 15 aukeratu ziran orretarako.

Aurrez, illaren 11an, Balendin zoriendunaren gorpuzkiñak kutxaz aldatu ziran eta Anduizatarren lantegian moldatutako kutxa ederrean sartu.

Ez da denporarik egon Sortzez Garbiaren parrokiian Balendin zoriendunaren erlikiak gorde eta gurtuko ziran aldare barria gertuteko, naiz eta eleiz agintariak asmo ori gogoetan artuta euki.

Eleizkizunak benetan fedetsu, ospatsu eta biotzkorrak izan ziran.

Iru-urreneko gogarte eta otoitzak Aristides Artiñanok idatzi zituan erderaz. Onela diño euskerazkoaren sarrerak: Iruurena erandu eban erderaz Artiña-

noko Aristides jaun argitsuak eta biurtu euskerara Garita-Onaindiako On Balbino Durangon Santa Anako Arima jaoliak.

Iruurren jaiak ospatzen ziran artean, arkuz eta loraz eta apaingarriz eta oialez beteta, Elorrio fede eta kultur toki biurtu zan; Eleiz eta erri-agintarien batzar leku, bai et euskaldun askoren otoi toki.

Literatur lanak, oiturazko erri agerkizun jatorrak, dantza eta soiñu agerpe-nak eta gaiñerako ekitaldiak eleizkizunekin alkartu ziran.

Illaren 15eko ibildeuna oraiñarte Elorrioren ezagutu dan fede ezaugarri eta autortzarik sutsuena izan zan, bertan goraka eta txaloka, otoika eta kantari Zorrigieta taillagilleak egindako Balentin irudi ederra erabili.

Bide guztiak Elorriora jotzen ebela esaten zan. Ala betien bete ezagutu ziran, batzuk erromes, besteak ikusmin.

Eleiz zuzendari eta erri-agintari nagusienak bertan batu eta alkartu ziran; sermolaririk onenak euskeraz eta erderaz, alkarren leian Balentin eredutzat ipiniaz, biotzak gartzen alegindu; abeslariak abestirik gorenena erabili zituen: erriak bere biotzkadak agertu...

Jai onei buruz, euren erakunde eta ospakizunetan aurre-aurrean ibili zan Aristides Artiñanok liburu eder bat argitaratu eban 1906. urtean, Elexpuru Anaien irarkolan moldatuta.

## GIRO BARRIAN

1906. urteko jaiak garaitza baten ospakizun izan ziran, eta beste ekiñaldi baten billarako oiñarri.

Orregaitik Elorriok, Berrio-Otxoaren sorleku lez, eta Dominikotarren Ordenak, euren anaidiko lez, eten barik jarraitu eben lanean, Balentinen auzia azken maillaraiño eroateko garretan.

Aldare barria egin zan Sortzez Garbiaren omenezko eleizan bere erlikiak gordetzeko, Marzelino Arrupe eta Manuel M. Smith arkitektoen irudien araberan.

Erliki geiago lortu ziran Tonkin-etik, bai gorpuzkiñenak, bai eta bere eriotzara lotuta eroan eben lokarri eta Kateenak ere.

Bizkaiko Batzar Nagusiei esker ona agertu nairik, Gernikako Batzar Etxean gordeteko zidarrezko kutxa baten bere erliki bat eskeini zan. Eskeintza ori 1926.eko Apirillaren 22an egin zan Gernikan bertan.

Errietatik Elorriorako ibillaldiak ugaritu izan dira, beti bere Zoriondunari omena elburutzat artuta.

Gero eta ugariago izan dira bere bitartez mesedeak lortu dituenak eta agertzen lotsatu barik, ausartu diranak.

Eta bizkaitarren naia gero eta zabalago entzun izan da: Noiz lortuko dogu Bizkaian santu bat eukitea, eta ortarako noiz santutzat aitortu gure Balentin?

Dei ori entzunaz, Gasteizko Gotzain izan zan Karmelo Ballester jaunak, agiri bat zabaldu eban 1947.eko Martiaren 15ean, eleiztarren artean, "Ordua eldu da" jakinerazten.

Orrek itxaropen barria sortu eban Berrio-Otxoaren maitaleen artean.

Bizkaiko Aldundiak zorionduna jaio zan etxea erosi eban, bertan bere oroimeneko gaiki, tresna, liburu, oroigarri eta abar gorde, zaindu eta ikusleek goragari eukiteko.



Etxe ori, 1950.eko uztaillaren 4an zabaldu zan.

Irudi barriak agindu ziran, ertilarien artean.

1951.eko Otsaillaren 14an Bilboko Gotzain zan Casimiro jaunak beste dei bat egin eban, batez be abade eta eleizgizonei Elorriona ibillaldiak ugaritzea eskatzen.

1960.eko Abenduaren 17an, aldi aretan Bilboko Gotzain zan Pablo jaunak, urrengo urtean martiritzaren eungarren urtea zala gogoratuaz, ospakizun ori zabaltasunik ugarienez egitera deitu eban.

Orrelako gauzak gure artean eginbearrezkoak ziran, gure maitasunari eutsiaz, zaletasuna ugaritzea lortzeko.

Baiña santutasun auzia, ez da erabagitzen emen, Erroma-n baiño, eta an sartu bear zan auzia, gogoratu eragin eta mai gaiñean jarri. Emengo giroa Erroma-n erakutsi, eta an, azken baten erabagi bear dabenen artean, eten barik lan egiñaz, nortasunez eta duintasunez jokatu eta azken aitorpenerako erabagia lortu eta atara.

Ortarako lan berezia egin bear.

## **SANTU AITORPENAREN BILLA**

Balentin Berrio-Otxoa 1906. urtean goratu zan zoriondun lez.

Zoriondun izatea, andi dala, erdi-bide lez geratzen da kristauen amets gurenaren aurrean. Ortik gorengo mailla billatzea izaten da amets eta gogo.

Ardura ori Berrio-Otxoaren kontuan, Aita Jazinto Garrastatxuk artu eban bere gain eta bai gogoz eta alegiñez ekin bere zeregin orretan.

Orretarako "Nuestro Mártir" izeneko boletina ataratzan asi zan, bertan batu eta sartuaz Berrio-Otxoari buruz artzen ziran idazki, jakingarri, aolku, mesede eta abar.

1952. urtean, Deuntasunerako auzia aupatu eta bizitu nai izan zan, Balentinen santutasun aitorpena ariñago lortu eta egingo zan asmotan, Vietnam-eko beste martirien taldetik banatu eta bere auzia bakarrik eroan nairik, Bizkaia garretan egoalako bere semeen artean santu bat eukiteko. Baiña Erroma-n naiago eben taldearen osotasunean eroan eta taldearen auziari bultzadada emotea. Orregaitik Garrastatxu il et 1976. urtean Aita Alberto Ruiz ardura orretaz jabetzen asi zanean, gurari ori igarrita, barriro guztiak baterako santutasun ezagutzearen alegiñetan asi zan.

Alegin orren onura laster ikusteko gagoz.

Aita Garrastatxuk lan andia egin eban Balentin Zoriondunaren karta eta idazkiak liburu baten agertuaz, bai bere "Héroe del Tonkin" eta "Mártir de Cristo" deiturako liburuak argitaratuaz. Orrein atzetik beste idazleak bere agertu ziran, bakoitzak bere aburuz, Balentinen eta lagunaren gorapenak zabaltzen. Ala Eduardo Lorenzo, Hernández Rojo, Aita Goiria karmeldarra, Bujanda-Ormaetxe, Pinilla, Sainz, Valderrama, Ibarra y Bergé, Jose Maria Zuluaga eta Alberto Ruiz.

Aita Garrastatxu gaiso zital batek jo eta menderatu ebanean, Aita Aureo Otero geratu zan bere ardurekaz eta geroago beste Aita Dominiko batzuk, esateko Patxi Lazkano, Enrike Abaigar, Carlos Acitores, Antonio Diez, Valentin Mier eta Alberto Ruiz.

Amaika urte daroaz azken onek, Alberto Ruiz-ek, santutasuneko aitorpe-



1951. Elorrio'ko ibildeun bat.

na eta ezaupidetza lortzeko jardun eta alegiñetan, ainbat euskaldun eta beste errialdetakoak gogoz eta gartsu itxaroten daben aitorten ori jaritxiko dauan ametsez. Eta itxaropen ori egi biurtuko dalakoan gagoz, gaur ziñez esan leikelako laster izango dala Bizkaiko lenengo Santuaren ezaupide jatorra.

Orretako Deuntasun Auzi-Arduradun Batzordeko Kardenal Nagusiak, 1986.eko Bagillaren 5ean egin eban idazkian, oituraz eskatzen dan soiñari buruzko miraria auzitik libre geratzea onartu eban Vietnam-go 11 martiriak deun (santu) ezagutzeko, Vietnam-go kristauen zintzotasuna eta martirien ezaugarri Miraritsuak ezagun eta jakiñak diralako.

Deun autortza ori 1987.eko Urria edo bestela Martiritza eguna gertatu zan azillaren 1ean egingo zan ustetan gengoan, orduan ospatzeko dan laikoen Batzar Nagusi bitartean, baiña Aita Santuaren eginkizunen egitaraua banatu bearra ikusita, 1988.eko Bagillaren (Ekainaren) azkenetarako atzeratu bearra egon da.

Martiri onein ezaupiderako Idazkaritza onek egin dauan lanari esker, eta Berrio-Otxoaren oneraspena kontuan eukita, "Fama miraculorum" edo mirari antzeko egitada askoren zerrenda agertu al izan da, "Positio Causae" deitzen dan santutasuneko liburu ofizialean agertzeko eran.

Azken urte oneitan ainbat artu-emon euki dira Batikano-gaz, bai eta Dominikotarren Ordenako Eskalari Orokorragaz, bai eta España, Frantzia, Vietnam eta Filipinas-etako Gotzaiñen Batzarrekaz eta Autonomi errialdetako agintariekaz.

Urte guztian zear benetako alegiñak egin doguz Santutasun aitortpena eta gorespeneko eguna isillean eukiteko, Aita Santuak ziurtatu aurrez ezin dalako orrelakorik zabaldu. Baiña badakigu Bagillaren 22ko Kardenalen Konsistorioan Aita Santuak iragarriko dauala gorespen egun ori zein egunetan izango dan.

Orrek Bizkaian lan eta ospakizun ugari egin bearra ekarriko dau, bai Erromarako gertuko dan ibilaldiari buruz, bai eta errietan egin bearriko diran batzar, jai eta antolapenei buruz.

Ziur gagoz euskaldunok gogoz eta biotzez ekingo dautsagula orretan.

Alkartasun bat billatzeko, eta ospakizun oneri buruzko jakingarri eta artu-emonetako zuzenbide bat gogoan euki bearra dogu: Berrio-Otxoa Idazkaritza.- Aita dominikotarrak.- Encarnación kalea, 9-2a. 48006 BILBAO. (Urrutizkina: 433.05.99).

Ez dira bakarrik eleiz-gizonak Balendin santutasun nortasun osoz ikusi eta gurtu nai dabenak.

Elorrioko Udalari erantzunaz, beste erri askok euren oniritzia eskatu dabe.

Ori dala eta, Bizkaiko aldun Nagusia dan Jose Maria Makua agurgarriak, Aldundiaren izenean, bere agurra luzatuaz bizkaitarren itxaropena jakin erazo eutsan II. garren Jaun Pablo Aita Santuari 1986.eko Abenduaren 9an, eta Erroma-tik agur orren erantzuna artu.

Orrela, gero eta itxaropen biziagoz Bizkaia eta beragaz batera Euskalerrri osoa laster etorriko dan egun andi orrei itxaroten geratzen gara.



*Bizkaiko Foru Aldundia*  
*Diputación Foral de Bizkaia*

SU SANTIDAD JUAN PABLO II  
CIUDAD DEL VATICANO.

Bilbon, 1986ko Abenduareri"9an

Aita Doatsua:

Bizkaiko Foru Aldundiak Vietnam-go XVIII-XIX mendeetako 117 martirlak santu autortuteko eskabidearen barri izan dau, eta martiri talde.' orretako dan Balendin Berriotxo Doatsua Bizkaiko Elorrio erriko semeaf dalako. arreta andiz jarraitzen dau auzibide orl.

Aldundi onek besteen eskabide 'guztlak onartuz gainera, berea ere Zure Santutasunaren aurrean eurkazten dautsu.

Zure oinetan.

DIPUTATU NAGUSIAK

Sin.: Jose Maria Makua Zarendona



SECRETARIA DE ESTADO

N 1 77 468

VATICANO, 13 de enero de 1987

Estimado en el Señor:

Con el escrito, del pasado mes de diciembre, Usted tenía a bien solicitar al Santo Padre la canonización de los 17 mártires del Vietnam, entre los cuales se halla un hijo de esa Prpvincia: el Beato Valentín Berriochoa.

Deseo asegurarle ahora que su carta ha sido transmitida, por disposición de Su Santidad, a la Congregación para las Causas de los Santos, para el oportuno estudio.

Reciba en esta circunstancia las seguridades de rai consideración y estima en Cristo

  
+ E. Martínez, Sust.

Iltmo. Sr . José María MAKUA ZARANDONA  
Diputado General  
Diputación Foral de Bizkaia  
BILBAO



*Deuntasun Ibillaldirako Laukia. Sarrigarte-ren oleoa.*

### **III GORESPENAK**

#### **B) BERTSO, KANTU ETA IDAZKIAK**





# BERRÍOTXOJSRENffK

Mi-lla zor-tzi-reun i- ru-ro-gei-ta au zaz-pi-ga-rren ur-ti-an, Kris-to ze-tu-tik  
 je-txi za-ne-tik o-ne-rai-ño bi-tar-te-an; i-ru o-bis-pok pa-sa-tu du-ten  
 mar-ti-ri-u-a - fuer-ti-a! Pe-na-ga-rr-i-a i-zan da oi-en mun-du-ko e-rre-ma-ti-

«Xenpelar»

- |  |   |
|--|---|
| <p>1.- Milla zortzireun irurogei ta<br/>                 au zazpigarren urtia,<br/>                 Kristo zerutik jetxi 2anetik<br/>                 oneraño bitartia;<br/>                 iru obispok pasatu duten<br/>                 rírtiriaren fuertia!<br/>                 penagarriya izan da oien<br/>                 munduko errematia.</p>    | <p>3.- Amairu urtetik amabostera<br/>                 estudiyo bat ikasi<br/>                 gero aitaren ofizioa<br/>                 erakusten zuten asi;<br/>                 gogoa zeukan apaiz eginda<br/>                 naiago zuela bizi,<br/>                 tormentu gutxi mundu onetan<br/>                 eztu beregan ikusi.</p>             |
| <p>2.- Baten bizitza kanta dezadan<br/>                 au da bigarren bertsoa,<br/>                 Elorrio'ko namrala da<br/>                 Balentin Berriotxoa;<br/>                 aita ta ama Bizkaia'n daude,<br/>                 semia an il da gaizoa,<br/>                 salbajietan kunplitu zaio<br/>                 eriotzako plazoa.</p> | <p>4.- Berrogei urte orain zituen<br/>                 gertaru ba litz bizirik,<br/>                 ogei ta zazpi lendabiziko<br/>                 estudiatzen asirik;<br/>                 seminario batera joan zan,<br/>                 karpintero ikasirik;<br/>                 negarrez nabil aren pausoak<br/>                 ezin adierazirik.</p> |

5.- Seminario eder batian  
Logroño'n apaiz egiña,  
beste guziak bañan lenago  
ikasirik esamiña,  
buru abilla izanik eta  
fede santurako fiña,  
negarrez urtu leiteke artaz  
akordatuko ba giña.

6.- Ogei eta lau urte zituen,  
etzeukan memori illa  
kolejiyoko maisuak bezin  
estudiante abilla;  
obispo jaunak ezaguturik  
justua eta umilla,  
agindu zuen meza emanta  
erretiratu zerilla.

7.- Goizeko labak jotzian meza  
eman ta konfesiya,  
barau egiñez obra onetan  
pasatzen zuen denbora;  
pobrerik iñoiz etortzen ba zan  
eskian atal ondora,  
bere ogia ari emanta  
deboziyua gogora.


8.- Logroño'n meza eman zuen ta  
Elorrio'ra etorri,  
predikatzen da konfesiyan  
bere erriyan zan jarri;  
Azpeitia'ko San Iñaziyo'n  
bisita egin du sarri,  
azkenerako arren pausoak  
ziraden lastimagari.

9.- Suertatu da gure Balentin  
Zan Iñaziyo'n sartzia,  
pensatu zuen ango Padria  
adbertzenzian jartzia,  
nola nai zuen Santo Domingok  
zeukan jantziya artzia,  
ia fabore egingo ziyon  
al bazuen ekartzia.

10.- Ango Padriak maite izanik  
ipiñi zuten kontuan,  
agindu ziyon sartu zerilla,  
Ocaña'ko komentuan;  
bire guziyan eskian joan zan,  
gaubak askotan kanpuan,  
bere gorputza azotatuaz  
allegatzen zan lekuan.

11.- Allegatu zan Ocaña'ra ta  
eman zioten jantziya,  
berak nai zuen gorputzarentzat  
alako penitentziya;  
munduko gauza guztiyak beti  
alde batera utziya,  
neke trabaju naigabietan  
artu du pazientziya.

12.- Gure Balentin Berriotxoatc  
egin zituen pausoak,  
konsideratzen jarri ezkerok  
dirade lastimosoak;  
beti negarrezjesusengana  
zabaldurikan besoak,  
aren biotza konsolatzen du  
zeruko usai gozoak.



*Berio-Otxoa'ren aldea Elorio'n.*

13.- Pasiatzera etzan joaten komentuko lagunakin, etxian zeukan tertulia ona errosario birekin; bere gorputza martirizatzen adore diziplinakin, orazioak balio ba du zeruan dago Balentin.

14.- Bakardadian oneraño zan Balentiñén istoriya, Ocaña'tikan Manila ziran zortzi ministro abiya, barkuan ere sufritu dute makiña bat komeriya, biotza penaz urtu laiteke ez baldin bada arriya.

15.- Ocaña'tikan Manilara'ño barkuan bost illabete, jakiña dago izango zala asko leguaz aparte; zortzi ministro oien artian au zan sobresaliente, gute Balentin ango maisuak obispo nombratu dute.

16.- Ango Padriak agindu zion eskubidia artzeko predikatutzen asi zerilla kristiandadian jartzekó, konfesiyo ta barau egunak animaz akordatzeko, pekatuaren mantxa Judasen kalabozuan sartzeko.

17.- Artujan ta ura erari arri gañian lo egin, betijesusi erregututzen gutaz akordatu dedin; kristandadia nai zuenari konfesiyoak eragin, jakiña dago salbajiakin etzeguela atsegin.

18.- Erreinu artan gobernadore salbajien nagusiya, Jaungoikuaren bildur gabia estranjerian aziya; religiyoko fede santuan jarri nai duen guziya, agindu zuen plazan kentzeko ezpatárekin biziya.

19.- Garagarraren lendabiziko goizian ziraden asi, arratserako bost milletatik etzan granorikan bizi; fede santuko kristabak ilten zituenian ikusi, Balentin bere lagunetara abiatu zan igesl

20.- Pedro Almato eta bestia Jeronimo Hermosilla, gero Balentin Berriotxo saltatu zan dberi billa; iru.obispo juntatu ziran, zeukaten biotz umilla, aien bizitza laster izan da martirizatuta illa.

21.- Arrapatuta kate gogorrez  
lotuak zeuden alkarri,  
iltzeko eman sententziya ta  
kartzela banatan jarri;  
soldadu tropa baten erdiyan  
gero plazara ekarri,  
ezpatarekin lepuak mostu  
dizkate lastimagarri.

22.- Ofretarakó eskatu zuten  
ordu beteko lekua,  
Jáungoikoari egin artian  
beren ofrezimentua;  
gobernadore batek eman du  
pena kastidarekua,  
iñor oietaz damutzen ba da  
bertan kentzeko lepua.

23.- Iru obispok oien korputzak  
ogei eta lau orduan  
iduki eta enterratuak  
urrikaltzeko moduan;  
Orie-ntal'ko probintziyan da  
Jeu-dat deitzen dan lekuan;  
erregutzen det aien animak  
gerta ditezen zeruan.

24.- Orra ogei ta lau bertso berriyak  
ejenplo eder batian,  
oroipengarri kanta ditzaten  
pekatarien artian;  
ai, gure Jesus, eskatzen dizut  
grazi au errematian;  
komeni da sartu gaitzazu  
zeruetako atian.

*Oarra: «Xenpelar» =Juan Franzisko Petriarena Berrondo.  
1835'ko Urtarrilla'ren 12'an jaio zan Oiartzun'go «Senpelarre» baserrian  
eta Errenderi'n il zan, 1869'ko Abenduaren 8'an, naparrerigaixoagaz.*

*Balendin Berriotxoá 1861 urtean U eben Tonkin'en eta bertso oneik  
186Ten egiñak dira.*

9.— Arratsaldeko seirak aldean  
autoridade guztiak,  
musika joaz daramazkite  
ezur beneragarriak;  
katedralera ordena aundian  
galenki zeuden etxiak,  
kristau on dala dauka ezagun  
Bitoriako uriak.

10.— Beste egunean ziren amarrak  
naiz ziran andik atera,  
lagundurikan portaleraño  
despedida ematera;  
ta allegatzen Bizkai partean  
Otxandio'ren urrera,  
ango jendea prozesioaz  
atera zayon bidera.

11.— Durango'n berdin egin zioten  
errezimentua ari,  
koroya ba-zan kaje gañean  
ipiñitzeko ugari;  
apaindutzeko Elorrio'ko  
seme izan zanari,  
Bizkaitarretan onragarrien  
nere ustean danari.

12.— Bost eta erdiak ingurua zan  
Elorrio'ra eldurik,  
beatzi milla anima ba-zan  
ara orduko baturik;  
Gobernadore ta Obispo Jaun  
ere an ziran joanik,  
arku ederrak baita balkoyak  
kolgadurasakin jantzirik.

13.— Urrengo egun iruretan zan  
Elorrio'ko gloria,  
ango eliza bete egiten zan  
izanagatik andia;  
sermolaririk onenak zuten  
euki antxe itzaldia,  
alabatzeko Elorrio'ko  
Balentin izar argia.

14.— Antxe jayo zan zeillaren  
amalauko egunian,  
milla zortzireun ogei ta zazpi-  
garren izan zan urtian;  
Juan Isidro'ren ta Monika'ren  
semea ordu onian,  
noren ezurrak gordeko diran  
elizan bere errian.

15.— Amaika urte baño lenago  
arturik zeukan asmua,  
Dominikoen konbentu baten  
jantzitzeko abitua;  
fede gabeak konbertitzeak  
poztutzen zion gogua,  
azkenerako kunplitu zuten  
beraren pensamentua.

16.— Milla zortzireun ta berrogei  
ta amaikagarren urtean,  
ordenatu zan Logroño'n bada  
abadeetzako klasean;  
ogei eta lau urte bakarrik  
oraindik zituanean,  
beste bi urte an pase zuen  
anima askoren artean.

17.— Gero joan zan relijioso  
Okaña'ko konbentura,  
bokazioa zergatik zeukan  
jazteko abitu ura;  
dominikota misionero  
zuelako izan gura,  
nundik espero zuen ondoan  
elduko zala zerura.

18.— Manila'rako andikan gero  
egin zuten destinatu,  
Tonkin'erako lizenzia un  
azkenez zuen eskatu;  
ara juanik kristandadea  
zabaltzen oi zan ayatu,  
ta obispotzat denbora asko  
baño len zuten nonbratu.

## BERTSO BERRIAK

Frai Balentin de Berrio-Otxoa. Elorrioko seme martiriaren.  
ERRELIKIAI JARRIAK

1.— Ogei bat bertso gura nituke  
al ba'nezake atera,  
martiri bati zabaltze arren  
zor zayon fama ederra;  
bere ezurrak dituztelako  
aurten ekarri onera,  
gertakizun au kantatuzeko  
asten naiz eskribitzera.

2.— Bagilla deitzen zayon illaren  
seigarreneko goizean,  
Barzelonan zan poza ugari  
bederatziak aldean;  
Frai Balentinen errelikiak  
bapore eder batean  
erakarriak artu zituen  
jaun Artiñano'k mendean.

3.— Iru diputau ziran emendik  
joan errezibitzera,  
Elorrio'ko kura parroko  
ta alkate jauna gañera;  
Barzelonatik asko omen zan  
portaleraño atera,  
autoridade guztietatik  
ongi etorri eitera.

4.— Kotxe eder baten kaja jarririk  
kaleetatik aurrera,  
ponpa aundian jarraitu zuten  
jo arte Katedralera;  
balkoyetara ba-zan jendea  
begiratzeko atera,  
lore ederrak, koroi galantzak,  
botatzearen gañera.

5.— Berreun millatik igaro ziran  
irtenak ikuste arren,  
zer ejemploa Barzelonarrak  
duten orretan ematen;  
parroki danak ezin obeto  
ortara dute laguntzen,  
kongregazio guzti guztiak  
alkarren leyan onratzen.

6.— Bigaramona zazpigarrena  
eldu zan Bagillarena,  
etzan jendea lo gure orduan  
beste egunetan bezela;  
autoridade danak baturik  
dijoaz eramatera,  
estaziora errelikiak  
ekarritzeko onera.

7.— Jaun Artiñano kaja entregatu  
zian diputadu jaunai,  
ta Elorrioko kura ta alkate  
eurakin joandakoai;  
ikusgarri zan entregu ori  
emanaz eskerrak denai,  
botiaz bibak Frai Balentini  
Barzelona ta Bizkayai

8.— Arratsaldeko ordu bi t'ardi  
errelojuak jotian,  
Bitoriako estaziora  
jo zuten bigaramonian;  
estudiante abade-gayak  
profesoreen atzian,  
Katedraleko komizioaz  
presente ziran aurki an.

19.— Persekuzio asko igaro  
zuen iru bat urtean,  
baña alare animan zaitzen  
beti ziardun lanean;  
azkenerako eriotzea  
irabazirik lurrean,  
martirioaz bizitza eman  
zuen Jesusen legean.

20.— Jesukristoren io apostolu!  
*Balentin Berrio-Otxoa,*  
nork leitekean zuk bezelako  
ilte zorionekoa;  
zure anima zalako santu  
garbia eta justua,  
koroï ta palmaz apaindurikan  
dezu zeruan tronua.

Imp. de Vda. de B. Valverde - Irun



## BERRI-OTXOA ETA BERE ETSIAIK

1 — Bizkaia'ri nork esan  
ez dala baratza,  
fedearen aldeko  
leku aberatsa?  
Sartuba daukalarik  
Luzbeltz'ek arantza,  
dauka bere lauburu  
donearen antza.

2.— O fedetsu doaitu  
Berrio-otxoa,  
Elorriyo'ko izar  
zori-onekoa,  
Tonkin'go Apaizpiku(l)  
biyotz aundíkoa,  
omenez beterikan  
zerura igoa!

3.— Onelako onrarik  
al du oraindano  
Bizkaia'k, altxatzeko  
izarretarano?  
Bere seme gaiztoak  
nai luteke baño...  
Doatsugin (2) bat ezin  
galdu egundano.

4.— Doagaraia (3) onen  
bear-gai erraza (4)  
galdutzat gertatzea  
izango zan beltza!  
Zan adoratutzea  
Neron katamotza,  
ta galtzea Bizkaia  
ederraren lotsa.

5.— Au onela gertatu  
bañan lenagotik,  
Lekobide jetxiko  
zaiote zerutik,  
bere ille zuriyak  
ditubela zutik,  
etsaiaren zuaitza  
galtzera zañetik

6.— Gezari gaur esaten  
diyote gaziya,  
gizon ederrenari  
dala itsusiya;  
fedeatatik eman  
dubena biziya,  
da oriyen artean  
gaizki ikusiya.

7.— Lapurrai deitzen diye  
ondo mereziya (5),  
ta gizon etoiari (6)  
guzizko argiya;  
urkatzen ari dana  
gaur Euskal-erriya  
da euskaldun txar oien  
bide galgarriya.

8.— Alper, alper, alperrik  
dabiltza etsaiak,  
ez dirade garaitzen  
donegingarriyak(7);  
txit argidotarrari(8)  
diozkan zor aundiyak  
pagatuko dizkiyo  
bere Sort-erriyak.

Ramos Azcarate-co-ac.

(1) Obispo. (2) Beatificado. (3) Insigne. (4) Expediente. (5) Benemérito. (6) Traidor. (7) Canonizables. (8) Ilustrísimo.

(El Cántabro, núm. 67, Tolosa, 18 de marzo de 1894.)

## Valentin Berrichoa-ri

Gure Balcntiu Burriotxoa  
Scincz Elorrioturra  
Gazte guztetau cntzunckoa  
Jaungoikoaren didurra  
Beraguuako ipiñi eban  
Gorputzeko bere iudarra  
Lortu artian 'goian daukagun  
Lorezko zelai ederra.

Lenengo arotz ikasten axi  
Gcro abade izateko  
Euien lurrian pekatu baiño  
Ikusi ezebalako  
Scrmoeigiñen urrufietara  
Ariruak erositcko  
Bere bizia gaztc guztetun  
Jauugoikoari emoteko,

Muudu ouetuti joau zuniu.n  
Zitun oitamalau itrct  
Zciubat triat'ura ikuaikou  
Jaio cta ordurarte  
Scguru nугp guxe zainduri  
Goiau dueua jarrite  
Euskaldun jjemo gurbia du-ta  
Guk bcrct izan daiguu maite.

Eriotzuru eroan eben  
Soldudu bireu erdian  
Tu kurutziau zupaldutcko  
Ipiñi'dcutse bidian  
Buiña santuajc jarri zituun  
Bere begiak lurrian  
Pausu but bere eztpc cuiongp  
Ori or kcndu artian.

Juan Ormaeche

## BERTSO BERRIAK

1.906-ko Garagarrillaren 8-an abestuteko ustez, Elorrion bidian P.E-ak jarriak.  
(Bertso oneik "Aberri" aldizkarian agertu ziran).

Guazen bizkaitar zintzo zintzuak  
Elorrioko errira,  
Guazen maitatzen nun dogun bertan  
done bat geuri begira.  
Zeñek diñuan...bizkaitar maite  
leial zintzuak nun dira?  
Etorri barik maitatuteko  
neure biotzan erdira?

2.— Elorrion zan Balentin jaio  
Jaunak autua berentzat,  
erakutziak zabalduko  
ondu nai eben danentzat.  
Jaunak beraitik igaro eban  
Misio garratzen saritzat  
donetu deusku zorionian  
bizkaitarren zaindaritzat.

3.— Beren bizitza latza ixan zan  
luditarraren artian,  
Tonkin aldeko ziniste bako  
odol jiruen tartian,  
beren begiak gora jasorik  
biotz ongaz batian,  
nai eban berak ziñopa ein da  
Jesus gaitil il zaitian.

4.— Basomortuan zelan oi diran  
ibili artzain zintzuak  
batzuk zainduta bestetzkuk batzen  
jan ez dagizan otsuak,  
alan eukazan luditarrakin  
Balendin Berriotxuak,  
txarrak onduta onak zaintzeko  
gurari biotzekuak.

5.— Luditarrakaz len izanarren  
ezetziz inguratua,  
gaur bakez dago beti betiko  
zeruan aukerata,  
atsegiñez dau Jaunak emonda  
urrezko jarrilekua,  
euskal zaindari ziñopa dontsu  
done zori onekua.

6.— Goratu daigun geure done au,  
betor zeruko almena,  
onoidadezko iturri eder  
eta doarik onena;  
betor min legun gozo eztitu  
zeruko aingeruena,  
dalako berau Elorrioko  
euskal seme zintzoena.

7.— Izan daizala gora jasoak  
Jesus ta Amagurekin,  
baita jaso jargoienara  
Berriotxoatar Balentin,  
Zure zaintzaren mendian gagoz  
biotz maitekorrarekin,  
Euskalerra aurkitu nairik  
lengo oitura zarrakin.

8.— Opa deutzuguz done Balentin  
opa deutzuguz biotzak,  
opa deutzuguz oso-osorik  
anima eta gorputzak;  
Oi Berriotxo ta Miren maite  
Zaindari zaren guretzat,  
jaritxi nairik zuen bitartez  
Bake bat bizkaitarrentzat.

Bertso oneik **KANTA-ARTIA** au euken:

Guazen Elorrion, guazen bizkaitarrak  
Done Balentiñeri emoten ezkerak,  
Done Balentiñeri emoten ezkerak  
Guazen, guazen beraren maite Euskotarrak.

## Beño-Otsoa'tar Balendin

Bera da Josu-Kisto'ren aldez il diran bizkatarerarik bat.  
 Eloiñon jayo zan 1827 g. Otsalaren 14'an, eta Orbanbako Sorpen  
 aren elea edo tradonan batjau edo ugutzau zan.  
 Ogei ta sei urte euzala, aritu eban Deun-Domekairen semien janzkija,  
 ta beste urtian, 1854garenan, Azilako l'an sartu zan gopatz edo  
 ordeian.  
 Bere burubak Pñpaneta'ra bidaldu gura eben, eta 185Tan urten  
 zan Europa'tik igarite aeta'arantz.  
 Manilan eguala ta Tung-King'an ldstar edo kiristiñuben kaltez guda  
 gogora egien zanian, eskaru bere burubei eutsen efi atara juateko, ta

## AZILA

Eguskija { 6-29=Urtakaldije=ek. 6-49} f. larrija  
 { 4-59= Sarkaldija =bk. 9-30}  
 Iskurusk { Gor.= 4-11 | Iberes.= 6'an  
 { Sez.= 4-30 }

## Beño-Otsoa'tar Batraaln

(Jmaxptnn)

# 1

juan zan 1857an. Edu ran Anna'ho  
 cra ogei ta amaka urte euzarian. Ba-  
 gilako 27an autu zan Centuriako  
 Gotzale edo Apospikua.

Oratu ta kartzelan aaritu ebh tun-  
 kindararak 1861garen urteko. Uñaren  
 15an, ogei ta amaku urte euzala, u  
 burundu eban (eta bere lagun bi be)  
 Azilaren lenengo egunan.

1512—Gudoye puzeta' urten d  
 Gouwan. 1861—Turkibrik lizen  
 Ute Beño-Otsoa'tar Blesdin, biko'ur' u  
 Centuriako Gotzale.

Ango kistar batek erosi eban Balen-  
 din'en gorpuba, ta gebaz luralkh  
 eban Jeu-Dat deribon leku batan.

Gaur Eloiño'ko elea edo tradonan  
 doguz bare gorpuzkin deunak.

## Asta'rtia

+ Deon Oronen Jateguna.  
 Deunak: Benin, Miren, Kurene U  
 Julene, zk., eu Bigor, g.

BIZKAITAftEN ISPILUA  
BALENTIN BEFUO-OTXOA

Zer da Jesus'ek autu ebana  
Edo bere naiz egiña?  
EloñoTco efi maitean  
Bizkaitařen atsegiña,  
Bertan egoan onoidadezko  
Baratza edo jardiña,  
Argitu zana usain gozozko  
Zeruko lorean miña.

Au zan lora bat argitu zana  
Askoren atsegingah',  
Beti oi zana zeruko imntz  
Cozozkoaren egafi,  
Emon dagion onoidadezko  
Indar sendo bat berari,  
Zerfen niingotzak gozotzen naiban  
Ixañ ludian gudari.

iuñ Isidro Beñotxo ta  
Monika Arizti'n baratzen  
Lora au sorturik argitutea  
JaunaTc gurata alan zan,  
Maite ebena beren zaintzailak  
Asieran ta gorantzán,  
Bardin uñian ein uñiñeko  
Ald;ikuntz edo mudantzán.

Mila zortzireun oeita zazpian  
Zezeilññ amalaukua,  
Egun bera zan EloñoTco  
Eñian JñunaTc aurua  
Onezko lora bat ipinteko,  
Bertan argitaratua  
Ixango zana beti-betiko  
Zeruan aukeratua.

Coizalderako izafak legez  
Oiban berak argi egin;  
Pozik zeniko gozotasun au  
Ludian zabaldu dedin,  
Aingeru baten antzera baita  
Jesus maitatzen alegin.;  
Aingeru lora au, zein zan ezpada  
Beñotxo'tar Balendin?

Bizkayññ jayo, Logroño'n apaiz,  
Gero Okaña aldatu,  
Done Domingo'n Anaitegiko  
Jantziñz einda guratu.

Berba muetak ikaji zituu,  
Jakiidurian goratu.  
Etzan Jesus'en nayan ziñopa  
Ein arteraño geratu.

Okaña'n onda, Kadiz'tik jiran,  
Manila'ra zan 'eldua,  
Ango nausien baimenaz gero  
Tonldn'era bialdua.  
An ibili zan artzain bat legez  
Maitez biotz-zabaldua,  
Jeius'egana biorru nairik  
Ango siñismen galdua.

Basamortuan zelan oi diran  
Ibilten artzain zintzoak,  
Batzuk zaindu ta bestetzuk batzen  
Jan ez daiozan otsoak.,  
AJan eukazan Tonldn'tařakaz  
Balendin Beñotxoak,  
Txarak ondu ta onak zaintzeko  
Gurari biotzekoak.

Zabal oi diran lorarik lora  
Erliak oiñez ta aidian  
Ibilten dira, batzen dabenaz  
Ezti eiteko abian:  
Alan ibil zan Tonkintar gaizto  
Odol-zalien artian,  
Zabal ebizan arimak batzen  
Jaunaz gozatu daitian.

Ze putz gozoa egin oi daben  
Udako ipar aixiak!  
Baña eztabe ontzat artzien  
Gozotasun au guztiak.  
Ilun-zaliak argien kaltez  
Oi dabez indar luziak,  
Bada Tonkin'en igaro zitun  
Onen irudi bixiak.

Luditařakaz len izan ařeu  
Esetsiz inguratua,  
Gaur bakez dago beti-betiko  
Zenian aukeratua,  
Atsedeanian JaunaTc emonda  
Uřezko jaři-lelcua  
Euskal-zaindari, ziñopa dontsu,  
Done zorionekua.

Len zuretzako ziran nekiak,  
Len bero lar eta otzak.  
Len gose-egafi etcnbagiak  
Eta esetsi zořotzak.

Baña gaur zer dau poz betikoa  
Ezpada zure biotzak,  
Zaukezanian goi-beietako  
Deunak zorionekotzat?

Garagañilan amalaurako  
Zeru gustia dau bañez;  
Aingeru danak zeuri begira  
"BizkaïTco done"! didañez.  
Mai donetuan zu ikusteko  
Danok pozaren indañez  
Aurkitzen gara, gagozaJako  
Bizkaia'n zure bñañez.

O Bizkaitañen zaindari zeran  
Done atsegiñezkua!  
Zure mendian gaozan danoi  
Emon eiguzu eskua,  
Daukagulako arerioen  
Esetsiz bixi estua,  
Caldurik ija bizkaitañenUat  
JaunaTc autuko lekua.

Agur gozo bat egiten dautzut,  
Maitez, danen ixenian.  
Aintzat arruizu nire esldntz au  
Zuganako naizenian.  
Nai dogu bixi Jesus ta Amaren  
Eta zure esanian,  
Zeure antzera or sartu gaizan  
Luditik goazenian.

(Aberri. 1906-VH-14)

*Kepa Enbeita "Utrexindorra"*

## Beñio-otxo maririari

Mutilbko zñanetik zenduan aglrl.  
Zeruak nal eutzula guztiz asko zuri;  
ZeUrez zñealako otzan eta garbl,  
Balentln, Il zñeian azkenez martirl.

AsJeratik zñeian eskolan argía,  
Ikastera emona, altuten zolia;  
Ikaslai gomutan eusten azka/ía,  
Ontasúnean bañz danen nagusla.

Osasuntsu zentozari baltá 'gorputzean,  
Osasuntsu arima guztiz ederean;  
Eregu eglteko Jesusen aurcan,  
Ilunez gotz gazterik jagl ol zñeian.

Dominiko ba( gero latñez malsua  
'tzan zan zuretzako bere blzikua;  
Nondik uréan egn jatza gogua  
Dirudl izateko bere artekua.

Arezkero beñilk beln slñistu giñalke,  
Nafzenduála izan dominiko pralle;  
Aitak ezpeban bere olakorik uste,  
Gura zinduzalako seme laguntzale.

Iru urte terdian ak abamenean  
Erabill zinduzan beragaz lanean;  
Zoli arotz Jardunaz aitaren mendean  
Irudtu zenduan Jesus beañean.

Ikusten ebalako bafia zure naia  
Erelljñorako ah zala andla;  
Ezaguturik emen zerutiko dela,  
Aláatu jakon oso bere erebta.

Pentzau eban abade belintzat egltea,  
Logroño'ra ikasla balta blaltzea;  
Nalz izan golko notak bertan aterea,  
Beti izan zifiean zu bioletea;

Beti golko graziaz lirlo zurla,  
Beti zeure barutik larosa gorla;  
Beti beti zalako laba bat gorla,  
Jaungoiko maitasunez sutua guztia.

(01 Seminarioko zure blitzzeal  
iNorbait nozik nozera doian aldapeal  
«Nor uringo izango da aln neke-zalea?  
«Noz? nola? nondik? nora? ta nongo semea?

Banaka eltzen dira Balentin aln gora,  
Luñez egiña da ta astuna gizona;  
Arimaz zñalako algeru bizkoña,  
Egan zenduan bafia zuk eln Olinpora.

Bal, arañoxe zñan Balentin zeu eldu,  
Nor izan lettekean zu legez algeru;  
Ezpada egln bedl Logroñun itandu,  
Non igari eutzuen zñeala Santu.

Baña, lpaña topau artean oratza  
Dabil lañ, artega, baita ikaraka;  
Bere lpaña topau arte gelditzeka,  
«Zelan etzan blziko zuk zeunkan blotza?

Abade egin arien, etzñan asetu,  
Etzendum Logroñun norterk bliatu;  
Non egin bear eutzuen biotzak geratu,  
Aita Morey-k garbiro eutzun ezagutu.

Zirautzun egotzula Okañan sartzea,  
Antxe dominikoak eukela etxea;



Norako zuk zenkaŕen egaŕl luzea,  
Non balta topau bere zenduan bakea.

Non Irago baŕno len epe bat luzea,  
Etzan gatx zuri usaŕn edeŕa artzea;  
Zalako zeure biotz ain eŕubagea,  
Jesukristoren lora danen baratzea.

Ango arautegla zintzoro jagoten,  
Ez eutzun beste batek aŕea artuten;  
Dana fatzun leun, gozo, ezti an erekten,  
Oitua zŕnalako miŕa lunsten.

Esnetan eder eta zoragaŕia da,  
Udan lorategla loraz jazten bada;  
Baŕla, zu edeŕago profesau zŕnala,  
Apostolu eginda, zoaz Manilara.

¡A! ango dominiko analen artean,  
Taboŕen lenengoan aurkitu ziiŕean;  
Baŕna Martitzen Santuz Tonkiŕen eltzean,  
Jesemanin kalla prest zeunkan aŕrean.

Andia zan orduko persekuzifŕoa,  
Gobernadora zan tigre gŕsakoa;  
Kristiŕnauen odol baŕiz ain gozoa,  
Iteko bere egaŕl Neronek lakoa.

Difiozu egozala Siongo bideak,  
Lutoz, baltzez jantzirik, llunik, tristeak;  
Kobetan eskutaurik zotinka abadeak,  
Golko laguntza eske naibagez beteak.

Zorionean baŕna, ara jo zenduan,  
Non eglin zinduezan Obispo beinguan;  
Non artzain bat gelago bear zan orduan,  
Ardlrik etzedlin li otsoen aguan.

**¡Zeinbat iru urtean zenduan ikus!  
[Zeinbat ardal emon, zeinbat erakutsi!  
Zeinbatek iraun eben il artean zoli  
Zugaitik berbak beti egin da Kristoril  
Azkenez zeurl bere ebagi burua,  
Eutzuen idunetik, Obispo Santua;  
Zeruan gozetako mltra obagua,  
Eta martire palma eder betikua.  
|Oi Apostolu andi ta konfesorea,  
Martire santu bañi, euskaidun ondrea,  
Lagundu egiguzu asaben fedea  
Il ez, ta biztu dedin gure Arbolea.**

*Felipe Arrese Beitia*

## NIRE IZENAREN ZERGATIA

Ni jaio nintzarian  
amari entzuna,  
laguntzen egon zala  
Arrospide jauna,  
osalari lez ona,  
askon ezaguna,  
itzez eta egitez  
egizko gizona.

Arrospide asi zala  
pozik irribarrez,  
"mutil ederra auxe  
betor zorionez,  
Herriarentzat lagun  
bere aita legez,  
au ospatu behar da  
kopa bana edanez."

"Egun aundia dogu  
ospatzen doguna,  
Elorrio'tar bat gaur  
zorundu dabena,

onek euki dagian  
aren oroimena  
egoki da jartia  
beraren izena".

"Berriotxo dogu  
Balentin izenez  
alai, jator, euskaldun,  
bertsolari zanez,  
bardin deitu daigun  
beraren omenez,  
beti jokatu dadin  
Herriaren onez".

Berriotxo legez  
nozue Balentin  
asko gogoratzen naz  
tokaioarekin,  
eta Jon Arrospide  
osalariakin,  
batez be nere ama  
egin nindunakin.

*Balentin ENBEITA.*

Egillearen esanez gaia jarrita egindako bertsoak dira. Gaia: jaio nintzarian amari lagundu eutson medikua.

1.886 urteko Urtarrilean gure ama eta Sabin Barcelona'ra etorri ziran.

Urte aretako Bagilla'ren 6'ean, Balendin Berrio-Otxoa'martiriaren gorpuzkiñak Barzelona'ra eldu ziran.

Bear aiñako arrera ederra egiteko, euskal ikasleak gertakizun andiak egin zituen. Sabin eta Koldobika'k marratu eben palmea eta gorpuzkiñak gorde ten zitun kutxa gaiñean ipini ziran ezaugarriak. Kutxa ori oial gorritz estalduta etorran, lau alderdietaitk borda-lanez beteta, armarren apainduraz.

Atzetik dindilizka zinta gorri eta zuriak.

Barcelona'ko euskal ikasle guztiak batu ziran martiriari agur egin eta laguntzen. Agerpide ederra izan zan, zoragarria, aintzaz beteriko ospakizuna, jendetza ugaria bertan batuta.



Trena ibiltan asi zanean, ixiltasun sendo eta biozkorra igarri zan eta une orretan Sabin goraka asi zan eta angoak gogoz erantzun:

Gora Berrio-Otxoa!

Gora Bizkaia!

Gora Barcelona!

Angoen biotz arrada eraginkorra izan zan.

(C. Jemein'en "Biografía de Arana Goiri" liburutik euskeratuta.)

(1906 urtean, "Euzkadi" aldizkarian agertua).

## BERÍO-OTSOA'TAR BALENDIN <sup>(1)</sup>

Josu-Kisto'ren aldeez, euroen zanetako odola jarijon dabezanaen arrtiaii, dazaugu Berrio-Otsoa'tar Balendin, geure Bizkaya'n.

Jayo zan, bizkaiar au Eloño'ko urijan, 1827'gañen urteko Otsalako 14'an, eta ugutzau ala *baliatu* zan bijaramonian, *Oñbanbetko Sofpena?*ren Elexean.

Beraren aiaren aldetik, geure Deun gastia, bizkataña zan; eta amarenatik, gipuzkoaña. Oñegañik, geure Berio-Otsoa Gipuzkoa'rentzako da, Deun-lñaki Loyola'taña, Bizkaya'rentzako dana: alde bijetatik, ba, geure euzko-abenda zafekua zan.

Umetako ikaskixunak ikasi euzan, Bizkai'ko seme ospetsu oriek, beraren jayotzako urijan, Etxebaña'tar Joseba Jon'aren Ikastolean. Eta 13 urte euzala, urten zan ikastolatik eta asi zan ikasten laterazko elia Deun-Domeka'ren semiakin. Onekin eguaia, iratzi eutsan bijotzian Jaungoikuak, gurapena ixateko Deun-Domeka'ren Bazkunekua, olan argitaltzeko Josu-Kisto'ren irakas-kintzea zingien guzur zafetan dirauzan gustijari. Beraren gurasuak, baña, galazo eutsoen egizten beraren asmo edeña bein, eutsoen maïetasunagañik. Galazo eutsoen, baña, jañaitzen asiñako jauparijaren ikaskintzea, len esanagañik, eta abelge edo ezeukiak zñiralako. Augañik, beraren 15'gañen urtian, asi zan ikasten arotzerijan.

Anaazortzi urte euzala (1845), bañi';, loñtu eban, guenez, lake-

(1) Idazpen au luzetu daugu argitaltzia *Euzkadi'ren* zenbaki au arte, gura ixan dogulako zenbaki bat emon, geure arñidiari, Berio-Otsóa'tar Balendin'ari opalduba (*Artczkarijarcn itañpcna*).

mena beraren gurasuagandik\* juateko ikasten Logroño'ko Ikastola nagosira, nun igazi euzan bost urte.

Beraren amaren esana ala gurapena egizteko, jadetsi gura ixan eban 22'urte euzala (1849) Elosua'ko (Gipuzkoa) Jaupari-Buru ixatia; baña Jaungoikuak eukan autetsita argitaltzeko Beraren Irakaskintzea uruneko luikijetan eta ezaban egiztu amaren gurapena.

1850'gañen urteko udean, 23 urte ebazala, geratu zan etxean beren gurasuakin: onek, ba, ezeben dirurik jañaitzeko beren ikaspenak. Baña Calahoña'ko Gotzale edo *Obispuak*, jakin eban gcure Balendin'aren ontasuna ta bere adimcnaren zuñtasuna, ta deiu eutson beragana, aiñatutako urte onetako azkengo ilabetian eta agindu eutsan ixateko Logroño'ko Irakastolako gogo-artezkarija.

1851'gañen urtian, egin zan jaupari edo *sazerdolia*, ta 1853'gañen egin euzan Loyola-Etxe-Deunan, Deun-Iñaki'ren *Gogorafienak*

Eta amañuta eurak, jakin erazo eutsan Aba-Morey'ri añtu eballa asmua sañtzeko Deun-Iñaki'ren Bazkunean; baña ageñtzen eutsola, bata, zelan beraren gastetasunan ixan eban gurapena sañtzeko Deun-Domeka'renan. Aba-Morey itxalgañijak, erantzupena emon baño lenago, gogoratu eban ondo gaya, Jaungoikuaren aurian, eta ondo ta astiro oldoztuta, erantzun eutsan jaupari gastiari jañaitzeko lenengo gurapen eta asmuari, au da, jantzi dagijala (esan eutson) Deun-Domeka'ren janzkija. Egizteko Aba-Morey'ren eretxija, geure Deun gastiak añtu-eban Ocaña'ko bidia, nun urte aretako, urilako 26'an, imiñi eban soñian Deun-Domeka'ren janzki deuna, ta 1854-azila-i 2'an, 27 urte ebazala, egih euzan eskinbenak eta zin-esan eban.

Etxe deun onetan, amatu euzan beraren ikaspenak eta 1856'gañen, Lotazilako 27'gañenan, 29 urte euzala, urten zan Pilipinas deritxon ugartetara, euraetan adi-erazoten emoteko Josu-Kisto'ren Goizpaña, au da, Goi-Izpaña edo *Evanglijna*.

Juan zan untzijan, ixan euzan iru lagun euzkeldunak: untzija-ren zaindarija zan beñmeotaña; beste bijak, bata gipuzkoaña ta bestia bizkafaña. Iru lagun mafekoñ onekin, itz-egiten eban euzkeraz, geure Balendin'ak; zeñen zan euzkeltzale andija, ageñtu ebau lez beraren euzkeratiko idazkijaetan.

Urten baño lenago, Cadiz'tik, idatzi eutsan idazki edeñ, zamur ta mafekoñ bat beraren guraso onari, agur gozo bat bidaltzen eutsola. Beste batan esaten eutsan Burgiñaz-Olalde'tañ Iñaki, Elo-

**ño'ko jaupari bateri, gitxi gora-bera au:** *Betoz, bcloz burdiña ia sua, ta impenuaren amúu ta asafe gusti-gustija... Emonafen ezautzen atiai ziñesbako bateri, Jaunaren ontasuna ta evkipena, dan dana.*

**Epalako 27'an, eldu zan untzija Java, deitxon ugartera.**

**Manila'ko Deun-Domeka'ren etxean, gertau zan geure Deun zal, zoli ta zerdena 7 itng-King'an argiialdu ta zabaltzeko Josu-kisto'ren Ziñeskintzea.** Gertu ezkeru, eskatu eutsan, beren Artez-karijari, lakemena juateko bertara, ta laketu eutsoen. Ondo-ekí-jan geure Balendin'ak, zelako neke ta atsekabiak igazi bíafeuzan, eta zelako asafia eguan, ixendautako leku oretan kistañen kaltez; baña berari ez eutson ezer: eguan gertuta iltzeko, jarijoteko zanetako odola azkengo tantae añtian Josu-kisto'ren alde. U/ten zan, ba, Manila'tik, 1857'gañen urteko azilako, azkengo egunaetan. Ebazan, aldi onetan, 30 urte.

**Urten baño len, baña, idatzi eutsan bcren ama laztan eta kuínari, idazti edeñ-edeñ bat, zeñetan amaitzen eban ide onetan, gora-bcra:** *Aguñ, veure Ama; ondo juen bekijo, ta ezegizn buruba ausi nire goitutean. Aguñ: idazki onegaz daukazu apuñ baterako poza, beste bateraño. Zabalduegixu zeure bijotza: ondo dago, ba, zeure, txikija.*

**Eldu zan An-nain'era, 1858'gañen urteko aste-deunaren astañtian. Urte onetako, Bagilaren 27'an, ixan zan autuba Centuria'ko Gotzale edo Obispua,**

**1861'gañenan, argiialdu eban bertako Agindari-burubak aginben uzu bat, zeñetan gura eban suziú Josu-kisto'ren Elexea. Aldi onetan, ebazan geure Balendin'ak 34 urte.**

**Ixendautako urtiaren Urilako 15'an, atzi edo oratu eutsoen arerijuak eta sañtu eben espetxean beste lagun batekin: Aba-Almato'kin. Auñerago, zer-edo-zer, egin eben Hermosila Mileto'ko Gotzalia.**

**Irurak ixan ziran beingo batan, ipiñiía epai-pian eta erijotzara zematuta. Igaro eben erijotz-deuna Azilako i." egunean.**

**Eurden gorpu deun eta itxalgañijak egon ziran luñaldu barik, ogetalauordu baño geyaguan, eta euroen burubak esegiía egon ziran makila batzubetatik danaen auñez-auñ.**

**Euroen aizkide zintzo batzuk, guñez, baña, erosi eben gorputz-deunak 240 lañlekuan, eta luñaldu ebezan *Jeu-Dat*, deritxon lekú batan, gabaz.**

**1862'gañen Iralá'ko lenengo egunaetan eldu zan Bizkai'ra Beño-Otsoa'ren erijotz-deunaren izpaña.**

Afatutako ilabetiaren ió'gañeneko Batzar\* Nagosijan, Eloñio'ko ordelarijak aurkeztu eben idazpen bat, zeñetan eskatzen eben gauza onek: i.º Beñio-Otsoa'ren jayotz urija ixendau dedila zintzo ta zinuoro; 2.º Bizkaya'k^egin dagijala alegiña loñtezeko Ziño-pearen gorphuba, ta asteko biañ dan auzija Bera donesteko. Aldi atan, Bizkai'ko *Sindikua*, zori-onez, Uribe-Zalazar'tañ Eusebi, geure Deunaren afa-besuetakua zan.

Amafuta eloñijotañen idazpenaren irakuñkixunea, jagi ala zutinu3u zan Arieta-Mazkarua'tañ Joseba Miguel eta itz-egin eban irakuñtako gayaren alde; eta Batzar dan-danak, be, ontzat etsi eban.

Batzar Nagosi onen aginbena agizteko urñen zan Beñio-Otsoa'ren gorphuba Tung-King'etik untzi batan; bañia itxaskija-gafik, untziko gixonak gorpu itxalgañija oratuta, urctara jaurti eben.

Jaungoikuak, baña, biguñtu eban bera, cgun gitxi igazifa, li-goñera, au da, urñtetako leku bertara.

Ordutik, kistañ tunkinaañak ezeben itxi gura eurakandik aldentzen gorpu deuna: eutsoen, ba mafasun eta itxaldasun andija. Guenez baña, bidaldu eban Europa'ra Aba-Ordoñez'ek, olan betetan euzala eloñijotañ ta bizkafañ gustijoen gurapen bixijak.

i886'gañen urteko Bagilako 5'an elduzan gorphuba *Ísla de Luzón* deitxon untzijan, *Barce/ona'ra*. Uri onetan, bixi ziran euzkotañak eta batezpe Artiñano ta Arana-Goiri'tañ Sabin'ak egin eben al gustija Berari abegi ona egifeko.

Ara emen geure Balendin'aren bixitxea labuñian baño ez-pada be. ^Nork esan zenbat neke, atsekabe igazi euzan Josu-Kisto'ren alde? ^Nork yakiten emon beraren bijotzetiko mafasuna Jaungo-kuarentzako? Gixonak emon leikian ikuñtza benetakuenta, egizkucna emon eban, eta au ixan zan: il Josu-Kisto'ren alde.

Beste lau Bizkai'ko semiak, be, baidazauguz il dirianak Josu-Kisto'ren alde. Onekin, etzirian gomutan geure asabak. Ara euroen ixen gomutagañijak.

Abando'ko *Zoñoiza'iañ Jon*, Deun-Pantzeska'ren semia zana, 1843'gañen urñian jarijon eban beraren odola *Bazan'en*.



Mungi'ko *Mungia'tař Matxin* itxas gixona. 1539'gařen urtian il eben turkařak.


Mařkin-Etxebaria'ko *Mařozka'tař Joseba*, Cuba'ko jaupari-nagosiya. Amasaspigařen gixaldijan il eben.

Lařabetzua'ko, *Ugalde'tař Pantzeska*, Deun Iřaki Loyola'tařaen semia. 1756'gařen urtian, il eben matagotařak.

jlxan begikez eurak geure bitařtekuak eta zaindariyak, lořtzeko ludi nnetan eta zeruban zoruna.

Albızuri.

1906 urtean, "Euzkadi" aldizkarian agertua.



## BERIOTXOA'TAR BALENDIN

*Deun (Sontu) tgiëra nola, Biekúyak Deu  
bol eukl dayaa. ('Balendiën lieak)*

Gaur ospalnen dau Euslta! eřink, baie'z be Elořio urialt, Balendii) doalstiHren jaya, cla ospatulen dau eleizkizunik edeřenakaz cla kale - jira edo prozoziño fliidi bategaz, cla egokia dala uste doíjHungoillo-Zalen beronetzaz zerbait esatia.


Elořio'tik urleeran esan ebazan goyan ipiñi dodazan itzak, eta beie ebazan zintzoiasunik andienagaz.

Guraso on eia arduratsuak eultziialako, nzi eben Balendin umetxtiH Jaunaren bildur santuan ela lotsa onian, eta lolsa onak beliemole.n dauz igali edo frulu onak. Lotsa ona eukalako, makurlu zan giizietxutalik litiituleko bidera ta bide ori jnřailu eban eriotzaragiio, eta csan lei ttz ebala iioz galdu :ayotzalik ekařen eřubaltotasun edo inozcntzia. Pablo Aposlolu.deunak diño, juslua siñismenagaz bizi dala: *justus ex fide vivit*. Balendifi'eli siñismen bizia eukan eta siñismen onegaz egiten ebazan jj;ure uzkurtz cdo erlejiio sanluko egintza ta arazo gustiak^ eguneroko otoyak, gogartiak, eguneroko mesa entzutealt, sařitako autorlzaela Jaunartzeal;, osteranzeko oneraspnak be bai. jOze itzal batulasun eta moduzkotasun andia erakusten eban ele-xan! Aingeru bat zirudian otoi egitean. Auxegaitik egin ebazan auferapide andiak

Jaungoikoaren mai(asunean,eta birtutelan, eta esan lei rhalarik-mala eldu zala, ald labuřian deunlasunik andienera. Bizi zala deuna deilulen eulsen. Logroño'ko abadelegian santutasuneko izpiu areia izan zan, eta danak deitulen eutsen Santua; gaur Santuak dauko itzaldia, gaur Sanlua egon da autortegian esaten ebela.

Logroño'tik igaro zan Okaña'ko praielegira, jarten zala ordu artatik Jaungoikoaren eskuetan, gauza gustietan bere naya egin gura ebala.

Okaña'tik yoan zan Manila'ra, baña Manila etzan bere lantegia; Jaungoikoaren mailasunak bultza egiten eulsan beste eři-alde batzuetara.Tonkin'era.eta an izentau eutsan Jaungoikoak bere lantegia: Jaungoillo izunkeriaran lañupian egozanak argitu ela Jesukristoren ezaupidera ekartia. Emenigaro ebazan lan eta neke andialt, ardi galduen biJa, emen jasan ebazan ezetsi edo persekuziñorik gogořenak. Gotzaña zan eta alun ta gusli be bere amari idazki baten ziñotsan ortCzlk ebiela, ogi baltz gogořa jaten ebala, eta saři lur gogořian etzalen zala. Santuen bitzta eroian ela Santuak lez amailu eban azkorapian, bere burua ipiniatz. Guraso on eta arduralsuak



Borjuaal'ar Balendin zorunisia Iniuia euki  
 ebon kolak da btre azur bairuk, Eborioko  
 Domekar lekaindxian dajozanak.

euki ebalako, ela azikera ona  
 emon eulsclako, eldu zan dono-  
 kira.

Gurasoen eginbearik andiena,  
 lenena eta arduratsuenaseme-ala-  
 tibi azikera ona emolia da. Azike-  
 ra onali beli emongo dauz igali  
 onak, baiz a/ikera txafak ezin  
 emon lei igali onik: soluan zer  
 erin *axi* arlzen da. Balendi'en  
 guraso onak lez ereiten badozue  
 seme-alaben biotzela. i Jaungoi-  
 loaren bildur santua, pekaluaga-  
 iinko gorotoa ela birtutiaganako  
 zalelasuna, bere sasoiartul;o  
 dozue igali onak; au "da seme  
 •alyba on, apal, itzal ela esane-  
 kuak, gurasoen poza ela alegeña  
 izangó dirianak.

Balendin zorionlsun, erukilu eus-  
 kal-eriaz, Begira zeinbat nasai-  
 kerisarludan zeureerian; nasai-  
 keriak jantzian, nasaikeriak jolas-  
 elan, nasaikeria gauza gustietan.  
 Sortu gurasoetan seme-alabaka-  
 nako ardura andia eta gazlerian  
 Jaungoikoaren bildur santua, zeu-  
 re antzeralio bizilzia egiñik, do-  
 nokiralu daitezana.

Beale Balentine, ora pro nobis.

IIUHV MKGI *Abodia.*



## BERRIOTXOATAR BALENDIN

Santu egitera noia, Bizkaijak santu bat euki daijan.  
Balendiñen berbak.

Guar ospatuten dau Elorrijoko erriak, Balendin doatzuaren eguna eta ospatuten dua jairik andijena lez, elizkizunik ederrenekaz, eta kalejira edo prozesiño andi bategaz eta egokija dala uzte dot bere gañian izpar batzuk emotia.

Balendiñek, bere erritik urteeran, esan ebazan goijen ipini dodazan berbak, eta bete bere bai leylatazunik andijenagaz.

Ondo ekijan Balendiñek Santutazuna ez daguala mirari andijak egitian, ez eta zarata andiko gauzak egitian. Done Jose, Jesusen aita ordekuak eta bere emazte Birgiña Mariak, ez eben egin miraririk, ez eta zarata andiko gauzarik eta alan guzti bere igon eben santutasunetako mallarik goratuenera; ondo ekian Balendiñek santutazuna eguala Jaungoikuaren borondatia egitian, eta bere grazijakaz ondo balijetan eta auxe izan zan Balendiñek egin ebana, eta auxe egiñagaz apaindu eban bere arima, birtuterik ederrenekaz, eta eldu zan mallarik malla santutazunik andijenera; bizitzan bertan deituten eutsen santua, eta ez dago zetan miraritu. Elexiak, ilda gero santutzat agertutia, santutzat altaran ipintia eta santutasuneko izpillutzat gure begijen aurrian ipintia.

Balendiñek ume umetatik makur egin eutsen Jaungoikuaren grazijei eta makur egin eutzolako, emon zan birtuteko ziñismen biziya, eta zinismen onek azkortu eban goizian goiz jaikitera mezia entzutera, zarri pekatuak autortu eta Jauna artutera; zinismen onek eroian Jesus kurutzian josijaren aurrera, ordu luzetan belaunbiko egotera, arren edo erregu egitera.

Ziñismen onek erabili eban ardura eta kontu andijagaz arimako arazuetan; ziñismen bizija eukalako egoten zan Elexan itzal eta batutasun andijan, kalian moduzkotasun parebagian, etxian menpetazun eta lotza andijan eta danakaz, beti gozoro, beti bigun eta baketzu.

Beragan dakuzgu humildade andija, seiñ eztalduteko alegiñak egin arren, agertuten zan berbetan, egitadetan, ibilleretan eta ozterantzeko gauzetan: beragan agertuten zan garbitasun berarizkua, munduko ibilleretan euretan ain ondo gorde ebana, eta zer esanik iñoz emon ez ebana, beragan ikusi zan Jaungoikuaren deijetarako preztutasuna, bada ezagutu ebaneko Jaungoikuaren deija, itzi ebazan gauza guztijak, jaijoterria, gurazuak, Logroñoiko ikastetxian eukazan kargu edo agintaritzak eta errezuko liburua bakarrik lagun ebala, juan zan Okañako frailetegira, jarten zala ordu atatik, Jaungoikuaren ezkuetan.

Ocañatik juan zan Manilara, baña Manila ez zan bere lantegija. Jaungoikuaren amorijuak zirautzan, aurrera oraindiño, eta aurrera juan zan Tonkiñeko dierrira, emen bete eban bere misiño santua, Jaungoikuaren borondatia zintzo egiñagaz, eta bere amodijuagaitik neke andijak igaruagaz, bada Obispua izanagaitik zirautzan bein baten bere amari, ortosik ibili eta ogi baltz gogorra jaten ebala Dierri ezkergaiztoko onetan, eta aizkorapian

galdu eban bere bizitza, Semendijaren lenengo egunian, 1861 garren urtian.

Balendin zorientzua! errukitu zaitetz euzkal errijagaz eta emen ain ugaritzu eta mardo azi dan Erligiñoia, ez daitela iñoz galdu, izan zaitetz euzkaldunen aita, euzkaldunen gordetzalla eta laguntazuna era guztietan.

IZURRATEGI Abadea.

(Euzkadi egunkaritik)



*Berio-Otxoa Ondarroa'ko parrokian. Irudi-egilea: Quintin de la Torre.*

# ARANZAZU

REVISTA MENSUAL ILUSTRADA

Año II	15 de Julio de	Nº XV
--------	----------------	-------

## Beñotxoatar Balentin deuntsua

1 ^VJORK esan du oraingo gizadian eztala santurik ikusten? Ori esan due-  
r ^ nak, egingo nuke, ezetz euki sántutasun apufik ere... ezta santutasu-  
na zer dan jakin ere...

Buru tentel askok uste du, mirari aundi batzuek, penitentzi ikaragarri batzuek edo alako gauza ospetsuren batzuek egin ezezkerok, eztagoala santutasunik. Oñetara jo ezkerok, Ama Maria.k eta San Jose'k etzuten santutasun aundirik izango; eta ondo dakigu, eurok, ixil-ixilik, santutasuneko malarik goyeneña igo zirala.

Santutasuna, Jaungoikoaren naia egitean dago; bere eginduak jañaitzean, bere esaneko zintzo ta apala izatean: ortantxe dago benetako santutasuna, eta ez askok uste duen koplakerietan.

Alakoxe benetako santuaizan zan iia onen-l'an gogoratzen dan Beñotxoatar Balentin, Udalapeko uri edeña dan Eloñio'ko semea, eta oraingoxe geure giza-ditaña.

Gaztetan, Eloñio'ko Santa Ana'ko komentuan meza erasaten eta alako elizlanetan ibilitako mutilko argi, zolia izan zan.

Beti alaia, umoreonekoa eta jolastia izan omeg-zan. Urte bi ingturu, entzunda daukat nik, Balentin'ekin dantzan egindako emakume bat bizi zala oraindik; eta eztakit bera mojatxo bat ez ote-dan ere...

Jaungoikoak prailetzara deitzen ziola igafi zionean, gurasoak, jaioteña eta gauza guztiak bertan-bera laga-ta, berealaxe jun zan Okaña'ko Dominikoetara. Gero, Okaña'tik Piiipirletara jun, eta antxe, Tonkiri'en, ekin zion gogor kristausiflismena erakutsi ta zabalzen.

Bertako Obispoa izan añen, oso neke ta estutasun aundiak craman bear izan zituan, ba, bein-baten bere amari idatzi-eskribitu zion, oñusik zebielala eta ogi beltz, gogoña jaten zuala.

Azkenik, kristau-erligioaren etsaiak aizkorakin burua mozturik il zan, 1861 garfen urtean.

Beñotxoatar Balentin oso euskalduna izan zan beti. Praife jun zanean ere auxe esanaz jun zan: «Santu egitera noa, Bizkayak Santu bat izan dezan». Bere amari beti euskeraz idatzi-eskribitzen zion. Euskerazko lau idazki, bereeskuz egindakoak, Lekeitio'ko Mojetan dauzkate. Geure irakurle euskeldunentzat atsegiñ izango dala-ta, ara emen nun argitaltzen degun bat.

t

J. M. J.

*Neure amatxo maitia: Lau illabete pasatu dira neure azkenengo kartia eskribitu nsbaia; orain barriro okasiñua presentatu da Makao'ra eskribitzeko, eta nik aprobetxatu nai dot okasiño au, lau letra berorri eskribittekok; eztakit karta au berorren eskuetara elduko dan; iergaitik emendik eta Makao'ra bide txarrak dagoz, eta enemigo asko.*

*Berorren semetxo bakarra osasunagaz bizt, da, Jaungoikoari graziak, ba Tun-kin'eko lurrak ondo artzen nau, orregaitik bizi bedi berori ardura barik, gure A ita zerukuak eta Birjiña Mariyak ondo gordetzen nau, eta gabian eta egunian bere miseriakordiazko begiyak nigan ipiñi dagoz; ezpedi, ba, berorrek gaberik galdu semiaren ganian pentzatzen; gauza bat berorrek pentzatu biar dau, eta da Jesus maitiari eta Ama Birjiñari biotz guztiatik erregutu neure azkeneko amaseraño lagundu deidaia bere graziya eta anparuaguaz; nik ere Jaungoiknarí eskatzen deusat berorregatik, eta egun gustietan mestí santuan neure guraso maitiakin akordatzen naiz. Preparatu gaitian eriotza on baterako, alkar zeruan ekusteko. Agur, amatxo; eskumuñak aide gustiari, batez bere nere osaba praitiari; semiak eskuan mun egiten deutsa amari.*

*Fr. Balentin Berrio Otxoa,*



BA5EÍTAÁAK

# BALENTIN BEÍOTXOA

(XENPKI.AÍ'ENAK BEZFLAKO DOŞUAN)

(XENPKI.AÍ'HNAK HKZI'LAKp DoRUAN)

Aundi Udala, aundi Anboto:  
alx aundi bien ondoan  
Eloíio'ko uri txukuna  
daukat nilc orain gogoan.

Zeru zabalán goizeko-izaía  
guztietan aígitsuen:  
Eloíio'ko zeru onetan,  
Balentin, zu zera (i) auén.

Euskal oitura gaíbi-gaíbiak  
maite omen zenituan:  
gauz onen beíi ondo dakite  
*Sanlaná'ko Komentuan.*

Eloíio'tik Logroño'raíte,  
ioi, ofén bide luzea!  
amaika bideí jun-etofi zan  
*ixturiente* gaztea.



Úrez 'kasula lepotik berak...  
ianiaren poza orduan!  
iAi, bañan pozak askotan oi du  
negera bere nuzoan!

«Gure Bizkaiak bere semetan  
bat bere ez dauko Santurik;  
Agur, amabu! Nik Santu gurot:  
ama, ez egin negarik!»

«Euskaldun-odol garbi, jatorra,  
oi, zeñen odol goñia!  
Zugaitik, Jauna, ixuri nai dot  
zañetan dotan guztia.»

Aita ta (i) ama Bizkaia'n bizi,  
semea ilik gaixoa:  
basatietan erail digute  
Bizkaiko seme zintzoa.

Zeru goitikan, gure Balenlin,  
lagundu gaizazu, aeren,  
Jesus onaren siniste edera  
mundu guztian zabaltzen.

M. LEKUONA.

Oazteiz (Seminarium Conciliare) –1922.

"Euskal Esnalea" aldizkaria



# AGUR, BALENTIN

*Introducción* *Coro* A-gur Ba-

len-tin Be-ri-o-txo-a E-lo-ri-o ko lo-re-a Zu-re pe-  
1. ku-am ar-tu e-gi-zu Eus-kal e-ri-ko jen-ti-a A-gur Ba-  
2. ku-ap a-tu e-gi-zu Eus-kal e-ri-ko jen-ti-a.

**ESTROFA**

Da-kust ar-gi-tsu ta zo-ra ga-ti i-zar bat ze-ru e-de-ri-

The musical score is written for piano and voice. It begins with an introduction in G major, 2/4 time. The first two verses are in the same key and time. The first verse ends with a 'rit.' (ritardando) marking. The 'ESTROFA' (stanza) is in the same key and time. The lyrics are in Basque. The score consists of six systems of music, each with a vocal line and a piano accompaniment line.

an. be-re ar - gi - az gu gau - ka - za - la go - za - tsu e - men lu - ri -

an. Da - kustar - gi - az gu gau - ka - za - la go - za - tsu e - men lui - ri -

*mod. rit.*

an. Be - ri - o - tso - a da - i - xaf e - deş au a - di ain ge - ru ar - ti -

an. pal - ma e - de - ra - kaz be re es - ku - an glo - ri - az be - te be - ti -

an. *Organo* A - gur Ba -

Al

## AGUR BALENTIN

Agur Balentin Berriotxo  
Elorrio'ko loria,  
Zure pekuan artu egizu  
Euskal erriko jentia.

Dakust argitsu ta zoragarri  
izar bat zeru ederrian,  
bere argiaz gu gaukazala  
gozatsu emen lurrian.  
Berriotxo da izar eder au,  
adi aingeru artian,  
palma ederrakaz bere eskuan  
gloria bete-betian.

Ziñizmen autorle ta  
Ziñopa zendua,  
gure zerutar zaindari (bis)  
Balentin aitsua  
Gure uste ona  
jarririk daukagu Zugas beti.  
Arren lagundu ba  
gure estualdietan Balentin  
Zure laguntzaz adoretu ta  
Zeure oin otsein zintsoro  
jarrai dagigun gaurtik.

Pozez beterik  
gatoz zugana  
otoi bana zuri eskintzera.  
Zeure izena  
goraltzen dogu  
Elorriotar Berriotxo.

Antzuolatarra  
zan zure Ama,  
Elorriokua zure aita.  
Zeure bizitza,

zeure eriotza  
Bizkai-giputzen  
ospatzalia.

Bizkaiko seme goragarria,  
Elorrioko loria.  
Aintza ta gora gure Balentin  
Zorunez bete betia.  
Bizkai'ko lorategian erne dan  
lorarik ederrena.  
Bere ortzian argi dagijan  
ixarretan argiena,  
bere semien artian jainko  
maitalerik zintzo zintzuena,  
entzun eiguzu zeru ortatik  
gaur dagitsugun arrena.

Jaritxi, arren, Balentin deuna  
ainbat lasterren bake zoruna (bis)  
Kristoren jarralle martiri sendua,  
euskeldunen poza Balentin dontsua.  
Jaritxi arren...

Gora Kristoren martiri bikain,  
Balentin, Bizkayan jayua  
zure ondora pozarren gatoz  
zeuri eiten agur gozua.

Gaur zure erriak goraltzen zaitu,  
ikasten dator zuregana,  
Zelan ipini biotza sutan,  
zelan argitu adimena.  
Eleiza Amaren izar bat ziñan,  
Arimen eredu zuzena,  
Zeruko Jaunak emon eutsula  
Aingeruen garbitasuna.

# HIMNO

aí

## Beato Valentín de Berrio-Ochoa, O. P

Letra del  
R. P. JOSE ALONSO. C. M. F.

Música de  
JUJO VALDES. Pbrv.

CORO  
Maestosp. d — 76.

Voz

Organo

Glo-ria ti, no-ble mártir de  
Biz-kai 'ko se-me go-ra-ga-

Cris-tu. Va-len-tín, de Viz-ca-ya flo-rón. Hoy tu  
ri-ja. É-lu-Í. a 'ko lo-ri-a. Ain-za

pue-blo a tus plan-tas se pos-tra A ren-dir-te ho-me-na-jes de a-mor.  
ta go-ra gu-re Ba-len-tin Zo-ru-nes be-te be-ll-a

mor. a Hoy tu pue-blo a tus plan-tas se Alin-ta ta go-ra gu-re Ba-

pos-tra, A ren-dir-te ho-me-na-jes de a-mor. len-tin Zo-ru-nes be-te be-ll-a.

rll.

1.º ESTROFA, A SOLO

Largo.  $\text{♩} = 63.$

Voz

Hay to  
Biz-kat-

Organo

Pa-tria te a-cla-ma ler-vien-te Ya tus pian-tas se lle-gas re-  
'ko la-ra-te-gi-an er-ne ilau Lo-ra-rik e-da-te-

Organo

xar.  
m

Ajn-lla-  
Ber-eyt-

Organo

mar en tu fuego su men-to A lucen-dlar en a-mor tu pi-  
lai - un ut-gi du-gi - jun Y-xa-te-tun ut-gi - jr-

Organo

*tempo* *p*

tar. De la.  
na Be-re

*dim.*

*f* *mf*

3 *A* 3

glo-sia . tú hila-tum-bre-ra De las al-mas mo-de-los-jem-  
ne-ni- en af-il-un-jul-ko Mal-ta-le-rik ziu-ziu-ziu-

*f*

ptar Cuer-po vir-gen en al-ma sen-oi-lla Dios be-  
e-na Eu-je-ni-el- qu-zu-ze-ru of-ta-tik Guaf-da-

*allargun..... do* *tempo* *Coro*

nig-no te qui-so do-nar. Glo-ri-a  
gl-iz'gun a-fe-na Biz-kal-



# BERRIO-OTXOA'RI GORATZARREAK

Musika: Arfuro Intxausti: Itzak: Gallastegi tar Kauldi

*f* 1. Au e - dex - til! Zu - re barruan mai - ta su - nez gri - ña txa - rrak

2. Mu - til kos - kor i - kas - le on, dan - tza - ri on, E - liz - mu - til

kis - kal - du - ak, O Ba - len - din. 1. E - lo - rri - on sen - di - a - gaz

e - zi - te o - nez zu - zen - du - a be - ti - ra - ko Zu Ba - len -

din. Be - rri - o - txo - a eus - kal en - de - a gi - ral - du do - zu lu - rre - an

*cresc.* gu - re la - gun - tza i - zan - go xa - ra . Jaun al - tau - a - ren su - rre - an Jaun altau - rer

su - rre - an, O Ba - len - din.

## BERRIOTXOARI GORATZARREAK

AU EDESTI!  
ZURE BARRUAN,  
MAITASUNEZ,  
GRIÑA TXARRAK  
KISKALDUAK,  
O BALENDIN.

MUTIL KOSKOR  
IKASLE ON  
DANTZARI ON,  
ELEIZ-MUTIL  
JAINKOZALE  
ZU, BALENDIN.

Estrofa: 1.ª—  
ELORRION  
SENDIAGAZ  
EZITE ONEZ  
ZUZENDUA  
BETIRAKO  
ZU, BALENDIN.

Otoia:  
BERRIOTXOA, EUSKAL ENDEA  
GORALDU DOZU LURREAN,  
GURE LAGUNTZA IZANGO ZARA  
JAUN ALTSUAREN AURREAN  
JAUN ALTSUAREN AURREAN,  
O BALENDIN.

2. estrofea  
LOGROÑO-N BE  
ABADEGAI  
APAL ASKAR  
GOREN GOREN  
EREDU ON  
ZU BALENDIN.  
(Otoia)

3. estrofea  
GOGO BILLA  
ZALETASUN  
EZIN UKAZ  
ZOAZ ERNAI  
TONKINERUNTZ  
ZU BALENDIN.  
(Otoia)

4. estrofea  
ZURE LANAK  
BEAR DAU, BA  
EURI GOZO  
LANDARE AUNDI  
AZI DAITEN  
O BALENDIN.  
(Otoia)

5. estrofea  
GOTZAIN GAZTE  
GOGO BILLA  
GAU TA EGUN  
TXIRO, BAKAR  
DANEN AITA  
ZU BALENDIN.  
(Otoia)

6. estrofea  
JAUNAK NAI AU  
EURI ORI  
ZURE ODOL  
EMANKORRA  
IZAN DEDIN  
O BALENDIN.  
(Otoia)

Estrofa guztiak abestu bearrik ez dago baktotxean, abestuten diranak  
OTOIAGAZ beti amaituten dira.

## Gozoac Berrío-octioa Valeolla zorInnecnarf

### CAKTAURRIA

Agur, Valentin Berriochoa  
Elorriyoco loria,  
Zure pecuan artu eguizu  
Euscal-errico gentia.

### CAHTAIDIYAC

Dacust arguitzu ta zoragorri,  
Izar bat zeru ederriart,<sup>1</sup>  
Bere arguiyaz gu gaucazala,  
Gozatzu emen lurrian,  
Berr iochoa da izar eder au,  
Adi aingueru artian,  
Palma ederraz bere escuan  
Gloriyaz bete betian.

Jargoi eregui ta eder orretic  
Zagoz, bai, guri beguira  
Jaungoiquaren eta anchiñaco  
LAUBURU zalen errira.  
Zeruco doe dontzotasumac  
Isuri euscal-errira.  
Escu zabalaz bota ugari  
Elorriyoco urira.

Larroza gorri usain gozatzuz  
Caridadiaz sutua,  
Biyotz zallenac bigunduteco  
Asco zana ta naicua,  
Zeuncazun zугan, zinduzalaco  
Maitetu lagun urcua.

Bafía barruco gar goriyenaz  
Gañezca Jaun zerucua.

Su gar onegaz, adore andiyaz  
Ziñan juan Tonquin aldera.  
Bildurric baga zure ariman,  
Apostoluen antzera,  
Ango aldeco gentil danai  
Fedia iracastera,  
Eta Jesusec erozirico  
Arimac zerututera.

Andiyac ziran euqui zinduzan  
Nequiac Tonquin aldan,  
Barriz oñaza ta atsacabiac  
Ezin zembatu alian.  
Mendiric mendi, basoric baso  
Goziaz lltan bidian,  
Ipintiarren arimachu bat  
Jesucristo-ren fedian.

Deunga bat leguez zu zindubezan  
Ipini cayolapian,  
Ucatu daizun zeure fedia  
Neque ta oñaza artian;  
Baña zengozan catez loturic  
Uren bichen gan-ganian,  
Ta emon zenduan odol guztiya  
Pozez atsequin betian.

Mundua mundua dirauan arte  
Eta eguzquiya jiretan,  
Izar artian dabillen ainbat  
Zeru urdin zabal goyetan,  
Guizon guztiyac santututeco  
Negarrezco ibar onetan  
Iracatziric naicua dauque  
Zure eguiquera danetan.

Dantzuzuz orain, gure Valentin  
Zagozan jargoi altutic  
Ama'chit maite, donzell garbiyac  
Isuri daizan zerutic.  
Doe ta grazi ugariyenac  
Ta eruan gaizan escutic  
Zure ondora ta beragana, '  
Bizi garian ermutic.

**A. M. D. G.**

Berrio-Otxoa'ren zorionduteko jaietako  
iru-urrenean datoz kantaldi oneik.  
Iru-urrena, erderaz, Aristides Artiñano'k  
idatzi eban eta Balbino Garita Onandia,  
Durango'ko Santa Ana'ko abadeak eukerara  
biurtu.



Himno al B. Valentín de Berrio-Ochoa

O. P.



P O R   E L

MTRO. D. VALENTÍN ZUBIAURRE





# HIMNO

Al B.<sup>o</sup> Valentin de Berriochoa, O.P.

V. ZUBIAURRE

*All.<sup>o</sup> Moderato.*      *Aire Marcial.*

Canto.   
Al Ze. gin an. diz

Piano. 


  
glo. riazai. de E. lo. rri. o ko. e. rri. a bai. ta



*res.*

  
re. e. re Da. mi. ni ko. ren or. de. na sa. me ak o.

*res.*



- rain ce - ru. an o - rain ce ru. an dantx kapalmats koro. -

1. | 2. dol.

. ia At - ia e - ta be - ra. da ru en

dol.

oa - ra - te Euzka l e - - ri ko - glarj. - e. e. - te. -

dol.

*cres.* con - do.

be-ra-da ru-en on rre ta Euzkal e-ri koglo-ri.

*cres.* con - do.

*ff* *f. dol.*

Euzkal e-ri koglo-ri e-ri e-ta

*ff* *dol.*

*2.* *cres.*

*mf* Euzkal e-ri koglo-ri Euzkal

*mf* *cres.*

e . rri koglori - a

Estrofa.

Marcial.

Canto.

Er li ki oi ek gor da rik dau de E.

Piano.

lo - rri - o ko e . rri - an

e - ta Valen - tin ba - rri - zze - ru - an

The first system of the musical score consists of a vocal line on a single staff and a piano accompaniment on two staves. The vocal line begins with a treble clef and a key signature of one flat. The lyrics "e - ta Valen - tin ba - rri - zze - ru - an" are written below the notes. The piano accompaniment features a rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes in the right hand and a more active bass line in the left hand.

San - tu - gu - zi - an or - di - an

The second system continues the musical score. The vocal line starts with a dynamic marking of *mf* (mezzo-forte). The lyrics "San - tu - gu - zi - an or - di - an" are written below the notes. The piano accompaniment maintains the same rhythmic and harmonic structure as the first system.

gu - gai - tik be - rak os - ka do - za - la

The third system concludes the musical score. The vocal line begins with a dynamic marking of *mf*. The lyrics "gu - gai - tik be - rak os - ka do - za - la" are written below the notes. The piano accompaniment continues with the established musical style.

*cres.* *sf*  
gu-gai.tik be-rak eu-ka de-za-la,

*mf* *cres.* *sf*  
e-gu-nen ba-ton ar hi-gai-te-sen

de-nok-ze-ru e glo-ri-an

*mf* *cres.*

da nok ze ru ko glo ri an.

*mf* *cres.*

*f* *cres.* *ff*

da nok ze ru ko glo ri

*f* *ff* *cres.* *ff*

Coro.

*mf* *f*

an. At ze gin an diz

*ff* *f*

*ff*

glo-ri-a-ite E-lo-ri-o: ko-e'-ri-a: bai-tu

*cres.*

*cres.*

su-e-re Do-mi-ni ko-res or-de-na-se me ak-o-

*cres.*

*ff*

*ff*

.-ri-o ce-ru-an: o-ri-ni ce-ru-an dauts ka-



*dol.*

palmate ko ro — ta e — ta be — ra da zu en

*dol.*

on — rra — ta Euz kal / e — rri ko glo — ri — a e — ta

*cres. — cen — do.*

be — ra da zu en on — rra — ta Euz kal e — rri ko glo — ri —

*cres. — cen — do.*

First system of a musical score. The vocal line (top) begins with a *ff* dynamic and the lyrics "Euz kal e- rri koglo- ri - a Euz kal". The piano accompaniment (bottom) starts with a *ff* dynamic and includes a *mf* dynamic marking in the right hand.

Second system of the musical score. The vocal line continues with the lyrics "e- rri koglo- ri - a : Euz kal e- rri koglo- ri -". The piano accompaniment features a *cres.* (crescendo) marking in both the right and left hands.

Third system of the musical score. The vocal line has a *ff* dynamic marking. The piano accompaniment is marked *ff* and includes a *ff* dynamic marking in the right hand.

# BALENDIN BERRIO OTXOA'RI

Musika:  
Francisco Bengoa:

Deun u-sain bi - gun go-zoz Biz-kai e - rri da -

*f* *mf*

Detailed description: This is a musical score for a vocal line and piano accompaniment. The vocal line is on a single staff with a treble clef and a common time signature (C). It begins with a rest, followed by a melodic phrase starting on a high note. The piano accompaniment consists of two staves, treble and bass clefs, with a common time signature. The right hand plays chords and moving lines, while the left hand provides a steady bass line. Dynamics include *f* (forte) and *mf* (mezzo-forte). There are also some performance markings like accents and slurs.

## PÍJI

be - te do - zu Ba - len - din zo • run - dun laz - ta -

**-nif** *m* **E** *m*

na. Zu Zu-re an-tze - ra Jain - ko - a bai be-ren A - ma mai - ta -tu -te ko in

Detailed description: This is a musical score for a vocal line and piano accompaniment. The vocal line is on a single staff with a treble clef and a common time signature (C). It begins with a melodic phrase starting on a high note. The piano accompaniment consists of two staves, treble and bass clefs, with a common time signature. The right hand plays chords and moving lines, while the left hand provides a steady bass line. Dynamics include *f* (forte) and *mf* (mezzo-forte). There are also some performance markings like accents and slurs.

da-rra bi - dal-du gu - ga - na. Zu-re u-me-ta -sun o -

na ta gaz-te - ta - su - na i - zan di - raE - lo-ri - on bejn e - der -

ta - su - na. gaur-ko u-me ta gaz-te - tan Jaun za - le - ta -

su - na Zuk za - bal - du e - gi - zu ta gar - bi mai - ta - su - na.

al  $\frac{3}{4}$  hasta  $\oplus$  y salta

$\frac{3}{4}$  hasta  $\oplus$  y salta

Tiples y contraltos

A - ba - de gei ja - kin - tsu ta jau - pa - ri al -

A - ba - de gei ja - kin - tsu ta jau - pa - ri al -

tsu - a i - zan zi - fian Lo - gro - fion guz -

tsu - a i - zan zi - fian Lo - gro - fion guz -

tiz mai-ta-tu- a, gu-re E-leiz gi-zo-ne-tan a-do-re san-tu

tiz mai-ta-tu- a mai-ta-tu-a, gi-zo-ne-tan a-do-re san-tu

a e-sa- rri e-gi-zu bai-ta goi be-ro su-tsu-

a e-sa- rri e-gi-zu bai-ta goi be-ro su-tsu-

a.

a.

Tiples  
 Tenores  
 Baritonos  
 Bajos

Ton-kin-en i-zan zi-ñan misiola - ri - a zeu-re gu -  
 Ton-kin-en i-zan zi-ñan misiola - ri zeu-re gu -  
 Ton-kin-en i-zan zi-ñan mi-sio-la- ri - a zeu-re gu -  
 Ton-kin-en i-zan zi-ñan mi-sio-la- ri zeu-re gu -

ra-riz ba-rriz las-ter mar-ti-ri - a, mar-ti-ri - a, ja-ri-txi  
 ra-riz ba-rriz las-ter mar-ti-ri - a, ja-ri-txi  
 ra-riz ba-rriz las-ter mar-ti-ri - a ja-ri-txi  
 ra-riz ba-rriz las-ter mar-ti-ri - a ja-ri-txi

Jau-na-gan-dik gu - ri be - sa - ria, fe - di - a, fe - di -

Jau-na-gan-dik gu - ri be - sa - ria, fe - di - a, fe - di -

Jau-na-gan-dik gu - ri be - sa - ria, fe - di - a, fe - di -

Jau-na-gan-dik gu - ri be - sa - ria, fe - di - a, fe - di -

Detailed description: This system contains five staves. The top four staves are vocal parts (Soprano, Alto, Tenor, Bass) with lyrics. The bottom staff is the piano accompaniment. The music is in a major key and 4/4 time. The lyrics are: "Jau-na-gan-dik gu - ri be - sa - ria, fe - di - a, fe - di -".

a gal - du bai - ño gu le - na goil - ti - a.

a gal - du ba - ño gu le - na goil - ti - a.

a gal - du ba - ño gu le - na goil - ti - a.

a gal - du ba - ño gu le - na goil - ti - a.

Detailed description: This system contains five staves. The top four staves are vocal parts (Soprano, Alto, Tenor, Bass) with lyrics. The bottom staff is the piano accompaniment. The music is in a major key and 4/4 time. The lyrics are: "a gal - du bai - ño gu le - na goil - ti - a.". The piano accompaniment includes triplets in the vocal line.



Deun u -sain bi - gun go-zoz Eus-ka -le -rri da - na be - te do - zu

Deun u -sain bi - gun go-zoz Eus-ka -le -rri da - na be - te do - zu

Deun u -sain bi - gun go-zoz Eus-ka -le -rri da - na be - te do - zu

Deun u -sain bi - gun go-zoz Eus-ka -le -rri da - na be - te do - zu

Ba - len - din zo - run-dun laz - ta - na, zeu -re an -tze - ra

Ba - len - din zo - run-dun laz - ta - na, zeu -re an -tze - ra

Ba - len - din zo - run-dun laz - ta - na, zeu -re an -tze - ra

Ba - len - din zo - run-dun laz - ta - na, zeu -re an -tze - ra

Jain-ko - a bai be-ren A - ma mai - ta - tu - te - ko in - da - rra bi - dal - du ni - ga -  
 Jain - ko - a bai be-ren A - ma mai - ta - tu - te - ko in - da - rra bi - dal - du ni - ga -  
 Jain - ko - a bai be-ren A - ma mai - ta - tu - te - ko in - da - rra bi - dal - du ni - ga -  
 Jain - ko - a bai be-ren A - ma mai - ta - tu - te - ko in - da - rra bi - dal - du ni - ga -

The score consists of four vocal staves (Soprano, Alto, Tenor, Bass) and a piano accompaniment. The lyrics are: Jain-ko - a bai be-ren A - ma mai - ta - tu - te - ko in - da - rra bi - dal - du ni - ga -

na.  
 na.  
 na.  
 na.

*ff*

The score consists of four vocal staves (Soprano, Alto, Tenor, Bass) and a piano accompaniment. The lyrics are: na. na. na. na. The piano accompaniment is marked *ff* (fortissimo).



*Martiren buruak eskegita.*



Handwritten musical notation for the first system, featuring a treble clef and a key signature of one flat. The melody is written on a five-line staff with various note values and rests.

Handwritten musical notation for the second system, continuing the melody from the first system. It includes a "D.C." marking at the end of the staff.

Handwritten musical notation for the third system, including a vocal line with lyrics in Indonesian. The lyrics are: "Ge-muk jenu aca ge nu eperak beruk jenu. Tonkinganemu e beruk tem Balanta Be-mi-o-isa en fiam fere-".

Handwritten musical notation for the fourth system, featuring a treble clef and a key signature of one flat. The melody is written on a five-line staff with various note values and rests.

Handwritten musical notation for the fifth system, including a vocal line with lyrics in Indonesian. The lyrics are: "Balanta Be-mi-o-isa en fiam fere-". It includes a "D.C." marking at the end of the staff.



# AURKIBIDEA

## Orrialdea

<b>BIZITZA</b> .....	5
Elorrio.....	7
Gurasoak.....	8
Jaiotza.....	10
Bateoagiria.....	10
Akolitu eta eskola mutil.....	11
Abadeki.....	13
Abade.....	16
Fraile.....	17
Indietara.....	20
Tonkinerako gertuten.....	22
Tonkinen.....	23
Erromara kontu emoten.....	27
Berotasunaketatzikikeriak.....	28
Beste urte beteko goraberak.....	29
Gurasoei idazten.....	31
Azken urtean.....	37
Martirioa.....	38
<b>ESKUTITZAK</b> .....	43
<b>Frailetu arte</b> .....	45
Elorrio eta Logroñon idatziak (1842-1853).....	45
<b>Frailetu ondoren</b> .....	79
Madrid, Ocaña, Cadiz, Manila eta Macaotik (1853-1858).....	79
<b>Tonkinen misiolari</b> .....	141
Andik idatzitakoen laburpenak.....	141
<b>GORESPENAK</b> .....	157
<b>Martiritza ondoren</b> .....	159
Gernikako Batzar Nagusietan.....	161
1863 urteko Dominikotar Fraileen Kapituloa Manilan.....	164
Liburu eta bertsoak.....	165
Azurren kezak.....	166
Zoriondu nairik.....	170
Euskaldunen peregrinazioa Erromara.....	171
Jaiak.....	175
Giro barrian.....	176
Santu aitortzaren billa.....	177
<b>Bertso, kantu ta idazki</b> .....	183
Berriotxoarenak-"Xenpelar".....	185
Erlikiari jarriak.....	190
Berrio-Otxoa eta bere etsaiak.- Ramos Azcarate.....	193

Valentin Berriochoari.- Juan Ormaeche.....	194
Guazen bizkaitar zintzo zintzoak (P. A. "Aberri").....	195
Lenengo Egutegi Bizkaitarra 1988.....	196
Bizkaitarren Ispillua.- Kepa Enbeita.....	197
Berrio-Otxoa martiriari.- Felipe Arrese Beitia.....	199
Nire izenaren zergatia.- Balentin Enbeita.....	203
1906 urtean agertua.- C. Jemein.....	204
Berrio-Otxoa tar Balendin.- Albizuri.....	205
Berriotxoa'tar Balendin.- Izurategi Abadia. ("Jaungoiko Zale").....	210
Berriotxoa'tar Balendin.- Izurategi Abadea. ("Euzkadi").....	212
Berriotxoa'tar Balendin deuntsua. ("Aranzazu").....	215
Baserritarrak. Balentin Berriotxoa. M. Lekuona.....	216
Agur, Balentin. (Musikadunak).....	218
Himno al Beato V. Berrio-Ochoa. Julio Valdés.....	221
Berrio-Otxoa'ri Goratarreak.- Arturo Intxausti - Kauldi Gallastegi.....	225
Gozuac Berrio-Ochoa Valentin Zorionecuari. Artiñano-Garita Onandia.....	227
Himno al B. Valentin de Berrio-Ochoa.- Valentin Zubiaurre.....	231
Balendin Berrio Otxoa'ri.- Francisco Bengoa.....	243
ElorriorL- R. M. Azkue.....	254
Aurkibidea.....	257